

Diglosiaren purgatorioaz Teoriatik tiraka

Mikel Zalbide

Euskaltzaina

zalbide@hotmail.com

Sarrera-data: 2011-04-28 | Onartze-data: 2011-05-31

Laburpena. Koldo Mitxelenak 1977 urtean *Euskararen liburu zuria* purgatorioari eginiko erreferentzia abiapuntu hartuta, Mikel Zalbidek *diglosia* terminoaren esanahiaren azalpen historikoa egin du txosten sakon honetan. Perspektiba metaforikotik harago joanez, perspektiba soziolinguistikoan landu du bere ibilbide historikoa, terminoaren jatorria, ibilbidea eta hedapenari buruzko irudi zabala eskainiz. Nagusiki Fergusonen eta Fishmanen lanetan oinarritu da egilea, ondoren soziolinguistika katalanak egindako hedatze handiari erreferentzia eginez. Bidean hainbat eta hainbat soziolinguisten lanak baliatu ditu terminoaren esanahiaren azalpenean. Azkenik, Euskal Herrian diglosia terminoak izan duen arrakasta sozial itzelaren inguruko hausnarketa proposatzen du. Azken batean, bere iritziz, nahasmendua ere sortu du diglosia terminoaren polisemiak, eta gainerako zientzietan bezala, terminoaren argitze bat proposatu nahi du lan-saio honen bitartez. Azpimarratzekoa da, nolana ere, hausnartzeaz gain, Zalbidek diglosiaren formulazio berri baten beharra aldarrikatzen duela, euskarak, hasi berria den mende honetan etorkizunik izango badu. • **Hitz-gakoak:** *diglosia, hizkuntza biziberritzea, konpartimentazio funtzionala, arnasmune linguistikoa.*

On the purgatory of diglossia. Along the lines of the theory. Taking as the starting point the reference made to purgatory by Koldo Mitxelena in 1977 in the *Euskararen liburu zuria* (White Paper on the Basque Language), Mikel Zalbide provides in this in-depth report an historical explanation of the meaning of the word *diglossia*. Going beyond the metaphorical perspective, he has developed his historical career in the sociolinguistic perspective by offering a broad image of the origin, development and expansion of the term. The author has based himself mainly on the works of Ferguson and Fishman and goes on to refer to the great expansion work done by Catalan sociolinguistics. Along the way he makes use of the works of numerous sociolinguistics experts to explain the meaning of the term. Finally, he proposes a reflection on the huge social success that the term diglossia has enjoyed in the Basque Country. In the end, he feels that the polysemy of the term diglossia has led to confusion and, as in other sciences, he is keen through this essay to propose that the term be clarified. It should be highlighted, however, that apart from reflecting, Zalbide is drawing attention to the need for a reformulation of diglossia if Basque is to have any future in this century that has just begun. • **Hitz-gakoak:** *diglossia, language renewal, functional compartmentalisation, linguistic breathing space.*

Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka AURKIBIDEA

1. Sarrerako azalpenak — 15

1.1 Argitze-saioa zergatik eta zertarako — 16

1.2 Argitze-saioa nola — 24

2. Zerua, purgatorioa eta infernua perspektiba soziolinguistikoan — 25

2.1 Perspektiba erlijioso eta metaforiko arrunta — 29

2.2 Perspektiba soziolinguistikoan — 30

3. Zehaztapen-saioa — 33

3.1 Diglosia terminoaren jatorria eta ibilbidea — 38

3.2 Gaurkoan alde batera utz litezkeen albo-gaiak — 83

3.3 Diglosiaren osagaiak, bere atributu edo ezaugarriak — 87

4. Egoera diglosikoan al gaude? Gero eta egoera diglosikoagoan?

Zein da gure egoera konkretua? — 93

4.1 Egoera diglosikoan al gaude? — 93

4.2 Gero eta egoera diglosikoagoan bizi al gara? — 96

4.3 Nola defini liteke euskaldunon egungo hizkuntza-egoera,
bere osoan hartuta? — 98

5. Diglosiaren garrantzia, euskara indarberritzeko orduan — 100

5.1 Beharrezkoa al da diglosia, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko? — 100

5.2 Aski al da diglosia, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko? — 111

5.3 Erraza al da diglosia, XXI. mendean? Ezinezkoa? — 115


5.4 Nolako diglosia behar da? — 117

5.5 Nolako diglosia da posible, hemen eta orain?

Community fostering — 122

BIBLIOGRAFIA — 126

OHARRAK — 134



**“Euskara-
erdarak hemen
izango dira
etorkizunean,
euskara bizirik
ateratzen bada,
eta beraz
hizkuntza
bakoitzak espazio
fisiko-
territorialaren,
sozio-
funtzionalaren
edo bien zati
bana bere mende
izan beharko
duela onartu
beharko dugu.
Hots, hizkuntza
bien (eta, beste
maila batean,
ingelesaren)
konpartimentazio
egonkor samar
bat diseinatu,
gizartean adostu,
inplementatu eta
egonkortu
beharra
daukagula”.**

1. SARRERAKO AZALPENAK

I Diglosiaren gaineko argitze-saioa izan nahi du txostenak. Saioa zergatik, eta nola, egingo den adierazi nahi da sarrerako azalpen honetan. Lan bat egiten dugunean, handi edo xume, gutxitan izaten da motiborik gabe. Motibo baten faltan bi ditu, izan, oraingoak. Joan den urri-azarotetan, Joshua Fishman irakaslearen etxean izan eta Euskal herrira itzuli berritan, zera komentatu nion Soziolinguistika Klusterreko arduradun tekniko Pablo Suberbiolari: merezi ligukeela diglosiaren gainean gogoeta-saio bat egitea. Ez ezinbestean jende askoren artean, eta ez gure arteko ikuspegi desberdinen epai modukorik egiteko. Bai ordea, aski ilun eta nahasi daukagun alorrean argi-izpiren bat edo beste bilatzen saiatzeko. Besterik ez balitz ere, gure artean indarrean dauden ikuspegi nagusiak zehazteko eta, ahal izanez gero, bateratu litekeena bateratzen saiatzeko. Berak baietz: bere ustez ere merezi zukeela. Horrela hasi ziren kontuak. Handik gutxira zera esan zidan Pablok: Klusterrak urtero eratzen duen jardunaldi teknikoa une eta leku egokia izan zitekeela. Nik baietz: proba egin gabe ez dagoela jakiterik eta, beraz, niregatik behintzat aurrera egiteko, argitze-saioari hizkuntza-soziologiaren alorreko perspektibatik heltzen bazaio eta ildo horretan barrena egiten bada ibilia. Esan eta egin: 2011ko otsailean, Klusterraren Soziolinguistikazko IV. Jardunaldiaren altzoan, egin zen txosten honen (bere azalpen laburtu eta, amaierako atalari zegokionez, osagabearen) aurkezpena. Hiru adituk, txostena aurrez eskuratu eta aztertu ondoan, beren iruzkin-ohar kritikoak egitekoak zituzten, nire aurkezpenaren osagarri. Batek azken orduan ezin izanik, beste biek (Paula Kasares eta Iñaki Martínez de Luna irakasleek) egin zituzten beren balioespen-oharrak, bihotzez eskertzen ditudanak. Orduko saioa osatu eta orraztu egin dut geroztik: hori da, irakurle, eskuartearen duzun txostena. Horra, beraz, orain dela lauzpabost hilabeteko asmo haren fruitua.

Ez nuke egia osoa esango, kontua atzeragotik ere badatorrela azalduko ez banu. Orain dela hiru bat urte, hainbatek gogoan izango duenez, *Euskara 21* izeneko batzorde-atala eratu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Euskararen Aholku Batzordearen altzoan¹. Nork geure ohar-iruzkinak egin genizkion oinarri-txostenari, eta elkarren artean eztabaidatu. Hainbat puntutan ez ginen batzordekideok bat etorri. Xabier Mendigurenek (Kontseiluaren izenean, antza) esan-irakurritako hainbat formulaziok, konkretuki, ez ninduen batere ase. Diglosiarik gabeko etorkizuna opa zion Mendigurenek, kontua gaizki ulertu ez baren, euskarari. Niri, berriz, euskara-erdaren etorkizunaz hitz egin be-

harra zegoela iruditzen zitzaidan, ez euskararenaz bakarrik. Alde horretatik ezinbestekoa ikusten nuen diglosiazko formulazioa kontuan hartzea. Ezinbestekoa eta, are, lehentasunezkoa.

Honela nioen txostenean: “Euskara-erdarak hemen izango dira etorkizunean, euskara bizirik ateratzen bada, eta beraz hizkuntza bakoitzak espazio fisiko-territorialaren, sozio-funtzionalaren edo bien zati bana bere mende izan beharko duela onartu beharko dugu. Hots, hizkuntza bien (eta, beste maila batean, ingelesaren) konpartimentazio egonkor samar bat diseinatu, gizartean adostu, inplementatu eta egonkortu beharra daukagula. Beste hitzetan esanik, eta inor gutxi poztuko dudala ongi aski badakit ere, diglosiazko formulazio berritu bat hil ala biziko eginkizuna dugu. Hori gabe jai du euskarak, hasi berria den mende honetan. Behar-beharrezkoa dugu konpartimentazio hori, handiak txikia jango ez badu. Bilaketa horretan xahutu behar genuke hortaz gure indar intelektualaren eta adostasun-bilaketaren parte nagusia, euskararen etorkizuna baldin badugu kezka-gai eta amets. Euskaldunok eta euskaltzaleok gara horren beharrenik, besterik uste badugu ere. Premia larriko beharra da hori, gainera: denbora gure kontra doa”.

Orduan edo hurrengo bilaldian, bilera amaitu ondoan, honela esan zidan Xabierrek: “diglosiaren alde mintzo haizelarik, zer duk justu-justu gogoan?”. Eta nik erantzun: “pasa iezadak paper-mutur bat, galdera-eskabide zehatzarekin, eta saiatuko nauk idatziz azaltzen”. Halaxe egin zuen berak, eta ustezko fetxa jarri nuen nik, erantzuteko: “ea Gabonak alderako”. Lekutan gelditu dira 2008ko Gabonak. Ez da ahaztu izanaren kulpa, ez eta nagikeria edo hitza betetzeko interesik eza. Nahi izatea ez da, beti, aski izaten. Geroagoko utzi behar izan nuen azalpena emate hori: une hartan banuen lehendik hitza emandako eginkizunekin eskua bete lan, bestelako eginbehar larririk ere atera zitzaidan bidera, handik gutxira, eta horra noraino luzatu naizen. Orduan emandako hitzaren kitagarri ere balio izango al du, beraz, oraingo txosten honek. Intentzio horrekin ari izan naiz, behintzat.

1.1 Argitze-saioa zergatik eta zertarako

Zergatik saioa egin? Erantzuna, lerro bakarrean eman behar bada, argia da oso: “diglosia” diogunean zer diogun, eta zer ez, argitzen saiatzeko. Horretarako eta, 2008ko ohar-iruzkin hartan esaten nuen moduan, “bilaketa horretan xahutu behar genuke(elako) (...) gure indar intelektualaren eta adostasun-bilaketaren parte nagusia, euskararen etorkizuna baldin badugu kezka-gai eta amets”. Bilaketa horrek alderdi bat baino gehiago du: lehenengoa, kronologiaz bederen lehenengoa, terminologia

Saio bat baino gehiago egin da izan mundu zabalean, azken mende-erdi honetan, diglosiaren inguruko adostasun terminologiko-kontzeptuala (erabatekoa ez bada oinarri-oinarrizkoa bederen) eskuratzeko (azkena 2002an, aurrerago ikusiko dugunez). Alferrik izan dira orain arteko saioak, eta aurrez n definizio diferente zeuden lekuan $n+1$ ($n+m$) definizioekin bukatu izan dugu halakoetan, sarri asko.

bera argitzea. Egundoko nahaspila daukagu, izan ere, hitz horren jirabueltan. Egia da ez garela bakarrak munduan, hanka horretatik herren egiten dugunak: beterik dago atzerriko bibliografia teknikoa ere, alde edo moldez, *diglosia* kontzeptuaren formulazio dibergentez eta, are, bateraezinez. Hori dela-eta saio bat baino gehiago egin da izan mundu zabalean, azken mende-erdi honetan, diglosiaren inguruko adostasun terminologiko-kontzeptuala (erabatekoa ez bada oinarri-oinarrizkoa bederen) eskuratzeko (azkena 2002an, aurrerago ikusiko dugunez). Alferrik izan dira orain arteko saioak, eta aurrez n definizio diferente zeuden lekuan $n+1$ ($n+m$) definizioekin bukatu izan dugu halakoetan, sarri asko. Mundu zabaleko egoera terminologiko-kontzeptuala hori izanik ez da harriztekoa, hortaz, guk ere antzeko ezintasun-mugak agertzea: are, aurreraxeago azalduko dugunez, ezintasun-muga horiek arras nabarmendurik izatea. “Besteak ere antzera baldin badabiltza, ez dugu zertan larritu” leloak ez gintuzke lasaitu behar: besteren gaitzak ez gaitu, izan ere, apurrik apurrenean sendatuko.

Has gaitezen beraz errazenetik: terminologiazko ohar xumeetatik. Hitz batek adiera bi, hiru edo gehiago izatea ez da, berez, salbuespen larria. Hizkuntza orotan izan ohi dira hitzak, eta ez gutxi, adiera bat baino gehiago dutenak. Hitz horiek polisemikoak direla esan ohi da. Polisemia ez da berez, euskaraz zein erdaraz, inolako nobedade eta inolako kalte. Kasu guztiak ez dira ordea berdinak. Are gehiago: terminologia teknikoa izan ohi da, normalean, polisemia txikieneko esparrua. Termino tekniko askoren definizioa (erabatekoa edo, gutxienez, aldian aldiko definizio operatiboa) ongi zehaztua egon ohi da gehienetan. Adinez eta lanbidez osatera bertsua dugun hiztun-idazleok antzeko adieraz erabiltzen dugu, hori dela-eta, gure lan-esparruko hainbat termino tekniko: horrela, *deklinabide*-atzikien sailean sartzen dugu gehienok *-(r)ekin*, eta *eratorpen*-atzikien sailean *-(t)asun*. Argi dago zergatik: *deklinabidea* eta *eratorpena* aski era unibokoan definiturik dauzkagu gure artean, eta inor gutxiri entzungo diogu esaten *deklinabide*-atzikia denik *-(t)asun*, eta *eratorpen*-atzikia *-(r)ekin*. *Deklinabidea* eta *eratorpena* aski era unibokoan definituriko kontzeptuak dira gure (laurogei urtetik beherako euskaldun alfabetatuon) artean, eta elkarren arteko kontzeptu-nahasketaren arriskua txikia da oro har.

Badira tartean, ordea, aski adiera diferentz (zenbaitetan, antagonikoz) erabiltzen ditugun terminoak. Bai eguneroko hizkera arruntean eta bai terminologia teknikoan ere. Bai euskaraz eta bai erdaraz. Terminologia teknikoari dagokionez, kontzeptu abstraktu oinarritzkoenetan gertatzen da hori, besteak beste. Hizkuntzalaritzaren alorrean, horrela, Holm-en hitzetan esanik “there are problems in defining the most basic

concepts in language: *word, sentence, dialect*, and even *language* itself. Our definitions, like our grammars, often leak: they fail to account for the endless variety of reality”. Azken horietarikoa da *diglosia*. Ikasketaz edo lanbidez hizkuntza-soziologiarekin (edota, horren barruan, hizkuntza-plangintzarekin) urteetako harremana dugunok, hizkuntza-politikaren alorrean zentratuago ibili ohi direnek eta, kazetari asko barne, hitz horren aldaera popular-arruntaz baliatu ohi direnek aski adiera diferenteak eranstean dizkiogu/te *diglosia* hitzari. Zaila izaten da, horregatik, argitasun handirik ateratzea “*diglosia*”ren txapelpean hemengo edo ez dakit nongo hizkuntza-egoeraz, oraingoaz edo lehengoaz, egin ohi dugun hainbat ekarpenetan. Jakintza-alor honetako kontzeptu zentrala dena, eta gure jardunean hala izan behar lukeena, hortik kanpoko ikuspegi konkretuz kargatua daukagu: bestelako interesez eta, sarri, konnotazio peioratibo zabarrez².

Zenbaiti txikikeria irudituko zaio terminologia teknikoaren alorreko adiera-aniztasun hori. Ez dut uste hala denik. Funtsezko kontzeptua da *diglosia*, hartzen den adiera-aukera hartzen dela³. Hain funtsezkoa non, sarri asko, erreferentziatzko konstruktua moduan hitz horixe hartzen den hiztun-talde baten analisi deskriptiboa, zinetikoa, dinamikoa, prospektiboa edo preskriptiboa egiteko. Hainbateko eragin teorikoa duen termino bat ezin liteke, zientzia-arauz ari bagara, gutxien-gutxienez definizio operatibo bat zehaztu eta, ahal den heinean, adostu gabe erabili. Kontzeptuzko eztabaida eta argitze-lana, edozein jakintza-gaitan hain noraezekoa dena, erabat oztopatzen du gabezia horrek.

Adostasun-lanketa horrek ez dizkigu arazo guztiak konponduko: ez guztiak eta ez larrienak. Hori ere garbi izan behar dugu, ezertan hasi aurretik. Arazo *batzuk* konponduko bagenitu, halere, bagenuke zerbait irabazia. Argitasun kontzeptuala eskuratuko genuke, lehenik: eztabaidaren muinera errazago joko genuke batzuek eta besteok, termino horrek zer kontzeptu (kontzeptu-multzo) basiko biltzen duen jakingo bagenu. Hori bakarrik ez. Terminologiazko aniztasuna ez da kapritxo-kontu hutsa izaten: sakonagoko desadostasun kontzeptualen edo hurbilbide metodologiko dibergenteen oihartzuna (zenbaitetan, horrezaz gainera, diferentzia ideologikoen estalkia) izan ohi da sarri bereizketa terminologiko horren azpian. Sakoneko desadostasun kontzeptuala eta metodologikoa ez digu adostasun-lanketa terminologikoak *per se* ezabatuko⁴. Hartarako bidean jar gaitzake ordea: elkarren arteko argitze-lanari orain ez bezalako oinarria eta abiaburua eskainiko genioke, gutxienez. Ikusiko genuke gero, Bilbotik Londresa joateko trena hartzea komeni den ala abioia. Horretara iritsi gabe ere, hegalak dituen hegazkina dela, eta

Adiera teknikoa du diglosiak batetik, eta adiera popularra bestetik. Biei egin beharko diegu kasu nahiz eta, aurrera begira, hitzaren adiera teknikoa zehaztea den gure jomuga .
Adiera popularraren kontu hori ez da hemengoa bakarrik, bestalde: beste hainbat hiztun-elkartetan ere (motibo jakinengatik, ez kasualitate itsuz) agerikoa (izan) da adiera konnotatibo hori.
b) Diglosiaren adiera teknikoaren barruan ere joera bat baino gehiago nabarmentzen dira.

burdinbidean atzera-aurrera dabilena tren, argi izango genuke terminologia-kontuak argitzearekin. Ez ote da hori, bere xumean eta mugatuan ere, saiatzea merezi duen apustua?

Hori da, labur esanik, argitze-saio honekin zabaldu nahi genukeen ildo: konpondu litezkeen desadostasunak konpontzen saiatzea, gure jakintza-esparruaren onean. Horren onean eta, begi-luzeegi izatea ez bada, gure hizkuntza-egoeraren zer-nolakoaz, zergatikoaz eta nondik norako posibleez eskaintzen ditugun ekarpenen kalitatea hobetzen laguntzeko. Aukeratu den formatua, oinarri-txosten batez ikuspegi nagusia azaldu, zazpi adituk oinarri-txosten hori analizatu eta kritika-oharrez hornitu eta, azkenik, kritika-oharrei baterabilduzko erantzuna emanaz azken ondorio-txostena osatzekoa, ez dut uste okerrena denik argitze-saioa elkarlanean bideratzeko.

Desadostasun terminologikoaz ari garelarik, ohar pare bat egitea komeniko da aurrerago gabe: a) Adiera teknikoa du *diglosiak* batetik, eta adiera popularra bestetik. Biei egin beharko diegu kasu nahiz eta, aurrera begira, hitzaren adiera teknikoa zehaztea den gure jomuga⁵. Adiera popularraren kontu hori ez da hemengoa bakarrik, bestalde: beste hainbat hiztun-elkartetan ere (motibo jakinengatik, ez kasualitate itsuz) agerikoa (izan) da adiera konnotatibo hori. b) Diglosiaren adiera teknikoaren barruan ere joera bat baino gehiago nabarmentzen dira⁶. Funtsean adar nagusi bi bereizi izan dira: diskurtso soziolinguistiko teoriko arrunta batetik, eta diskurtso politiko-ideologiko jakinaren gidaritzapean eraikitakoa bestetik.

Diglosia hitzaren adiera popularrak erabateko indarra eta tiradizoa du Euskal herrian. Hala izan du 70eko hamarkadatik hona eta, garai bateko bits-aparrak asentatzen-edo hasi badira ere bazterretan, hala du orain ere. Adiera hori hain da popularra, hain da ezaguna eta zabal hedatua non askok, oinezko zein zaldun, aparteko definizio- edo esplikazio-beharrik gabe ontzat ematen duen, eta maiz erabiltzen. Ahuldutako hizkuntzaren osasun-egoera (euskararen egoera, konkretuki) axal-axaletik deskribatzeko eta egoera hori arras negatiboki baloratzeko erabiltzen da *diglosia*, bereziki, adiera popular horretan. Hitzaldi eta irratsaioetan aspertzearaino entzundakoez gainera ehunka (agian milaka) aipamenez betea dago gure bibliografia idatzia. Duda egiten duenak jo beza 1970 ingurutik honako testuetara, berdin du hemerrotekak hartu jakin-iturri, edo liburutegiak. Urteen joanean, egoerak hobera egin du hainbatean. Jokabide horretako adibiderik ez da falta ordea, orain ere, gure artean. Euskararen alde egindako hainbat lan ondo dagoela baina “egoera diglosiko honetan” ez dagoela aurrera egiterik esango dizu Ur-

liak. Gure euskal eskoletako “haur diglosikoak” aipatuko dizkizu Sandiak, eta garai batean sortutako “komunikabide diglosikoak” zein kaltegarri diren gogoraziko digu Berendiak. Balioespen horien guztien buru, oso bereziki, “hizkuntza-politika diglosiko” hau, hori edo hura deitoratuko du hainbat euskaltzalek. Ondorioa, beti bat: “diglosiazko egoera zarpail honetan, ezin atarramentu onik atera”. Diglosiak horixe esan nahi baitu, hamar euroko hitzak alde batera utzita, adiera popular horretan: egoera zarpaila, euskararentzat eta euskaldunontzat trantze larrikoa, agonikoa, bizi-itxaropenik gabea. Norbaitek pentsa dezake ezjakintasunaren ondorio hutsa dela hori. Ez da ezinbestean horrela: hori baino erro zabal eta sakonagoak ditu diglosiaren adiera popularrak⁷. Zehar-lerrokoa, transbertsala da gainera adiera hori. Berdin lokaliza liteke panfleto itxurazko testu xumeenetan zein dokumentu jantzi, formal, akademikoetan: baita unibertitate alorreko autore adituen ekarpenetan ere. Azken horiei dagokienez oso deigarria gertatu izan zait, beti, Gotzon Garate irakasleak 2000. urtean argitara emandako “Euskal Herria elebidun” artikulua. Izan dira gure artean gai horri atentzio monografiko handiagoa eskaini diotenak, baita gogoeta-lan hori alderdi-politika jakinen termino hertsietara ekarri dutenak ere. Ez dut uste, ordea, artikulua hartako sintesi-lan gotorrik eskaini denik inoiz⁸. Honela zioen Gotzon Garate irakasleak, labur bilduz, 2000. urteko artikulua hartan:

a) Diglosia galgarrian bizi gara. Hasteko eta bat: euskaraz gutti egiten da. Gero eta jende gehiagok dakite euskaraz. Erdara nagusi da, ordea, Euskal Herri osoan. Ez bakarrik Bilbon, Donostian, Iruñean, Gasteizen, Baionan... Zoaz Tolosara, Beasainera, Eibarrera, Bermeora, Arrasatera... ia ez duzu euskararik entzungo. Jendea parra-parra erdaraz ari da. Soziologoek esaten dutenez Euskal Herrian egunero egiten den euskara ez da %10era iristen. %90 erdaraz egiten da. (83-4. or). (...) Euskara gainbehera doa. Gipuzkoan gizaldi honen hasieran %85 euskaraz egiten zuten eguzkiz eguzki. Eta ongi hitz egin ere. Egun %40k baldin badakite, %20k ez dute euskaraz egiten. Egungo egunean Gipuzkoako herrietan erdara da jabe. Euskaraz dakitenek ere, ez guttik, espainolez hitz egiten dute lasai asko. (85. or.).

b) Egiten den euskara gero eta kaxkarrago eta urriago egiten da. Gero eta txepelago eta erdal usaintsuago. Egunero ikusten dugu. Geure gurasoen euskararen eta egungo eguneko euskararen artean, leize handia dago. Gure gurasoen euskara zaulia, bikaina, noranahikoa, aberatsa zen. Lexikoan erdal hitzak sartzen zituzten. Ongi sartuak. Hizkuntza ez baita lexiko berria hartu duelako alferrik galtzen,

Diglosiak horixe esan nahi baitu, hamar euroko hitzak alde batera utzita, adiera popular horretan: egoera zarpaila, euskararentzat eta euskaldunontzat trantze larrikoa, agonikoa, bizi-itxaropenik gabea.

Euskararen erabilerak atzera egin du oro har, ez aurrera, XX. mendean, euskal hiztun askoren gaitasun-maila ahulduz joan da oro har, eta egungo egunean egiten den euskara hori erdal interferentziaz hornitua ageri ohi zaigu sarri.

lehenago aberastasuna galdu eta batez ere egitura aldrebestu egiten delako baizik. Alde ederra Auspoa-n irakurtzen dugun lehenago euskara bikainaren eta egungo egunean maiz idazten den euskararen artean. Euskara ahuldu, gogortu eta gaixotasunak hartua dago. Anitzek esaten duten bezala, maiz plastikozko euskara egiten da. Tradizioa eten egin da. (85 or.) Gazteleraren eragina izugarria da. Euskara alor askotan erdararen itzulpen hutsa da. Berriz esan behar da: diglosian bizi gara. Hortxe dago kontua. (85-6 or.).

c) Nire ikasleek, bizpahiru kenduta, euskaraz baino espainolez hobeki dakite. Idazterakoan, euskaraz erdaraz baino huts gehiago egiten dituzte. Ingelesez ere ez dakite ongi. Ondo espainolez dakite. Euskaltzain bati entzun nion: “Euskaltzaindiko batzuk euskaraz baino hobeto dakite espainolez”. (...) Baserrietan bertan ere izugarrizko aldaketa ikusten ari gara. Oraingo biloben euskara eta aitona-amonen euskara oso bana dira. (85-6 or.) (...) Erdararen eragina euskaraz entzutetsu diren idazleengan ere suma liteke. (93-4). (...) Erdarak alderdi askotarik inguratzen gaitu. Diglosia gorrian bizi gara. (98 or.).

d) Herria elebidun ezin izan. Usteok erabat oker dira. Herri batek ezin du bi hizkuntzez ongi hitz egin. Ez da sekula izan eta orain ere ez da munduan bi hizkuntzez mintzo den herririk. Euskaldunok herri berezia garela eta bi edo hiru hizkuntzez egin dezakegula pentsatzea amets hutsa da. Ez da horrelako herririk izan. Bi hizkuntzez mintzo ziren herrietan bata besteari nagusitu egin zaio eta azpikoa galdu egin da. Egungo egunean ere gauza bera gertatzen da. Ziur egon gaitezke: Euskal Herrian euskara nagusituko da ala erdara. Biek elkarren ondoan irautea ezinezkoa da. (82. or.). Elebitasunean ez: diglosian bizi gara Euskal Herrian. Garbi esan dezagun: euskara galtzori gorrian dago elebitasuna dela kausa. (83 or.) (...) Ez da izan eta ez da sekula izango bi hizkuntzez ondo mintzatuko den herririk. Euskal Herriaren hizkuntza euskara izango da ala espainola edo frantsesa. Eta aurrerakoan ere orain arteko bidetik joanez gero, se-guru baino seguruago azken biok bakarrik geldituko dira bizirik Euskal Herrian. (99 or.) (...) Euskal Herrian elebitasuna erdaldun herrian sartzeko zubia da. Zubi horretan gaude orain: diglosian. Hurrengo urratsa denok espainolez hitz egitea izango da eta Iparraldean frantsesez. Geure buruok engainatzen ari gara elebitasuna aldarrikatuz. Euskal Herrian espainola ala euskara garaile aterako dira. Biak garaile ateratzea ezinezkoa da.

e) Euskaldunon jokabideak hauxe izan behar du: euskaraz egin be-

har dugu eta *ahal izanez gero ingelesez ikasi*, estranjeroekin (espainolekin eta frantsesekin, adibidez) berba egiteko. Hau egiten ez badugu, gureak egin du. (100 or.).

Zaila da, esan bezala, Gotzon Garateren artikulu hori baino azalpen argi eta sarkorragorik aurkitzea gure artean. Bertan egiten den deskribapen horrek, intentsitate eta perspektiba kontuak alde batera utzita une batez, ezin ukatuzko *factum* jakinak ditu berekin. Honako hiru hauek, besteak beste: a) *language shift* edo luze-zabaleko mintzaldaketa ari da gure artean gertatzen eta, hori dela medio, euskaraz gutxi egiten da: gero eta gutxiago; b) egiten den euskara hori, gainera, gero eta kaxkarragoa da: gaztelaniaren eragin handia du; eta c) euskaldunek errazago eta beteago egiten dute erdaraz, euskaraz baino: ikasleek, euskaltzain batzuk, euskal idazle jasoek,.. baita baserritarrek ere.

Ba ote da gure artean, ñabardurak ñabardura, azken mendea hartzen bada konparaziorako joera hirukoitz horren oinarritzko egia ukatuko duenik? Ez dut uste. Hizkuntza-kontaktuak, ukipenak edo dena delakoak ondorio jakinak izan ohi ditu han-hemen, mundu zabalean bezala, eta ondorio jeneral horien barnean txertatzen dira bete-betean Garate irakaslearen hiru gertakariak⁹. Bat dator bere diagnostiko hori, hizkuntza-soziologiak azken berrogeita hamar urteotan eskuratu, metatu eta zabaldu duen zientzia-arauzko ezagutzarekin. Horrezaz gainera deskribapena bera, zabalkunde jeneraleko kultura-aldizkari batean azaltzekoa izanik bereziki, oso da argia eta argigarria. Ezin ukatuzko egia hirukoitz baten berri ematen digu irakasle unibertsitario trebeak: euskararen erabilerak atzera egin du oro har, ez aurrera, XX. mendean¹⁰; euskal hiztun askoren gaitasun-maila¹¹ ahulduz joan da oro har; eta egungo egunean egiten den euskara hori erdal interferentziaz¹² hornitua ageri ohi zaigu sarri. Zuzen dabil horretan, zeharo zuzen, nahiz eta mila xehetasun erants dakiokkeen koadro nagusi horri.

Oso bestelakoak dira, aldiz, artikulu haren beste zenbait puntu. Batez ere hiru hauek: a) diglosia gorrian bizi gara euskaldunok; b) diglosia hori galgarria da *per se* (bera da gainbeherako joera hirukoitz horren erantzule nagusia, ia bakarra¹³); eta c) euskaraz egin behar dugu eta ahal izanez gero ingelesez ikasi, espainolekin eta frantsesekin berba egiteko. Hirugarren puntua geroko utzita, zentra gaitezen lehenengo bietan: “diglosian bizi gara, eta diglosia hori galgarria dugu”. Horrela al dira kontuak? Seguru al gaude diglosia gorrian bizi garela eta diglosia hori galgarri dugula? Zertan oinarritzen gara, hori baieztatzeko? Aurrekoetan ez bezala, oraingoan ez dago hain argi mundu zabaleko zein

**Perspektiba
soziolinguistikotik,
jakintza-gaiaren
ikuspegi
akademikotik,
heldu nahi
genioke azalpen-
saioari. Jakin
badakigu
diglosiaren beste
perspektibarik
(hizkuntza-
politikaren
gidaritzapekorik)
badela tartean
eta, bereziki,
diglosiaren
bertsio popularra
ere bizirik gure
artean dugula.
Lehen
perspektibari
heldu nahi zaio
hemen, ordea,
beren beregi.**

formulazio akademikotan, eta gure arteko zein ikerlanetan, oinarritzen garen baieztapen horiek egiteko. Problema, problemaren zati bat behintzat, terminologiko-kontzeptuala dugu: zer “diglosia”z ari zaigu hor Gotzon Garate? Testuari orpo orpo atxikirik, eta bestelako ezagutzarik gabe, ez dago hori zehatz jakiterik: artikulugileak ez digu “diglosia” horren zehaztapen handirik eskaintzen, ez definizio operatiboren baten laguntzaz eta ez han-hemengo bibliografia teknikora bidaliz. Bistan dago zergatik: katalan-herrietatik (Printzipatutik baino areago Valentziatik) etorritako *diglosia* hitzaren adiera popularraz ari zaigu hor irakasle jakitun eta euskaltzale fina. Berak badaki seguruenik (unibertsitateko irakaslea dugu, ez kale gorriko iritzi-emailea) *diglosia* hitzak, adituen definizio klasikoak gorabehera, bestelako formulaziorik ere izan duela¹⁴. Badaki, bereziki, bestelako formulazio horren bertsio popularra jaun eta jabe dela gure artean, 70eko hamarkadatik aurrera. Definizio klasikoak zein aipamen bibliografiko zehatzak alde batera utzita adiera popular horretaz baliatzen da artikulugilea: zabalkunde (gure artean) handiko kultura-aldizkari batean ari da, ez Deustuko ikasgelan. Hizkuntza-soziologiako adituak baino areago euskalgintzaren esparruko gizon-ema-kume konprometituek ditu/gaitu, oro har, irakurle. Abantaila handia, izugarritzko bentaja du halakoetan adiera popular horrek: euskaltzaleoi ez dago diglosia zer den definitu beharrik; “mundu guztiak daki” zer den diglosia. Ez da hori, inondik inora, Gotzon Garateren kritikarik txikiena. Oso bestela: gure arteko funtzionamendu nagusi baten azalpen argia izan nahi du, elgoibartar handiaren artikulua erakargarria eskumutil harturik, azalpentxo honek.

Egoera hori izanik, merezi al du adostasun-lanketan saiatzea? Baietz uste dut. Iritzi horretan ez naiz bakarra. Hemendik kanpora ere benetako arazoa dago kontu horrekin, eta bada argitze-lan horri kalte baino mesede gehiago ikusten dionik. Honela dio Christina Bratt Paulston-ek: “What will a privileged discourse of diglossia accomplish, which the present diversity and disagreements over meanings cannot achieve? To begin with, what the present diversity achieves is considerable confusion. “There is nothing so practical as a good theory” is a frequently cited maxim, usually ascribed to A. Kaplan. It is practical and helpful because a good theory, constructed with robust concepts, will allow us to arrange and order seemingly chaotic phenomena of social language use into familiar patterns”. (Paulston, 2001: 128). Bere hitzak labur bilduz: ez dago teoria on bat baino gauza praktikoagorik, lehenengoz Kaplanek esana izan behar duen moduan; mintzajardunaren giza arteko moldaera-kontuen ezagutza bere onera ekartzen lagun dezake kontzeptu

sendo eta argi batek, egungo konfusio-giroa gaindituz. Itxuraz zeharo diferenteak diren eta nondik heldu ez dagoen fenomenoak eskuragarri eta erabilgai bihur ditzake. Ez da gutxi.

1.2 Argitze-saioa nola

Gaia jendaurrean azaldu eta bizpahiru kidek, jendaurrean orobat, nik esandakoaz beren oharrak (aldekoak eta kontrakoak) egitea Jardunaldiaren baitan: hori da saio honentzat aukeratu den formatua¹⁵. Ondoren, Bat aldizkarrirako prestatuak, orotara zazpi lagunek egin diote ekarpena txosten honi. Ez da agian formula erosoena, bai ordea gardena eta, elkarrenganako errespetuz bideratzen badugu, argigarria. Perspektiba soziolinguistikotik, jakintza-gaiaren ikuspegi akademikotik, heldu nahi genioke azalpen-saioari. Jakin badakigu diglosiaren beste perspektibarik (hizkuntza-politikaren gidaritzapekorik) badela tartean eta, bereziki, diglosiaren bertsio popularra ere bizirik dugula gure artean. Lehen perspektibari heldu nahi zaio hemen, ordea, beren beregi. Besteei ere, zeini bere esparruan, dagokien (eta kasuakasu dagokien neurriko) begirunea zor zaiela onartuz, perspektiba soziolinguistikoko diglosiaren inguruan zer kontzeptu-lanketa eta zer zehaztapen egin duen argitu nahi genuke batez ere. Bertsio popularraren arabera detaileen bila dabilenak ez du beraz, txosten honetan, argitasun handirik jasoko. Diglosiaren ildotik euskara-erdaren formulazio eta *desiderata* politikoak egin nahi dituenak ere ez gehiegi, egia esateko. Horientzat saiatuko gara, halere, txostenaren azken atalean gogoetaren bat edo beste eskaintzen.

Gatozen mamira. Eztabaidarako azalpen-saioak honako elementuok ditu, nagusiki, berekin: Zer dira *purgatorioa*, *zerua* eta *infernua*, perspektiba soziolinguistikoa? Zehaztapen-lana: terminoaren jatorria eta ibilbidea; momentuz albo batera utz litezkeen elementuak; diglosiaren gutxienezko osagaiak; zehaztapen-saioaren garrantzia, hizkuntza-soziologiaren aitzinamendurako eta ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan lehenetsun-lerroak argi definitzeko.

Esan gabe ezin utziko dut, azkenik, lan hau nola egin den: korrika eta presaka. Txistu bizian. Ez da lehenengo aldia hala jardutea suertatzen zaidana, baina lehengoak ez du oraingoa ezabatzen. Denbora-falta horrek, txostenaren egosi-arin kutsuaz gainera, bestelako ondorioak ere izango ditu seguruenik. Kontraste-lana behar bezain sakon eta zabal ezin egin izana, besteak beste. Nahiago nukeen, nolana ere, Ferguson-en lanak (batez ere 90eko hamarkadako erreparosoa) patxadaz irakurtzeko astia izan banu: ez da ordea posible izan. Nahiago nukeen, era berean, Fishman-ek diglosiaz (aurrez aurre edo bidenabar) idatzi eta, aldian-aldian osatuz, ondu dituen artikulu guztiak (artikulu nagusiak bederen, 1967kotik hasita)

**Eztabaidarako
azalpen-saioak
honako
elementuok ditu,
nagusiki,
berekin: Zer dira
purgatorioa,
zerua eta
infernua,
perspektiba
soziolinguistikoa?
Zehaztapen-lana:
terminoaren
jatorria eta
ibilbidea;
momentuz albo
batera utz
litezkeen
elementuak;
diglosiaren
gutxienezko
osagaiak;
zehaztapen-
saioaren
garrantzia,
hizkuntza-
soziologiaren
aitzinamendurako
eta ahuldutako
hizkuntza
indarberritzeko
orduan
lehentasun-
lerroak argi
definitzeko.**

berriz irakurtzeko astirik izan banu: hori ere ez da, bere osoan, posible izan. Beste askorenak ere, Mauro Fernández-enak eta Alan Hudson-enak barne, nahi baino arinago (berr)irakurri behar izan ditut, horrek ezinbestean dakarren hipotekarekin. Etxeko artikuluetan, Txepetx-enak izan ditut lehen-lehenik gogoan. Lehenik eta oroz gain. Horri buruzko gogoetak argitaratu ziren ordea, BAT aldizkariaren 77. zenbakian, eta han esandakoak ez ditut hemen alderik alde errepikatuko. Egia da, bestalde, nekeza gertatu izan zaidala (Klusterak laguntasunik eskaini badit ere horretan) bertako adituen irakurketa patxadatsurik egiten. Gotzon Garateren eta Joxe Manuel Odriozolaren, Maria Jose Azurmendiren eta Patxi Juaristiren, bai eta beste zenbaiten oharrak (gutxitan artikulua osatuak) irakurri eta balioztatzeko aukera izan dut. Denbora faltak horretan ere muga hertsia ezarri dit ordea. Litekeena da, hori guztia dela medio, kontuan izan behar nuen hainbat gogoetagileren ekarpenak bide bazterrean utzi izana. Diodan, halere, jakinaren gainean heldu diodala bide honi eta, horrenbestez, nire moztadeen (goiko horien eta beste zenbaiten) jakitun eta erantzule naizela. Guztian ez naiz, gainera, hain-hain mugaturik ibili: 2002ko eztabaida-saioa, *International Journal of the Sociology of Language*-n 157. zenbakikoa, oso-osorik ez baina bai hiru laurdenetik gora berrirakurri dut eta, horrenbestez, ustez mende honetan diglosiaz egin den gogoeta-saio akademiko sakonena¹⁶ buruan dudala heldu diot lumari.

Azalpen-saio honek, hitzak berak dioenez, *saioa* izan nahi du: une batean noraino iristeko gai izan garen neurtzeko lekua eta, hortik aurrera egin nahi bagenu, hartan saiatzeko akuilua.

2. ZERUA, PURGATORIOA ETA INFERNUA PERSPEKTIBA SOZIOLOGIASTIKOAN

I
Euskarak (zehazkiago, euskara-erdarek) gure artean izandako ibilera historikoaz, une hartako egoeraz eta begien bistako etorkizun-aukerez gogoeta-lana burutzea adostu zuten Euskaltzaindiak eta Lankide Aurrezkiak, Franco hil berritan¹⁷: Siadeco etxeari eman zioten langintza hura bideratzeko ardura¹⁸. Liburu ezagun batean bildu zen langintza zabal haren lehen ekarpena. *Euskararen Liburu Zuria* esan zitzaion argitalpen hari euskaraz. Erdaraz, jatorrizko bertsiolan alegia, *El Libro Blanco del Euskara*. Egindako lan handiaren giltzarri, sarrera moduko bat komeni zela ikusi zuten gogoeta-lanaren arduradunek: pertsona kualifikatu batek, ikuspegi jaso eta zehatzetik, egingo zukeen sarrera modukoa. Halakorik egingo al zuen galdetu zioten Koldo Mitxelenari. Artikulu goangarria idatzi zuen errenteriarrak: “El largo y difícil camino del

euskara”¹⁹. Idazlanaren amaiera gisa ondoko pasarte hau eskaini zigun: “Hay una corriente, extensa y potente al parecer, que no solamente no se resigna a ver impasible la pérdida de la lengua, sino que tampoco acepta que se la cuide como una reliquia venerable, de la que nadie espera favores y milagros. Un festival de cantantes, que han venido a sumarse a los bersolaris, no es la peor ocasión para apreciar este estado de ánimo. Hay, a mi modo de ver, un cierto peligro en nuestra arraigada inclinación al voluntarismo, en nuestra creencia de que todo es posible, con tal de quererlo. No puedo desconocer los efectos milagrosos de la utopía, porque tengo algunos delante de los ojos. Preferiría, sin embargo, por si acaso, que la ilusión y el entusiasmo, sin los cuales jamás se ha hecho nada práctico, fueran acompañados y hasta precedidos de un cálculo, lo más preciso posible, de lo que queremos conseguir, de las fases en que esperamos alcanzarlo, y de los medios con que podemos contar ahora y en el futuro. No se puede confiar —como algunos hacen, más por comodidad que por otra cosa— en los efectos miríficos del decreto, ni en las declaraciones de cooficialidad u oficialidad. Así como nuestro pueblo necesita encontrar un lugar entre los pueblos, así también nuestra lengua tiene que encontrar un lugar entre las lenguas: un lugar suficiente, que asegure su continuidad y desarrollo, sin aventuras maximalistas. Como he dicho y escrito en otra parte, no debemos caer en el infierno del ghetto por huir del purgatorio de la diglosia. La integración nos es tan necesaria en el aspecto lingüístico como en cualquier otro. Azaola ha hablado de “la gran cuestión lingüística que, lejos de haber sido resuelta, no ha sido todavía ni siquiera planteada correcta y satisfactoriamente”. Deseo y espero que esta obra colectiva sea un paso importante en ese sentido. (Michelena, 1977: 26. or.)

Horra, beraz, gaurko saio honen iturburu formala, hitzezkoa, non dugun. Gogoeta egitea mesederako izan liteke, errespetuz eta elkarren arrimuan (ez norgehiagoka itsuan, albokoak oro ito beharrez) jarduten badugu. 1977an bezain beharrezkoa dugu oraingo euskaldunok, eta euskaltzaleok ez bestek baino gutxiago, gogoeta-lan hori. *Liburu Zuri* hartako sarrerak, eta bertako zenbait esaldik, helduleku aproposa eskain diezaguke gogoeta horretan aurrera egiteko. Orduan gaingiroki señalatu ziren elementu batzuk berrikusi nahi genituzke orain. Batez ere hiru esaldi-pasarteotan biltzen diren argudio-bideak²⁰:

- a) Nuestra lengua tiene que encontrar un lugar entre las lenguas: un lugar *suficiente*, que asegure su *continuidad* y *desarrollo*, sin *aventuras maximalistas*.

Así como nuestro pueblo necesita encontrar un lugar entre los pueblos, así también nuestra lengua tiene que encontrar un lugar entre las lenguas: un lugar suficiente, que asegure su continuidad y desarrollo, sin aventuras maximalistas. Como he dicho y escrito en otra parte, no debemos caer en el infierno del ghetto por huir del purgatorio de la diglosia.

b) No debemos caer en el infierno del *ghetto* por huir del purgatorio de la *diglosia*. La *integración* nos es tan *necesaria* en el aspecto lingüístico como en cualquier otro.

c) Azaola ha hablado de “la gran *cuestión lingüística* que, lejos de haber sido resuelta, *no* ha sido todavía ni siquiera *planteada correcta y satisfactoriamente*”.

Bigarren esaldi-pasartea (batez ere “no (...) caer en el infierno del *ghetto* por huir del purgatorio de la *diglosia*”) arrunt ezaguna da: zenbat aho-lumak, zenbat aldiz eta zein xede-helburu diferentez ez ote du errepikatu ordutik hona? Bada horretarako motiborik aski. Labur eta argi, hurrengo pausoak emateko orduan zein joko-zelaitan mugitzea komeni zitzaigun zedarriztatu nahi izan zuen Mitxelenak: begien bistako etorkizunean bizirik aterako bazen, euskal konstelazio etnokulturalak ez zuen beste biderik, bere ustez, euskara-erdaren elkarbizitzarako formula bat diseinatu, adostu eta aplikatzea baizik. Esaldi horretatik atera dugu, jakina, *diglosia/purgatorio* bikotea.

Ondotxo z jende gutxiagok errepikatu du, aldiz, lehenengo esaldi-pasartea: euskarak “bere lekua” behar du, eguneroko jardunean bizirik gordeko badugu eta belaunez belaun transmitituko bada. Bigarren esaldi-pasartea bezain garrantzitsua da lehenengo hori, gogoeta-bide osoa hasieratik okertuko ez badugu. Inplizituki lortutzat ematen den oinarrizko adostasuna, euskara bizirik gorde eta belaunez belaun transmititzekoa, ez da izan ere hain “lortua”. Bada gure artean, etxean eta auzoan, euskarari “un lugar suficiente, que asegure su continuidad y desarrollo” opa ez dionik. Bada, are gehiago, asmo hori kaltegarria dela uste duenik: gizarte berrirako balio ez duen tramankulu xaharkitua da euskara, batzuen esanean; hiritarren norbanako askatasun-egarria inposizio-indarrez zapuztu nahi lukeena, beste batzuen aburuz; XXI. mendeko gizartearen garapen-maila ekonoteknikoak berez eskatzen dituen “eskalako magnituderekin bateragaitza edo bateraezina, hirugarren multzo baten ustez. Bigarren esaldi-pasartea (euskaltzale ororen gutxienezko abiaburua) onartezina da, funtsean, ikuspegi negatibo hori duten guztientzat. Hortik abiatzen direnekin zail da goiko hiru esaldiak (hirurak, ez bat edo beste) aintzakotzat hartuko dituen gogoeta egitea. Zaila dugu gogoeta hori, bestalde, euskaltzaleon esparrura bere osoan ekartzea. Noraino gaude prest, izan ere, gogoeta-bide hori “sin aventuras maximalistas” burutzeko? Arras zaila da adostasun-bilaketa hori, abentura maximalistarik gabeko jarduna epelkeriaren eta, zenbaitetan, traizio maltzuraren seinale segurutzat hartzen duten gogoetagileez hain in-

guraturik gaudelarik euskaltzaleok²¹. Funtsezkoa da, beraz, lehenengo esaldi horri ere atentziaz erreparatzea.

Azken esaldia dago, dena den, hiruretan abandonatuenik. Gogoia ematen du esateko: “Mitxelenaz geroztik ez du halakorik inork errepikatu, ezta alde edo kontra dagoen esateko ere”²². Zergatik? Badirudi adornuzko eranskina dela hirugarren pasarte hori, askorentzat: kenduta ere ezer gutxi galduko genukeela, alegia. Ez dut uste gauzak horrela direnik. Aurreko biak bezain funtsezkoa da azken esaldi hori. Gezurra badirudi ere, gure arteko eztabaidak eta desadostasunak, hein batean, hortixe datoz: hasiera-hasierako planteamenduak isilpean uzten dituen premisetan bertan dago, sarri, arazoaren gakoia. Hori dela-eta, hizkuntza/gizarte bikoteaz jarduterakoan atzekoz aurrera hasten gara ia beti; eztabaidagai diren helburu-emaizak segurutzat jartzen ditugu mahai gainean, eta hartara leramaketen argudioak bilatzen hasten gara gero. “La gran cuestión lingüística” inoiz onbideratuko bada, kontu osoa “correcta y satisfactoriamente” *planteatu* behar da lehen-lehenik. Planteamenduaren zer nolakoan dago, hainbatean, emaitzaren arrakasta edo porrota.

Gauzak planteatzeko orduan, berriz, aurrez burutu beharreko lan delikatu bat daukagu eginkizun: klarifikazio kontzeptuala. Argitze-lan horrek badu, edukiaz gainera, bidelagun xumea: terminologiazko zehaztapena. Termino nagusiak zehaztu egin behar genituzke lehen-lehenik, beren edukietan ados gauden ala ez jakiteko. Zer da, justu-justu, *diglosia*? Zer da *jardun-gunea*? Zer dira *hiztun-elkartea* eta *hiztun-herria*? Zer da *luze-zabaleko mintzaldaketa*? Zer da galdutako hizkuntza “revernaculariza”-tu edo *berrito etxekotzea*? Zer da *ahuldutako hizkuntza indarberritzea*? Zer ikusi du *ahuldutako hizkuntza indarberritze* horrek hiztun-elkarte batek une jakin batean betetzen duen *espazio fisikoa eta soziokulturala konpartimentazio-hesiz zurkaiztearekin*? Zein dira *gutxienezko elementuak*, hiztun-elkarte baten belaunez belauneko jarraipena *garantizatzen* dutenak? Zein dira, mendebal-moldeko gizarte modernizatu batean, *ahuldutako hizkuntza bat indarberritzeko lehentasunezko osagaiak*? Nola ezkontzen da hori guztia mundu zabaleko bibliografia soziolinguistikoak, bere ahulezia nabarmena kontuan izanik ere, gero eta neurri zabalagoan eskaintzen dituen ekarpenekin? Gutxi egiten dugu horrelako galdera-erantzun saiorik, tamalez. Horren ordeztan metafora, urteetako ibilerak eragindako sentiera-multzoa eta aurrez aurreko interes-lehia izaten dira sarri, argitze- eta zehazte-lan horren ordeztan, gure gogoeta soziolinguistikoaren gidari²³. Beldur izatekoa da orain ere antzera ibiliko garela: bai nire azalpenaren eskasagatik eta bai, oro har, gure arteko desadostasun sakonengatik. Merezi al du, egoera horretan, hain arrisku handia hartzea

**Labur eta argi,
hurrengo
pausoak emateko
orduan zein joko-
zelaitan mugitzea
komeni zitzaigun
zedarriztatu nahi
izan zuen
Mitxelenak:
begien bistako
etorkizunean
bizirik aterako
bazen, euskal
konstelazio
etnokulturalak ez
zuen beste
biderik, bere
ustez, euskara-
erdaren
elkarbizitarako
formula bat
diseinatu, adostu
eta aplikatzea
baizik.**

hain irabazi murrizterako? Baietz uste dut nik: gauden baino egoera ahulagoan nekez egongo gara hartan saiaturik. Horregatik heldu diot gaiari. Gatozen, beraz, harira. Has gaitezen errazenetik. *Diglosiaren purgatoriotik*, alegia. Galdera bi datozkigu burura, berehala: zer da *purgatorioa*, perspektiba soziolinguistikoa? Zer da *diglosia*? Goazen pausoz pauso:

2.1 Perspektiba erlijiosoa eta metaforiko arrunta

Has gaitezen hitzaren adiera propiotik, perspektiba erlijiosoa (erlijio katolikoak²⁴, ez protestanteak) emana dion eta eguneroko bizian zabal hedatua dagoenetik. Erlijio katolikoak oso berea izan du *purgatorio* hitza: bai hitza eta bai kontzeptua. Hala zuen gure haurtzaroan eta, azken urteotan kontuok aldatu egin badira ere zertxobait, bistan da lehengo definizio-muinak uka ezinezko indarra duela orain ere. Erdal hiztegi batek honela definitzen digu purgatorioa: a) En la religión católica, lugar donde las almas no condenadas al infierno purgan sus pecados antes de ascender al cielo. b) Cualquier lugar donde se vive con trabajo y penalidad. c) Esta misma penalidad. Bide beretik doa, nolahi ere, euskal hiztegi ezagun baten definizioa: Tradizio katolikoaren arabera, hil ondoan infernuratzen ez diren arimak beren zorrak ordaindu arte oinazetan egon ohi diren lekuari esaten zaio purgatorioa²⁵. Iturri batetik edan zein bestetik, osagai finkoak ditu purgatorioak:

- a) Kristauaren hil ondoko *hiru aukeretako bat*: infernua, zerua eta purgatorioa.
- b) *Oinazezko lekua*: gogoratu “purgatorioko sua” edo “purgatorioko penak”.²⁶
- c) *Aldi batekoa*: zeru-lurrak ez bezala purgatorioa, adiera erlijioso hertsian, *bukatu* eta *pasa* egiten da²⁷. Baita zentzu metaforiko-arruntan ere. *Purgatorioa* bizi izaten dute seme-alabek, azterketak *pasa arte*: “a zer purgatorio pasatzen ari den!”.
- d) *Ez zeharo ona eta ez zeharo txarra*. Purgatorioak ez ditu zeruaren onurak, baina infernuaren kalteak ere ez. Sufritu egiten da purgatorioan, aldi batez, baina betiereko zerua du sufrimendu horrek ordain.
- e) *Hobera egiteko bidea* da purgatorioa: sendatzeko bidea²⁸.

Labur-labur bilduz, neke-sufrimenduzko tokia dugu purgatorioa, erlijioaren eta zabalkuntza metaforiko arruntaren arabera: egoerak hobera egin arte ezinbestean iragan beharrekoa. Ba ote daukagu osagai horiek perspektiba soziolinguistikora hedatzerik? Zer da, gure perspektiban, “zerua”? Zer da “infernua”? Zer da, azkenik, “purgatorioa”?

2.2 Perspektiba soziolinguistikoa

Metafora edo parabola bidez jardun zuen Mitxelenak, 1977ko artikularen amaierakoan, hemendik aurrerako perspektiba-aukerak eta bere hobespen-irritziak azaltzerakoan. Erlijio katolikoaren *zeru-infernu-purgatorio* simulaz baliatu zen horretarako, batetik, eta *ghettoaz* bestetik. Hori guztia, *diglosia* hitz teknikoarekin (teknikoa izan behar lukeenarekin) lotu zuen estu-estu. Nola egin zituen lotura-bide horiek? Goazen pausoz pauso.

Mitxelenaren artikulua hartan, zerua zer den ez da espresuki adierazten. Are gehiago: “zeru” hitza ez da aipatu ere egiten. Zergatik? Esplikazio-hipotesiak bat baino gehiago izan litezke: a) halakorik ez delako izaten, ez hemen eta ez inon; b) “zeru” soziolinguistikoa zer den esan beharrik ez dagoelako, argiaren argiaz; c) momentuz ez dagoelako hartan pentsatzeko ere aukera praktikorik eta, beraz, horretan jardutea une-uneke eginbehar larrirei ihes egitea delako²⁹. Zail da, artikulua idatzi eta handik 34 urtera, errenteriarak orduan esan zuena zergatik esan zuen erabat argitzea. Kontua da aukera posible bi, ez hiru, ikusten zituela berak irispidean, euskararen geroari zegozkionetan: *purgatorioa* batetik, eta *infernua* bestetik.

Infernua, infernurik infernua, badakigu hiztun-elkarte batentzat zein den: bere eguneroko mintzajarduna osatzen duten erabilera-gune nagusietan, bertako harreman-sare eta mintzamoldeetan, hiztunik gabe gelditzea eta, horren ondorioz, hiztun-elkartearen belaunaz belauneko jarraipen naturala kolapsatzea. Hots, Orixek bere *Euskaldunak* poeman, ez beldur-puntarik gabe, aipatzen duen “herri bat izan zen” hartan bukatzea. Hori da erabateko infernua. Kurasaaleko jauregian, nazio arteko zinemaldian, euskarak arras leku xume-testimoniala izatea, testamentu-paperak gaztelaniaz edo frantsesez idatzirik egotea ia beti, edota produktu elektronikoko gehien-gehienek erdal (normalean ingelesez eta mundu zabaleko beste lauzpabost hizkuntza handitan idatzitako) argibide teknikoak izatea ez da noski euskararen mesedegarri: euskarak jardun-gune eta harreman-sare hori bere mendean ez duen seinale, besteak beste. Hiztun-elkarte osatuagoek, bide bat edo beste aukera dezaketenek, ahal dutelarik nondik nora jotzen duten ikusita H esparruko gune gehienak debeku izateak ezer gutxi du zerutiar hutsetik. Huts-gabezia horiek ez dira ordea, urrundik ere, goraxeago azaldu dugun kolapsozko infernuaren pareko. Ehunka urtean bizirik jarraitu dute ehunka (agian milaka) hizkuntzak, kasuan kasuko hiztun-elkartearen rol-harreman sorta osoa nork bere hizkuntzaren bidez garatu ez izan arren. Jardun-gune, rol-harreman, adierazbide eta situazio guztietan hizkuntza bat bere hiztun-elkartearen mintzamolde bakar ez izatea gauza bat da (hizkuntzen historia

**Jardun-gune, rol-
harreman,
adierazbide eta
situazio guztietan
hizkuntza bat
bere hiztun-
elkartearen
mintzamolde
bakar ez izatea
gauza bat da
(hizkuntzen
historia
ezagunean arras
ohikoa), eta
hizkuntza hori
zeharo galtzea,
bere eguneroko
erabilera arrunta
iraungi eta
belaunez
belauneko
transmisioa
erabat
kolapsatzea,
bestea.**

ezagunean arras ohikoa), eta hizkuntza hori zeharo galtzea, bere eguneroko erabilera arrunta iraungi eta belaunez belauneko transmisioa erabat kolapsatzea, bestea. Bata (konpartimentazio soziofuntzionala) ez da ezinbestean, gure artean errazegi esaten bada ere horrelakorik, bestearen (luze-zabaleko *language shift* edo mintzaldatzearen) atalburu.

Erabateko kolapsoaren infernu hori ez du Mitxelenak, 1977an, begien bista-bistan. Ezinezkoa denik ez dio, baina ez du uste egiantz handiko panorama denik. Esplikazio posibleak bilatzea ez da, oraingoan ere, hain zaila: garai hartako gizarte-giroa, nahiago bada kontestu soziopolitiko eta soziokulturala, izan liteke esplikazio-iturri nagusietako bat. Aldian aldiko kontestuak, izan ere, nabarmen baldintzatzen gaitu guztiok. Adin batetik gorakoontzat aski ezaguna da orduko gizarte-giro nagusia, hizkuntza- eta etnokulturazko nortasun-kontuei zegokienez, nolakoa genuen. Berrogeizaro luzea amaitu berria zen, eta debeku izan niko hainbat ate zabaltzen ari zitzaizkion Euskal herriari. Kontestu horretan mugitzen ginen gehienok, Mitxelena barne, gure aurreikuspen-
apustuak egiterakoan. Kasu honetan ez dago gainera, aurrekoan bezala, esplikazio bila jardun beharrik. Koldok berak eman zuen, artikulua hartan bertan, kontestuaren argitasun zehatza: “(H)ay una corriente, extensa y potente al parecer, que no solamente no se resigna a ver impasible la pérdida de la lengua, sino que tampoco acepta que se la cuide como una reliquia venerable, de la que nadie espera favores y milagros”. Kontestu horretan ezin, bistan da, erabateko *language shift* eta *language loss*-en infernua egiantz handiko lan-hipotesi moduan planteatu. Ez berak eta ez, diogun argiro, beste inork egin zuen une hartan halako aurreikuspen mingarririk. Aitzitik: euskararen kontua “konpondu beharra” zegoela zioten ahots guztiek, nork bere ñabarduraz. Konpondu, ez likidatu. Irtenbide hoberena hizkuntza horrekin “behingoz akabatzea” zenik (akabatzea edo, errazago, urak beren “betiko” bidetik doazen utzi eta hizkuntza “berez” galtzea) ez zuen inork, ozen eta zorrotz, planteatzen. Inork planteatzen ez zuen alternatiba ez zuen Mitxelenak alternatibatza hartu: infernu-infernu hori ez zen, horregatik, bere etorkizun-eskema posibleetan agertu³¹.

Kolapsoaren beldur hori alde batera utzirik, beste alternatiba ustez probablegoen ebaluazio-lanean saiatu zen artean, oso oker ez banago, Salamancan genuen irakaslea. Alternatiba probable horien artean, hain zuzen, aplikatu zuen *purgatorio-infernuen* metaforazko simila. Hor sartzen da bete-betean, batetik, bere *ghetto*-aren infernua. Hor sartzen da osorik, era berean, diglosiaren purgatorioa. Irtenbide okerra, irtenbide plausibleen artean okerreana, begitantzen zaio Mitxelenari *ghetto*-aren

infernua. Horrek, jakina, irudiz irudi saltoka ibiltzera behartzen gaitu: infernuarena nolabait argitu uste dugunean, hurrengo termino metaforiko besapean duela datorkigu, izan ere. Zer dugu, perspektiba soziolinguistikoa, *ghetto*? Hurrengo esaldiak ematen digu, bestelako argitasunik ezean, galdera horri artez erantzuteko giltzarria: “la integración nos es tan necesaria en el aspecto lingüístico como en cualquier otro”. Segregazio-egoera (inolako integrazio-mailarik gabekoa) da *ghetto*-a. Integrazio-maila bat, ez erabateko burugaintasuna, berekin izango duen konfigurazio soziokultural, etnolinguistiko, ekonotekniko eta politiko-operatiboaren alde dago bera. Hori aintzakotzat hartzen ez duen moldaera *ghetto* da Mitxelentzat. Euskal herri beregain hutsa, zeharo beste hiztun-herrietatik zorrotz isolatua, ez du Koldok bideragarri ikusten eta, are, kalte-iturri izango dela iruditzen zaio. Desiragarri ez ezik beharrezkoa ere badugu euskaldunok, bere ustez, halako integrazio-maila bat, bai plano linguistikoan eta bai bestelakoetan. Abbadia-Xahoren, Zaldubiren, Campionen eta beste hainbaten ehun urte lehenagoko *Zazpiak bat* bihotz-hunkigarri hari lokarri argiak erantsi dizkio errenteriarak. Argi dio zergatik: lokarri horien beharrean gaude, hondamendira (infernura) joango ez bagara.

Inork uste badu urrunegi noala nire ondorio-ustezko interpretazio honetan, itzul bitza begiak goiko lehen esaldira: “nuestra lengua tiene que encontrar un lugar entre las lenguas: un lugar *suficiente*, que asegure su *continuidad* y *desarrollo*, sin *aventuras maximalistas*”. Delako “lugar suficiente (...) sin *aventuras maximalistas*” hori argi dago oinarri-oinarrian zer den: eguna baino argiago, nire ustez. Mitxelena ez zaigu munduko hizkuntzak (funtsean, hiztun-herriak) parez pare (simetria osoz eta autorregulazio-ahalmen berberaz) nor bere etxean jaun eta jabe bizi izango diren mundu berreraiki baten (atzera “bere jatorrizko egoera natural” era ekarritako etnomosaiko global baten) alde ari. Besterik du buruan: konstelazio etnokultural handiek eta txikiek, indartsuek eta ahulek, modernizazioaren ildo-berritzaileek eta jatortasun-oinarrien maitale zintzoek elkarren arteko *modus vivendi*, ez *morendi*, bat eguneratu eta birformulatzea. Lan gaitza da birformulatze hori, bistan da: gogoeta sakona eta, batez ere, saio bizia eskatzen duen lana. Horregatik egiten du Koldok berehala, ia lerroarterik galdu gabe, Azaolaren aipamena: azken honek “ha hablado de ‘la gran *cuestión lingüística* que, lejos de haber sido resuelta, no ha sido todavía ni siquiera *planteada correcta y satisfactoriamente*’”. Hortik abiatu beharko da, berak gaingiroki seinlatu duen bidea argi mugarritu eta ibilerraz bihurtu nahi bada.

Zer esan nahi du horrek guztiak, Koldoren argudio-bideaz zuzen jabetu bagara? Bizi garen lekuan eta unean bizi (eta biziko) garelarik,

**Bizi garen lekuan
eta unean bizi
(eta biziko)
garelarik,
euskaldunok
azken mendealdi
luzean jasandako
transformazio
demografiko,
ekonotekniko,
soziokultural eta
politiko-
operatiboak
jasan
ditugarik,
aurrera begira
ganorazko
bizibide bat
diseinatzekotan
euskara eta
erdara(k) bere
hizkuntza-
errepertorioan
integraturik
izango dituen
hiztun-elkartea
izan behar
dugula.**

euskaldunok azken mendealdi luzean jasandako transformazio demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatiboak jasan ditugarik, aurrera begira ganorazko bizibide bat diseinatzekotan euskara eta erdara(k) bere hizkuntza-errepertorioan integraturik izango dituen hiztun-elkartea izan behar dugula. Zazpi Probinzietako hiztun guztiek eskualde, jardun-gune, harreman-sare, adierazbide eta situazio guztietan euskara hutsez (edo nagusiki euskaraz) egingo duten formulazioak ez digula balio. Erdal esparruak biltzen eta osatzen gaituen formulazio sinkretiko bat darabil Mitxelena buruan: buruan eta, atentzior irakurtzen bazaio, luman. Formulazio sinkretiko horri aplikazio bat baino gehiago eman dakioko: ezagunenetako bat, eta luzera begira definizioz iraunkorrena, *diglosia*. Horregatik dio Koldok, nahiago duela *diglosiaren purgatorioa ghetto-aren infernua* baino. Oker nabil agian, berriro diot, bere hitzak interpretatzeko orduan. Horrela ateratzen zaizkit niri, ordea, kontuak. Esplikazio hoberik duenak, azal beza mesedez. Atentzio handiz hartuko dugu hainbatek, eta zor zaion begirunez aztertuko.

3. ZEHAZTAPEN-SAIOA

I Hitz baten adiera zehaztuko bada, hitz hori sortu dutenek, eguneratu dutenek eta zabalkunde handiz (kasu honetan, zabalkunde akademikoz eta estra-akademikoz) hornitu dutenek hitz horrekin zer adierazi nahi izan duten aztertu behar da ezinbestean. Lan hori ez da aski; bai, ordea, ezinbestekoa. Ondoko atalean ikusiko dugunez ibilera luze samarra, ez ziabogarik gabea, du berekin *diglosia* hitzak. Bada bere ibilera horretan, nolana ere, ziaboga-aldi berezi bat: Ferguson-en 1959ko artikulua, *Word-en* argitara emana eta Dell Hymes-ek, handik bost urtera, *Language in Culture and Society* ezagunean berrargitaratua. Diglosia terminoaz ari garelarik, hori da *aurreko* eta *ondoko* fasealdiak markatzen dituen unea: diglosiari buruzko azterbide soziolinguistikoa aurrera egin nahi dugunok ondo kontuan hartu behar izaten ditugu, beste hitzetan esanik, Ferguson-en 1959 *aurreko* lanak, batetik, eta 1959 *ondoko*ak bestetik. *Aurreko* lanak, orain arte hanka-punttaka pasatu ohi genituenak, Mauro Fernández-en ildotik atentzio handiagor irakurri beharko dira, antza denez: bai grezieraren analisi konkretuaz ari direnak (hasierako guztiak eta geroxeagoko ez gutxi) eta bai beste hizkuntza-egoera diglosikoak (arabiera, koptoa) azaltzeko idatzi zirenak. Hori guztia horrela izanik ere, bistan da 1959tik honako iturriak interesatzen zaizkigula bereziki. Bai mundu zabalean eta bai hemen, etxean, 1959tik hona diglosiaz idatzi direnak. Lana erraztu egiten dugu, urte gutxiagotako produkzioa ana-

lizatu behar delako eta, urte horiek gugandik hurbilago egonik, iturribilaketa ere errazagoa izan behar lukeelako.

Lan “errazago” hori ere ez da batere erraza ordea: diglosiari buruz asko idatzi da azken berrogeita hamar urtean, hemen eta mundu zabaLEAN. Termino horri buruzko bibliografia-bilketa (ordura arteko lehena?) egin zuen Alan Hudson-ek, eta 1992an argitara eman. Ugaritasuna izan zen bilketa-lan haren emaitza deigarrienetakoa: “this paper contains a total of 1.092 entries on the subject of diglossia” (Hudson, 1992: 615). Marka hori erraz hautsi zuen Mauro Fernández-ek handik urtebetera: 3000 sarrerara inguru zituen bere 1993ko bilketak. Norbaitek pentsa dezake, normala dela hori: hainbat zientzialari izanik munduan, eta 30 urte luzeko epea hartuz aztergai, normala dela 1000 edo 3000 artikulua, liburu edo gogoeta-lan ateratzea kontzeptu bakar batez. Hala izango da, agian, beste alorretan. Gurean ez dirudi, ordea, hala denik. Ez, hasteko, termino konparatiboetan: hizkuntza-soziologiari buruzko beste hitz-giltzarri gehienei buruz ez dirudi hainbateko gogoeta-saio zabalik egin denik, urrundik ere. Zer pentsatua ematen du horrek berak.

Especialista batek baino gehiagok adierazi izan du, horrezaz gainera, gai horretaz asko idatzi den arren landu-arin dagoela oraindik diglosiaren azter-eremua. Alan Hudson izan da, besteak beste, ikusmolde horren bozemaile argia. Honela zioen 1992an, bere bilketa-lana aurkeztu zuenean (Hudson, 1992: 611): “The bibliography following the body of Entries dealing with diglossia in the classical sense of Ferguson (1959) and in the sense of functional compartmentalization of distinct languages are represented approximately equally. Scholarly publication in the area of diglossia continues unabated as indicated by the fact that approximately one-half of the entries in the bibliography were published between 1983 and 1992. However, there remains a need for a comprehensive integration, comparative analysis, and socioevolutionary interpretation of diglossia research. (Bilingualism, diglossia, functional variation, literary languages, registers, standard languages, standardization)”³².

Honela zioen Alan Hudson-ek, berriro, handik hamar bat urtera (2002a: 1): “The 3,000 or so entries in Mauro Fernández’s bibliography on diglossia (1993) might well lead one to the conclusion that everything that needed to be said on the subject had already been said. Yet, forty years after the publication of the late Charles Ferguson’s historic paper on diglossia (Ferguson 1959), a coherent and generally accepted theory of diglossia remains to be formulated. In his last major statement on the subject, Ferguson himself was moved to comment on how research over the course of the preceding three decades had failed to adopt a comparative or ty-

**Argi zegoen
soluzioa Hudson-
entzat, eta bat
etorri dira
berekin beste
hainbat aditu:
“utz dezagun
diglosia
Ferguson-en
hizkuntza-egoera
konkretuak (eta
haien antzekoak)
analizatzeke.
Fergusonek
1959an
azaldutako
egoera
prototipiko haiek
dira benetako
diglosia**

polo- gical approach to the study of diglossia, having been preoccupied instead with individual case studies focused largely upon the issue of whether a particular language situation was or was not an instance of diglossia (1991: 219). This assessment of the situation may perhaps be seen as a particular example of Chambers’s criticism of sociolinguistic research more generally, to the effect that “the social science content of sociolinguistics has overshadowed its theoretical implications” (1995: 11). 2002ko ebaluazio moduko horretan Hudson-ek zenbateko arrazoi zuen aztertzea merezi zuen noski, eta zenbait adituk halaxe egin ere zuen: bere iritzia eman zuen hainbatek³³ urte hartan bertan, puntu horretaz eta horren jira- bueltakoez (ikus 2002ko *IJSL*ren 157. zkia). Batzuenak eta besteena ira- kurri ondoan, alde handiak zeudela antzemateaz gainera, gauza bat ze- goen 2002an argi: perspektiba teorikotik osatu-arin zegoen, hainbatean (ez, inola ere, osorik), diglosiaren kontzeptu-lanketa. Ez dut uste, zori- txarrez, ordutik hona gauzak erabat aldatu direnik.

Historia lehendik zetorren, jakina. 1991n (are lehenago, 1984ean) di- glosiaren definizio uniforme baten faltaz jarduna zen Alan Hudson; ga- bezia horren iturriak ere ikusiabartzen zituen berak. Hona bere hitzak (Hudson, 1991: 374): “Pending the adoption of a uniform definition of diglossia, Hypotheses such as those adumbrated here cannot be put to the empirical test, and conflicting conclusions as to the origins, develop- ment, outcomes, and effects of diglossia are inevitable (Hudson-Edwards, 1984: 6). While some find diglossia, in the sense of the differential func- tional allocation of codes in general, to be a prerequisite for the mainte- nance of socially and politically weaker languages in multilingual set- tings, others will find it only incidental, at best, to the maintenance of weaker languages in such settings, and others still will see as a form of linguistic capitulation to the more powerful languages in such situations; some will find diglossia to be intimately associated with the social stra- tification of literacy, while others may categorically reject such views as ideological interference (Fishman 1985: 51); some may see in traditional, stratified societies of a certain kind the most fertile conditions for the emergence of diglossia-like code-repertoires (Gumperz 1968: 469), while others may find diglossia to be compatible not only with traditional so- cieties but with “political, econotechnical or ideological/religious/phi- losophical arrangements of whatever kind” (Fishman 1985: 52). The source of this disagreement, at least in part, is the multiple ambiguity which has crept into the term diglossia as a result of its use with reference to quite disparate sociolinguistic situations. A return to a consistent de- finition of whatever kind is therefore essential if the study of diglossia is

to contribute in a significant way to understanding “the organization of change on verbal repertoires in relation to the main processes of societal evolution (Hymes, 1984: 44), and the consistent definition advocated here, perhaps with some refinement, is that of Ferguson (1959)”. Argi zegoen soluzioa Hudson-entzat, eta bat etorri dira berekin beste hainbat aditu: “utz dezagun *diglosia* Ferguson-en hizkuntza-egoera konkretuak (eta haien antzekoak) analizatzeko. Fergusonek 1959an azaldutako egoera prototipiko haiek dira benetako diglosia: haiek bakarrik edota, nahiago badugu, egoera haiek eta haien antzeko batzuk”. Hudson-en 1984ko, 1991ko eta 2002ko saio horiek, diglosiaren adiera hasierako (Ferguson-en 1959ko) kasu jakinetara mugatzekoek, bere eragina izan dute noski, eta asko dira egungo egunean hitzaren adiera termino horietara mugatzearen alde agertu direnak. Britto bat aspalditik (1986tik gutxienez) eta beste hainbat 2002an bertan. Praktikan, ordea, murrizte-asmu horrek ez du aurrera egin.

Berandu zen, izan ere, halako atzeramartxa handi baterako. Berandu zen, alde batetik, munduko hitzun-herri, ele anitzeko gizarte eta kontinente-atal osoen hizkuntza-egoera ikuspegi soziolinguistiko koherentez deskribatzeko lehen baino ondotoz tresneria kontzeptual mugatuagoaz uzten zuelako Hudson-en proposamen horrek. Hala uzten zituen, gurea bezalako hitzun-herriez gainera, Amerikako hainbat etnia indigenen mundua, Asiako hego-ekialdea edota Ozeaniako hainbat gune, Ginea Berri adibidez. Hango hainbat egoera, europarron ikuspegi nagusitik aski diferente, ezin analiza ditzake hizkuntza-soziologiak Ferguson-en eredu hutsaz. Ezin ditzake eta, *de facto*, ez ditu analizatu. Formulazio zabalaz jardun izan da halakoetan, maiz asko³⁴. Atzeramartxa hori ezinezkoa gertatu da, horrezaz gainera, Hudson-ek deitoratzen zuen uniformetasun-falta edo “multiple ambiguity” haren iturrian ez zegoelako hainbat kasutan “its use with reference to quite disparate sociolinguistic situations”, beste zerbait baizik. Egia da “with reference to quite disparate sociolinguistic situations” erabili izan dela, azken mende-erdi honetan, *diglosia* hitza. Barreiatze-arrisku kontzeptuala areagotu egin du horrek, murriztu ordez. Ez da hori bakarrik, ordea, kontua. Are gehiago: ez da hori, nagusiki, kontua. *Diglosia* hitzaren inguruan, aski hasieratik, esku esku joan dira gogoeta-bide eta azalpen-modu bi: soziolinguistiko-akademikoa batetik, eta hizkuntza-politikaren unean uneko interes-beharrerekin estuki lotua bestea. Joshua A. Fishman-en hitzetan esateko (2002: 97): “Diglossia is (...) a ‘fighting term’ in real life. It is not only a concept in sociolinguistic discourse; it is a concept in political discourse as well, wherever RLS is a man-in-the-street issue”. Zaila da, nire ustez, kontua

Txepetx izan genuen, antza, diglosia hitzak gure artean, kontzeptu soziolinguistikoa izateaz gainera, ageri duen erabilera arrunt, “man-in-the-street issue”-k eragindako horretaz lehenik idatzi zuena.

garbiago azaltzea. Ahuldutako hizkuntza indarberritzeko saioek gizarte-dimentsioa (ez aditu batzuen barne-eztabaida intelektual hutsa) duten lekuetan, ahuldutako hizkuntza hori indarberritzeko auzian hiztunjende xeheak (“the-man-in-the-street” delakoak) parte hartzen duenetan alegia, *diglosia* ez da sarri kontzeptu soziolinguistiko hutsa izaten. Hori ere bada, jakina, baina hori bakarrik ez. Horrezaz gainera, eta maiz asko horren aurretik, borroka-tresna da diglosia: “a fighting term”.

Ez dago horretan dudarik. Hala da mundu zabalean³⁵ eta hala dugu, aspaldidanik, etxean. Txepetx izan genuen, antza, *diglosia* hitzak gure artean, kontzeptu soziolinguistikoa izateaz gainera, ageri duen erabilera arrunt, “man-in-the-street issue”-k eragindako horretaz lehenik idatzi zuena. Bereak dira hitzok³⁶: “cuando apareció por el escenario la palabra “diglosia” que tenía como ventaja no pequeña la de no haber sido nunca mencionada por los que ejercían la dominación lingüística desde el Estado, los “colonizados” cayeron sobre ella como soldados sobre un harén, convirtiéndola en madre de partos múltiples y portavoz de todas sus frustraciones. Lo que ha ocurrido luego con ella es la demostración de que no se pueden establecer unas relaciones normales con una palabra sólo mediante el instinto. Porque, a falta de una formulación intelectual rigurosa que señale con precisión su contenido y sus límites, ha pasado a ser un ejemplo típico de palabra-baúl que significa cosas bien distintas de acuerdo (a) quién se la diga a quién, acerca de qué, cómo, cuándo y dónde”. (Sánchez Carrión, 1986: 21). Izango da diglosiaren gure arteko “fighting term” izaeraz azalpen hoberik, han edo hemen. Nik ez dut ezagutzen.

Gorago esan dugunez, kontua ez da “man-on-the street” esparrukoa bakarrik. Fishman-en hitzetara itzuliz, “diglossia is (...) a ‘fighting term’ in real life. It is not only a concept in sociolinguistic discourse; it is a concept in political discourse as well”. Egia da hori, erabat, hemengo azken mende laurdeneko ibileran. Zenbait arduradun edo bozemaile politikok oso argi, leialtasun osoz, aitortu izan du berea ez dela diskurtso intelektual hutsean txertatzen den gogoeta, elebitasun sozialaz (hots, diglosiaz) ari delarik, diskurtso politiko partidista baizik. Horrela ulertu behar da, esate baterako, Joxe Agustin Arrietak 1991ean idatzitakoa³⁷. Guztiek ez dute hain argi aitortzen, noiz ari diren jakintza-lanketan eta noiz planteamendu politikoen zabalkunde-lanean. Zailagoa da, kasu horietan, diskurtso baten eta bestearen arteko bana-lerroa ezartzea.

Gatozen beraz, muinera. Saia gaitezen diglosiaren adiera popularra eta diskurtso politikoak zeharo baztertu gabe (zer erakutsi handia eman diezagukete, batak eta besteek, honetaz edo hartaz) gurean zentratzen. Saia gaitezen, termino horren adiera bere dimentsio soziolinguistikoan

analizatzen: har dezagun “a concept in sociolinguistic discourse” den hori bere horretan. Bestela, izan ere, badakigu non jarraituko dugun: “no se pueden establecer unas relaciones normales con una palabra sólo mediante el instinto”. Instintu-senaz jardutea baino zerbait gehiago opa badiogu geure buruari eta gure arteko hizkuntza-soziologiaren aitzinamenduari, “sociolinguistic discourse” horri eusten saiatzea dagokigu.

Honako bide hau erabiliko dugu horretarako: lehenik *diglosia* terminoaren jatorria eta ibilbidea argitzen saiatuko gara, gaingiroki bada ere. Argitze-saio honi begira *diglosia* terminoak azaleratu dituen hainbat albo-gai, teoria soziolinguistikoa osatu eta aberasteko aski interesgarriak diren (eta gure artean ere aplikazio-eremu emankorra izan dezaketen) arren, alde batera utziko ditugu ondoren. Azkenik, *diglosia* hitzak “sociolinguistic discourse” horretan bere-bereak dituen ezaugarriak, atributuak edo osagai nagusiak argitzen eta zehazten saiatuko gara. Hori izango da, seguruenik, eskuartean izango dugun lanik zailena eta delikatuenena. Goazen, beraz, aurrera.

3.1 Diglosia terminoaren jatorria eta ibilbidea

Aurrerago esan denez bitan banatuko dugu, erraztasun-asmoz eta ez motibo objektiborik gabe, *diglosia* terminoaren historia: bere jatorria eta egungo egunera arteko ibilbide nagusia. Batetik 1959 artekoa aztertuko dugu, eta bestetik 1959an hasi eta ordutik honakoa. Kasu bietan, gorago esan denez, Fishman-ek “political discourse” eta Txepetxek “relaciones mediante el instinto” deitu izan duten azterbidea bigarren planora eramaten saiatuko gara eta, horren orde, “sociolinguistic discourse” edo “formulación intelectual rigurosa que señale con precisión su contenido y sus límites” delakoari lehentasuna ematen. Fishman-en “sociolinguistic discourse”-ren argitan analizatuko dugu, era berean, “sociolinguistique engagé” delakoaren emaria: diskurtso zientifikoa aurrez aurreko aplikazio-asmo politiko-ideologiko konkretuen gainean kokatzen ahalegindu nahi genuke alegia. Lortuko dugun ala ez besterik da noski. Asmoa, nolana ere, hori genuke.

3.1.1 Jatorria eta 1959ra arteko ibilbidea

Kanpoan sortua dugu *diglosia* terminoa, jakintza-alorreko beste hainbat bezala. Terminologia teknikoari dagokionez ez da, antza, oso hitz zaharra: ez behintzat, inola ere, aritmetikan, gramatikan edo fisikan hain ezagun ditugun hitz asko bezain zahar. Hain-hain berria ere ez da ordea: XX. mendea baino lehen sortua da, nolana ere. Zenbait soziolinguistak XVIII. mendearen azkenaldian aurkitu uste izan dio jatorria, Greziako hizkuntza-jarrera dibergenteen (eta, dibergentzia larri haien barruan,

“Contrary to the common opinion that diglossia used to mean simply ‘bilingualism’, (...) this development is recent and follows the coinage of bilinguisme in French, bilingualism in English, bilinguismo in Italian, etc. Furthermore, any linguistic sense of the Greek term diglossia is (...) relatively recent; thus, Rhoidis’ pioneering use must be seen as a creative neologism based on the traditional sense of Greek dhigloossia as ‘falsehood’, ‘hypocrisy’, ‘deceitfulness’ or ‘double-tonguedness’”.

elebitasun-kontzeptuaren) eskutik. Horietariko baten hitzetan esanik “the term *diglossia* in its Greek meaning (*bilingualism*) has been used since the late eighteenth century to describe the metalinguistic difference of opinion on which language the Greeks “should” speak (Frangoudaki, 2002: 105). Orduan sortu zen hitza, bere esanean, eta ibilbide luzea izan du harrez gero. “Bi eleko” (hobe: “bi mihiko”)-ren adiera (neutral-denotatibo edo zirikalari-konotatibo) horrekin erabili izan omen dute hitza greziarrek, XX. mendera arte. Ez guztiek, jakina: batez ere *demotikizaleek* erabili izan dute *diglossia* terminoa, ez *katharevousaren* aldekoek³⁸. Hain zeukan erabilera horrek tradizio luzea eta bertako koordinatu sozio-politikoetan sakon txertatua non, Ferguson-en *diglossia* 1959an mundu akademikora plazaratu zenean, beste hitz baten beharra sentitu zuten greziarrek kontzeptu “berria” nolabait bataiatzeko³⁹.

Badu Frangoudaki-ren ikuspegi horrek, halere, formulazio alternatibo zorrotzik. Mauro Fernández-ek⁴⁰, *diglossia* hitzaren jatorriaz ari delarik, honako hau esan izan du⁴¹: “contrary to the common opinion that diglossia used to mean simply ‘bilingualism’, (...) this development is recent and follows the coinage of *bilinguisme* in French, *bilingualism* in English, *bilinguismo* in Italian, etc. Furthermore, any linguistic sense of the Greek term *diglossia* is (...) relatively recent; thus, Rhoidis’ pioneering use must be seen as a creative neologism based on the traditional sense of Greek *dhigloossia* as ‘falsehood’, ‘hypocrisy’, ‘deceitfulness’ or ‘double-tonguedness’”. Mauro Fernández-en ustez, eta bere ikuspegiak badu (besterik agertzen ez den artean) egiantzik aski, honelatsu gertatu ziren kontuak: Emmanuel Rhoidis (1835-1905) nobela- eta saiogileak aipamen satirikoak egin zuen 1885ean, bere artikulu batean, greziera garbi-jaso-formal-dotore baina herritarren eguneroko erabilera bizi-gozo-arruntetik urrunaren kontra: zehazkiago, goi-aldiera garbi hura babesten zutenen kontra. “*Diglosiak jota*” zeuden *katharevousa*-zale haiek, bere esanean. Roidis-en 1885eko aipamen satiriko haren haritik, urte hartan bertan, *diglossia* terminoa teknikoki erabiltzen hasi zen Jean Psichari Sorbonako irakasle greko-frantziarra⁴². Bere, eta handik berehala beste askoren, ekarpen jakintsuek zabalkunde argia izan zuten Europako (baita, une batetik aurrera, Europaz kanpoko) helenisten eta Greziako intelektualen artean. Berehala heldu zitzaion terminoari (eta atxikirik zeraman kontzeptuari) Alemanian (Karl Krumbacher 1894 eta, bereziki, 1902), Frantzia (Pernot 1897, Théodore Reinach 1897 eta 1903), ingeles-hizkuntzako herrialdeetan (B. L. Wheeler 1898, D. Quinn 1901) eta garai hartako beste hainbat jakintza-gunetan. Hizkuntza bi zituen Greziak, ala bakarra? Etxean eta kalean, lagunartean eta eguneroko jarduera arruntean oinarri

sendorik gabeko hizkera molde jasoaz irakurtzen, idazten eta ikasten jarraitu behar al zuten greziarrek, XX. mendean? 1901eko hizkuntza-borrokaren⁴³ (eta, praktikan, 1976ra arteko hizkuntza-istiluen) berri duenak badaki, nola ez, eztabaida-gai eta antagonismo ideologiko, sozio-ekonomiko eta kultural zorrotzak zeudela tartean, *diglosia*⁴⁴ hura zela medio. Hasieran Greziako bitxitasun (hainbaten esanean gaitz, arazo, drama,...) zirudien egoera berezi hura handik kanpora ere bazela planteatzen eta onartzen hasi zen zenbait gune akademiko eta administratibo; herrialde arabiarren hizkuntza-egoera azaltzeko ere termino horretara jo zen une batetik aurrera: ikus Marçais 1930. Baita, oro har, ekialdeko hainbat hizkuntza-egoera (ez arrazismo-kutsurik gabe) deskribatzeko ere.

II. Mundu-gerraren ondoren, geraldiko modukoa gertatu zen Europako zenbait herrialdetan (batez ere aleman-hizkuntzakoetan⁴⁵) hizkuntza-soziologiari edo soziolinguistikari zegozkion esparruetan eta, aitzitik, geraldiko nabarmena antzeman zen Ipar Amerikan, bereziki Amerikako Estatu Batuetan. Weinreich aita-emeak (Max eta Uriel), Charles A. Ferguson, Dell Hymes, Einar Haugen, J. Gumperz, William F. Mackey, W. Labov, Joshua A. Fishman, Robert Cooper, Calvin Veltman, Bernard Spolsky, G. Richard Tucker eta Christina Bratt Paulston, ezagun-ezagunak baizik ez aipatzearren. Goralde horretatik etorria dugu, bistan da, diglosiaren termino zaharberritua eta kontzeptu(-sorta) nagusia.

Nolanahi ere, ez da gure hemengo helburua diglosia terminoaren abiaburua orain dela 125 urte situatu behar den, edo (gutxienez) mende oso bat lehenago, eztabaidatzea. Are gutxiago iturburu haien gaineko epairik ematea. Interpretazio bat onartu ala beste, gauza bat dago argi: Greziako hizkuntza-arazoaren informazio teknikoa Europako hainbat lekutara zabaldu zen XIX. mendean, 1885etik aurrera bereziki, eta hurrengo mende erdian luze-zabal eztabaidatu, finkatu eta, are, beste zenbait ingurumenetara (koptoaren eta arabieraren kasura, bereziki) hedatzen hasi⁴⁶. Ferguson-en 1959ko artikuluaen aurretik aski historia luzea du, beraz, *diglosia* terminoak.

3.1.2 Ferguson-en bide-berritzea

Egundoko oihartzuna izan zuen Ferguson-en “Diglossia” izeneko artikulua, 1959an *Word* aldizkari teknikoan argitaratuak. Askorentzat, antza, lehenengo aldian izan zen diglosiaren gaiarekin harreman intelektuala izandakoa. Batzuek termino akademiko hutsean jaso zuten Charles A. Ferguson-en azalpen argi, ordenatu eta dotorea, eta beren ezagutza akademikoan erreperitorioan integratu zuten, probetxu handiz edo apalez⁴⁷. Beste batzuek, aldiz, hurbilagoko inpaktua jaso zuten termino “berri”arekin: ter-

**Egundoko
oihartzuna izan
zuen Ferguson-en
“Diglossia”
izeneko
artikuluak, 1959an
Word aldizkari
teknikoan
argitaratuak.
Askorentzat, antza,
lehenengo aldia
izan zen
diglosiaren
gaiarekin
harreman
intelektuala
izandakoa.**

minoarekin eta, bereziki, termino horrek galtzarbean zekarren adierarekin. Hiztun-elkarte batean aldaera bi indarrean egotea, aldaera bakoitzak bere jardun-gune jakinak izatea, aldaera horietaz jabetzeko modua diferentea izatea eta aldaera bakoitzaren barne-osaera eta produkzio literario historikoa aski bereziak izatea oso gauza ezagunak iruditzen zitzaizkien horiei: etxean (hots, beren hiztun-elkartean) bizi zuten “egoera horixe”, “horrelako zerbait” edo “horrelako zerbait izandako zerbait”. Interesa areagotu egin zuen, moteldu ordez, bigarren *factum* horrek.

Zer zen *diglosia*, Ferguson-entzat? Honela zioen Ferguson-ek bere artikuluan (1959: 435): “Diglossia is a relatively stable language situation in which, in addition to the primary dialects of the language (which may include a standard or regional standards), there is a very divergent, highly codified (often grammatically more complex) superposed variety, the vehicle of a large and respected body of written literature, either of an earlier period or in another speech community, which is learned largely by formal education and is used for most written and formal spoken purposes but is not used by any section of the community for ordinary conversation”. Labur bilduz, honako egoera honetan dauden hiztun-elkartek⁴⁸ bizi dira diglosia-egoeran, Ferguson-en arabera:

- a) *Hizkuntza-aldiera bi* ditu hiztun-elkarte horrek, ez bat, bere mintzaera-sortan. Aldiera bati *L* (*Low*, azpikoa) esaten zaio, eta besteari *H* (*High*, gainekoa)⁴⁹. Bietako bat (normalean hori bakarrik) erabiltzen da eguneroko mintzajardunean (eta, beraz, inplizituki, hori da haurren ama-hizkuntza⁵⁰). Hiztun-elkartearen herri-hizkera da *L* hori (bere batasun horren azpian, bide batez esanik, azpialdaera jakinak (dialektalak edo bestelakoak⁵¹) izan ditzake baina, dugun helbururako, *L* hori aldaera bakartzat hartuko dugu. *L* horrezaz gainera badu hiztun-elkarte horrek, bere errepertorio linguistiko edo mintzaera-sortan, beste aldaera bat ere: *H*. Hori ere hiztun-elkartearen hizkuntza-aldiera da⁵².
- b) *Ahaidetasun genetikoa* dute *H*-k eta *L*-k, beren barne-osaerari dagokionez⁵³. Ahaide izanik ere, *H* eta *L* ez dira elkarren aldaera dialektal xumeak, aski bereizgarri nabarmenak dituztenak baizik⁵⁴.
- c) *H aldaera landua da* oso (idazkera eta jendaurreko jarduera jasorako *L* baino askoz gaituagoa, batuagoa, estandarizatuagoa), eta gramatika aldetik sarri (ez beti) konplexuagoa.
- d) Aldaera bat azaldu eta besteaz jabetzeko bideak diferenteak dira oso: bata (*L*) *etxean* ikasten (hobe: *eskuratzen*) *da*⁵⁵: etxean eta auzoan, la-

gunartean eta, oro har, eguneroko bizimoduak hain bereak dituen interakzio-kontestu eta jarduera-molde arrunten bidez. Bestea (H) ez. *Gero ikasten da H*, gehienetan eskolan edo sozializazio-ajente formal-jasoagoen bidez.

e) Erabilerari dagokionez eten argia dago H-ren eta L-ren artean: idatzizko jarduna H bidez egiten da, erabat edo oso nagusiki; ahozko jarduera formal-jasoa ere bai, oro har. Gainerako jarduna, eguneroko mintzajardun eta berba-egikera arrunta, informala eta intimoa, L aldaeraz egiten da beti edo nagusiki. Hots, Lren eta H-ren *konpartimentazio funtzionala* dago hiztun-elkarte horretan (konkretukiago, hiztun-elkarte horrek konpartimentazio-arau hori indarrean daukan esparru territorialean eta, horren barnean, bertako hiztunen arteko agerbide, jardun-gune, harreman-sare eta situazioetan. Hots: hiztun-elkartearen lurralde-esparru osoan (hiztun-herrian) edo bertako eskualde-eremu jakinean kontestuak agintzen du, normalean, noiz H erabili eta noiz L. Mintzajardunaren situazio-markatzaileek, nork-norekin-noiz-non-zertaz diharduen azaltzen duten elementuek, espikatzen eta, parte on batez, determinatzen dute kasu bateko eta besteko jardunaren berezitasuna.

f) *Konpartimentazio soziofuntzional* (eta, dagokion neurrian, territorial) hori *egonkorra* da. Hots, ez da urtetik urtera (ez eta hamarkadatik hamarkadara edo belaunaldi batetik hurrengora) nabarmenki aldatzen. Hizkuntza-egoera guztiak (guzti-guztiak) aldatu egiten direnez gutxi edo (normalean) asko, berehala agertzen da galdera: zenbat denbora iraun behar du hizkuntza-egoera batek “bere horretan”, egoera hori “egonkorra” dela esateko?⁵⁶ Neurri bat hartu patroi, zein bestea, ez da begien bistatik galtzea komeni diglosia, Ferguson-en irizpidez, egoera egonkorra dela. Konkretuki, “a relatively stable language situation”. Funtsezko elementua da egonkortasun-kontu hori, gero ikusiko denez, diglosiaz hitz egin nahi bada.

h) *H aldaerak badu*, azkenik, L-k gutxitan izan ohi duen *altxor-ondarea* berekin: lehendik metaturik (edo orain bertan, kanpoko beste hiztun-elkarteren baten produkzio bizian) *idatzizko literatura* (oro har bibliografia-oinarri) garrantzitsua du. L-k ez du horren parekorik, urrundik ere, idatzizko esparruan. Prestigio-kontua erantsi izan zaio, askotan, bereizkuntza horri.

Diglosiaren formulazio hori “geza” zen zenbaitentzat: ez zuen “gatzik”. Hots: Ferguson-en deskribapenean ez zen inon esaten, H-ren eta L-ren arteko elkarbizitza mingarria zenik, norbaitek (nahiz eta aspaldiko

“Diglossia is a relatively stable language situation in which, in addition to the primary dialects of the language (which may include a standard or regional standards), there is a very divergent, highly codified (often grammatically more complex) superposed variety, the vehicle of a large and respected body of written literature, either of an earlier period or in another speech community, which is learned largely by formal education and is used for most written and formal spoken purposes but is not used by any section of the community for ordinary conversation”.

“norbait” izan) inposatua eta, azken finean, gatazkatsua. Ferguson-ek hizkuntza-egoera jakinak deskribatzen zituen aldiune historikoan ez zen H-ren eta L-ren arteko gatazka-girorik ageri edota, zuzenago agian, halakorik bazenik edo ez zenik ez zen txostenean esaten. Hanka-punttaka pasa zen Ferguson puntu horretatik⁵⁷, hainbaten ustean. Nolanahi ere, gauza bat dago argi: 1959ko artikulu hark erabateko zabalkundea izan zuen unibertsitate-giroan, AEBn eta handik kanpora, eta gogoeta zein ikerketa ugari sortu izan du urte luzez, “hizkuntza eta gizarte” bikotea zientzia-arauz landu nahi dutenen artean. Erakarmen intelektual horri zor zaizkio, besteak beste, gorago aipatu ditugun milaka erreferentzia bibliografikoak.

Diglosiaren kontzeptu-lanketa horrek lerro bat baino gehiago izan ditu, 1959tik hona: ezagunenak, eta geroago gogoangarrienak, honako hauek: konpartimentazio soziofuntzionala (“gauza” batzuetarako H erabiltzen da, eta besteetarako L); egonkortasuna; ondare literarioa eta prestigioa (batak handia, besteak apala: horregatik da bata H, *High*, altua, eta bestea L, *Low*, apala); eskuratzeko modua (ama-hizkuntza moduan eskuratzen da L, etxean eta ingurumen hurbilean, eskolan edo goi-mailako sozializazio-ajente formaletan) bestea, H, gero; hizkuntza landua da bata (H: estandarizaturia, batua, gramatikaz eta hitz-altxorrez, baita fonologiaren ere, bere goren gradura igoa), eta herri-hizkera landugabea bestea (L: etxeko literatura ezagunean “hizkuntza larrekoa”, “garo-usain”ekoa). Batasun moduko bat bilatu uste izan da faktore horietariko gehienetan. Beste zenbaitetan, aldiz, ez. Adostasun handirik gabe agertu ziren, hasieratik, Ferguson-ek espresuki edo gaingiroki markaturiko zenbait muga-irizpide. Horietarikoak dira, besteak beste, honako hauek:

a) Non dago diglosiaren eta “dialekto plus hizkuntza formal estandar”-aren arteko bana-lerroa? Posible al da mintzajardunaren gizarte-moldaera bat (hizkuntza-kode biz, ez bakarraz, diharduen moldaera bat) distantzia interlinguistikoaren (hobe, Fergusonen hitzetan, aldaera arteko distantziaren) irizpide linguistiko hutsez definitzea? Posible al da gertakari soziologiko bat ezaugarri ez-soziologikoetan (hizkuntzalariek beraiek zehatz determinatzen ez dakiten distantzia kontu hutsaz) finkatzea? Zenbaiten erantzuna badakigu zein den: “in diglossia, *no-one* speaks the H-variety as a mother tongue, only the L-variety. In the Standard-with-dialects situation, some speakers speak H as a mother tongue, while others speak L-varieties as a mother tongue and acquire H as a second

system”. Hori ez da ordea betiko egia. Ikus, horretaz informazio hurbilagoa nahi lukeenak, Haas-en 2002ko artikuluan Suitza alemaneko eta oro har Alemaniako eta Austriako herri-hizkeren bila-kaera historikoaz argi azaltzen dena. Une eta leku bateko garapen historikoari dagokion bereizketa da hori, gehienera ere, ez betikoa eta nonahikoa. Andaluziako esparru handietan herritar guztiek egingo zuten etxetik andaluzieraz, etxetik gaztelaniaz egiten zutenak etorri edota, haien ondorengoak, bertan jaiotzen hasi arte⁵⁸. Berna inguruko suitzar-alemanak bezain diglosia betean bizi izan dira nire ustez, XIX. mendera arte, soldadu bat ikusi eta solaskideari “mira, kixo: un zordao!” moduan mintzo izan diren andaluziarrak. Non dago “the difference between diglossia and standard-with-dialects” hori joanaldi historikoan, aspaldikoan eta ez hain aspaldikoan, muga estuegiz jokatzu gero?⁵⁹.

b) Nola definitzen da “language situation” edo hizkuntza-egoeraren xede-multzoa? Badakigu dimentsio soziala, ez indibiduala, duela diglosiak (bai Ferguson-en adieran eta bai, aurrerago ikusiko dugunez, munduan barrena zirkulatzen duten gainerako formulazio nagusietan). Nola mamitzen da, ordea, dimentsio sozial hori: auzo bat izan al liteke diglosikoa? Hiri bat? Eskualde bat? Hizkuntza-aldaera bat bederen konpartitzen duten hiztun guztiek⁶⁰ osa al dezakete egoera diglosikoa bat? Hots, nola definitzen da diglosia hiztuntaldean aurrez aurre, hiztun-elkartean baitan eta, bereziki, bere proiektio fisiko-territorialtzat har dezakegun hiztun-herriari buruz⁶¹? Gure artean (demagun, aipatu berria den adibide batera itzuliz begiak, Zuberoan⁶²) diglosia-egoeran bizi al dira bertako biztanle guztiak? Eta bertako euskaldunak? Eta bertako euskaldun zaharrak? Zer irizpide-patroi hartu behar da oinarri, dimentsio sozial baten hizkuntza-egoera diglosikoa den ala ez jakiteko?

c) Diglosia zer gizarte-girotan sortu izan den, eta zer transformazio demografikok, soziokulturalek, politiko-operatibok eta ekonoteknikok indarrean mantentzen duen edo aldarazten, ahultzen eta, azkenik, ezabatzen duen, gutxi landutako analisi-bidea izan da hasieratik. Gutxi landua eta, bereziki, orain arte adostasun txikia eskuratua. Sorrerako gizarte-giroaren zenbait hurbilbide egin izan da: hurbilbide horiek ez dute kasu askotarako balio ordea, eta balio luketen kasuan ere ez dago garbi ezaugarri horiek benetako kausalak izan diren, eta ez bide batezkoak. Hori dela-eta zenbait adituk, perspektiba zinetikoaren eta dinamikoaren aldetik dituen mugengatik, diglosia bera kontzeptu ahula, hutsala edo osagabea dela uste izan

**Diglosiaren
formulazio hori
“geza” zen
zenbaitentzat: ez
zuen “gatzik”.**

Hots:

**Ferguson-en
deskribapenean
ez zen inon
esaten, H-ren eta
L-ren arteko
elkarbizitza
mingarria zenik,
norbaitek (nahiz
eta aspaldiko
“norbait” izan)
inposatua eta,
azken finean,
gatatzatsua.**

**Ferguson-en eta
Fishman-en
diglosia
kontzeptuak ez
dira, horregatik,
gauza bera. Era
askotara bataiatu
dira diglosia-
kontzeptu
diferente horiek
elkarrengandik
argi bereizteko.**

du. Horrek ez du oinarri handirik, nire ustez: bi motibo hauek emango ditut iritzi horren indargarri:

c1) Perspektiba deskriptiboa da diglosiaren abiaburu nagusia, eta beraz perspektiba horren eskakizunak ongi ala gaizki betetzen dituen analizatu behar da. Zaldia ez da belea baino okerragoa (ez eta hobeia ere), hegan egiten ez dakielako. Zaldien kalitatea ezin neur liteke, hegan hobeto edo okerrago egiten dutelako. Aurrerago helduko diogu berriro kontu horri. Balio duenerako balio du diglosiak, ez hasieratik bere jomuga izan ez diren xedeak betetzeko.

c2) Ez da egia, gainera, Ferguson-en formulazioa (ez eta, aurrerago ikusiko denez, Fishman-ena ere) deskriptibo hutsa denik. Christina Bratt Paulston-ek eta G. Richard Tucker-ek argi diotenez (2003: 371), formulazio biek “share a concern for the evolutionary framework for diglossia, exploring social conditions contributing to its emergence and decline, as well as the roles of functional complementarity and acquisitional process in the maintenance of a compatible long-term relationship”. Hori ezin da begien bistatik galdu. Adin-taldean analisi kontrastibotik maiz askotan atera litezkeen grandiente-ondorioei eskerrak, deskribapen estatiko askok berekin izan ohi du perspektiba zinetikoa eta, zenbaitetan, dinamikoa. Leku eta une bateko aitona-amonak A hizkuntzaz (edo aldaeraz) mintzo badira gauza batzuetarako eta besteetarako Bz, baina banaketa hori diferentea baldin badute leku-une horretako gurasoek eta, bereziki, seme-alabek eta bilobek, eboluzio-bilakaera begien bistan dago. Bilakaera hori aldi hartako transformazio demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatiboekin uztartzen den neurrian, bistan dago diglosiazko azalpen horren argitasun-indarra.

Hori horrela izanik ere egia da, dena den, urrun dagoela diglosiaren formulazio klasikoa, Ferguson-ena bereziki, munduko diglosia-egoeren geroaz juzku zorrotzik egin ahal izateko egoeratik. Moztade horiek eta beste zenbait⁶³ zirela medio, Ferguson-en diglosia-kontzeptuak birmoldaketa kontzeptualik izan zuen sortu eta handik gutxira. Birmoldaketa horren eragile argienetakoa J. Gumperz izan zen. Bere birmoldaketa horiek aintzakotzat hartuz, eta ardatz biko formulazio globalagoa eratuz, diglosia kontzeptuaren garapen-lana eragin zuen handik gutxira (1967an lehenik), eta 2002ra arte gutxienez, Joshua A. Fishmanek.

3.1.3 Fishman-en ardatz biko garapena

Gumperz-en aurrelanetatik abiatuz, bere bide-berritze sakonean oinarrituz alegia, diglosiaren beste formulazio bat aurkeztu zuen Fishman-ek 1967an. “Bilingualism with and without diglossia: diglossia with and without bilingualism” izeneko artikulu famatuaz egin zuen aurkezpen hori⁶⁴. Hori da bere formulazio “zabaldua”. Ferguson-ek bere aurreko diglosia kontzeptua hainbat puntutan aldatu zuen bezala, hala egin zuen Fishman-ek ere. Ferguson-en eta Fishman-en diglosia kontzeptuak ez dira, horregatik, gauza bera. Era askotara bataiatu dira diglosia-kontzeptu diferente horiek elkarrengandik argi bereizteko: lehenengoari benetakoa (*true diglossia*), barne-diglosia (*endodiglossia*), *genetically related diglossia* esan izan zaio besteak beste; bigarrenari, berriz, diglosia zabaldua (*broad diglossia, extended diglossia*), gizarteko elebitasuna (*societal bilingualism*), *biglossia*, barne- zein kanpo-diglosia (*endo- eta exodiglossia*) onartzen duen formulazioa, eta abar. Zer du Fishman-en formulazio horrek berririk? Alde batetik, diglosiaren eta elebitasunaren bereizkuntza zorrotzetik abiatu izana. Bestetik, aurrez aurreko hizkuntza-kodeen egiturazko diferentzia-aukerak nabarmenki zabaldu izana. Goazen puntuz puntu.

a) Gertakari soziala da diglosia Fishman-entzat. Gertakari indibidualtzat hartzen du, aldiz, elebitasuna. Ez dira gauza bera. Plano soziologiko-kolektiboan mugitzen gara diglosia kontzeptuarekin, eta plano indibidual-psikologikoan elebitasun kontzeptuarekin. Ez dago hor, beretzat, inolako kontraesanik: autonomoak dira kontzeptu biak. Autonomoak eta bateragarriak. Konparazio geoekonomikoaz baliatzen da une batean, plano soziologiko-kolektiboaren eta psikologiko-indibidualaren arteko bateragarritasuna esplikatzeko. Honela dio: herrialde pobreetan hiritar guztiak ez dira pobre; herritar batzuek aski aberatsak izan ohi dira⁶⁵. Batak ez du bestea kentzen: herrialdearen *per capita* errenta apala (are munduko apalenetakoa) izan liteke batetik eta, aldi berean, bertako hiritar batzuek aberats (are arras aberats). Gauza bat da herrialde bat pobre izatea, eta bestea herritar hau, hori edo hura pobre izatea. Bata eta bestea ez daude zeharo elkarrengandik aparte (herrialde pobreetan, pertsona gehienak pobreak edo oso pobreak dira), baina bi gauza dira herrialdearen aberastasuna eta pertsona jakinen aberastasuna. Teorikoki posible da dikotomia hori, eta praktikan maiz gertatzen da halakorik: mundu zabalean behin eta berriro ikusten den fenomeno da bereizkuntza bipolar hori. Era berean, eta hori da Fishman-en

Oker ulertu da, sarri, Fishman-en lau situazio paradigmatico edo polarren taula hori. Ez da askotan ulertu, hasteko, lau punta-mutur deskribatzen dituela ardatz biko taula horrek. Egoera posible askoren arteko lau punta-mutur bakarrik direla horiek.

esplizitazioa, gizarte diglosikoak ez du eskatzen gizarte horretako hiztun guztiak elebidun izatea. Diglosiarik gabeko herrialde batean izan liteke herritar elebidunik, eta alderantziz ere bai. Bi plano dira gizartearen (hiztun-elkarte baten) tipifikazio linguistiko kolektiboa eta hiztun konkretuaren elebitasuna (oro har, bere hizkuntza- edo aldaera-aniztasuna). Fishman-en formulazio hau berria da, baina ez dator Ferguson-ek azalduetako formulazioaren kontra. Funtsean, eta puntu honi dagokionez, 1959an inplizituki uler zitekeen ezau-garria esplizituki emanik eta argi defendaturik dago 1967an.

b) Bere baitan bi (edo n) kode linguistiko diferente erabiltzen ditu hiztun-elkarte diglosikoak. Hori da gizarte (hiztun-talde, hiztun-elkarte, hiztun-herri,..) batek, diglosikoa izateko, bete behar duen lehenengo baldintza. Nolakoak dira ordea, elkarren artean, bi kode linguistiko horiek? Elkarren antzeko kodeez (“enbor beretik” datozen aldaerez) ari al gara, edo nolana-hikoez? Ferguson-entzat ahaidetasun genetikoa behar dute izan L-k eta H-k, diglosiarik izango bada beren artean. Ahaidetasun horrek, gainera, erdibidekoa izan behar du: ez hurbilegia (handiegia) eta ez urrunegia (txikiegia). Fishman-entzat, aldiz, ahaidetasun-kontu hori ez da ezinbesteko baldintza. Berdin du ahaidetasuna txikia izan, ertaina edo handia. Are gehiago: berdin da L eta H elkarren ahaide genetiko izan edo ez izan. Baldintza hori ez da diglosiaren (Fishman-en diglosiaren) ezinbesteko baldintza. Askatasun-esparrua zabaltzen du horrek, eta ordura arte diglosiatzat hartu ezin ziren hainbat hizkuntza-egoera (tartean, nola ez euskara-erdaren artekoa) diglosiazkotzat har litezke (gainerako baldintzak betetzen diren neurrian). Askatasun-marjina horren ildotik, era berean, hizkuntza-harreman diferenteak deskriba litezke diglosiaren barruan. Konkretuki, lau hauek: (a) H kodea hizkuntza klasikoa da, L kodea etxeko herri-hizkera, eta biak genetikoki ahaide dira: adib. arabiera klasikoa eta etxeko hizkera arabea; (b) H kodea hizkuntza klasikoa da, L kodea etxeko herri-hizkera, eta biak ahaidetasun genetikorik gabeak: adib. askenaz-juduen *Loshn-koydesh* (hebraiera/aramaiera) eta etxeko *jiddish*-a; (c) H kodea hizkuntza idatzi-formala da, L kodea etxeko herri-hizkera, eta biak ahaidetasun genetikorik gabeak: adib. Paraguay-ko espainiera eta guaraniera; eta (d) H kodea hizkuntza idatzi-formala da, L kodea etxeko herri-hizkera, biak genetikoki ahaide izanik: adib. aleman batua eta Suitzako *swizertüütsch*, frantsesa eta okzitaniera, etab. Euskara-erdaren kasua, bistan da, tipologia linguistiko horren arabera (gainerako baldintzez ahazturik oraingoz) (c) kasuan sartzen da bete-betean.

Katalanaren eta espainolaren artekoa, berriz, (d) kasuan. Garrantzizkoa da hori, gero ikusiko denez⁶⁶.

Goiko berrikuntza horiek ez datoz Ferguson-en formulazioa hankaz gora jartzera, batzuek hala uste badute ere. Aurrerago ikusiko dugunez, ondotxo gauza gehiago dute bien diglosiak amankomunean, bereizgarri handirik baino. Bistan da, ordea, bestelako konstelazio bat eraiki duela Fishman-ek. Berrikuntza horietatik abiatuz, izan ere, hizkuntzen dimentsio indibidualak eta kolektiboak kontrastatuz lau situazio paradigmatico azpimarratzen ditu Fishman-ek 1967an, geroztik hain famatua egin den taulan. Hona, eskematizatuz, bi aldagai dikotomikoen araberrako lau situazio polar horiek: (a) (+diglosia, +elebitasuna): hiztun-elkartea diglosia-giroan bizi da eta bertako hiztun guztiak elebidun dira⁶⁷; (b) (+diglosia, -elebitasuna): hiztun-elkartea diglosia-giroan bizi da eta bertako hiztunak (guztiak edo gehienak) elebakar dira: H-hiztun elebakar batzuk, eta L-hiztun elebakar besteak⁶⁸; (c) (-diglosia, +elebitasuna): hiztun-elkartea ez da diglosia-giroan bizi baina hiztunak (hainbat hiztun) elebidun dira⁶⁹, eta (d) (-diglosia, -elebitasuna): hiztun-elkartea ez da diglosia-giroan bizi eta hiztunak ez dira elebidun, elebakar baizik⁷⁰. Goiko bigarren berrikuntza ere gogoan izan behar da, punta-muturreko lau situazio paradigmatico horien izaeraz ondo jabetzeko. Horrela, “elebidun” esaten denean kasuan kasuko hiztunak bi kode linguistiko dituela⁷¹ esan nahi da soil-soilik (kode horiek bi hizkuntza diferente edo hizkuntza beraren bi aldaera, hurbil edo urrun, izan litezkeelarik). Era berean, hiztun-elkarte bat “diglosikoa” dela esaten denean hiztun-elkarte horrek bi kode linguistiko⁷² darabiltzala esan nahi da (kode horiek bi hizkuntza diferente edo hizkuntza bereko bi aldaera, hurbil edo urrun, izan litezkeelarik).

Oker ulertu da, sarri, Fishman-en lau situazio paradigmatico edo polarren taula hori. Ez da askotan ulertu, hasteko, lau punta-mutur deskribatzen dituela ardatz biko taula horrek. Egoera posible askoren arteko lau punta-mutur bakarrik direla horiek. Punta-muturreko lau mugari. Errealitatean, Fishman-ek berak argi azaldu izan duenez, oso gutxitan aurkitzen dira justu-justu lau gelaxka horietariko batean koka litezkeen hiztun-herri edo hiztun-taldeak. Bere hitzetan esanik “both diglossia and bilingualism are continuous variables, matters of degree rather than all-or-none phenomena, even when compartmentalization obtains” (Fishman, 1989 (1980): 185). Tarte-bitarteko nahas-egoerez beterik dago errealitatea. Askok konplikatu liteke simple-itxura duen taula hori, tarte-bitarteko egoera horiek guztiak kontuan hartuz⁷³. Hala egin behar da ordea, formulazio berritua bere osoan entenditzeko. Errealita-

“(Diglossia is) an enduring societal arrangement, extending at least beyond a three generation period, such that two “languages” each have their phenomenological legitimacy and widely implemented functions”.

teak ez ditu lau situazio horiek bakarrik, ardatz bietan barrena kokatzen diren tarte-bitarteko egoerak ere baizik.

Bi kode linguistikoren presentzia sozialaz gainera beste zer baldintza bete behar ditu gizarte-egoera batek, Fishman-en ustez, diglosiazkoa izateko? Bi baldintza. Batetik konpartimentazio funtzionala, eta bestetik egonkortasuna. Hona biak, hurrenez hurren:

a) *Konpartimentazio soziofuntzionala*: diglosia-giroan, hizkuntza edo aldaera bakoitzak bere erabilera-esparruak, bere jardun-guneak, bere rol-harremanak eta bere interakzio-esparru propioak ditu. Diglosiazko gizarte horretan normal ikusten da “gauza batzuk” L bidez egitea, eta “besteak” H bidez. Hots, L-ren eta H-ren konpartimentazio funtzionala dago indarrean hitzun-elkarte horretan. Konkretukiago, hitzun-elkarte horrek konpartimentazio-arau hori indarrean daukan esparru territorialean eta, horren barnean, bertako hitzunen arteko agerbide, jardun-gune, harreman-sare eta situazioetan. Nolakoak izan litezke konpartimentazio-bide horiek? Berriro ere zehaztu (eta hainbatean osatu) egiten du Fishman-ek aukera posibleen esparrua. Konpartimentazio-oinarria era askotakoa izan liteke, bere esanean: *sancity/secularity* izan da horietariko bat (hala da orain ere arabiera klasikoaren eta etxeko herri-hizkera arabeen artean); *estratifikazio sozial ezarria* (Asiako kasta-girokoa adibidez) versus *lortutako status soziala* izan liteke bestea; *bertako/kanpotar* kategorien arteko eten-lerroa hurrengo; *tradizio/modernitate* bikotearen ondoriozkoa azkena. Dikotomia horiek guztiak konpartimentazio-oinarri izan litezke: gizarte-moldaera gotor eta iraunkor samarrak gerta litezkeenak eta, gotortasun/iraunkortasun horri eskerrak, hizkuntza edo aldaera biren arteko banaketa soziala ekarri edota mantendu dezaketanak.

b) *Diglosia-giroa aski egonkorra da*. Hots, ez da urtetik urtera (ez eta hamarkadatik hamarkadara edo belaunaldi batetik hurrengora) nabarmenki aldatzen. Fishman-en arabera, hiru belaunalditik gora (lau belaunaldi edo gehiago) irauten duen moldaera soziolinguistikoa da diglosikoa. Funtsezko elementua da egonkortasun-kontu hori, Fishman-en baitan ere, diglosiaz hitz egin nahi bada. Iraunkorra ez den ele biko gizarte-moldaera (adibidez, Gotzon Garatek bere artikuluan azaltzen duen gure XX. mendeko egoera) ez da, definizioz, diglosia.

Bi baldintza horien argitan ulertu behar dira Fishman-ek diglosiaz emandako definizio-azalpen gehienak. Definizioz sintetikoa, agian, honako hau izango dugu: “(diglossia is) an enduring societal arrange-

ment, extending at least beyond a three generation period, such that two “languages” each have their phenomenologically legitimate and widely implemented functions”. (1989 (1980): 181). Berak ere maiz (ez beti, ordea) erabili izan ditu H eta L ikurrak, diglosiako bi kodeak (aldaerak edo hizkuntzak) adierazteko. Honela azaltzen du orobat, Ferguson-en bidetik ia orpozo orpo, H aldaera zer den: “H (is used) to designate the *superposed* variety in a diglossic society, i. e. the variety that is learned *later in socialization* (and, therefore, is *no one’s mother tongue*) under the *influence of one or another formal institution outside of the home* (and, therefore, is *differentially accesible* to the extent that entry to formal institutions of language/literacy learning (typically: school, church, government) is available)”. Era berean, honela kalifikatzen ditu L kodeak: “Ls (are) the universally available and spoken (mother) tongues and varieties of everyday life”.

Fishman-entzat ez dira berdinak, hasierako azalpena itzuliz, ardatz biko konbinazioz sortzen diren lau kasu polarrak. Ez dira berdinak, hasteko, (a) eta (b) ataletan eman diren bi diglosia mota hauek: hiztunak (guztiak, gehienak) elebidunak diren gizarte diglosikoa batetik, eta hiztun elebidunik (ia) ez duen gizarte diglosikoa bestetik. Diferenteak dira, gizarte horren funtzionamendu linguistiko globala oso bestelakoa delako. Gainerakoan, ordea, bat datoz biak Ferguson-ek 1959an diglosia txapelpean deskribaturiko kasu konkretuekin⁷⁴. Oso diferentea da, aldiz, taulako hirugarren kasua: (c) kasua alegia. Hiztun-elkartea ez da hirugarren kasu horretan diglosia-giroan bizi, nahiz eta hiztunak (hainbat hiztun, ez ezinbestean guztiak edo gehienak) elebidun diren. Hirugarren egoera hau oso diferentea da. Soziolinguistikan oro har, eta gure arteko ezagutza edo tradizio soziolinguistikoan bereziki, (c) kasua ez da askotan aurreko bietatik ondo bereizten jakin: horri ere (are: batez ere horri) esan izan zaio diglosia gure artean.

Bereizkuntza hori ezinbestekoa da, aurrerago ikusiko dugunez, diglosiaren gaineko eztabaidak eta kontzeptu-lanketak bere-berea duen helburu praktikoa nagusirako: lehenengo bi kasuak ((a) eta (b) kasuak) egonkorak dira, ezinbestean. Hirugarren kasua, aldiz, ez da egonkorra. Diglosiarik gabeko elebitasun-egoera horietan botere-indar eta gizarte-bilakaera osoarekiko babes-lotura handiena duen hizkuntza ateratzen da beti, lehenxeago edo beranduxeago (askotan hiru belaunaldiren epe laburrean), garaile. Honela esana digu hori Fishman-ek: “These (arrangements) are characterized not only by language spread but also by language shift. In some instances indigenous languages are swamped out by intrusive ones (B → A = B) (...). In other instances, immigrant

**Elebitasunaz zein
elebitasunik
gabe, diglosia
iraunkorra
(iraunkor
samarra) da
berez. Aldiz,
elebitasun
zabalenaz ere
diglosiarik
gabeko egoera
ezegonkorra da
berez:
trantsiziozkoa,
aldi baterakoa,
belaunez
belauneko
transmisio-
katean
iraupen-
ahalmenik gabea.**

languages have disappeared as their speakers have adopted the languages of their hosts (B → A) = A. What both of these otherwise quite different contexts reveal in common is an absence of social compartmentalization such that the languages of hearth and home (of indigenous peoples, on the one hand, and of immigrants, on the other) can protect themselves from the greater reward and sanction systems associated with the language of new institutions to which they are exposed and in which they are involved". (...) As a result of the lack of successful compartmentalization, both A and B compete for realization in the same domains, situations and role-relations. Since, with the exception of fleeting metaphorical usage (humor, sarcasm, etc.), linguistic functional redundancy cannot be maintained intergenerationally and gives way to the stronger functional system, the language with stronger rewards and sanctions with it wins out. (Fishman, 1989 (1980): 187).

Diferentzia hori fundamentalala da. Inori baino gehiago, eta lehenagotik, Fishmani zor zaio diferentzia hori argi azaldu izana. Elebitasunaz zein elebitasunik gabe, diglosia iraunkorra (iraunkor samarra) da *berez*. Aldiz, elebitasun zabalenaz ere diglosiarik gabeko egoera ezegonkorra da *berez*: trantsiziozkoa, aldi baterakoa, belaunez belauneko transmisio-katean iraupen-ahalmenik gabea. Gotzon Garatek bere artikuluan deskribatzen duen gure egoera ez da diglosikoa. Diglosiarik gabekoa da egoera hori, nagusiki: batez ere (c) motako elebitasuna. Zehazki esanik, elebitasun maila ohargarrikoa⁷⁵ baina, konpartimentazio soziala nabarmen galdu duelarik euskaldungoak, azken diglosia-hondarrak baizik gelditzen ez zaizkion aldikoa⁷⁶.

Labur bilduz: 1959ko osagai guztiak (ez orain arte azaldutakoak bakarrik) kontuan hartuz zer alde dago Ferguson-en formulaziotik Fishman-ek 1967an aurkeztutakora? Ferguson-en kontzeptuak, ikusi dugunez, lau esparrutako osagaiak ditu berekin. Nire terminologian esateko, lau dimentsio diferenteetako osagaiak: osagai *soziologikoak*, batez ere *erabilerari dagozkionak* (H "honetarako" erabiltzen du jendeak, L "horretarako"); osagai *psikolinguistikoak* (H-n eta L-n jarduteko *hizkuntza-gaitasunik* baden edo ez den, batetik, eta *gaitasun* hori nola eskuratzen den, bestetik: ama-hizkuntza gisa, etxean, edo beranduago, eskolan edo bestelako sozializazio-instituzio formalen bidez; osagai *linguistikoak* (H eta L "enbor beretik" dato⁷⁷, *hizkuntza beraren aldaera bi* dira, edo zeharo *bi hizkuntza diferente*: Ferguson-entzat, lehen kasua⁷⁸ bakarrik da diglosiazkoa); eta, azkenik, osagai *ebaluatiboa* (aurrez aurreko aldaera biei, eta haietaz baliatzen diren hiztun-idazleei, buruzko *jarrerak*: tartean, bereziki, *prestigio* kontua).

a) Lau dimentsio horietariko hirugarrenari “pase forala” eman dio Fishman-ek, miramentu handirik gabe⁷⁹. Egoera bat diglosiazkoa izateko, bere ustez, aurrez aurreko bi kodeek (L-k eta H-k) ez dute elkarren ahaide izan beharrik. Bere hitzetan esanik: “diglossia exists not only in multilingual societies which officially recognize several ‘languages’ but, also, in societies which are multilingual in the sense that they employ separate dialects, registers or functionally differentiated language varieties of whatever kind” (1967: 30). Berdin du bere ustez H eta L horiek hizkuntza beraren bi aldaera izatea (tartean, bata aldaera formal jaso eta bestea dialektozko hizkera arrunta), edo bi hizkuntza bereizi. Ikuspegi soziologikotik ez dago alderik batetik bestera, bere ustez, aldaera bien edo hizkuntza bien artean konpartimentazio soziofuntzionalak oinarri sendoa eta onarpen zabala baldin badu hiztun-elkartean⁸⁰. Fishman-entzat edozein kode-bikote da diglosia-egoeran egoteko kandidatu, bikotekide bien artean konpartimentazio soziofuntzionala argia baldin badu kode-bikote horretaz baliatzen den hiztun-elkartean⁸¹. Egitura-desberdintasun txikienetik zabalenera, dena izan liteke diglosia, baldin “the linguistic differences must be functionally distinguished within the society” Horrezaz gainera, dimentsio linguozentrikoaz amaitzeko, bai L kodeak eta (Ferguson-enean ez bezala) bai H kodeak aldaera edo hizkuntza bat baino gehiago izan ditzake bere baitan⁸². Puntu honek eztabaida handiak sortu eta sortzen ditu. Horixe da ordea, euskaldunoi dagokigunez, entenditzen eta onartzen errazena. Bai endoglosia eta bai, bereziki, exoglosia interes biziko formulazioak ditugu. Gure arteko eztabaida eta desadostasun-giroari dagokionez, halere, bistan da bigarrena (euskara-erdaren arteko diglosia) dela askogatik interesgarriena.

b) Ferguson-en baitako laugarren dimentsioari ere, jarrerekin eta, bereziki, prestigio-kontuekin lotua dagoen dimentsioari alegia, leku mugatua aitortzen dio Fishman-ek: Ferguson-ek baino mugatuagoa. Ez inolako garrantzirik gabea iruditzen zaiolako prestigio-kontua, iluna eta erabakimen lausokoa iruditzen zaiolako baizik hainbatean⁸³. Hori dela-eta, zenbaiten esanean (Fasold, 1984) hizkuntza-kode bien arteko bana-lerroak ez du zergatik Fishman-en formulazioan justu-justu H eta L artekoa izan beharrik, maizenik hala bada ere.

Nolanahi ere, funtsezko ezaugarri askotan Ferguson-en bidetik doa Fishman, errazegi ahazten bada ere hori. Funtsezko bi osagaitan, konpartimentazio soziofuntzionalan eta egonkortasunean, erabat elkarren

**Euskaldunok,
Mitxelenaren eta
Txepetxen kasu
bakanak alde
batera utzirik,
katalanen
iturritik edan
genuen
diglosiaren
mama, gozoa zein
mingotsa.**

**Jarduera
soziopolitiko
zabal baten
altzoan txertatu
izan dute
katalanek eta
okzitaniarrek,
esan bezala, beren
gogoeta-saio
soziolinguistikoa.
Horren ondorioz
“a fighting term”
bihurtu dute
diglosia hitza eta
bere kontzeptua,
diskurtso
soziolinguistikotik
diskurtso
politikora
pasatzean. Baita,
zenbaitetan,
diskurtso
soziolinguistikoa
albo-karga
ideologiko
nabariaz
zamatzean ere.**

eskutik doaz formulazio biak. Hori dela-eta, ez dut uste egokia denik esatea zenbat buru hainbat aburu dagoenik diglosiari buruzko formulazio klasiko nagusietan. Ez, behintzat, diskurtso soziolinguistikoko sendoaren, mundu zabalean maizenik korritzen duenaren artean. Badira aldeak Ferguson-en hasierako formulazio klasikotik, Fishman-en formulazio zabaldua, adituek *extended* edo *broad diglossia* dioten horretara. Horiek bezain nabarmenak dira ordea adostasunak. Horien analisia egingo dugu aurreraxeago. Hartan oinarrituko gara, nagusiki, etxeko eztabaida terminologiko eta kontzeptuala argitzen saiatzeko. Badugu ordea, hartara pasa aurretik, ardura handiz eta xehe samar aztertu beharreko hirugarren formulazioa, gure artean askogatik ezagunena.

3.1.4. “Menderatuen diglosia”

Ferguson-en eta Fishman-en *diglosia* (termino teknikoa eta bere kontzeptu-adiera) berehala jaso ziren Europan. Interes handia piztu zuten Europako zenbait gunetan. Batez ere Herrialde Katalanetan (Valentzian, Printzipatuan bezainbat) eta Frantziako esparru akademikoan. Euskaldunok, Mitxelenaren eta Txepetxen kasu bakanak alde batera utzirik⁸⁴, katalanen iturritik edan genuen diglosiaren mama, gozoa zein mingotsa. Izugarritzko eragina izan du diglosiaren kontzeptuzko bilakaeran, gogoeta eta birformulazio europar horrek. Batez ere ekarpen katalan-valentziarrak, guri dagokigunez. Hain izan da handia bere eragina gure artean, diglosiaren alorrean eta oro har soziolinguistikian, non atentzio handiz (aurreko ataletan baino xeheago) aztertu behar dugun ekarpen soziolinguistikoko hori eta, bereziki, “menderatuen diglosia”. Perspektiba soziolinguistikoko horren azalpen tekniko hoberenak Henry Boyer-ek⁸⁵ eta Georg Kremnitz-ek⁸⁶ eman dizkigute, nire ustez. Azalpen konbati-boagoetarako ezin utzizkoak dira, bestalde, Lafont-en artikulua⁸⁷. Kurioso bada ere, katalanak (Aracil buru delarik) gutxitan saiatu izan dira beren ikuspegi hori sistematizatzen⁸⁸. Azken orduko azalpen eta gogoeta-lanean oso kontuan hartzekoak iruditzen zaizkit, azkenik, Josep J. Conill (2007, 2009) eta Joan-Lluís Marfany (2008, 2010).

1968an jarri zen *diglosia* kontzeptua zirkulazioan, katalan-herrietan⁸⁹. 1968a ez da urte “normala” Europan, Parisen zein handik kanpora. Urte konkretuaren kontua alde batera utzita, fija gaitezen garai hartako *Zeitgeist* jakinaren zenbait osagaitan: a) Atzerrian, bereziki Frantzian, deskolonizazio-aldia (Algerian, adibidez) gertakari hurbila zen oso. Honela dio Calvet soziolinguista ezagunak, puntu horretaz: “One has the impression that the success of the concept of diglossia can be explained by the historical moment in which it was introduced. At the time of the Afri-

can independencies, numerous countries were confronted with a complex linguistic situation: on one hand, multilingualism and on the other, the official predominance of the colonial language⁹⁰. (Calvet 1993: 45; ingelesezko itzulpena in Paulston, 2002: 129); b) Espainian, Francoren agintaldia amaitzera zihoan. Hori segurua zen, adinak bere legeak dituelako besteak beste. Zerbait pentsatu beharra zegoen Francoren agintekera hura amaitzen zenerako. Zerbait pentsatu beharra zegoen, bereziki, azken gerran galtzaile izandakoak etorkizun demokratiko hurbilean gehiengoa izan zitezkeen hiztun-herrietarako. Itxaropen- eta iharrosaldi-giro horretan egindako gogoeta-lan eta aktibazio soziopolitiko gotorraren altzoan sortua dugu, nagusiki, Paisos Catalans-etako soziolinguistika (batez ere hizkuntza-soziologia) eta, horren barnean, “menderatuen diglosia”⁹¹.

1965a hartu ohi da, oro har, soziolinguistika katalanaren abiaburu nagusitzat⁹². Urte hartakoa da Lluís V. Aracil valentziarraren *Conflict linguistique et normalization linguistique dans l'Europe nouvelle*. Aparteko eragina izan du Aracil-ek soziolinguista katalanen artean. Norbanakoez gainera talde mardula plazaratu zen orduan, Paisos Catalans zirelako-etan. *Grup Català de Sociolingüística* (GCS) eratu zen bertan. Beste gehiagoren artean, honako kideok zituen taldeak: Lluís V. Aracil (1941, Valentzia), Antoni Maria Badia i Margarit (1920, Bartzelona: GCSren lehendakari), Domènec J. Bernardó (1946, Perpinyà, Roselló), Gentil Puig i Moreno (1937, Manresa), Joaquim Torres (1946, Bartzelona: ekonomia, soziologia) eta Francesc Vallverdú (1935, Bartzelona: jurista eta publizista). Aparte kontatzekoa da, GCSko kide ez zelako, Rafael Lluís Ninyoles (1943, Valencia: jurista eta soziologo).

Hogeita hamar urte inguruko gizaseme gazteak izanik ere GCSko kide asko, maila intelektual handiko jendea zen oro har. Zaharrena, Antoni Badia i Margarit, Société de Linguistique Romaneko lehendakari izan zen 1968-1971 bitartean, eta 1978tik 1986ra Bartzelonako Unibertsitatearen errektore. Aracil, berriz, International Sociological Association-ISAREN Research Committee on Language and Society-ko lehendakariorde izan zen lehenik (1974-1978) eta gero lehendakari (1978-1982). Kanpoko (batez ere Ipar Amerikako eta Europako) bibliografia teknikoa eskueran zuten soziolinguista katalanek, batetik, eta bertako egoeraren berri zuten bestetik. “Taldea” az hitz egin baliteke ere, oso kontuan izan behar da gauza bat: barneko diferentziak nabarmen agertu ziren hasiera samarretik eta, batez ere, Aracil-en eta Ninyoles-en arteko tirabirak konstante ezaguna izan ziren luzaz⁹³. Gero, 1987tik hona, desadostasun-kontuak are nabarmenago azalera ziren Aracil-ek ordura arteko bidea alde batera utzi eta aski zia boga sakona egin zuelarik. Hogeitazero so-

“Ou bien la langue imposée va se substituer lentement mais sûrement à la langue dominée ou bien les usagers de celle-ci vont oeuvrer à sa normalisation (c’est-à-dire à une utilisation normée dans tous les domaines de la communication) en combattant les tendances à l’assimilation”.

ziolinguistika-lan emankorra hor zegoen ordea, guztion ikasgai. Lan hartaz (eta ordutik hona, azken urteotan bereziki, izan duen bide-berritze zenbaitez) jardungo dugu atal honetan, helburua diglosiaren argitze-saioa izanik beti ere. Merezi du atal honetan luzexeago pausatzea, gure arteko jarduera eta hainbat katramila ezin estuago loturik baitaude katalanek plazaraturiko “menderatuen diglosia” horrekin.

Gogora ditzagun Soziolinguistika Katalan horren zenbait ezaugarri. (a) Perspektiba soziozentrikoa du nagusiki: bere ekarpen intelektuala hizkuntza-soziologian sartzen da bete-betean, soziolinguistika bariatzionala (perspektiba linguozentrikoa) bigarren plano batera eramanez⁹⁴; (b) (katalan-hizkuntzako herrialde historiko gehienetako adituak ditu bere baitan: Kataluniako Printzipatutik ezezik Valentziatik (Aracil, Nin-yoles,...), Balear-uhartetik eta Ipar-Kataluniatik (Rosello-tik) ere bilduak ditu kideak; (c) soziolinguistikazko ezagutza eta zientzia-maila jasoa izan du hasieratik: gutako gehienona baino nabarmenki jasoagoa; (d) ahuldutako hiztun-herri askoren erreferentzia intelektuala bihurtu izan da⁹⁵: tartean, nola ez, euskaldunona (haiengandik ikasi genuen lehen hamarkada luzean, begiak iturri orijinaletara itzuli ere gabe, ondo edo gaizki hizkuntza-soziologiaz ikasi genuen gehiena); eta (e) ahularen aldeko apustua izan nahi du, hasieratik eta agiri-agirian, “menderatuen diglosia”-k. Kontestualki ahula den (askotan gainbehera bizian datorren) hiztun-elkartearen alde egin nahi du. Tortillari buelta eman nahi dio: ahultzen ari dena (zenbaitetan, dagoeneko arras ahuldurik dagoena) indarberritu egin nahi du. Hori du jomuga eta izena ere emana dio jomuga horri: hizkuntza-normalkuntza.

3.1.4.1 Soziolinguistika katalanaren hainbat ekarpen, diglosiaren inguruan

Diglosiak gure artean izan duen ibilera ulertzeko ezinbestekoa izan litekeenez, zazpi puntu aipatuko dira hemen soziolinguistika katalanaz eta, oro har, bere jira-bueltakoaz. Azterbide soziolinguistikoen neutraltasun-kontuak (neutraltasunik ezaren aipamenak barne) azalduko dira lehenik.

a) Menderatuen aldeko soziolinguistika: neutraltasunik gabeko zientzia?

Honela esana izan behar du Aracil-ek: “Sens dubte el sentit i la força de la sociolingüística catalana actual s’expliquen pel fet que el nostre treball científic és part integrant d’un moviment històric molt vast” (ikus Badia 1979: 20, in Boyer 1986: 22). Askotan esan izan da, hori dela medio, zientzia eta militantzia elkarren eskutik eramandako saioa

dela katalan-herrialdetako. Hangoa eta, haien bidetik, okzitaniarrek eta beste hainbatek (tartean guk) egindakoa. Militantziaren kontzeptu hori oso da labankorra, zientzia eraiki nahi denean. Ez da errazegi alboratzea komeni ordea. Zientziaren ikuspegitik ondo asmatu dagoena ona da, asmatzaileak aski interes partisanoak izanik ere tarteko⁹⁶. Ekarpeneren kalitateak eman ohi du azken epaia, ez motibazioak. Izen bat baino gehiago eman izan zaio orientazio horretako ikerketa- eta ikertzaile-multzoari. Beraiek beren burua nola izendatu izan duten begiratzen badugu, “sociolinguistique périphérique” (Lafont 1982: 92 eta 1984b: 7) edo “groupe des linguistes “natifs” (Prudent 1981: 23) dira formulazio ezagun bi, Okzitaniako esparruan.⁹⁷ Beti ere nork bere hizkuntza eta hiztun-elkartea izan dutelarik aztergai eta hobekizun, nork bere konstelazio etnokultural ahulduaren on beharrez landutako bidea denez berea, “menderatuen aldeko soziolinguistika” dei geniezaioke oker handirik gabe. Haien diglosiari, bide beretik, “menderatuen diglosia”.

Horrezaz gainera hor daude esparru katalanean eta Antilletan ari diren ikertzaileak, bai eta han-hemen diharduten adituak ere. Hiru esparru horietan diharduten soziolinguistentzat zentrala izan da diglosiaren kontzeptua. Boyer-en hitzetan esanik, “la discussion sur le concept de diglossie a été centrale et (...) se réclament “d’une science engagée dans la modification des données conflictuelles, d’une science à la fois critique et pratique” (Lafont 1982: 92 in Boyer 1986: 21-2). Orain ere ez da zentraltasun horren ikuspegi katalana erabat iraungi: ikus Marfany 2008 eta 2010.

Jarduera soziopolitiko zabal baten altzoan txertatu izan dute katalanek eta okzitaniarrek, esan bezala, beren gogoeta-saio soziolinguistikoa. Horren ondorioz “a fighting term” bihurtu dute *diglosia* hitza eta bere kontzeptua, diskurtso soziolinguistikotik diskurtso politikora pasatzean. Baita, zenbaitetan, diskurtso soziolinguistikoa albo-karga ideologiko nabariak zamatzean ere. Batean zein bestean, burrukarako tresna bihurtu eta erabili da sarri diglosia kontzeptua. Soziolinguistika frantsesak, bai bere aldaera marxistan eta bai bestelakoetan, maiz jo izan du ikuspegi horretara. “Guante zuriko” diglosia iruditu izan zaio, Calvet bati adibidez, Ferguson-en eta Fishman-en formulazioa. Formulazio horretan balegoke, bere esanean, “(a) tendency to *obfuscate the conflicts that characterized diglossic situations and to present as normal a situation of domination*” (Calvet, 1993, in Paulston, 2002: 130). “Goante zuria bai/ez” alorrean oso argia da, nire ustez, Paulston-ek Calvet-i ematen dion erantzuna: “I do not agree with Calvet’s implied notion that the use of diglossia rather than bilingualism obfuscates (his word is *gommer* ‘erase’)

Bere muga eta kontraesan guztiekin ere iraultza handia ekarri zuen soziolinguistika katalanak berekin. Hona iraultza horren zenbait ezaugarri, Aracil-en beraren arabera: hizkuntzaren egituratik erabilera kontuetara eraman zuen paradigma berriak aztertzaile eta ikertzaile-jendea, hizkuntzaren jatorritik begien bistako etorkizunera, hizkuntzaren beti-bateko izaeratik bere erabilera-baldintzen etengabeko aldakuntzara, esentziatik esistentziara, izaera metafisikotik positibora, azterbide estatikotik dinamikora, izatetik egitera, fatalismotik ekimen arduratsura, despolitizaziotik politizaziora.

conflicts. A situation of unwanted domination by one ethnic group over another remains just that, unwanted, whether we call it diglossia or bilingualism". (Paulston, 2002: 131). Eztabaida ideologikorako tresna gisa erabili nahi izanak ahuldu egin du, ez indartu, kontzeptuaren indarra.

Gauzak gugana hurbilduz nola dira neutraltasun-kontuok, diglosia hitzaren karga ebaluatiboari dagokionez? Konplikatu da historia. Kremnitz-ek zuzen adierazi izan duenez jatorrian bertan, hitz hori lehenik sortu zenean, konfliktu-iturri zen *diglosia*. Hala zen Psichari-rentzat 1885etik 1928ra bitartean, eta halaxe zen 1930ean ere (aski bestelako enfokez) Marçais-entzat. Psichari-ren asmoa ez zen Greziako *katarevousa* eta *demotiki* aldaeren arteko banaketa hotz-hotzean erakustea, bikoiztasun hura deskribatzea. Bikoiztasun hura *kaltegarria* zela eta, *katarevousa alde batera utziz*, greziarrek beren espazio fisiko-territorial eta (berezi) soziofuntzional osora *demotiki* delakoa *hedatu behar* zutela aldarrikatu nahi zuen berak. "A fighting term" zen, beretzat, diglosia hitza eta kontzeptua. Ez zuen berak termino zientifiko hotz bat bilatzen, demotikiaren aldeko bere publizista- eta militante-lanerako elementu lexikoa baizik. Antzera ziren kontuak, oso bestelako aplikazio-asmoz halere, Marçais-ekin ere. Batentzat zein bestearentzat, diglosiak ezer gutxi zuen zerutiarretik eta asko, zinez asko, infernuko kalamidadeetatik⁹⁸. Ez zen hori, halere, aparteko bekatu: inork, dakidala, ez ditu Psichari eta Marçais horregatik epaitu eta zigortu, ez orduan eta ez gero. Hori egia bada, askoz egiago da kontrakoa: gertaera soziolinguistikoko bat hotz-hotzean deskribatzen saiatu nahi izateak, zientzia-arauzko metodoak eta ikuspegi global kontrastagarriak aplikatuz hizkuntzen eta hizkuntza-aldaeren gizarte-dimentsioa perspektiba jeneral batera jasotzen saiatzeak alegia, ez du ezer "guante zuri"ko jokabide okerretik. Ferguson-en eta Fishman-en jarduera akademikoak ez du ezer txarretik eta bai asko, aitzitik, arras txalogarria den jokabide zuhurretik. Puntu garrantzitsua da hori. Aurrerago helduko diogu berriro.

b) Menderatuen aldeko soziolinguistika: sormen handiko jarduna

Sormen handia erakutsi zuen Lluís V. Aracil-ek 1965etik aurrera. Batez ere ekarpen teorikoetan: gero zabal hedatu diren kontzeptu askoren sortzaile edo aitaponteko dugu Aracil. Kontzeptu-lanketa haren altzoan txertatu behar da soziolinguistika katalanak 1968tik aurrera eraikitako diglosiaren formulazio berritua, ordura arteko planteamendu akademikoekin oso nekez uztartuzkoa. Funtsezkoa gertatu da, formulazio zabal hedatu horretan, Rafael Ll. Ninyoles-en 1969tik aurrerako ekarpena⁹⁹.

Funtsaren funtsean, 1965eko *Conflict linguistique et normalisation linguistique* bikoteak eraiki zuen soziolinguistika katalanaren (eta, bere bidez, beste hainbat hiztun-elkartetakoaren) berrogei bat urteko paradigma. Hitz bikote horrek eta horren altzoan, ezinbesteko hautakizun gisa, txertaturiko *dilema* famatuak. Geroztik behin eta berriro errepikatu denez, “ou bien la langue *imposée* va se substituer lentement mais sûrement à la langue *dominée* ou bien les usagers de celle-ci vont oeuvrer à sa *normalisation* (c’est-à-dire à une utilisation normée dans tous les domaines de la communication) en combattant les tendances à l’*assimilation*”. Kontestu horretan, “Le mot diglossie ne suffit plus à rendre compte de toute la complexité des situations et des processus analysés, des phénomènes psychoculturels, de l’idéologie et des divers enjeux”. Goliateg David menderatuko du, edo Davidek Goliat. Alferrrik da Goliaten eta Daviden artean bakeak egiten saiatzea: ez dago inolako aukerarik horretarako. Bietako bat ateratzen da, beti eta nonahi, irabazle. Zertako, beraz, “hizkuntza-aldaera edo hizkuntza beregain biren arteko elkarbizitza iraunkorra” adierazi nahi duen *diglosia* horretaz jardun? Irtenbide seguru bakarra dugu hiztun-elkarte txikiok, bizirik segitu nahi badugu: “hizkuntza-normalkuntza”.

Zein da hizkuntza-normalkuntzaren adiera betea, oro har? Goiko pasarte horren arabera, “une utilisation normée dans tous les domaines”. Zein da bere jomuga operatiboa, Kataluniako kontestu konkretuan? Vallverdú-ren hitzetan, honako hau: 1931-9 epealdira itzultzea. Hona Vallverdú-ren hitzak: “El desafiament més fort que, des d’un punt de vista sociolingüístic, es presenta avui (1979an ari da) a la societat catalana – no sols als Principat, sinó també a la resta dels Països Catalans – és d’arribar, al més aviat possible i amb el menor cost social i econòmic, a una nova situació de convivència lingüística en què el català recuperi totalment les seves funcions de llengua *pròpia* del país i el castellà – primera llengua de molts ciutadans catalans – esdevingui una llengua de relació, com gairebé havia arribat a ser-ho en el període 1931-1939”. (Vallverdú 1979). Nola egiten da hori, ordea, diglosiarik gabe? Erantzunik ez dago. Bai, jakina, kezka-aipamenik: “Un dels problemes més complexos amb què s’enfronta avui la normalització lingüística a Catalunya és el de la immigració: el fet que hi hagi almenys un 16 per cent de la població que no entengui el català (Del Campo 1977: 195) és un entrebanc seriós per a la plena normalització, perquè una política democràtica – com ha estat assumida per tots els partits nacionals – no pot pretendre la recatalanització de la nostra societat amb procediments *coercitius*”. Gauzak horrela baziren orduan, atera kontuak orain.

Perspektiba edo azterbide zinetiko-dinamikoan analizatuz kontuak, hiztun-elkarte biren arteko disputa edo tirabira historiko zabal baten etapa bat, estadio edo fase egonkor-itxurako bat da diglosia. Fase bat edo, Aracil-en ikuspegi ezagunaren arabera, fase batzuk. Etapa hori(ek) ere ez d(ir)a erabat egonkor: diglosia-giroan ere, hizkuntza bien erabilera-baldintzak eta funtzioak aldatuz doaz oro har.

Gatozen berriro teoriara, diglosia izanik gogoan. Bere muga eta kontraesan guztiakin ere iraultza handia ekarri zuen soziolinguistika katalanak berekin. Hona iraultza horren zenbait ezaugarri, Aracil-en beraren arabera: hizkuntzaren egituratik erabilera kontuetara eraman zuen paradigma berriak aztertzaile- eta ikertzaile-jendea, hizkuntzaren jatorritik begien bistako etorkizunera, hizkuntzaren beti-bateko izaeratik bere erabilera-baldintzen etengabeko aldakuntzara, esentziatik esistentziara, izaera metafisikotik positibora, azterbide estatikotik dinamikora, izatetik egitera, fatalismotik ekimen arduratsura, despolitizaziotik politizaziora¹⁰⁰.

Besterik ere esan liteke soziolinguistika katalanaren berrikuntza ugari eta ausartez, hanka sartzeko arrisku handirik gabe: diglosiari dagozkionetan Fishman izan zuen soziolinguistika katalanak, Ferguson oso kontuan hartzen bazuen ere, hasierako iturburu nagusi¹⁰¹. Ez dago horretan zertan harritu. Hori zen garaiko joera nagusia, hemen eta nonahi¹⁰². Aparteko motiborik ere bazuten katalanek, Fishman hartzeko iturri eta ez Ferguson: etxeko diglosia, oraingoa eta (bereziki) lehengoa, aztertzeke orduan: hizkuntza beregaina da katalana berentzat, ez gaztelaniaren (Frantzian frantsesaren) aldaera, eta beraz lekuz kanpora dago Ferguson-en diglosia kontestu horretan. Fishman-ekiko lotura hori oso argia eta espresua izana da lehen aldian: Aracil bera fishmandar ageri zen hainbat kontzeptutan eta, bereziki, fishmanzale sutsu gizaki moduan¹⁰³. Katalanen diglosia hori fishmandarra izana da gero ere, oro har¹⁰⁴. Ez fishmandar ortodoxo, ordea. Rojo-ren hitzetan esateko, “la concepción de Fishman ha orientado, directa o indirectamente, buena parte de los estudios sobre sociología del lenguaje realizados entre nosotros. De modo más exacto, ha sido una inadecuada interpretación de Fishman difundida por Rafael Ll. Ninyoles la que ha logrado popularizarse en España. (Rojo, 1985: 609). Egia al da Rojok dioen hori? Oker interpretatu al zuen Ninyoles-ek Fishman-en diglosia? Oro har, bai¹⁰⁵. Ninyoles-enak al dira bekatu guztiak? Ez dut uste. Egia da Ninyoles-ek diglosiaz egiten duen erabilera oso-oso nekez uztartu litekeela ordura artekoarekin (berdin du Ferguson hartu erreferentzia, Fishman aukeratu edo Kloss), baina ez da bera bakarrik Ferguson-en eta Fishman-en bidetik gutxi asko aldentutakoa. Honela zioen Aracil-ek 1970 inguruan: “Les remarques de Ferguson i de Fishman són excel·lents, però no em satisfan. Tots dos convenen i jo convinc amb ells que la diglòssia no consisteix tan sols en una especialització o distribució funcional, sinò també – y sobretot – en una super- i subordinació jeràrquica. A més, salta a la vista que la desigualtat entre els parlars o “varietats” no és pas “lingüística”, sino tan clarament social com qualsevol altra. Estran-

yament, però, ni Ferguson ni Fishman no s'han aventurat en aqueixa direcció. (...). Aracil-en eskutik, handik berehala, aski singladura partikularra egin zuen Vallverdú-k. Bere hitzetan esanik, "Gràcias a Aracil, vaig adonar-me que, malgrat acceptar aparentment la teoria de la diglòssia dels sociolingüistes nord-americans, en el fons men'apartava. L'explicació d'aquesta discordança esà en el fet que jo intuïa que calia distingir entre situacions "pròpies" i "impròpies" respecte a la diglòssia. Casos de diglòssia "pròpia" són el de la Suisa germànica (on l'alemany estàndar és la llengua A i el suís alemany la llengua B) i el de certs països àrabs (on l'arab literari és la llengua A enfront dels parlars locals com llengües B). Es tracta de situacions clares de diglòssia on el conflicte ha estat ideològicament neutralitzat. En canvi, hi ha una diglòssia "impròpia" en el cas d'un país que per ocupació militar i/o per pressions polítiques ha vist arraconar la llengua autòctona a funcions de llengua B: és, en tot cas, un supòsit de diglòssia conflictiva (perquè hi ha un conflicte lingüístic declarat, amb una llengua políticament dominant i una altra dominada). Horra hor, ezin argiako esanik eta Ninyoles-en "bekatu" etara jo izan beharrik gabe, "menderatuen diglosia".

c) Azterbide deskriptibo-estatistikotik zinetiko-dinamikora

Badira bestelako erreparoa ere (erreparo teorikoagoak, nolabait esan), soziolinguistika katalana hainbatean (inoiz ez erabat) Ipar Amerikako formulazio nagusietatik aldenitu izan dutenak. Beren hitzetan esanik, "la définition de Ferguson est (...) beaucoup plus statique (...) elle évacue du concept tout ce qu'il contenait de comportement social. (...) Gumperz, Fishman, et Kloss insistent sur la stabilité des domaines d'emploi de chaque langue dans la conscience des locuteurs". (Kremnitz, 1987: 201-2). Horrekin ez dago soziolinguistika katalana konforme: perspektiba edo azterbide zinetiko-dinamikoan analizatuz kontuak, hiztun-elkarte biren arteko disputa edo tirabira historiko zabal baten *etapa* bat, *estadio* edo *fase* egonkor-itxurako bat da diglosia. *Fase* bat edo, Aracil-en ikuspegi ezagunaren arabera, *fase batzuk*. Etapa hori(ek) ere ez d(ir)erabat egonkor: diglosia-giroan ere, hizkuntza bien erabilera-baldintzak eta funtzioak aldatuz doaz oro har.

Nekez esan liteke, nire ustez, soziolinguistika katalana oker dabilenik horretan. Luzera begirako formulazioetan, guztia ez da bake eta egonean egoneko giroa. Azterbide dinamikoaren azken helburua asmatzen eta, partez, deskribatzen aski argiak izan dira soziolinguista katalanak. Elkarbizitza ez da beti baketsu: liskarra eta gatazka, borroka eta konfliktua izaten da hainbatetan jaun eta jabe. Kontuak noiz baketsu diren, eta noiz

Hasierako eta geroko formulazioak bateragarri egite aldera, honako irtenbide hau bilatu izan da: konfliktu batzuk agerikoak dira, begien bistakoak; beste batzuk, aldiz, gordezkutu-isilpekoak: latenteak.

Soziolinguista horien ustean: diglosiazko egoeran, hizkuntza batari eta besteari funtzio sozial diferenteak atxikitzen zaizkien neurrian, prestijioa ere diferentea dute hizkuntza (edo aldaera) biek.

liskar-giroko, jakiteko ezinbestekoa da perspektiba edo azterbide zinetiko-dinamikoa kontuan hartzea. Hori gabeko *diglosia* kontzeptua ahula iruditzen zaie. Hor ikusi izan du askok soziolinguistika katalanaren ekarpen handienetako bat. Honela dio Kremnitz-ek: “en quittant la terminologie purement descriptive et statique de la sociolinguistique nord-américaine¹⁰⁶, en assumant les tensions internes qui se cachent derrière les mots, l’analyse devient à la fois plus profonde et plus engagée” (Kremnitz 1981: 65). Bide beretik doa Boyer: “Il est incontestable que l’accueil du concept de diglossie dans des contextes nouveaux, son utilisation et son intégration à un ensemble métalinguistique forgé au contact du “terrain”, vont modifier sensiblement son statut théorique. A une représentation fonctionnelle statique (Ferguson, Fishman,...), à l’idée d’une distribution plus ou moins complémentaire des fonctions de deux variétés de la même langue ou des deux langues, différentes au sein d’une communauté, distribution stable (même s’il peut y avoir asymétrie), la SLC puis la SLO vont opposer une représentation beaucoup plus dynamique: d’une polarité sociolinguistique neutre on va passer à une polarité problématique entre une *langue dominante* et une *langue dominée*. Il y a instabilité, dissymétrie. Il y a *conflit (...)*”. (Boyer 1986:23)

d) Hizkuntza-kontaktu iraunkorrak, diglosiadunak, konfliktu-iturri

Diglosia konfliktiboa da. Hori da soziolinguistika katalanak, batez ere Ninyoles-ek popularizatuak eta gugana zabalduak, esplizituki eta inplizituki planteatu duena. Ez da hori ere, egia esateko, bere ezaugarri berezia. Gorago aipatu dugunez diglosia eta konfliktua ez dira erabat termino arrotzak, bata bestearekiko. Kremnitz-en esanean “pour Psichari le terme diglossie a, dès le départ, des connotations politiques et conflictuelles, en plus des éléments descriptifs (Kremnitz, 1987: 200). Edota “Marçais propose d’élargir le domaine d’emploi du français pour dépasser la diglossie arabe en Afrique du Nord. L’enjeu politique de l’analyse est toujours présent, mais cette fois du coté de la (troisième) langue dominante (frantsesa). (Kremnitz, 1987: 200-1). Kontua da II. mundu-gerraz geroztikako soziolinguistikak, eta horren barnean 1959an eraiki eta 1960ko hamarkadan zabal garatutako diglosiak, hizkuntza-egoera horren ikuspegi ez-konfliktiboa zuela oinarri: «benetako» hainbat diglosiak berez ageri duen egonkortasun ez-konfliktiboa, kontsentsuzko osaera iraunkor samarrean oinarritua.

Hori da soziolinguista katalanek, gehienek hainbatean eta Ninyoles-ek bereziki, errotik aldatu zutena. Haien ekarpenetan maiz irakurri

diren formulazioak, izan ere, *kontaktu = konfliktu = diglosia* ekuazio hirukoitzera bildu dira maiz. Ez da hori ere katalanen 60ko eta 70eko hamarkadako berrikuntza eskusiboa. Frantziako soziolinguistikak berak aski barneraturik du ikuspegi hori, bere bidetik ibiliz¹⁰⁷. Katalan-herrietatik (berezi Ninyoles-en eskutik) gugana iritsitako formulazioak bekorian iltzaturik darama ordea, nolana ere, ikuspegi hori. Orogen gain, diglosiazko kontaktuak konfliktiboak direla eta konfliktu-egoera horrek ezin horrela irau dezakeela eman da oinarri-oinarriko abiaburutzat. Askok esana digu hori: Aracil-ez gainera Vallverdú-k, adibidez. Gero, partez, martxa atzera eman izan da formulazio zorrotz horretan: “On remettra aussi en question l’affirmation que toute situation diglossique doit nécessairement être conflictuelle”¹⁰⁸. (Lüdi, 1989: 238). Hasiako eta geroko formulazioak bateragarri egite aldera, honako irtenbide hau bilatu izan da: konfliktu batzuk agerikoak¹⁰⁹ dira, begien bistakoak; beste batzuk, aldiz, gorde-ezkutu-isilpekoak: latenteak¹¹⁰. Besterik da ordea, geroko matizazio horiek eta guzti, kanpora transmititu zen irudi nagusia: labur bilduz, konfliktu orotan irteera bi baizik ez dagoeneko formula dikotomikoa (garaitu ala hil).

Euskara indarberitu nahirik argibide teorikoen bila dihardugunontzat garrantzi handiko puntua erantsia dio ikuspegi horri, azkenik, Georg Kremnitz-ek: “pour qu’une société complexe garde l’usage de plusieurs langues à la fois, il faut qu’elle soit composée de plusieurs sous-ensembles préférant l’usage de langues ou de variétés différentes”. (Kremnitz, 1987: 207). Ondo ulertzen badiogu, hiztun-elkarte bereko hizkuntza bien arteko konpartimentazio soziofuntzionalak (bakarrik) ez du balio, hizkuntza biek bizirik irauteko: bi hiztun-elkarte berezi izan behar dute, (nola: konpartimentazio territorialaz?) bakoitzak hizkuntza propioan funtzionatzen duelarik.

e) Hizkuntza-kontaktuaren ondorio posible bakarrak

Aurreko formulazio nagusitik abiatuz, irtenbide posible bi bakarrik ditu hizkuntza-gatazkak: hizkuntza kontestuak ahularen substituzio-ordezkapena, ala bere normalkuntza¹¹¹. Hori dela-eta, hizkuntza-gatazkak berekin ekarri ohi duen luze-zabaleko elebitasun indibiduala trantsizio-aldia da. Baita diglosia edo elebitasun soziala ere: soziolinguista katalanen artean “La possibilité d’une coexistence pacifique entre les variétés est rejetée. (...) Les situations de diglossia (...) són la manifestació d’un conflicte, el qual s’ha de resoldre necessàriament o bé amb la normalització de la llengua B o bé amb la substitució d’aquesta per la llengua A” (Vallverdú, 1973: 57¹¹² in Lüdi 1989: 237-8).

Estatu Batuetan diskurtso soziolinguistiko ezagunaren baitarik sortua zen diglosiaren formulazio berritu estandarra. Formulazio haren altzoan, diglosia hitza ez zen ez zeru eta ez infernu. Hizkuntza-egoera bat deskribatzen zuen soilik, egoera horren balorazio subjektibo handitan sartu gabe: zenbait lekutan “hori-eta-hori” gertatzen da hizkuntza kontuan, eta gertaera horri diglosia esaten zaio. Horra hor, gauzak laburzurtean esanik, bere planteamenduaren muina.

Badakigu, berriz (horrek ez digu ordea une honetan axola, diglosiaren kontutik urruti samar gelditzen baita), hizkuntza-normalkuntza katalanak bi atal dituela: a) normativizació: corpus-plangintzaren jarduera mota bat; b) extensió social: hizkuntza ahularen erabilera-esparruak zabaltzea eta garatzea.

f) Diglosia-giroko jarrerak, kolektiboak eta indibidualak

Orain arte ikusitakoaren arabera argi dago plano soziopolitikoaren preminentzia, soziolinguistika katalanean. Argi dago, orobat, diglosiarekiko mesfidantza handia. Ez da arazo soziopolitiko bakarririk, ordea, diglosiatik aldentzen dituen. Osagai psikosozialik ere badu arbuiozko jarrera horrek. Diglosia-giroan bizi den hiztun menderatuak berariazko arazo psikikoak ditu bide batez. Horregatik ere kaltegarria da diglosia. Hona zergatik, soziolinguista horien ustean: diglosiazko egoeran, hizkuntza batari eta besteari funtzio sozial diferenteak atxikitzen zaizkien neurrian, prestijioa ere diferentea dute hizkuntza (edo aldaera) biek. Hala dute kanpokoen begietan, eta halatsu hizkuntza horretako hiztunen beraienetan. Balioztatze diferente horrek hierarkizazioa sortzen du: B hizkuntza (kontestualki ahula den hizkuntza) landugabea (landugabeagoa behintzat) izaten da sarri eta, hortik abiatuz, hizkuntza hori *per se* landuezina (hartarako gaieza) dela uste izateko joera handi samarra izan ohi da. Hor dago, oro har, kontzientzia linguistikoaren alor bihurria¹¹³. Kremnitz-ek argi laburbildu du, nire ustez, ikusmolde hori: “L’ensemble de contraintes qui pèse sur le locuteur à compétence bilingue dans une situation à fonctionnements diglossiques fait que dans le plupart des cas ses choix linguistiques sont surdéterminés. De là résultent les problèmes de l’individu dans une telle situation, problèmes psychiques aussi bien que problèmes linguistiques, que l’on a à peine décrits jusqu’à présent. Ninyoles (1969) parle de trois attitudes fondamentales possibles du sujet, que nous avons provisoirement réorganisée selon le schéma suivant: l’agressivité du sujet contre le groupe dominant, son imitation consciente de ce groupe ou son identification inconsciente avec lui (=haine de soi-même, *Selbsthass*)”. (Kremnitz, 1987: 210). Ezaguna dugu azken hori: autogorrotoa edo, Ninyoles-en hitzetan esateko, autoodio (Ninyoles 1969). Gure ume- eta gazte-denboran irratzaio bidez Pello Kirtenen edo Txomin del Regato-ren xelebrekeriak entzuten genituenok badakigu zertaz ari zen Ninyoles, jarrera-kontu horiez eta besteez ari zelaririk. Bazekien zer zioen eta, hainbatetan, zuzen zebilen.¹¹⁴ Aurrerago ikusiko dugunez, halere, bestea da gure galdera: zer ikusi du horrek guztiak diglosiarekin?

g) Diglosia, kalte-iturri

Estatu Batuetan diskurtso soziolinguistiko ezagunaren baitarik sortua zen diglosiaren formulazio berri estandarra. Formulazio haren altzoan, diglosia hitza ez zen ez zeru eta ez infernu. Hizkuntza-egoera bat deskribatzen zuen soilik, egoera horren balorazio subjektibo handitan sartu gabe: zenbait lekutan “hori-eta-hori” gertatzen da hizkuntza kontuan, eta gertaera horri *diglosia* esaten zaio. Horra hor, gauzak laburzurreen esanik, bere planteamenduaren muina¹⁵. Bide horretan barrena jardun zuten Ferguson-ek (1959), Gumperz-ek (1962, 1964), Fishman-ek (1967) eta, handik gutxira, Heinz Kloss-ek (1976): soziolinguistika sortu berriaren kontzeptu giltzarrietako bat bihurtu zen diglosia, eta gainerako zientzia-jardun gehienetan bezala neutraltasun ebaluatiboz erabili nahi izan zen terminoa. Hankaz gora jarri zen ikuspegi hori soziolinguistika katalanean, Okzitaniakoan eta, handik aurrera, mundu zabaleko hainbat hiztun-herri minorizatutan: tartean, hemen. Formulazio berriak, hainbat ñabardura izanik ere, honen pareko muina-edo zuen: “Kalte-iturri da diglosia. Infernua da. Infernura edo, onenean, infernurako atari: ez zeru eta ez purgatorio”. Lüdiren esanean (1989: 237-8): “parler de bilinguisme ou de diglossie en Catalogne n’est pas sans danger. En effet, si toute la sociolinguistique catalane est d’accord pour qu’il y ait eu ‘diglossie’ en Catalogne (...) elle charge cette notion de connotations négatives en insistant sur le caractère conflictuel de la diglossie et sur la minorisation d’une des variétés en contact. En occurrence le catalan. Cet emploi du terme conflit linguistique remonte à Aracil 1965 et a été ‘canonisé’ par Ninyoles 1969”. Gogorragorik ere esan du zenbaitek, diglosiaren formulazio horrek egindako aurkizuntzez: *an oppressive situation* deskribatzeko balio omen du, ez bake-giroko hizkuntza (edo aldaera) biren elkarbizitza iraunkorra deskribatzeko. Funtsaren funtsean, Ferguson-en “*superposed variety*”-tik “*superimposed variety*”-ra eraman gaitu ikusmolde honek. Kosta zaigu iristea, baina hemen gaude: horra “gure diglosia”rekin azkenean topo egin.

3.1.4.2 Soziolinguistika katalanaren hainbat ahulgune, diglosiaren inguruan

Baditu soziolinguistika katalanak, ekarpen baliotsu askorekin batean, diglosiaren (eta, bere esanean, diglosiaren ohiko bidelagun den konfliktuaren) inguruan hainbat ahulgune. Ekarpenen alorrean bezala puntuz puntu azalduko ditugu atal honetan, orain dela berrogei urte inguruko soziolinguistika katalanak (bai teoria-sortzaileek eta bai bere zabalkunde-eragileek) gure “hemengo eta oraingo” beharren ikuspegitik

“La normalización (lingüística) (consiste en situar una lengua en pie de igualdad respecto de las otras, en un mismo plano. La normalización está, pues, destinada a abolir el marco diglósico” (Ninyoles, 1983 (1975): 128).

ageri dituen iluntasun edo ahuldade nagusiak. Lau puntutara bilduko dugu hori guztia. Kontzeptu-nahastea, nahaste horren eraginez ondorio praktiko kontrajarrietara iristea, azterbide zinetiko-dinamikoaren neurri-balio lausoegia eta, azkenik, diglosiaren ezinbesteko kalte-izaeraz ondorio sinplegiak atera izana. Ikus ditzagun laurak, labur-labur:

a) Kontzeptu-nahastea

Kontzeptu-nahaste ohargarria dago, garai hartako soziolinguistika katalanean eta oro har “menderatuen diglosia”z diharduten diskurtso-etan, diglosiaz eta horren inguruko beste zenbait kontzeptuz: konfliktu-gatazkaz, bereziki. Diskurtso horretan hizkuntza-gatazkaz esaten dena aski urrun dabil, hasteko, kontzeptu horrek iturburuetan zuen adieratik: Lluís V. Aracil-en 1965eko *Conflit linguistique* gauza bat da, eta (lotura zuzenez edo zeharkakoz) bere aurretik datorren Albert Memmi-ren 1957ko *conflit linguistique* bestea¹⁶. Hizkuntza-sistemaren eta bere ingurumen soziokulturalaren arteko harreman-bide bikoitzen eredu zibernetikoa du Aracil-ek abiaburu. Aldiz *le drame linguistique qui habite le colonisé* da Memmi-ren aztergai. Beste horrenbeste ikusiko genuke Aracil-en formulazio hori Einar Haugen-en 1966ko *Language Conflict and Language Planning: the Case of Modern Norwegian* ezagunarekin konparatuko bagenu. Orobat Karl Deutsch-en *linguistic conflicts* direlakoak hartuz konparazio-gai¹⁷. Hots, lauretan termino bera dugu eskuartean, baina lauretan aski bestelako kontzeptu-educia. Kontzeptu-educizko diferentzia horiek areagotu egiten dira, soziolinguistika katalanaren etxe barnera etorri eta Aracil-en formulazioa Ninyoles-ek 1969an emandakoarekin, bai eta handik aurrerakoekin (1972, 1975,...), konparatzen bada. Litekeena da Valentziako gizartearen azken bost mendeetako *procés de castellanització* delakoa gatazkatsua gertatu izana behin baino gehiagotan. Ez dirudi, ordea, bere hiru norabide nagusiak (*direcció horizontal i selectiva, direcció descendent espontània* eta *difusió coactiva*) maila bereko gatazka-iturri izan zitezkeenik, oro har. Are gutxiago hala izan direnik eta gainerako hiztun-herrien historia soziala eskema hertsia horretara muga litekeenik. Egileak berak “aquest esquema és molt simplificat” esan izanak (Ninyoles, 1969: 43) ez du, bistan denez, kontua nabarmen garbitzen. Berdintsu gertatzen da 1975eko bere planteamenduekin. Oso argi esaten du Ninyoles-ek, arrazoi osoz nire ustez, “no hay conflicto lingüístico sin lenguas en contacto, pero hay lenguas en contacto sin situación de conflicto” (Ninyoles, 1983 (1975): 65). Gero, ordea, honela amaitzen du: “Al hablar de “conflicto lingüístico” tratamos (...) de un caso específico de conflicto. (...) El fenómeno suele estar subyacente en

los procesos de “bilingüismo sustitutivo o diglósico”. Zaila da gauzak okerrago esatea: “bilinguismo diglósico” delakoa (Fishman-en (b) kasua eta Ferguson-en kasuistika nagusia¹¹⁸ funtsean) ez da, eta ezin da izan, inolako “proceso sustitutivo”-rik. Era berean, “bilingüismo sustitutivo” delakoa ez da, eta ezin da izan, diglosiazkoa. Sustituzio-ordezkapena diglosia-galerak eta, bereziki, diglosiarik gabeko egoerak dakar, diglosiaren definizio klasikoan. Hizkuntza-gatazkaren definizioarekin bezalatsu gertatzen da hizkuntza-normalkuntzaren kontzeptuarekin ere. Aldea dago, aski alde nabarmena, gorago ikusi dugun Vallverdú-ren azalpenetik Ninyoles-en beste honetara: “La normalización (lingüística) (consiste en) situar una lengua en pié de igualdad respecto de las otras, en un mismo plano. La normalización está, pues, destinada a abolir el marco diglósico” (Ninyoles, 1983 (1975): 128). Nork esan du ukipen-giroko hizkuntza baten “egoera normala” aurrez aurrekoaren pare-parean egotea denik? Zer normaltasun da hori? Ba al da munduan halako adibide ezagunik, lehen edo orain? (Dakigularik) inoiz esistitu ez denik eta orain ere (dakigularik) inon esistitzen ez denik zergatik hartu behar dugu “normal”tasun-patroitzat? Ba al da hori baino gauza anormalagorik?

Kontura gaitezen kontzeptu-nahaste larri horietan guztietan *diglosia* aipatzen dela oparo. Diglosia *hori* zer den ez da ordea zehatz definitzen: aurretik emanak daude Ferguson-en eta Fishman-en definizioak, laburturik baina zuzen oro har, eta haiek ontzat ematen direlako ustea aditzera ematen da. Baina gero, gauzak aplikatzerakoan, erro-errotik itzulipurdikaturik dago diglosiaren oinarritzko adiera-muina. Aplikatzen den diglosia beste zerbait da. Diglosiaren formulazio antitetikoa ageri da nagusi, askotan, hizkuntza-gatazkaren formulazio horretan. Ikus, adibidez, Ninyoles-en *bilinguisme substitutiu o diglossic* famatua (Ninyoles, 1975 in Ruiz i San Pascual et al. 2001: 77). Ikus, orobat, Bernard Py-ren 1986ko «un exemple de *diglossie instable*: la famille migrante». Ferguson hartu iturburu, Fishman hautatu edo (aurrerago ikusiko dugun) Hudson aukeratu, berdin du: diglosiaren antipodetan gaude Py-ren etorkin horien kasuan. Etorkinen familietako elebitasun *instable*-ezegonkor hori ez da *diglosia*, mintzal-daketa edo *language shift* baizik. Hots, immigranteen etorrera-uneko (lehen belaunaldiko edo belaunaldi biko) K+B trantsizio-aldia¹¹⁹. Egoera familiar ezegonkor horrek, hiru belaunalditik gorako perspektiban proiektatzen denean, K→B = B emaitza ezagun-ezaguna ekarri ohi du berekin. *Diglosiarik* eza da prozesu horren ezaugarri agiriarenetako bat. Hartara daraman epea, trantsizio-aldia, Fishman-en hitzetan esanik *diglosiarik gabeko elebitasun egoera* da: hots, goian (3.1.3 atalean) xehekiro ikusi dugun (c) kasua; trantsiziozko kasua da hori, ez egoera egonkorra.

Labur bilduz. Konfliktu hitzak, normalkuntza terminoak eta diglosia hitzak aski erabilera desberdin eta, zenbaitetan, ordura arteko formulazio soziolinguistiko ezagunekin arras kontraesanekoa jaso dute sarri soziolinguistika katalanaren altzoan. Ez formulazio teorikoenetan oro har, Aracil-enean bereziki. Bai ordea zabalkunde-indar handiena izandakoan.

Trantsizio-aldi horretan ez dago konpartimentazio egonkorrik, ez aurrez aurreko K eta B hizkuntzen erabilera-arau onarpen zabalekorik. Hots, hor ez dago diglosiarik. Gurasoen edo aitona-amonen mintzajardun arruntaren arau-haustea, belaunaldi batetik hurrengorako *shift*-desplazamendua sarri, da hor nagusi. Horrexegatik da *shift* (mintzaldaketa alegia), eta ez *diglosia* (mintzabideari bere hartan eustea). Zer dela-eta hasi behar dugu orain *diglosiarik* ezari *diglosia* deitzen? Zer da “diglossie instable” delakoa? Zer da “bilinguisme substituti diglossic” hori? Zergatik hasi behar dugu orain pertsona altuak “altuak” direla esaten, eta bajuak (beraiek horretaz jabetzen ez badira ere) “altu bereziak”? Zergatik hasi behar dugu abioiari “tren” esaten, eta trenari “abioi”? Zer irabazten dugu hitz-jolas horrekin? Nor inpresionatuko genuke, honelako zerbait publikatuko bagenu egunkari batean: “el Ayuntamiento preve construir la nueva pista de aterrizaje del aeropuerto del *Topo* en el barrio de Iba-eta”. *Topoa* trenbidean ibiltzen da, ez airez; *Topoak* geltoki-estazioak ditu jendearen sartu-irtenerako, ez aireportuak¹²⁰. Hori ez da iritzi bat, oinarri-oinarriko abiaburu terminologikoa baizik. Hori gabe ezin da aurrera egin.

Ez da harritzekoa, horregatik, soziolinguista katalan nagusien artean ere diferentzia nabarmenak agertu izana¹²¹. Honela azaldua du Aracil-ek, esate baterako, Ninyoles-ekiko desadostasun kontzeptuala: “Rafael Ll. Ninyoles (*Conflicte llingüístic valenciá*, 1969; etc) ha improvisat una doctrina que confon indogudament la substitució amb una certa noció de ‘diglossia’ (radicalment diferent del concepte de Charles A. Ferguson, 1969) el simplisme efectista de la qual ha fet fortuna en cercles i regions poc avançats”. (Aracil, 1982: 119). Gu ginen orduan, jakina, *regions poc avançats* haietariko bat. Seguru al gaude aurrera egin dugunik geroztik, diglosiaren kontu honetan?

Labur bilduz. *Konfliktu hitzak, normalkuntza terminoak eta diglosia hitzak aski erabilera desberdin eta, zenbaitetan, ordura arteko formulazio soziolinguistiko ezagunekin arras kontraesanekoa jaso dute sarri soziolinguistika katalanaren altzoan*¹²². Ez formulazio teorikoenetan oro har, Aracil-enean bereziki¹²³. Bai ordea zabalkunde-indar handiena izandakoan. *Konfliktu* hitzaren kontzeptu-balioa (bere argitasun-ahalmena) nekez ukatuko du hizkuntza-soziologian serio jardun nahi duen inork¹²⁴. Badakigu hiztun-elkarte bik edo gehiagok espazio fisiko eta xede-talde berbera konpartitzean maiz sortzen dela era bateko edo besteko arazorik. Arazo horietariko hainbatek, dimentsio kolektibo kontzientea hartzen duenean, konfliktua sor dezake. Kontua ez da ordea elkarren pegante dauden hiztun-elkarteetan aldiaren behin edo maiz-sarri konflikturik sor-

tzen den ala ez. Arazoa, funtsean, katalan-herrietatik zabalduriko argudio-bide sinplifikatzaileenak sortu du maizenik: ukipen-egoerak oro ezinbestean konfliktu-iturri direneko ikuspegiak alegia¹²⁵. Tradizio katalanak ezaugarri bikoitza du, jakina denez, *conflicte* kontzeptuaren pean. Batetik “pugna entre dues comunitats lingüístiques per ocupar àmbits d’ús”. Bestetik, eta hor dago koska: “parlar de contacte lingüístic implica parlar de conflicte” (aipu biak in Ruiz i San Pascual et al, 2001: 76). *Hizkuntza-ukipena*, bigarren ikuspegi horren arabera, borroka mikatzaren goxagarritzko estalkia hutsa da *beti eta nonahi*. Hor dago muga-lerroa. Katalanistikaren ezaugarri bereizle izatera iritsi izan da muga-lerro hori, hein batean. Europan eta munduan formulazio hori gero eta indartsuago dabilenik ez nuke inola ere esango¹²⁶. Badago motiborik, ordea, ikuspegi hori aski desorekatua dela uste izateko.

Diglosia ez da, oro har, konfliktu-iturri: Guillermo Rojo-ren esanean (1985: 615), “la tipología establecida puede contribuir a una mejor comprensión de las relaciones entre situación diglósica y conflicto lingüístico o, desde un ángulo ligeramente distinto, del carácter estable o inestable de la diglosia. (...) Ferguson considera la diglosia como “a relatively stable language situation”, mientras que otros defienden la independencia (sin compatibilidad) de ambos”. Si, como hemos visto aquí, se parte de una definición de diglosia como la de M. Fernández (que no difiere sustancialmente de la dada por otros autores), parece necesario oponer diglosia a conflicto. Con sus propias palabras, la diglosia “comienza a desaparecer cuando surge un conflicto lingüístico”: las normas existentes se sienten como inadecuadas, una comunidad o un sector de la misma se sienten oprimidos y se entra en una etapa de transición, en la que las normas se cuestionan cada vez más, hasta diluirse, bien por la asimilación de la lengua del grupo, bien por su consolidación (Fernández, 1978: 390). Zaila da gauzak argiago esatea.

b) Ondorio praktikoa kontrajarrietara iristea

Aurreko motibo horien eraginez ondorio praktikoa kontrajarrietara iritsi izan da, sarri, orain dela berrogei urte inguruko soziolinguistika katalana. Deigarriena, eta gure gaiari hurbilenik dagokiona, honako galdera honi emandako erantzuna da: hemen (Katalan-herrietan, herrialde bakoitzean,..) eta orain (1970 inguruan) diglosia-giroan bizi al da jendea? Hain definizio ausartak eta goitik beherako mugarriztatze-isaioak egin ondoan bazirudikeen gutxienezko adostasun batera iritsiak izan behar zuketela soziolinguista katalanak. Guztiak ez bada ere nagusiak bederen. Puntu zentrala da hori. *Hemen* (Paisos Catalans-en, Ro-

Parece necesario oponer diglosia a conflicto. Con sus propias palabras, la diglosia “co-mienzo a desaparecer cuando surge un conflicto lingüístico”: las normas existentes se sienten como inadecuadas, una comunidad o un sector de la misma se sienten oprimidos y se entra en una etapa de transición, en la que las normas se cuestionan cada vez más, hasta diluirse, bien por la asimilación de la lengua del grupo, bien por su consolidación (Fernández, 1978: 390).

selló-n, bertako baserri-giroan) eta *orain* (1970 inguruan) diglosia-giroan (luze-zabaleko elebitasunez, elebitasun mugatuz edo inolako elebitasunik gabe) bizi garen edo ez garen adostera iristeko gai ez bagara, zer-tarako balio digu gure *diglosia* horrek?

Dakigularik ez da oinarrizko adostasun-girorik eskuratu galdera horren inguruan. Zerbait esan nahi du horrek. Saio onik egin denik ez dago ukatzerik. Azken mila urteetako errepasso argigarririk ere egin da tartean, eta unealdi historiko jakinetako “argazki” gisako azalpen sakon bat baino gehiago eskaini digute. Fr. Vallverdú-ren 1970eko *Dues llengües, dues funcions?*, 1973ko *El fet lingüístic com a fet social*, 1979ko *La normalització lingüística a Catalunya*, 1980ko *Aproximació crítica a la sociolingüística catalana*, 1981ko *El conflicto lingüístico en Cataluña: Historia y presente* eta 1982ko “le catalan, un cas ‘typique’ de diglossie” erakargarriak dira oso. Beste horrenbeste esan liteke Lluís V. Aracil-en 1968ko *Introducció a E. Escalante, Les xiques de l’entresuelo. Tres forasters de Madrid* delakoaz. Orotat Domènec Bernardó-ren eta Bernat Rieu-ren 1977ko “Diglòssia a Catalunya Nord” argiaz. Eta hor dago, nola ez, Rafael Lluís Ninyoles-en 1969ko *Conflicte lingüístic valencià* ezaguna. Leku eta aldi diferenteaz dihardutelarik horko hainbat azalpenek, ezin esan liteke (ez, behintzat, era zorrotzean) “diglosia bai/ez” kontuan bat datozenik edo bat ez datozenik. Antzeko gaia aztergai duten kasuetan, aldiz, konparazioa egingarria da. Konparazio hori behin baino gehiagotan egin delarik, emaitza ez da oro har baiezkota izan¹²⁷. Ondorio praktikotetan ez datoz bat. Desadostasunik handiena, berriro ere, badirudi Ninyoles-en eta gainerakoen artean dagoela. Espelikazioa argia da zenbaitentzat. Guillermo Rojo, konkretuki, honela mintzo da: “Ninyoles indica que en Valencia hay diglosia y, que yo sepa, nadie ha puesto en tela de juicio ese punto de vista. (...) Esta caracterización (de diglosia), basada en Fishman y, a más distancia, en Ferguson, no resulta adecuada para el País valenciano, donde, al lado de los bilingües, existen dos grupos de individuos monolingües que no emplean más que una lengua para todo tipo de ámbitos y funciones. En realidad, la diversificación funcional sólo se puede dar en los bilingües¹²⁸”. (Rojo, 1985: 610). Bada bestelako zehar-aipamenik ere, antzeko desadostasun sakona aditzera ematen duenik. Ez da hori, bistan da, soziolinguistika katalanaren arrakasta-puntu nagusia¹²⁹.

c) Azterbide zinetiko-dinamikoaren neurri-balio lausoegia

Perspektiba deskriptibo-estatistikotik formulazio zinetiko-dinamiko-eta pasatu nahiak, abantaila ukaezinekin batera, ondorio kaltegarrikerik ere ekarri du: azterbide egokia, are egoki bakarra, zinetiko-dinamikoa

delako ustea. Okerra da hori. Azterbide estatiko-deskriptiboa, izan ere, azterbide zinetiko-dinamikoa bezain arrazoizkoa da. Arrazoizkoa eta, bere helburu jakinetarako, ezin utzizkoa. Are, zenbaitetan, hoberena. Nork esan du argazkiak (errealitatearen irudi estatiko-deskriptiboak) txarrak (hots: errealitatearen deformatzaile) direnik *per se*, eta bideo-tomak (irudi zinetiko-dinamikoak) beti eta nonahi egokiak (hots: errealitatearen adierazle on, zuzen eta zorrotz)? Ez ote da egia, bai argazkiak eta bai bideo-tomak biak direla onak, zein bere alorrean, eta bata ez duela bestea ezinbestean gainditzen eta, are, baliogabetzen? Ez ote da egia azterbide biez baliatzea dela zuhurra? Hala ez balitz, eta ikuspegi zinetiko-dinamikoa balitz azterbide egoki bakarra, aspaldi amaitu ziren argazkiak: horrela al da bizia? Ez al da egia, aitzitik, inoiz baino argazki gehiago ateratzen dugula guztiok, batez ere kamera digitalak asmatu zirenetik (ordura arteko errebelatze-lan luze eta garestia ezabatuz) eta, are, prozedura hori indartu egin dela, ahuldu ordeztu, telefono mugikorrek ere argazkiak ateratzeko balio dutenetik? Orain dela berrogei bat urteko soziolinguistika katalan-okzitano-europar haren balorazio hura injustua zen, eta ondorioak orain ari gara ikusten. Bi motibogatik zen oinarrigabea: batetik, argazkiak bideoak bezain elementu egokiak direlako errealitatea geureganatu eta biltegitratzeko; bestetik, amerikarrak maisu izan ditugulako bideogintzan ere: ez zen ordurako egia, eta denborak are nabarmenago erakutsi du ikuspegi haren muga, argazkia bakarrik ateratzen zutenik soziolinguista amerikarrek. Hizkuntzaren gizarte-dimentsioa aztertzerakoan soziolinguista haiek egin duten bideberritzelana irakurri eta aintzakotzat hartu ez badugu gurea da errua, ez bide-berritzaileena. Hots, ezjakintasun handiz ez bada ezin esan liteke Charles A. Ferguson, Joshua A. Fishman eta konpainia azterbide estatiko-deskriptibora mugatu izan direnik. Fishman-enak¹³⁰ dira, aitzitik, 1964ko “*Language maintenance and language shift as a field of enquiry*”, geroztikako azterbide zinetiko-dinamiko askoren iturburua, 1966ko *Language Loyalty in the United States* erraldoia eta 1985ko *The Rise and Fall of the Ethnic Revival*. Salakuntza horrek ez du, beraz, erabateko oinarririk. Egia da ordea, guztiarekin ere, diglosiaren alorreko artikuluak (bai Ferguson-ena eta bai Fishman-en hasierakoa, ez horrenbeste geroztikakoak) azterbide estatiko-deskriptibotik eginak direla nagusiki eta, alde horretatik, esplikazio-indar dinamiko handirik ez dutela¹³¹.

Besterik da halere, nire ustez, azterbide zinetiko-dinamikoaren gai hori dela-eta 1970 inguruko saio katalan-okzitano hartan egin zen hutsegite larriena: planteamendu dinamikoen formulazio kronologiko desegokia egin zen “menderatuen diglosia”-ren alorrean, perspektiba zinetikoaren

Perspektiba deskriptibo-estatistikotik formulazio zinetiko-dinamikoetara pasatu nahiak, abantaila ukaezinekin batera, ondorio kaltegarrikeri ere ekarri du: azterbide egokia, are egoki bakarra, zinetiko-dinamikoa delako ustea.

Bistan dago diglosia ez dela nonahi eta noiznahi, per se, opresio eta zapalkuntza moduan bizi: aleman-hizkerako Suitzan, urrutirago gabe, oso argi dago hori. Munduko gauzarik normalena da haien bertako herri-hizkeraren eta aleman jasoaren arteko konpartimentazio soziofuntzionala.

neurri-balioa lausoegi definituz. Egia izan liteke, nola ez, azken-azken-azkenean aurrez aurreko bi hizkuntzetariko bat (errazago, agian, bi haie-tarik eratorritako formaren bat) aterako dela garaile eta bestea, aldiz, gal-dutako hizkuntzen nominara pasako dela zoritxarrez. Ez dut uste inork inoiz halakorik ukatu duenik. Hori al zen eta hori al da, ordea, diglosiaren inguruan genuen/dugun interesa? Ez ote da egia unean uneko hizkun-tza-egoera aztertzea, eta begien bistako etorkizuna onbideratzen saiatzea, dela gutako gehienon asmoa? Eta hala baldin bada, zertara datoz azken-azken-azkeneko iragarpen salomoniko haiek? Jakin nahi duguna besterik da: euskara *hemen-eta-orain* bizirik atera ahal izateko mesederako den, ala kaltegarri, ditxosozko diglosia. Hori, bistan da, ezin da hirurehun edo bostehun urteko perspektiban plasmatu, orduko soziolinguistika katalanak behin eta berriro (atzera begira, sarrienik) egin izan duen moduan. Ondotxo epe laburragoekin jokatu behar dugu guk, zoritxarrez edo onez, ahul-dutako gure hizkuntza hau dagoen egoeran dagoelarik. Eta epe laburrago horietarako, dudarik gabe, lekuz kanpora dago azken-azken-azkeneko iragarpen unibertuala. Gizakiok ere badakigu azken-azken-azkenean hil egiten garela guztiok, baina horregatik ez ditugu medikuak eta erizainak, ospitaleak eta larrialdiko sferbitzuak (anbulantziak barne) arbuiatzen. Aitzitik: azken-azken-azkenean hil egingo garela ondo badakigu ere estimurik handienean ditugu osasun-zerbitzuak oro. Are gehiago: zenbat eta gaixoago egon, hainbat eta estimu handiagotan. 1970 inguruko soziolin-guistika katalan dikotomiazale hark (hots, hizkuntza-ukipenaren ondorioa *substitució* ala *normalització* baizik ezin izan daitekeela zioenak) uste izan duen baino astiroago gertatu ohi da gizarte-aldaketa eta, horren baitan, transformazio soziolinguistikoa. Mesede baino kalte gehiago egin dio *tempus* hori egoki neurtu eta zehatz baloratu ez izanak ahuldutako hizkuntzak indarberritzeko saioen han-hemengo kontzeptualizatzeko-lanari. Hortik sortu da Georg Kremnitz-ek, soziolinguistika katalanaren aztertzaile eu-ropar handienetakoak, 1970 inguruko ikuspegi dikotomiko hari eginiko kritika bakarretakoa: “Die meisten Normalisierungs- oder Substitutions-prozesse, die wir einigermaßen kennen, lassen sich über viele Generationen oder Jahrhunderte hin verfolgen. Es ist daher zu vermuten, daß man diese Formulierung (sowohl von Seiten der Leser als auch vielleicht auch von der der Autoren) zu kurzfristig verstanden hat. Nur Vertreibung oder Völkermord verändern die sprachliche Situation eines Gebietes kurzfristig. Auch die Beschleunigung aller Sprachenverschiebungen durch die moderne Kommunikations-gesellschaft und ihre technischen Möglichkeiten greift wahrscheinlich meistens nicht so rasch, wie wir das als direkte Beobachter meinen”. (Kremnitz, 1990: 34-5¹³²).

d) Diglosiaren ezinbesteko kalte-izaeraz ondorio sinpleegiak

Bistan dago diglosia ez dela nonahi eta noiznahi, *per se*, opresio eta zapalkuntza moduan bizi: aleman-hizkerako Suitzan, urrutirago gabe, oso argi dago hori. Munduko gauzarik normalena da haientzat bertako herri-hizkeraren eta aleman jasoaren arteko konpartimentazio sozio-funtzionala. Gauza batzuetarako *swizertüüsch*-az baliatzen dira guztiak (baita bankuetako zuzendari-jendea ere), eta besteetarako aleman batuaz. Endo-diglosia edo barne-diglosia hori aspalditik dute indarrean, eta hizkuntza-kode bakar batez baliatu ordez bi kodez jarduteak ez die aparteko eragozpenik sortu izan orain arte. Diglosia-giroko leku guztiak ez dira, ordea, Suitza germanofonoa. Are gehiago: diglosia-giro egonkor samarrean egon izan ondoren diglosia-giro hori okertzen hasten denean (ordura arteko konpartimentazio soziofuntzionala tentsio handien pean erortzen denean), naturaltasun eta neutraltasun ebaluatibo hori ahuldu egiten da, indartu ordez, eta zenbait kasutan erabat desagertzen. Gizarte batean kode bi erabiltzeak ez du, beraz, ez etengabeko eta ezinbesteko konfliktu-giroa adierazten eta ez, beste punta-muturrera joz, lagun-giro goxo-atsegina iradokitzen.

Oso ondo azaltzen du Haas-ek, nire ustez, eztabaida mikatz horren oinarrian zer dagoen: “Hudson points out that speakers of Swiss German take their diglossia as an absolutely normal language arrangement. This is part of their ideological convictions and makes it difficult for them to understand the problems other societies have with seemingly similar situations. I had to learn in Jamaica that *the Swiss German model is not suited for solving the linguistic problems of the West Indies*, because the ideology belonging to it cannot be exported. The histories experienced by the two societies are too different. (...) the Caribbean interpretation of *diglossia as an evil situation* in between, with standardization of L as the only way out, seems not to be suited for solving these problems — even if the interpretation is based on a sociolinguistic theory¹³³. In this case the *ideological bias is built into the theory itself*”. (Haas, 2002: 115). Gure soziolinguistikazko teoria bera da zenbaitetan, horra Haas-en ondorio zuhurra, arazoaren zati. Ez arazoaren muin, are gutxiago arazo bakar: bai, ordea, arazoaren zati garrantzitsu.

3.1.4.3 Soziolinguistika katalanaren bilakaeraz eta eraginaz

Ez da, gorago esan bezala, kasualidadea izan soziolinguistika katalanari hainbat leku eskaini izana. Batetik bilakaera jakina, orain ere axola handikoa, izan duelako eta horrek ere zer pentsatua eman behar ligukeelako. Bestetik, ez dagoelako soziolinguistika-esparrurik munduan, segurue-

Hiztun-elkarte baten “egoera normala”, are egoera normal “bakarra”, elebakartasuna dela ulertzen (implizituki asumitzen eta gure balorazio-eskemetan aplikatzen) dugun neurrian geu ari gara, ezinbestean, diglosiaren kaltegarritzko irudia indartzen eta lau haizetara zabaltzen.

nik, katalanak adinako inpaktu terminologiko eta kontzeptuala izan duenik Euskal herrian. Puntuz puntu ikusiko ditugu hortaz soziolinguistika horren diglosiari buruzko bilakaera batetik, eta formulazio horien gure arteko eragina bestetik.

a) Konfliktu eta diglosia kontzeptuen bilakaera, katalan-herrietan

Zer ondorio atera dezakegu aurreko puntuetan esandakotik? Ideologiaren inpaktua handia izan dela diglosia kontzeptuaren gainean, munduko hainbat lekutan: handia izan da bereziki, eta ez kasualitatez, hizkuntza-giro gatazkatsua dutenetan. Iturria bilatu nahirik, honela esplikatzeko du Haas-ek “menderatuen diglosia”ren sorrera eta garapena: “There seems to be general agreement that diglossia comes into being in intermediate societies with everybody using L as everyday language but only members of a small *elite* mastering H. From a sociopolitical point of view this *diglossic but asymmetric* situation is interpreted as oppressive; its dissolution through industrialization and urbanization in the course of modernization is considered not only as socially progressive but also as necessary from an evolutionary point of view. (Haas, 2002: 112) (...). This interpretation betrays the ideology of the late 1960s, to which I am rather sympathetic. But the belief in monolingualism as the “natural” state, as the goal of a “natural” evolution or at least as a state that society should strive for seems as naive as the tendency to blame linguistic situations for social injustice and the attempt to heal injustice by language engineering. (Haas, 2002: 112). Hiztun-elkarte baten “egoera normala”, are egoera normal “bakarra”, elebakartasuna dela ulertzen (implizituki asumitzen eta gure balorazio-eskemetan aplikatzen) dugun neurrian geu ari gara, ezinbestean, diglosiaren kaltegarritzko irudia indartzen eta lau haizetara zabaltzen. Errazegi azpimarratu izan ditu 1970 inguruko soziolinguistika katalan-okzitaniar-postkolonialak, eta guk berarekin, diglosiaren osagai ilun-arazotsu-kaltegarriak. Errazegi ahaztu gara bere abantaila-onurez.

Ondorioa bistan dago: hain argia eta hain sinplea zirudien hizkuntza-gatazkaren eta “menderatuen diglosia”ren eredu katalan ausart hura isildurik dago aspaldian. Orduko bozemaile nagusiak beste zenbait alorretara aldendurik dira (Aracil-en kasua, arras deigarria izanik ere, ez da bakarra) eta konstruktuko erakargarri hark inor gutxi erakartzen du egungo egunean, orduko termino haietan. Hots, hizkuntza-gatazkaren eta “menderatuen diglosia”ren ereduak ez du nabarmenki aurrera egin. Egia da normalkuntzaren kontzeptu globalak, eta batez ere *normalkuntza*

terminoak, erabateko arrakasta izan duela Espainian (ez hainbatekorik, aldiz, Pirinioetatik harantz). Gatazka eta diglosia katalan-okzitaniar haiek ez dute, ordea, normalkuntzaren parez pareko ibilbiderik izan. Norbaitek, hori guztia irakurrita, honelako zerbait pentsa dezake: “beraz 30 urte alferrik galdu ditugu, zure ustez, hizkuntza-soziologiaren teorizazio-alor hori behar bezala osatu, garatu eta aitzinatze aldetik”. Hori ez da horrela. Ez erabat behintzat: bidean jasotako eskarmentua aberasgarri izan da guztiontzat. Baina egia da, dudarik gabe, eskarmentu aberasgarriaz gainera atzerapen-iturri izan dela formulazio hori hainbat aldetatik. Hala izan dela eta, orain ere, hipoteka horren zamapean dihardugula euskaldunok sarri, gure konstruktuko teorikoak oinarri sendoz zurkaizteko orduan. Diglosia ez da ezegonkorra, ez eta konfliktiboa hutsa. Hori baino gertakari konplexuagoa da diglosia, “txuri eta beltz” arteko nahas-egoera interstizial ugari duena. Konplexutasun horri ezikusia egitearekin ezer gutxi irabaziko dugu.

Denbora ari da, azkenik, gauza bakoitza bere lekuan jartzen. Katalan-herriei dagokienez hiru bide ikusten ditut egungo egunean, funtsean, nagusi: (a) gatazkaz edo diglosiaz tutik ez esan, (sortu dugun nahaste-borrasteaz) ez baitago termino horretaz baliatuz hitz erdirik egiterik, ika-mika antzuetan sartu gabe¹³⁴; (b) diglosiaren (apenas konfliktuaren) kontzeptua berreskuratu, baina ez aipatu: “planteatzen ari garen eredu berri honek (demagun Albert Bastardas-ek hain maisukiro azaldu berria digun hizkuntza-ekologiaren eredu zahar-berriak) ez du diglosiarekin zer ikusirik” aitortuz, nahiz eta begien bistan dagoen kalabaza baino handiagoko diglosia dela, puntatik puntara, hor azaltzen ari zaigun soluzio “berria”, Bastardas-en hitzetan “A ala B” ordez “A eta B” postulatzeko duena; eta (c) zezenari adarretatik heldu eta, gatazkaren edo diglosiaren zentraltasunaz jabeturik eta zertan ari garen argi aitorturik, aurrera begirako (eta, behar bada, gure kontestura egokituriko) definizio eta aplikazio-molde operatibo egokiak bilatzen saiatu. Azken bide honetan barrena ari dira, oker ez banago, Joan-Lluís Marfany¹³⁵ eta Josep J. Conill¹³⁶, zein bere esparruan.

Marfany, beste nonbait ere esan dudanez, gozo-mikatzek irakurtzeko gertatzen zait: diglosiaren alorreko funtsezko puntuak argi ikusten ditu batzuetan, ene ustez, eta erabateko deskalifikazioz baztertzen du bere osagai hau edo hori handik gutxira. Ez dago dudarik, ordea, deskalifikatzen duenean ere badakiela maisuen ekarria onartzen eta baloratzen. Bereak dira hitzok: “Though he has been criticized from the very beginning, sometimes most severely, as by Timm (1981), Fishman’s model has been the basic frame or reference of, and been reproduced almost

**Soziolinguistika
katalanaren
paradigma
ezagunak (gure
artean luze-zabal
ibilitakoak eta
orain ere, agian,
gailendurik
dugunak)
ondorio sakonak
izan ditu Euskal
herrian.
Arrakasta handia
izan du
diglosiaren
ikuspegi horrek,
kasik hasieratik.
Hiru ataletan
azalduko dugu
hori ere: Sánchez
Carrión
"Txepetx"
aipatuko dugu
lehenik,
Euskararen
Liburu Zuria
bestetik eta
unibertsitate
mundua azkenik.**

verbatim by, practically everyone dealing with the question, with the exception of a minority who have remained staunchly loyal to Ferguson's restricted conception. And even a Fergusonian like Britto (1986: 27-49), who provides probably the most complete catalogue of Fishman critiques up to that date, believes his contribution to have had a positive effect on balance". (Marfany 2010: 11)

Deigarria da, bestalde, Conill-en 2007ko liburuko 1.2 atala, izenburu hau duena: *conflicte lingüístic, un concepte conflictiu?* Bistan da berak darabilen katastrofe-hondamendien teoria matematikoa arrotz gertatzen zaigula gehienoi, eta denbora, diziplina zorrotza eta ausardia eskatzen duela *canvi discontinu* delakoaren, *transició discontinua*-ren eta, oro har, egitura topologikoen eskutik eraikitako formulazio berrien funtsaz eta aurrera begirako esplikazio- zein iragarpen-indarrak jabetzeak. Ez dut uste ordea, ententitzen zaila izateagatik desegokia denik guretzat: are gutxiago alboratzekoa denik. Soziolinguistika katalanaren gibel-erraie-tatik sortua den neurrian aparteko balioa du, gainera, Mediterraneo be-riak deskubritzen ibili gabe lehendik esandakoetara itzuli eta, handik abiatuz, hizkuntza-soziologiazko ezagutza metatu eta pluridiziplinarra eskuratzen laguntzeko¹³⁷. Hots, jakin-iturri eta erreferentzia sendo izaten segitzen dute katalanek guretzat, alde edo moldez.

b) Konfliktu eta diglosia kontzeptu katalanen eragina gure artean

Soziolinguistika katalanaren paradigma ezagunak (gure artean luze-zabal ibilitakoak eta orain ere, agian, gailendurik dugunak) ondorio sakonak izan ditu Euskal herrian. Arrakasta handia izan du diglosiaren ikuspegi horrek, kasik hasieratik. Hiru ataletan azalduko dugu hori ere: Sánchez Carrión "Txepetx" aipatuko dugu lehenik, Euskararen Liburu Zuria bestetik eta unibertsitate mundua azkenik.

b1) Sánchez Carrión "Txepetx" eta diglosia

1974ko bere artikulura jo behar da, ezinbestean, Txepetxen ikuspe-giaz eta formulazio nagusiez jabetzeko. Hain aspaldi ez dela horretaz jarduna naiz (Zalbide, 2010), iragaitzaz bada ere, eta han esandakoak ez naiz hitzez hitz errepikatzen hasiko. Esan dezagun, hasteko, munduko (eta orduko) bibliografia teknikoaz aski ongi horniturik heldu ziola Txepetxek gogoeta-lan horri. Gutako gehien-gehienok urrundik ere ez genuen informazio zabalaz eta, bereziki deigarri dena, hausnartze sakonaz. Informazio jeneral horren barruan, du-darik gabe, oso kontuan izan zituen Aracil, Vallverdú eta Ninyoles ere¹³⁸. Kontuan izan zituen eta, hein batean, haien postulatueta

hurbiltzeko saio argirik ere egin zuen, bai edukian eta bai terminologian. Azterketa beregaina izan zen ordea berea, ooren gainetik: bide propio bat seinlatu zuen. Batek baino gehiagok aitortu dio hori, geroztik, eta iritzi horretakoa naiz ni ere. Uharte (partzial) bat da Txepetx, alde horretatik, diglosiaren inguruko katalan-konstruktuen eta gure tresneria kontzeptual arruntaren artean. Alferrik joango gara 1974ko bere artikulu sakonera, gure arteko diglosiaren ezaugarri asko bilatzera¹³⁹. Espelikazioa argia da: 1986an eman zuen, arras eza-guna denez, arrazoibidearen eta instintu-senaren arteko bereizketarekin, diglosiaren (eta beste hainbat kontzeptu giltzarriren) inguruko gure ahuldade-egoeraz inoiz eman den azalpenik zorrotzena. Bere formulazioek, eta horrekin amaituko dugu atal hau, aplikazio errazik ez zuten eta, horrezaz gainera, lehiakide gogorrei aurre egin behar izan zieten. Ondorioa begien bistan dago: nahiago izan genuen bide errazetik jotzea. Garai bateko mugarri bakarti moduan ageri da orain Txepetxen saio hura. Lau adituk (azkenik Conill-ek, oker ez banago) aipatzen (sarri goraiatzen) duten artikulua da hura, txosten hau prestatzeko eskueran izandako bibliografiaren argitan.

b2) Euskararen Liburu Zuria eta diglosia

Ninyoles izan genuen euskaldunok, une batetik aurrera, diglosia kontuan maisu. Batzuek maisu eta, zenbaitek, maisu bakar. Horretan ez dago dudarik: hori da “gure betiko diglosia”. Ez genbiltzan oso bide arrarotik, hala jarduterakoan: bidaide genituen beste hiztunherrietako hainbat aditu eta adituondoko: Guillermo Rojoren hitzetan (1985: 611) “a pesar de los inconvenientes señalados, la concepción de Ninyoles ha sido con relación a este punto la dominante en los estudios de sociología del lenguaje realizados en España. Por citar únicamente un par de casos significativos, X. Alonso Montero asimiló a la oposición entre bilingüismo y diglosia de Ninyoles la previamente establecida por él entre bilingüismo y dilingüismo¹⁴⁰. De modo similar, A. Badia i Margarit reconvirtió su distinción entre bilingüismo natural y ambiental en contraposición de bilingüismo y diglosia. (Badia i Margarit, 1977b: 107-33)”. Ninyoles-en diglosia hartu genuen guk etxerako, aski hasieratik. Hura iruditu zitzaigun (zitzaigun diot, ez zitzaien) egokiena. Gauza nabarmena izan zen hori 1975 ingurutik aurrera eta oso nabarmena, bere ondorio zabalagatik, 1977ko *El Libro Blanco del Euskara*-n, hizkuntza-soziologiaren (formalki “Bilingüismo”) atalean¹⁴¹, diglosiaz emandako azalpena. Artikulua oin-oharretara jotzen bada argi dago Rafael Ninyoles-en 1972ko *Idioma y Poder Social*-en oihartzuna, zenbaitetan ia es-

**Ninyoles izan
genuen
euskaldunok, une
batetik aurrera,
diglosia kontuan
maisu. Batzuek
maisu eta,
zenbaitek, maisu
bakar. Horretan
ez dago dudarik:
hori da “gure
betiko diglosia”.
Ez genbiltzan oso
bide arrarotik,
hala
jarduterakoan:
bidaide genituen
beste hiztun-
herrietako
hainbat aditu eta
adituondoko.**

klusiboa. Baita aipu jakingarrietan ere: “La “historicidad” de la diglosia, en su aspecto sincrónico, consiste en la inestabilidad-movilidad-conflictividad inherentes a toda diglosia, por estar basada en una relación de no igualdad y de dominio entre las lenguas en contacto dentro de una sociedad” (Euskaltzaindia 1977, 629). Edota: “Dentro de esta teoría del conflicto, las lenguas en contacto en una situación diglósica se presentan en una dicotomía: lengua A / lengua B”, edota beste hau: (Euskaltzaindia 1977, 633): “Este proceso tiende finalmente al monolingüismo. Tanto la “normalización” como la “sustitución” significan la vuelta a la normalidad lingüística, porque una sola lengua basta ya para todas las necesidades y funciones de dicha sociedad, y porque las diferencias lingüísticas ya no podrán actuar como marcantes también de otras diferencias sociales. En la situación de monolingüismo no hay ya lugar para el “conflicto lingüístico”. El conflicto lingüístico es pues característico de la etapa de bilingüismo diglósico” o social, y se agudiza a medida que desde el bilingüismo generalizado socialmente se va pasando progresivamente al monolingüismo”. Hori zen, diogun apalik, une hartako formulazio zabalduena eta horretara bildu ginen gogotsu, zaldun eta oinezko, euskaldunok ere.

b3) Unibertsitate-mundua

Azken ikuspegi horrek, normalkuntzaz baizik sendatu ezin den diglosia-gaixotasunaren formulazioak alegia, onarpen zabala izan du unibertsitate-munduan ere. Txosten honen I.1 atalean ikusi dugun Gotzon Garateren artikulua mamitsua, hein batean, horren testigantza argia dugu: unibertsitate-munduko profesionalek ere, batez ere zabaldu handixeagoko artikulurik idazterakoan, diglosiaren gure arteko formulazio popular, zabalduenera jotzen dute maiz. Adibide bakar bat erantsiko diogu orain arte esandakoari, beste askoren erakuskari. Honela zioen Jon Kortazarrek, hain aspaldi ez dela, Antón Figueroaren 1988ko lan ezagunetik abiatuz diglosiaz eta euskal literaturaz ari zelarik (erdaraz): “Pienso que los procesos literarios son históricos, de manera que en una literatura que va poco a poco normalizándose irá limitando los efectos que la diglosia produce dentro de su sistema” (Kortazar, 2008). Ekuazioa ezin argiagoa da: “normalizar = limitar los efectos (negativos, implizituki) que produce la diglosia”. Batetik, diglosiaren izaera kaltegarria erakusten zaigu hor argi. Bestetik, normalkuntzaren sendagai-izaera. Horra katalan-ereduaren arrasto ezin argiagoa: diglosiak sortzen dituen kalteen konpontzaile dugu normalkuntza, definizioz.

3.1.5 2002ko saioa

Aldeak alde eta antzak antz, askotxo ziren diglosiaren inguruko formulazio soziolinguistiko eta glotopolitikoen ugariaz, desadostasunez eta elkar ezin aditzeaz kezkatuak zeudenak. Alan Hudson irakaslea (irlandarra jatorriz, Fishman-en ikasle hurbil eta kuttun izandakoa) errepasso moduko bat egiten eta kontzeptua anabasa-girotik ateratzen laguntzeko teoria-modu bat proposatzen saiatu zen 2002an. Fishman-en gidaritzapeko *International Journal of the Sociology of Language* izan zuen hartarako agergune. Munduko espezialista aditu andana batek, tartean gure Maria Jose Azurmendik, bere aurkezpen-txosten luzea aurrez irakurtzeko astia izan zuen: nor bere iruzkin-komentarioak egin zizkion Alan Hudson-i, eta aldizkari haren zenbaki berean argitaratu. Azkenean, eztabaida-aldi osoaren ondorio-txostena idatzi zuen Hudson irakasleak; ondorio-txosten hori ere aldizkarian bertan argitara eman zen. Une hura izan genuen, Maria Jose Azurmendik ongi dioenez, diglosiaren gaiari perspektiba soziolinguistikotik heldu zaion azkenaldi "goi-mailakoa".

Bideberritze- eta teorizatze-lana egin nahi izan zuen Hudson-ek¹⁴². Berrikuntza hori egiteko motiboetako bat hau zuen: "to draw a workable distinction between the phenomenon of diglossia in the strict sense of the term and that of diglossia in some broader sense, and to motivate this distinction theoretically in terms of the sociogenesis of each, the course of development of each, and the long-term consequences of each for the verbal repertoires that they constitute, in whole or in part" (Hudson, 2002: 49). Dokumentazio zabala erabiliz, eta aski iturri desberdinetatik edanez, honako emaitza hauek eskaini zituen Hudson-ek:

a) berriro ere Ferguson-en jatorrizko diglosia (enbor bereko aldaeren arteko konpartimentazioa) eta Fishman-ena (edozein eratako aldaera edo hizkuntza biren artekoa) elkarrengandik bereizi zituen eta lehenengoa, Ferguson-ena, "benetako" diglosia" izendatu. Argi dago: *genetically related diglossia*, Heinz Kloss-en garaitik zenbaitek *endodiglossia* esandakoa, hartu zuen Hudson-ek benetako diglosia moduan. Fishman-en zabalkuntza, zeharo baztertu gabe, bigarren plano batera pasatu zuen¹⁴³. Gatozen gure kasura. Hudson-en emaitza horren arabera, euskararen eta erda(ra)ren artean ez dago "benetako" diglosiarik. Nahita ere ezin da egon, definizioz. Hemen ez da benetako diglosiarik izan lehen, ez da orain eta ez da inoiz halakorik izango, euskarak eta erdarak (frantsesak han, gaztelaniak hemen) euskararekin *genetically not related languages* izaten segitzen duten artean.

**Alan Hudson
irakaslea
(irlandarra
jatorriz,
Fishman-en
ikasle hurbil eta
kuttun
izandakoa)
errepasso moduko
bat egiten eta
kontzeptua
anabasa-girotik
ateratzen
laguntzeko
teoria-modu bat
proposatzen
saiatu zen
2002an.
Fishman-en
gidaritzapeko
International
Journal of the
Sociology of
Language izan
zuen hartarako
agergune.**

Euskara-erdaren artekoa *social bilingualism*, elebitasun soziala genuke guk, ez diglosia-diglosia¹⁴⁴. Zenbait adituk, Haas-ek esate baterako, merezimendu handiko elementuz hornitua egon arren prezientifikotzat hartu zuen ildoberritze hori¹⁴⁵. Beste zenbaitek ere adierazi berria du, Ferguson-en jarraitzaile zintzoa izanik ere funtsean, Asia Ekialdeko hizkuntza-egoeren azterketa izanik gogoan, Fishman-en formulazio garatua zergatik den hain garrantzitsua diglosiaz jarduterakoan¹⁴⁶.

b) Bereizketa hori zergatik proposatzen zuen, hori ere argi esan zuen Hudson-ek: soziogenesi diferentea omen dute diglosia-mota batek (benetakoak, barne- edo endodiglosiak) eta besteak (kanpo- edo exodiglosiak, *broad diglosia* edo *social bilingualism* delakoak). Sorrrera diferentea omen dute, alde batetik. Ibilbidea desberdina omen dute, bestalde. Azken-azkenean izango duten ondorioa ere diferentea omen da, kasu batean eta bestean. Bere hitzetan esanik, garrantzitsua iruditu zitzaion “to motivate this distinction theoretically in terms of the sociogenesis of each, the course of development of each, and the long-term consequences of each for the verbal repertoires that they constitute, in whole or in part”. (Hudson, 2002: 49). Soziogenesiaz azaltzen dituen bereizgarrietan ez gara hemen sartuko, eskuartean dugun lanerako hain funtsezkoak ez direlako. Bai, aldiz, ondorioetan.

c) Aldaketarik ausartena, egia gertatuko balitz teorizazio-urrats handiena ekarriko lukeena, beste honetan eragin zuen Hudson-ek: benetako diglosiaren kasuan, eta “bigarren mailako” horretan, zeharo ondorio diferentek lortzen dira H eta L artean. Labur bilduz: Ferguson-en diglosia genetikoan L ateratzen da normalean garaile, eta “bigarren mailako” (hots, gu bezala *non genetically related* hizkuntzen kasuetan) H. Ez omen da lege-legea, baina bai estatistikoki argi dagoen kontua eta, beraz, arau nagusizat (*general tendency*-tzat, gutxienez) har litekeena. Kontuak horrela badira, gurea bezain ahuldutako hizkuntza diferentean kasuan ez dago diglosia eskuratzen saiatu beharrik: arau horri eskerrak badakigu, izan ere, A+B iraunkor samar bat eskuratzeko egiten duguna egiten dugula kondnaturik gaudela. Katalana salba zitekeen, gaztelaniaren aurrez aurre, diglosiari eutsi balio (edota salba liteke, berriro ere diglosia eskuratzen badu). Euskara ez. Zein motiborengatik? Hango eta hemengo (A, B) hizkuntza-bikoteen arteko tipologia linguistiko diferentegatik¹⁴⁷. Aurkezpen-txostenari oharrak egindako hainbatek, Fasold batek adibidez, konformidade handia agertu zuen formulazio dikotomiko

horrekin (Fasold, 2002: 89-90). Beste zenbaitek aldiz, Haas-ek adibidez, mesede nabarmenik aurkitzearekin batera erreparatu argiak jarri zizkion (Haas, 2002: 112). Fishman-en erantzuna, azkenik, kritikoa izan zen oso: puntatik puntara irakurtzea merezi du, diglosiaren azken 40 urte luzeko gorabehera kontzeptualez (eta, partez, terminologikoez) jabetzeko (Fishman: 2002).

d) Goiko puntu horrekin hasi zen Hudson-en formulazio berria, nolana ere, bere ahuldadeak agertzen. Batetik, zer behar dago Ferguson-en diglosiari “benetako” diglosia esateko eta besteari “societal bilingualism”? Zergatik saiatu diglosia benetakoa eta “societal bilingualism” hain gogor bereizten, berehala (hainbat alorretan) parez pare tratatu behar badira biak? Ez al dira biak, horretaraz gero, fenomeno berberaren bi azpimultzo? Eztabaida nominalistatik hurbilago dabil hori, teoria sendo baterako oinarri fermutik baino. Hori da ordea, askogatik, erreparatu txikiena.

e) Berak legetzat ez baina “general tendency”-tzat ematen duen joera jenerala ez da batera jenerala. Hori da bere planteamendu berriaren puntu ahulena. Batzuetan hori gertatu da historian (adibidez, erromantze-hizkuntzek latina ordezkatu zutenean L atera zen garaile¹⁴⁸). Beste askotan, eta ia gure begien aurrean zenbait kasutan, kontrakoa gertatu da ordea. Adibideak nahi adina ditugu, *genetic diglosia* kasuan H (ez L) garaile atera denetakoak. Nahi adina adibide: gaztelaniak gailegoa, asturiera, nafar-aragoiera edo katalana ordezkatzean, adibidez, H (ez Hudson-en joera jeneralaren arabera L) nagusitu da gure inguruetan¹⁴⁹. Berdin Frantzian, frantses hizkuntza H jasoak lekuan lekuko hizkera L-ak aurrean eraman dituzten. Hudson-en “joera jeneral”aren alderantziz gertatu (eta, gure begien aurrean, gertatzen ari) dira kontuak, kasu mordo batean. Beste horrenbeste gertatzen da diglosia ez genetikoarekin: normandoen frantses H-a ez baina ingeles L-a gailendu zen bertan, Hudson-en arauaren guztiz kontra. Eta abar. Ez *genetically related* diglosiazko kasu askorekin betetzen da “arau” hori hain sendo eta hain zabal, eta ez *not genetically related* direlakoekin: estoniera eta txekoa ez al ditugu aski adibide argiak, beste askoren erakuskari? Seguru al gaude *jiddish* hizkuntzaren gainbehera, Europako ekialdean, bertako hizkuntza eslavoak (eta, partez, alemana) *genetically unrelated* zirelako gertatu zela, eta ez Hitler-en eta Stalin-en eragin extralinguistiko zuzenez? Delako “joera jeneral” asmozko teorizazio horrekin nora iritsi gaitzke, hasi orduko huts egiten badigu? Muga handia du hori, nire ustez, Hudson-en azalpen horrek. Kasu horietariko batzuetan, Fish-

**Alan Hudson
irakaslea
(irlandarra
jatorriz,
Fishman-en
ikasle hurbil eta
kuttun
izandakoa)
errepaso moduko
bat egiten eta
kontzeptua
anabasa-girotik
ateratzen
laguntzeko
teoria-modu bat
proposatzen
saiatu zen
2002an.
Fishman-en
gidaritzapeko
International
Journal of the
Sociology of
Language izan
zuen hartarako
agergune.**

man-en erantzun zorrotza hausnartu ondoan, amor eman zuen: jid-dish-a, bere formulazio horren arabera inola ere “benetako diglosian” ezin kabituzkoa, halere “benetako diglosian” bizi izandakoa dela aitortu zuen Hudson-ek, leialki, bere erantzun-txostenean.

f) Ez da hori, ordea, bere formulazio berrituaren muga-eragozpen bakarra. Badu horrezaz gainera, izan ere, guretzat zentrala den puntua. Hasieran, bere etiologia- eta soziogenesiek hartaraturik antza, Fishman-ek bere RLSn argiro esandakoa dudatan jartzen zuen: HINBE edo RLS lortzeko ez omen dago batere argi, diglosiak (benetakoak, behintzat) balio erantsi argirik duenik. Ikuskizun omen dago diglosiaren mesede hori ere. Honela dio A. Hudson-ek hasierako txostenean: “it is tempting but nevertheless wrong to conclude that the attainment and maintenance of sharp functional compartmentalization of codes may be the key to minority-language maintenance and RLS”. Hautsak harrotu zituen horrek, espero izatekoa zenez. Suzanne Romaine izan zen lehena, gai horren inguruan bere harridura agertzen. Fishman-ek, bistan da, aspalditik emana zuen horri buruzko epaia. Azkenik, bukaerako erantzun-txostenean, batzuen eta besteen (batez ere Romaine-ren eta Fishman-en) erantzunak irakurri ondoan erabat matizaten du puntu hori eta, aski punta batetik bestera pasatuz, arrazoi osoa ematen dio Fishman-i. Honela dio azkeneko erantzun-txostenean (Hudson, 2002:161): “I said that ‘it may not be realistic to think of diglossia, in any narrow sense of the term, as providing an appropriate model for the stabilization of endangered languages or for their eventual revitalization as fully functioning native languages’. Once again, under no circumstances should this be interpreted as a rejection of Fishman’s claim that reversal of language shift requires a diglossic arrangement along the way (1991: 85). Again to the contrary, reversing language shift manifestly entails reclaiming for L at least certain domains formerly surrendered to H — but not just any domains”¹⁵⁰. Gaizki ulertu zitzaion, antza; hori zen gutzia.

g) Bestelako asmorik ere izan zuen Hudson-en saiakera sendo horrek: modernizazioak diglosiaren gainbeheran izan duen garrantzia azpimarratzea. Bere hitzak dira hauek: “Modernization and its various components, culminating in mass education and literacy, have been repeatedly associated with the decline of diglossia. It has been argued, for instance, that the elevation of the status of the vernacular, and the resulting adjustment of the writing system to this, is one of the main types of linguistic reform in modernizing societies (Sjoberg 1964: 897). It has also been suggested, as noted previously, that di-

glossia 'is most often removed at an early stage of modernization' (Neustupny 1974: 40). Further, the urbanization of intermediate societies is reported to result in structural convergence between the subcodes in their speech repertoires, to the point where, in some highly urbanized communities, the discrepancy between standard and local dialects diminishes virtually to the point of extinction" (Gumperz 1968 [1962]: 469) in Hudson, 2002: 81). Horrela esanik, badirudi bide onetik dabilela Hudson. Bistan da modernizazioa, eta bere lagun dituen fenomenoak (urbanizazioa, industrializazioa eta abar) lehiakide gogorrek direla diglosia tradizionalarentzat, hainbat kasutan. Beti ez da ordea horrela. Sinplifikazio handia da gauzak horrela azaltzea. Urrutirago gabe, gauzak horrela izan balira lineal-lineal, Urola aldean (hots, erdararekiko elkarbizitza diglosiotik situazio hurbilena dugun eskualdean) aspaldi galdua gure euskara, eta Zuberoan edo Erronkarin L aldaera gisa osasun bete-betean. Horrela al dira gauzak? Ez noski: justu alderantziz dira izan ere, inola izatekotan, gure etxeko zenbait gertakari ezagun. Fenomeno sozial konplexua, aldagai anitzekoa da diglosiaren sorrera, belaunez belauneko transmisio-iraupena, eguneratzea eta, halakorik lortzen ez denean (modernizazioa izan ohi delarik sarri, Hudson-ek zuzen dioenez, eragile nagusi, baina ez bakar) ahultzea eta galtzea. Arras konplexu eta multifaktorial den gertaera diferentzial hori errazago da paper gainean sinplifikatzea, errealitatean duen benetako izaera egokiro formalizatzea baino.

h) Beste zenbait kasutan ere, etiologia monokulturala eta monogenetikoa nahastuz, errealitatearen kontrako ondorioetara iritsi izan da Hudson. Fishman-ek eman ditu formulazio berriaren alor horretako moztade nabarien azalpen sistematizatuenak. Haien berri izan nahi duenak jo beza *IJSJ* aldizkarira, 2002ko 157. orrialdera.

Labur bilduz: datu-biltze eta hipotesi-lantze inpresionantea eskaini digu Alan Hudson-ek, 2002ko bere saioan. Ordura arte, Britto-ren 1986ko tesi-lan ezaguna alde batera uzten bada, inoiz pareko neurrian egin gabekoa, nire ustez. Zer ikasia ugari dago Hudson-en saio horretan eta, batez ere, hemengo datu soziolinguistikoak zerekin konparatu jakiteko mundu zabaleko balio-indarra duten elementu ugari eskaini digu bertan. Hudson-en "benetako diglosia" hori bat dator ia erabat, baina ez osorik, Ferguson-en diglosia klasikoarekin. Puntu batean dauka aldea: maisuarentzat diglosiaren ezaugarri definitzaile irmo den egonkortasuna, hizkuntza-egoera berezi horren mendeetako iraupen-indarra, erabat

**Alan Hudson
irakaslea
(irlandarra
jatorriz,
Fishman-en
ikasle hurbil eta
kuttun
izandakoa)
errepaso moduko
bat egiten eta
kontzeptua
anabasa-girotik
ateratzen
laguntzeko
teoria-modu bat
proposatzen
saiatu zen
2002an.
Fishman-en
gidaritzapeko
International
Journal of the
Sociology of
Language izan
zuen hartarako
agergune.**

kamusturik ageri da Hudson-en formulazioan¹⁵¹. Era berean, Hudson-en “benetako diglosia” hori bat dator ia erabat, baina ez osorik, Fishman-en diglosia prototipikoarekin. Egonkortasuneko desberdintasunaz gainera¹⁵² puntu batean dauka aldea: erlazio genetikoa bai/ez atalean, eta etiologia monokulturala monogenetikoarekin nahaste kontuan, aldentzen da ia soilik, ikusia baitugu diglosiaren (are “benetako diglosia”ren) RLSrako balioa espresuki aldeztu eta azpimarratzen duela bukaerako bere erantzun-txostenean. Aparteko ahalegina egin du Hudson-ek, gainera, diglosia zer ingurumen-baldintzek (zer gizarte-girok) sortua den, eta (barne-tipologiari beste zenbait kanpo-osagarri erantsiz) irtenbide posibleak zein izan ditzakeen zirriborrotzen. Bere parte zentralen, teoria-lanketarenean, motx gelditu da hainbaten ustez teoria horren elementu giltzarrietan (Haas izan da agian, Fishman-ekin batera, puntu hori gogorrenik hartu duena). Kritikak kritika asko saiatu da ordea mundu zabaleko diglosiaz dugun ezagutza zabaltzen, eta haren barruko atalak kontzeptualki eta ingurumen-baldintzen argitan zehazten. Ikuspegi berriak zabaldu dizkigu horrezaz guztiaz, baina motx gelditu da emaitzetan. Berdeegi dago oraindik diglosiaren eremua, antza, balio jeneraleko arauak eman ahal izateko. Bien bitartean hobe izango dugu, ene ustez, seguru samarrak diruditen eta mundu zabalean zirkulazio nagusia duten elementuekin lan egin. Funtsean, Ferguson-en formulazioak eta Fishman-enak amankomunean duten osagai basikoen, Hudson-ek kasu gehienetan zoragarri deskribatu eta are lehen baino egunaren argiagotan jarri dituenekin.

3.2 Gaurkoan alde batera utz litezkeen albo-gaiak

Labur-labur helduko diogu atal honi. Diglosiaren alorreko ezagutzak ez du gure eztabaida honetan (euskara indarberitzeko orduan diglosia zero den, infernu edo purgatorio) aparteko garrantzirik. Ez, behintzat, euskara-erdaren perspektibatik eta XXI. mendera begirako erronka nagusien argitan. Garrantzitsuak dira puntu horiek guztiak ere, jakina, baina ez dira zentralak gaurko eztabaida honetan. Horregatik diogu alde batera utz litezkeela une batez. Hiru puntu dira funtsean, garrantzi bizikoak izanik ere beste zenbait ingurumen geolinguistikotan edota gure beste zenbait azteralditarako, *orain eta hemen* albora-edo utz ditzakegunak. Ikus ditzagun banan-banan.

3.2.1 Endo/exodiglosia

Perspektiba linguozentrikoa da, batez ere, zatibitze horretan ageri dena. Heinz Kloss izan zen, oker ez banago, zatibitze horretaz lehenengo

aldiz baliatu zena¹⁵³. Handik gutxira jaso genuen gure artean, Txepetxen lumatik (Sánchez Carrión 1974: 67 eta hurr.), zehaztaperen horren berria. Guretzat (euskaldunontzat) erraza da entenditzen, endo- eta exodiglosiaren arteko muga. Euskara batuaren eta euskalki-oinarriko herri-hizkeren arteko banaketa (luze-zabaleko hedaduraz eta luzera begira antolatua bada), *endodiglosia* da. Euskara-erdaren arteko banaketa, aldiz, *exodiglosia*. Litekeena da, noski, beste zenbait lekutan endo- eta exodiglosiaren arteko bana-lerro hori hain begien bistakoa ez izatea. Ez nago seguru, bestalde, zatibitze horiek perspektiba berean eta irizpide berberaz erabiltzen direnik beti: frantses/okzitano, gaztelania/katalan edo gaztelania/gailego bikoteak *intralingual diglossia* moduan har litezke, bikote bereko elementu biak latinetik datozelako nolabait eta, dudarik gabe, Hudson-en *genetical relatedness* ukaezina dutelako. Bestalde, bikote bakoitzeko elementu biak hizkuntza beregainak direnez egungo egunean, *interlingual diglossia* argien aurrean gaudela ere esan liteke. Zein irizpidek du lehentasuna? Bistan da kontsiderazio linguistiko hutsak ez direla aski, seguruenik, galdera horri erantzun betea emateko. Zein da, hortaz, aditu bakoitzak kasu bakoitzean operatibizatzen duen irizpidea?

Gaia berriro astindu du Hudson-ek: batetik “diglossia in the classical sense of Ferguson (1959)” hartu du, eta bestetik (ez du hala esaten baina, guztiok dakigunez, Gumperz-en eta, bereziki, Fishman-en) “diglossia in the sense of functional compartmentalization of distinct languages”. Barne-diglosiaren eta kanpo-diglosiaren arteko banaketa horretaz asko idatzi da han-hemen. Gu, ezinbestean, bigarrenarekin interesaturik gaude *hemen eta orain*. Euskara-erdaren elkarbizitza molde egonkorak baldin baditugu aztergai, ez euskal aldaera diferenteen arteko esparru (fisiko edo soziofuntzional) posibleen banaketa, bistan da Gumperz-en zabalkunde kontzeptualaz baliaturik Fishman-ek 60ko hamarkadan eskainitako konstruktua (eta gero, aldi behin, konstruktua horri eskainitako garapen-multzo aberasgarria) dugula mintzagai nagusi. Labur bilduz: hemendik aurrera, besterik esaten ez den artean, euskara-erdaren arteko exodiglosia dugu txosten honetan aztergai. Besterik adierazi nahi denean, berariaz seinalatuko da.

3.2.2 Di-/tri-/multi- (poli-)glosia

Bereizketa horiek ere oso interesgarriak dira, hizkuntza (edo aldaera) bi baino gehiagoren konbinazioa gertatu ohi baita sarri egungo gizarte-bizitzan. Horren barnean sartzen dira kateaturiko H/L segidak (H bi eta L bakarrekoak adibidez), erdal bibliografiak (*double*)-*nested diglosia* esan ohi dituenak¹⁵⁴ eta gure artean, aski era sakonean, Juan Luis Goikoetxeak

**Aldaketarik
ausartena, egia
gertatuko balitz
teorizazio-urrats
handiena
ekarriko lukeena,
beste honetan
eragin zuen
Hudson-ek:
benetako
diglosiaren
kasuan, eta
“bigarren
mailako”
horretan, zeharo
ondorio
diferenteak
lortzen dira H eta
L artean. Labur
bilduz: Ferguson-
en diglosia
genetikoan L
ateratzen da
normalean
garaile, eta
“bigarren
mailako” (hots,
gu bezala non
genetically
related
hizkuntzen
kasuetan) H.**

euskal diglosia irazi bataiatu-koak. Ez da ordea hori, ehunetik laurogeita hemeretzi-
an, gure eztabaidetan maizenik azaleratu ohi dena. Ez dugu
beraz diglosia anizkoitzaren xehetasun espezifikoez jardungo oraingoan,
esku artean dugun eztabaidarako urrunegi gelditzen zaigulakoan. Labur
bilduz: diglosia simple-arruntaz ari izango gara txosten honetan, hemendik
aurrera, bestelako detaile berririk agertzen ez den artean.

3.2.3 *Continuum-a*

H eta L, berdin du aldaera izan edo hizkuntza, aparteko kode diskretu,
finko, beregaintzat hartu ohi ditugu sarri, eta hala egin dugu hemen
ere, orain arte. Beti ez dira, ordea, gauzak horrela izaten. Zenbaitetan bi
kodeetarikoa bat, L normalean, aski kode fluidoa izaten da: L hori ez da
bat, *continuum* batean barrena hedatzen den L-sorta malgu zabala baizik.
Nola tratatu behar da diglosiaren kontua, kodeetako bat, normalean L,
hain fluidoa eta hain labila denean? Garrantzi berezia du *continuum*-aren
puntu honek, dudarik gabe, etorkizunera begira. Gure gazte askok nola
euskaraz hitz egiten duen ikusita, ez da dudarik *continuum*-aren ideia
horrek analisi argigarri askotarako aukera eman dezakeela. Hudson-ek
argi azaldu du puntu hori, nik uste, bere azalpen-txostenean: “Related to
the question of cooccurrence restrictions in diglossia is the question of
discreteness as opposed to continuity in linguistic variation. Stated simply,
do the individual styles found in a diglossic code matrix, like those found
in certain postcreole continua, arrange themselves in a unidimensional
series of minimally different varieties, reaching from an extreme basilectal
vernacular variety at one pole to an extreme acrolectal standard at the other?
Or is this sequence of minimally different lects punctuated at one or
more points along its progression?” (Hudson, 2002:65).

Delako “discreteness as opposed to continuity in linguistic variation”
hori ez da guretzat, diglosiaz ari ginelarik, orain arte atentzio handirik
merezi izan digun gaia izan. Gero eta atentzio handiagoa eskaini beharko
zaio ordea, seguruenik, etorkizunean. Gure arteko hizkera-moldeek
euskal/erdal *continuum* baten arrastoak dituzte sarri. Hain sarri non,
zenbaitetan, ikasle batzuk beren artean euskaraz ala erdaraz ari diren
erabakitzeko lanak izaten dituen horretan ari den adituak. Ferguson
bera (orobat Fishman, bere aurretik ondo konturatu izan da *continuum*
horren izaerak hasierako diglosia kontzeptua osatzera eta aberastera
behartzen duela. Hainbat puntutan barne-diglosiaren arrastoak ditu
berekin *continuum* horrek. Ez da diglosiaren ezaugarri funtsezko guz-
tietara makurtzen ordea. Bere hitzetan esanik, “there are many places
in the world where there is a so-called “creole continuum”. In that type

of situation there is a range of variation from a “high” variety which is typically though not necessarily a form of a (previous) colonial language, to an extremely different variety showing unmistakable signs of prior pidginization. Members of the community shift up and down this scale in speaking, depending on such factors as their relative social position, varying communicative functions, and individual interactional strategies” (Holm 1988: 9).

Kaye-k dioena ere kontuan hartzekoa da: “at the very heart of the term, it seems to me, is really the matter of degree, which is why the notion of the continuum is particularly rewarding. Diglossia in Arabic is a different phenomenon from diglossia in English —quantitatively more than qualitatively— especially when one notes the extreme, all-encompassing pervasiveness of the Arabic H–L dichotomy vs. the limited extent of formal vs. informal English stylistic variation” (Kaye, 2002: 121). Antzera ari zaigu Pauwels, *diglossia as a ‘continuum’* – ranging from *rigid diglossia* (clearly defined codes/situations for use) eta *fluid diglossia* (lots of overlapping of use) artean bereizten duelarik.

Argigarriak dira, orobat, Winford-en azalpenak (Winford, 1985: 352): “In diglossic situations, as Ferguson points out, the communicative tensions which arise may be resolved by the use of relatively uncodified, unstable, intermediate forms of the language (e. g. *creole de salon*) and repeated borrowing of vocabulary items from H to L. But the codes maintain their distance, and the complementary distribution of functions for H and L reinforce the structural gap, so that stability is maintained. In creole continua, by contrast, the gap between the varieties tends to become progressively narrower and even to be obscured at times because of the increasing influence of patterns of socially determined differentiation. Yet it seems clear that there is a structural gap between H and L varieties in creole continuum and that the balance between the norms is maintained for long periods”.

Ez dago dudarik: hemendik ehun urteko euskara, bizirik ateratzen bada, oraingoaren aski diferentea izango da eta, seguruenik, euskara mota bat baino gehiago izango ditu bere baitan. Euskara mota asko edo, zehazkiago, euskara-euskaratik erdal-euskarara doan *continuum* batean kokatu ahal izango diren aldaera diskontinuoak. Amaiera aldean, aipatzen den “limited extent of formal vs. informal English stylistic variation” hori ere probetxuz analiza liteke gure artean gero eta presentean dagoen euskara motx, uniformatu, gatz-piper handirik gabearekin konparatzeko. Oraingoaz, ordea, besterik dugu eskuartean eta *continuum* kontuari, horregatik, ez diogu aurrez aurreko atentziorik eskainiko gaurkoan¹⁵⁵.

Bistan da modernizazioa, eta bere lagun dituen fenomenoak (urbanizazioa, industrializazioa eta abar) lehiakide gogorrak direla diglosia tradizionalarentzat, hainbat kasutan. Beti ez da ordea horrela. Sinplifikazio handia da gauzak horrela azaltzea.

3.3 Diglosiaren osagaiak, bere atributu edo ezaugarriak

Zertan datoz bat Ferguson eta Fishman, *diglosia* definitzerakoan? Aditu bat baino gehiago saiatu da amankomuneko ezaugarri horiek, batak eta besteak berdin edo berdintsu azaltzen dituzten osagai nagusi horiek, zehazten. Alan Hudson bera horretan saiaturik da, inoiz, eta honela ateratzen zitzaizkion kontuak (Alan Hudson in Paulston eta Tucker 2003: 370-1):

1. Both studies are *typological* in nature.
2. Both are concerned with the *complementary distribution* of speech varieties *across situational contexts*, in accordance with patterns which are recognized by the speech community as culturally legitimate.
3. *one variety*, or range of varieties, is *acquired in the natural manner of mother tongue*, whereas a *second variety* (or range of varieties) is *acquired later in the process of socialization*.
4. both share a *concern for the evolutionary framework* for diglossia, *exploring social conditions contributing to its emergence and decline*.¹⁵⁶

Lau puntuak garrantzitsuak dira eta, nire ustez, zuzenak. Lehenengo ez dugu berariaz landuko, gure arteko (eta, funtsean, mundu zabaleko) eztabaida-girotik kanpora baitago, bistakoaren bistakoaz. Beste hirurak, aldiz, zuzenak izateaz gainera xeheago azaltzea komeni da. Horiek bakarrik ez. Bada horiezaz gainera, gure artean bederen, berariaz seinatu behar den beste zenbait ezaugarri ere. Horien guztien zehazte-lanari ekingo diogu beraz, besterik gabe.

3.3.1 Diglosia gertaera soziala da, ez indibiduala

Ferguson-ek honela zioen (1959: 435): “Diglossia is a (...) *language situation*”. Eta honela Fishman-ek, handik urte gutxira (1980): “(Diglossia is a) *societal arrangement*”. Hots: ez batak eta ez besteak definitzen du *diglosia* termino indibidualetan: ez indibidualetan eta ez gizarte-kontestu osoa integratu gabeko indibiduo batzuen agregazio huts gisa. Normalean, atzerriko bibliografian irakurtzen diren esaldiak honelakoak dira: “In a modern *diglossic society* communication can only function if...” (Haas, 2002: 114), edota “Core feature (...) of *diglossia* (is) the fact that no segment of the *language community* acquires the H-variety as their first language (Haas, 2002: 109-10); orobat Kaye-ren beste hau: “many other languages (in actuality, the *speech communities* that speak them) have been reevaluated as diglossic” (Kaye 2002: 117). Antzera ari zaigu J. B. Marcellesi, diglosia ordez “*bilinguisme de masse*” darabilenean ere: “quand nous disons ‘*bilinguisme de masse*’ cela signifie que le bilinguisme

dont il s'agit n'est pas celui de quelques individus mais de toute une partie de la population ou d'une population entière; si l'un des systèmes était simplement étudié à l'école sans jouer un rôle dans la vie des adultes ou les activités extra-scolaires des enfants et les pratiques langagières qu'elles impliquent, il ne s'agirait plus d'un 'bilinguisme de masse'. Afin d'être bien clair nous avons couplé ici ce mot avec 'diglossie'".

Ez dira guzti-guztiak, ordea, iritzi bereko. Ez etxean eta ez, txosten honen lehen bertsioa idatzi ondoan konturatu naizenez, kanpoan. Etxekoei dagokienez hor dago, jakina, Txepetx 1974ko bere diglosia *individual* harekin. Kanpokoen artean berriz hor dago, aski buruzut, Marfany-ren *Diglossia individual*-a. Luzea du Marfanik bere formulazio horren aldeko argudio-bidea (2010: 11-2): "the real problem with the Fishmanian idea of diglossia, the one from which all the others derive, lies in his misunderstanding of what constitutes the social nature of the phenomenon. The problem lies in his distinction between bilingualism as a "psycholinguistic" concept and diglossia as a "sociological" concept. Psycholinguists have every right to claim bilingualism as their own if they so wish and are welcome to do with it as they see fit. But bilingualism is as much of a social phenomenon as diglossia and therefore as much of a sociological concept, too. By the same token, diglossia can only be rationally defined as a form of individual linguistic behavior, just like bilingualism. Unlike Mrs. Tatcher and friends, I do believe that there is such a thing as society. I know there are even such things as collective phenomena. Speaking, however, whether in the broad or the narrow sense of the word, is most emphatically not one of them".

Ez nago ikusmolde horrekin konforme. Gizajendearen mintzajardunak dimentsio sozial ukaezina du, eta dimentsio horretaz ari da diglosia, ez norbanako hutsaren bertsatildade linguistikoaz. Hainbat kostatzen al da paristarren ondoan (are, hainbat ikuspegitatik, haien aurretik) Paris esistitzen dela onartzea? Hori gutxietetik ateratzen du Marfany-k, oker ez banago, bere diglosia-definizio berria: "Diglossia is the linguistic behavior whereby an individual uses one or the other of two languages according to function in obedience to rules accepted by the whole of the social group to which he belongs and therefore in a totally predictable way. The two concepts are neatly, beautiful I would even say, complementary: the bilingual person uses one language or the other (more often, in fact, a language and a patois) depending on whom he is addressing in all circumstances and for all functions; the diglossic uses one language or the other depending on the function no matter whom he is addressing" (Marfany, 2010: 11-2). Hiruko erregela hori aplikatuko ba-

**Berdeegi dago
oraindik
diglosiaren
eremua, antza,
balio jeneraleko
arauak eman
ahal izateko.
Bien bitartean
hobe izango
dugu, ene ustez,
seguru samarrak
diruditen eta
mundu zabalean
zirkulazio
nagusia duten
elementuekin lan
egin. Funtsean,
Ferguson-en
formulazioak eta
Fishman-enak
amankomunean
duten osagai
basikoekin.**

genie abstrakzio soziologiko gehienei, guztiak edo mordo bat atributu pertsonal direla esan beharko genuke: klase soziala, adibidez, soziala bezain indibiduala litzateke, klase bateko edo besteko kideak pertsonak direlako. Okurritzen al zaio inori, halako malkarrean barrena abiatzerik? Ez hori bakarrik: Marfany-ren goiko definizio horren arabera, *individual linguistic behavior* dela-eta, pertsona bera *bilingue*-elebiduna izan liteke Barakaldon, eta diglosiko Errezilen? A zer adelantu! Non dago elebitasun eta diglosia indibidualen arteko *complementarity* famatu hori? Zer osagarritasun dago morenoen eta rubioen artean, pertsona rubioa morenoa baldin bada aldi berean? Zer bereizketa osagarri ezarri dugu pertsona altuen eta bajuen artean, pertsona altua aldi berean bajua baldin bada edo izan baliteke? Definizio horiekin ez dut uste urrutira goazenik. Nahi diren ñabardurak erantsita ere *society*, *community* eta *population* ez dira norbanako gizakiaren atributu partikularrak, gizatalde osoen ezaugarri kolektiboak baizik. Marcellesci-k ondo adierazitako moduan eskolaume batzuek nekez bete dezakete, besterik gabe, ez Ferguson-en eta ez Fishman-en goiko atributu-sorta. Hitzun-taldea, hitzun-elkartea edo hitzun-herria da normalean diglosikoa dena (edo ez dena), ez haur hauek edo periodiko horiek¹⁵⁷. Gero, jakina, diglosia-giroan (ingurumen sozio-demografiko horretan) txertaturiko hitzunei diglosiko deitu ahal izango zaie, eta portaera diglosikoa dutela esan, hori baldin bada kasua. Taldea edo elkartea da, ordea, diglosia bai/ez erabakitzen duena.

3.3.2 Diglosia iraunkorra da: hainbatean, egonkorra

Honela zioen Ferguson-ek *diglosiaren* bere definizioan (1959: 435): “Diglossia is a *relatively stable language situation*”. Eta honela Fishman-ek, handik urte gutxira (1980): “(diglossia is) *an enduring societal arrangement*”. Batek *relatively stable* zioen, eta besteak *enduring*. Hori entenditzen ez duenik ez da¹⁵⁸. Ñabardura asko, ehunka eta milaka, jar dakioke *relative* horri. Adieraren muina bizirik aterako da, ordea, ñabardura horien guztien gainetik: *stable* “stable” da, eta *enduring* “enduring”. Gehiago ere bazioen Ferguson-ek: diglosia-kasu tipikoek (berak aztertutakoek) mendez mende iraun izan dutela eta, zenbait, kasutan, mila urtera ere irits daitekeela iraupen-aldi hori¹⁵⁹. Ez batak eta ez besteak diote, urrundik ere, *eternal stability* denik diglosiaren berezko ezaugarria. Baina *stable situation* eta *enduring arrangement* iraunkortasun garbikoak dira, erabat eta osorik. Ez da batere egokia, horregatik, gure artean egiten den berdinketa: *diglosia berdin hizkuntza (ahula) galtzea, diglosia berdin heriotza*. Hori ez da horrela: diglosiaren *galerak* (ez diglosiak) probokatzen du, hemen eta nonahi, aurreko aurreko hizkuntza (edo aldaera) bietako

baten galera. Hanka-sartze handia da, definiziozko ezaugarri amankomun hori hain erro-errotik itzulipurdikatzea¹⁶⁰. Galera-iturri ez baina justu alderantzizkoa gerta liteke *diglosia*, gurea bezalako hizkuntza-egoeretan bereziki: bizirik irauteko bidea, ez ezinbesteko heriobidea.

Jakina: *relatively stable situation* eta *enduring arrangement* badakigu zer den. Kontu erlatiboa, betierekotasun-garantiarik gabea. Diglosiazko egoera hori iraunkorra da... irauten duen arte. Ez da betidanikoa eta ez betiko. Zer du horrek, ordea, xelebretik? Ez dago munduan hizkuntza-egoera bakar bat, ez eta hizkuntza (gaur) osasuntsuenen artean ere, beti horrela izan denik eta beti horrela izateko garantiarik duenik¹⁶¹. Horrelako gauzak teorikoki imajina litezke agian, baina praktikan ez da halako kasu bakar bat ezagutzen hankabikoon mundu honetan. Diglosia aldatu egin liteke (neurri-hedaduraz eta izaera kualitatiboz): indartu egin liteke, mantendu, ahuldu edo desagertu. Baina, bizirik dirauen artean, bizi-oinarria ematen dio horretaz baliatzen den hiztun-elkarteari.

Ez da egia, diglosiak *aldatzeko joera* duenik, *per se*¹⁶². Horrek ere, gizaki gehienok bezala, ez du bere buruaz beste egiteko berezko joerarik. Hori bezain egia da, ordea, aldatu egiten dela diglosia, hainbatetan. Mende askoren buruan gertatzen da aldaketa hori edo, egungo egunean sarriago, belaunaldi gutxiren buruan. Gizarte-giroa aldatzeaz bat, segun giro-aldaketa horren eragile demografiko, politiko-operatibo, soziokultural eta ekonoteknikoek zer joera markatzen duten, diglosiak bere horretan (edo zenbait aldaketaz: tartean, ez ezinbestean, *leakage* edo odol-galtze demolinguistiko eta soziofuntzional nabarmenez) iraungo du, ala ez¹⁶³. Ezezko kasuan, diglosia amaitu egiten bada alegia, bietako bat galdu egiten da: L hizkuntza (edo aldaera) galtzen da batzuetan eta besteetan, berriz, H. Bietako adibideak daude munduan, lehen eta orain: ez dago begiak urrunegi itzuli beharrik, L gailendu eta H ezabatutako adibide ezin argiagoez jabetzeko¹⁶⁴.

Labur bilduz: *iraunkorra* da diglosia, *definizioz*. Diglosiari atxikitzen dizkiogun gaitzak, %90 baino gehiago, *diglosia galdu ondoko* hizkuntza-egoera ezegonkorraren fruitu dira¹⁶⁵. Diglosiak bere horretan iraun dezake, edo aldatu eta, azkenean, galdu egin liteke. Bere horretan eusten zaion artean, iraupen-indar nabarmena du. Hizkuntza-ukipenezko egoeretan ezagutzen den iraupen-indarrik handiena, askogatik.

3.3.3 Ez dago diglosiarik, konpartimentazio soziofuntzionalik gabe

Horretan bereizten da diglosia, gainerako ezaugarritan baino areago, bestelako elebitasun-kasu indibidualetatik eta *societal multilingualism* delakotik¹⁶⁶. Konpartimentazio hori gabe ez dago diglosiarik. Hizkuntza

Zenbaitetan bi kodeetariko bat, L normalean, aski kode fluidoa izaten da: L hori ez da bat, continuum batean barrena hedatzen den L-sorta malgu zabala baizik. Nola tratatu behar da diglosiaren kontua, kodeetako bat, normalean L, hain fluidoa eta hain labila denean?

(edo aldaera) bat, L esan ohi zaiona, egunerokoa da: etxean, familian, lagunartean, ingurumen hurbilean egiten dena eta eguneroko mintzajardun gozo, bizi, gatz-piperdunaren kolorea eta usaina berekin duena. Hizkuntza “vernakulua” esaten zaio horri: nik *etxekoa* (edo *etxeko herri-hizkera*) esango diot, labur beharrez eta zatiak osoa ulertarazten lagunduko duelakoan. Bestea, H, etxeko hizkuntzaren “gainean” ezarria dago: hori baino beranduago ikasten da H (sozializazio osoaren bidean), normalean eskolan edo etxeaz kanpoko beste instituzio formalen baten eskutik. Edonork instituzio eta sozializazio molde horretarako sarbiderik ez duen neurrian, H ez dute hiztun guztiak eta neurri berean menderatzen. Era askotakoa izan liteke H. Eta, bereziki, era askotakoa izan liteke konpartimentazio-oinarria.

3.3.4 Diglosia-giroan bizi den hiztun-elkartean, H eta L ez dira berdin eskuratzen. Transmittitu ere ez

Aurreko puntuaren ezinbesteko ondorio-garapena da hau, neurri on batean, eta beraz esan gabe ere utz liteke, (adituak erraz ulertuko duelakoan). Baina esateak ez du kalte egiten. Etxean ikasten da L, familiako kideekin eta etxe ingurukoekin. Hiztun guztien¹⁶⁷ ama-hizkuntza da L. Oso bestelakoa da, aldiz, H-ren ikasbidea. Etxetik kanpora, sozializazio-bide formalen bidez (edo, hainbat kasutan, lan-merkatuan murgilduz) eskuratzen da H. Ikasteko orduan bezala, transmititzekoan ere diferente jokatzeko dute L-k eta H-k. Funtsezkoa da diferentzia hori ere: horrek ematen dio diglosiari, besteak beste, belaunaz belauneko jarraipen-indarra. Izan ere L hori, etxeko hizkuntza denez, diglosia indarrean dagoen artean belaunaz belaun transmititzen da, etxe-familia-lagunartean kontestuan. Oinarri-oinarrizko datua da hori, diglosiak ahuldu-tako hizkuntzak bizirik gordetzeko eta indarberritzeko duen aparteko garrantziaz jabetzeko. Hortxe dago gakoa, hainbat adituk behin eta berriro seinlatu izan duenez.

3.3.5 Diglosia ez da gatazka-iturri nabarmen

Hizkuntza-kontaktuak, elkarren pegante dauden hizkuntza biren ukipenak, ondorio bat baino gehiago izan ditzake perspektiba soziozentrikotik: “*language maintenance, language shift* edota, beste neurri eta dimentsio batean, *language spread* eta, azkenik, ahuldu-tako hizkuntza indarberritzea edo *RLS*”. Hizkuntza-kontaktu guztiak ez dira, *per se, language shift*. Ez dira ezinbestean, orobat, *language conflict*. Hala gertatzen da “iturri beretik” datozen hizkuntza ahaideekin eta hala, orobat, arras iturri bereizietatik datozenekin. Hala esana digu Hudson-ek (in

Paulston eta Tucker, 2003: 371): “codes which are structurally related to each other may be in stable functional complementation, (...) or (...) in some degree of competition with each other for the same functional niche as in the cases of Frisian and Dutch, Occitan and French, Galician and Spanish, Ukrainian and Russian,... Conversely, genetically unrelated languages may be in serious rivalry with each other (...), or may be in stable, well-defined functional complementation”. Argiago nekez esan liteke: hizkuntza-ukipenak hizkuntza-gatazka sor dezake. Ukipena ez da ordea, *beti eta nonahi*, gatazka-iturri.

Ferguson eta Fishman oso zorrotzak izan dira beti, diglosia eta boterearen inposizioa sinonimotzat hartzearekin¹⁶⁸. Inork uste badu konfliktuaren kontzeptua bataren zein bestearen ikuspegitik kanpora dautela, oker dabil oso. Hor daude beren lanak: batez ere, hobeto ezagutzen ditudalako diot hori, Fishman-enak. Baina diglosia ez dago horrela definitua: ez kasualitatez, deskribapen-perspektibaren eskakizun metodologikoz baizik. Arrazoi dutela uste dut, esparru metodologikoa horrela definitu izanarekin: dena ez da “boterearen inposizioz” esplikatzeko, giza jardunaren gizarte-moldaeran. Ezta mintzajardunaren giza arteko moldaera ere. Badakit katalanistikaren tradizio jakin baten aurrez aurre, bere postulatu basiko baten aurka ia, ari naizela. Hala dela uste dut, ordea, eta ez zait iruditzen jeneralizazio erabatekoak hori eta horrenbestez onartu behar ditugunik. Gehiegi daukagu jokoan, formulazio sinpleen izenean gertakari errealeen benetako izaera behar bezala ez atzemateko. Izan ere, bietako bat: edota hizkuntza-ukipenaren ondoriozko edozein berregituratze demolinguistiko edo soziofuntzional “hizkuntza-gatazka” dela esaten dugu, edota historia osoa kontatzen.

Hizkuntza-gatazkaren tradizioak diglosiari egotzen dion ardura ez da, gehienetan, diglosiarena. Diglosia galdu ahalako gizarteak, edo diglosia galdu ondokoak, deskribatu izan dira maizenik hizkuntza-gatazkaren formulazio ezagunaz, batez ere Ninyoles-enaz. Diglosia egonkorra ez baina mintzaldaketa bizkorra, gehienetan hiztun-talde ahularen kontrakoa, gertatzen da halakoetan eta horri, oker, “diglosiaren kaltegarritzko ondorioa” esaten zaio. Labur bilduz, hizkuntza-ukipen guztien ezinbesteko emaitza etengabea ez da konfliktua: egia da maiz, eta leku askotan, gertatzen dela halakorik¹⁶⁹. Baina hizkuntza-ukipenaren ondorio guztiak ez dira, *per se*, gatazkatsu. Kontestu batzuek, gainera, besteak baino gatazka-iturri ahulagoak dira. Hizkuntza-kontaktu luzearen ondoriozko kasu ezagun guztien artean diglosia da, askogatik, gatazka gutxien eragiten duena. Horregatik esan liteke, lasai samar, diglosia eta gatazka ez direla gauza bera.

Ez dago dudarik: hemendik ehun urteko euskara, bizirik ateratzen bada, oraingoaren aski diferentea izango da eta, seguruenik, euskara mota bat baino gehiago izango ditu bere baitan. Euskara mota asko edo, zehazkiago, euskara-euskaratik erdal-euskarara doan continuum batean kokatu ahal izango diren aldaera diskontinuoak.

4. EGOERA DIGLOSIKOAN AL GAUDE? GERO ETA EGOERA DIGLOSIKOAGOAN? ZEIN DA GURE EGOERA KONKRETUA?

I Hiru galdera diferente dira horiek, antzekoak izanik ere. Pausoz pauso erantzungo diegu hirurei¹⁷⁰.

4.1 Egoera diglosikoan al gaude?

Erantzun errazena (erosoena, bizia konplikatze gogorik ezak eta nagitasun intelektualak eskatzen diguna) badakigu zein den: *segun*. Segun nola definitzen dugun *diglosia*, baietz edo ezetz erantzun ahal izango dugu. Nola ez: segun burdinbidetik dabilen ibilgailu kolektiboari *tren* deitzen diogun, edo *abioi*, Norteko estaziotik ateratzen den konboi luze hori *trena* dela, edo *Boeing 747* bat, esango dugu. Zientziaren antipodetan gabilitza, horrela ari garen artean. Jolasa da hori. Hitzaren zehaztasun faltak eragindako jolas makurra, nolana ere.

Demagun ez gaudela prest, oinarri-oinarrizko zehaztasun falta horretan gelditzeko. Demagun guztiok prest gaudela, Hondarribitik atera eta airez urrundu berri den tramankulua *abioia* dela onartzeko, eta ez *trena*. Orain bai: orain errazagoa dugu goiko galderari erantzutea: definizio operatibo bat hartzen badugu oinarri, posible da horren arabera diglosia-egoeran gauden, ala ez, determinatzea. Ez erabat: segun nola definitzen ditugun diglosiaren osagai nagusiak (berezi zer den *hiztuntaldea* edo *hiztun-elkartea*, orain eta hemen) euskaldunok diglosian bizi garela (edo ez garela diglosian bizi) esan ahal izango dugu. Zehaztapen tekniko ezinbestekoa dugu, beraz, bai ala ez erantzuteko. Hel diezaiozun puntu horri ere. Demagun diglosiaren definizio operatibo basikoa goian (txostenaren 3.3 atalean) emandakoa dela guretzat, hemen eta orain.

a) Diglosiaren osagai nagusiak txostenaren aurreko atal horretan azaldutakoak direla onartzen baldin badugu, erantzuna ezezkoa da oro har. Euskaldunok (euskaraz dakigunok), geure osoan harturik, ez gara gaur egun egoera diglosikoan bizi. *Language community* edo *hiztun-elkarte* gisa euskaldunon (hots, etxetik edo gero, ikasketaz, euskaraz dakigunon eta gutxi-asko euskaraz egiten dugunon) multzoa hartzen badugu, bistan da ez dugula (euskal hiztun-elkartek, bere osoan, ez duela) diglosiaren ezinbesteko atributuen zerrenda hori osorik betetzen. Euskaldunok ez dugu (ez erabat eta ez oro har) etxean eta kalean, lagunartean eta lan-giro hurbilean, gure eguneroko bizimodu arruntaren situazio informal-

intimoetan euskaraz (are gutxiago euskaraz bakarrik) egiten eta gero gutako batzuek (apur batzuek, hainbatek edo ia denok) uni-bertsitatean, udaletzeko bulegoetan, aurrezki-kutxako jestioetan, eleberriak irakurtzerakoan edota jendaurreko hitzaldi formala ematerakoan beti erdaraz egiten. Gure egoera ez da hori. Egoera nahasia da gurea, oso, noiz euskaraz eta noiz erdaraz egiten dugun esateko orduan. Ezer garbi baldin badago, horixe dago garbi: euskaldungoa oro har harturik erreferente, gure hiztun-elkarteak ez dauka euskara-erdaren arteko konpartimentazio argirik: ez dago konpartimentazio territorial hertsirik (azpeitiarrek euskaraz egiten al dute den-den-dena, hitzez eta idatziz, etxean eta lantokian, eta bilbotar guztiek den-den-dena erdaraz). Ez dago, bereziki, konpartimentazio soziofuntzional zorrotzik: etxean eta lagunartean, baita laneko joan-etorri arruntetan ere, den-dena euskaraz egiten al dugu euskaldun guztiok, gure seme-alabek barne, eta paper-kontu guztia zein jendaurreko azalpen formalak oro, eskolan eta handik kanpora, hitzez eta idatziz, erdaraz bideratzen al ditugu oso-osorik? Bistan da ezetz. Gauzak ez dira horrela, urrundik ere. Beraz euskal hiztun-elkarteen jardunak ez dauka konpartimentazio sendorik: ez perspektiba territorialean eta ez, bereziki, diglosiaren definizio gehien-gehienek¹⁷¹ hain noraezekoa duten osaera soziofuntzionalen. Beste era batera esanik, berehala aipatuko ditugun arnasmuneetan izan ezik ez dago gaur egun euskaldun-masa zabalik, talde gisa ondoko ezaugarriok betetzen dituenik:

1. Euskara izan dute guztiek edo gehienek L1, hori izan dute ama-hizkuntza. Euskara izan dute haurtzaroan, eta halaxe dute oraingo haurrek ere, etxeko eta familiako hizkuntza: hizkuntza bakarra edo nagusia, hamarretik hamarretan edo bederatzietan erabiltzen zena eta dena.
2. Euskaraz sozializatu dira (eta hala egiten jarraitzen dute) etxetik kanpora ere, eguneroko eginbehar arruntetan: euskaraz jardun ohi dute lagunekin, herriko edo auzoko ezagunekin, dendari eta tabernariekin. Berdin egiten dute laneko kideekin, kirol-taldeko lagunekin (aste-bukaerako pilota- zein futbol-partiduan, aste barruko *fitness*-saioan zein gimnastikan), hondartzan edo igerilekuan eta, oro har, astialdian: jatetxean, sagardotegian, soziedadean edo txokoren batean egiten dituzten lagunarteko bazkari-afari ez hain bakanetan, zinean eta antzerkian, mendi-irteeretan edota han-hemengo oporraldietan, Entretanimendu bila irrati-telebistetara jotzen dutenean ere euskarazko irratia

**Gehiago ere
bazioen
Ferguson-ek:
diglosia-kasu
tipikoek (berak
aztertutakoek)
mendez mende
iraun izan dutela
eta, zenbait,
kasutan, mila
urtera ere irits
daitekeela
iraupen-aldi hori.
Ez batak eta ez
besteak diote,
urrundik ere,
eternal stability
denik diglosiaren
berezko
ezaugarria. Baina
stable situation
eta enduring
arrangement
iraunkortasun
garbikoak dira,
erabat eta osorik.**

entzuten dute, edota euskarazko telebista ikusten, beti edo ia beti. Hots, euskaraz bizi dira beren eguneroko mintzajardun arruntean, erabat edo nagusiki.

3. Gaztarora iristean euskara da neska-mutil guztien edo gehien mintzabide bakar edo nagusi; horren ondorioz euskal bikote-kideak eratzen dira eta euskaraz (euskara hutsez, ia erabat euskaraz) diharduen familia-muin berria sorten dute, eta hurrengo belaunaldiaren L1, seme-alaben ama-hizkuntza, euskara izango dela segurtatzen duen etxe-giroa eta lagunarte sendoa eraikitzen dute guztiek edo gehienek. Euskarazko bizibide arruntaren gurpilak martxan dirau horrela, menderik mende egin izan duen moduan, beste mende-laurden (edo -heren) batez.

Hiru baldintza horiek betetzen dituen gizataldea, gainerakoan erdal munduarekin kontaktu zuzenean egon arren, diglosiazko egoeran bizi da. Gutxi dira ordeaz, oro har, baldintza horiek betetzen dituzten euskaldunak¹⁷². Labur bilduz: diglosia tradizionalaren eskema basikoa betetzen duen euskaldungo osoa ez dator bat gaur egungo Euskal herriaren batez besteko errealitatearekin. Euskaldunok ez gara, oro har, diglosia-giroan bizi.

b) Euskaldungo osoa hartu ordez erreferente moduan demagun, aldiz, arnaguneetako euskaldun-jendea hartzen dugula aztergai. Demagun posible dela hori kontzeptualki (hala uste dut, zeharo) eta demagun zehatz operatibizatzeraz iristen garela hiztun-talde hori (ez da lan eroso, baina eskurazina ere ez). Kasu honetan, arnaguneetako euskaldunen artean alegia, ezin esan liteke inolako diglosiarik ez dagoenik euskal jatortasun-marka etnokulturalak eta *speech behavior* tradizionala ongien gorde dituen *speech-community* edo hiztun-talde konkretu horretan. Hor badago, egon, behinolako euskal diglosiaren arrasto eta hondar-ale ugari. Ez Eguren-ek 1876an, Gipuzkoa gehienaz ari zelarik, adierazten zuen hedadura-mailako eta neurri-graduak diglosia betea, baina bai hainbatekoa. Ez dakigu noraino dirauen diglosia-molde horrek indarrean, arnaguneetako gazte-jendea ere hiritar gazteen elementu asko bereganatzen ari baita bere mintzajardunean: gurasoen (zer esanik ez aitona-amonen) aldean harreman-sare zabalak, herriz (eta, hainbatean, arnagune-esparruz) haraindikoak ditu gazte-jende horrek, aski rol-harreman fluido eta dibertsifikatuak, herrikoekin eta herriz kanpokoekin lehen ez bezalako “public familiarity” bat, bertako kontestu aski arruntetan

(baita herriko taberna-giroan ere) erdarara jauzi egiteko beharra edo aukera zabala eransten diena sarri asko. Horrek guztiak zaildu egingo du, erraztu ordez, diglosiaren gaur eguneko bideragarritasuna eta etorkizunerako proiektzio-ahalmena. Egia da ordea, guztiarekin ere, arnasmuneak hartzen baditugu erreferente (ez, inola ere, euskaldungo osoa) behinolako diglosia zabal-sakon-iraunkorraren hainbat ezaugarriren aurrean gaudela, partez bederen. Endodiglosia-kontua (euskara batuaren eta lekuan lekuko euskalkioinarriko hizkeren artekoa) alde batera uzten bada, ezer izatekotan arnasmuneetako horixe da gure *gaurko eta hemengo diglosia*, ez adiera popularrak (eta ez hain popularrak, baina maiz lauso-zehazkabeak) aditzera ematen duena. Errezilen eta Zerainen, Goizuetan eta Markina aldean dago gaur euskara-erdaren arteko diglosia, inon egotekotan. Horietan ere ez diglosia tradizional betea, baina bai menderik mendeko diglosiaren eskema nagusitik hain-hain urrundurik ez dagoen moldaera. Euskara L1 gisa transmititzen dute bertako hiztunek etxean eta auzoan, ia erabat. Kalean eta soziedadean, tabernan eta elizkizunetan euskara da nagusi hitzezko jarduera arruntetan, aldiz gaztelania da jaun eta jabe eguneroko periodikoa erosterakoan. Hori da XXI. mende-hasiera honetara arte bizirik iritsi den euskal/erdal diglosiaren eszenarioa: eszenario nagusia eta ia bakarra.

4.2 Gero eta egoera diglosikoagoan bizi al gara?

Txostenaren hasieran, gogoratuko denez, Gotzon Garateren artikulu gogoangarri baten laburpena eskaini da. Gogora ditzagun bere esaldilaburpen batzuk: “Diglosia galgarrian bizi gara. Hasteko eta bat: euskaraz gutti egiten da. Gero eta jende gehiagok dakite euskaraz. Erdara nagusi da, ordea, Euskal Herri osoan. Ez bakarrik Bilbon, Donostian, Iruñean, Gasteizen, Baionan... Zoaz Tolosara, Beasainera, Eibarrera, Bermeora, Arrasatera... ia ez duzu euskararik entzungo. Jendea parra-parra erdaraz ari da. (...) Euskara gainbehera doa. Gipuzkoan gizaldi honen hasieran %85 euskaraz egiten zuten eguzkiz eguzki. Eta ongi hitz egin ere. Egun %40k baldin badakite, %20k ez dute euskaraz egiten. Egungo egunean Gipuzkoako herrietan erdara da jabe. Euskaraz dakitenek ere, ez guttik, espainolez hitz egiten dute lasai asko. (...) Nire ikasleek, bizpahiru kenduta, euskaraz baino espainolez hobeki dakite. Idazterakoan, euskaraz erdaraz baino huts gehiago egiten dituzte. Ingelesez ere ez dakite ongi. Ondo espainolez dakite”.

Har dezagun orain, konparaziorako, Eguren ikuskariaren 1867ko Gipuzkoari buruzko deskribapena: “La inmensa mayoría de los niños

**Labur bilduz:
iraunkorra da
diglosia,
definizioz.
Diglosiari
atxikitzen
dizkiogun
gaitzak, %90
baino gehiago,
diglosia galdu
ondoko
hizkuntza-egoera
ezegonkorraren
fruitu dira.
Diglosiak bere
horretan iraun
dezake, edo
aldatu eta,
azkenean, galdu
egin liteke. Bere
horretan eusten
zaion artean,
iraupen-indar
nabarmena du.**

que asisten á las escuelas de nuestro país no entiende el castellano, pues que en los pueblos rurales, que son los que forman la mayor parte de la hermandad guipuzcoana, solamente se habla el vascuence, con muy cortas excepciones, y aun en las poblaciones de más importancia no es todavía habitual la lengua castellana sino entre las personas cultas y de más instrucción. Así es que la masa general del pueblo guipuzcoano habla usualmente el vascuence y por consiguiente esta es la primera lengua que aprenden los niños”.

Ehun eta hogeita hamahiru urte pasa dira Eguren ikuskariaren deskribapenetik Garate irakaslearen gogoeta mingotsera. Batak eta besteak Gipuzkoa, beren garaiko Gipuzkoa, dute begien aurrean. Har ditzagun orain txosten honen 3.3 ataleko ezaugarriak, hizkuntza-soziologiak diglosiaren atributu nagusitzat hartzen dituenak. Eta atera dezagun kontu: zein Gipuzkoatan antzematen da diglosia indarreanago: Garateren deskribapenekoa, ala Egigurenen baitakoan? Erantzuna erraza da oso: mila bider diglosikoagoa da Egigurenenen Gipuzkoa hura, Garateren oraingo hau baino. Garateren Gipuzkoak ageri duena ez da diglosia. Ez Egurenen garaian oraindik aski betea zena eta ez haren laurdena ere: Egurenen garaian “la masa general del pueblo guipuzcoano habla usualmente el vascuence y por consiguiente esta es la primera lengua que aprenden los niños”. Garaterenean, aldiz, “Gipuzkoan gizaldi honen hasieran %85 euskaraz egiten zuten eguzkiz eguzki. Eta ongi hitz egin ere. Egun %40k baldin badakite, %20k ez dute euskaraz egiten. Egungo egunean Gipuzkoako herrietan erdara da jabe”. Ba al dago hori baino esplikazio jator eta definitiboagorik, gero eta egoera ez-diglosikoagoan gaudela aditzera emateko? Ez dut uste.

Bistan dago ez gabela, oro har, gero eta konpartimentazio territorial eta soziokultural handiagoan bizi, justu alderantziz baizik. Konpartimentazio territoriala aspaldi hasi zen pitzatzen eta, Caro Barojak orain dela 60 urte pasa esaten zuenez (Caro Baroja: 1949), nabarmen ahuldua zen azken ehun urtean. Ordutik hona fenomeno hori, ezer egitekotan, indartu egin da: ikus azken mende-laurdenean zer gertatu den euskal arnaguneetan¹⁷³: hots, demografiaz gehiengo zabala osatzen duten euskaldun zaharrez, normalean bertan edo inguruan jaio eta hazi (eta, adin batetik gorakoak, hor ezkondu eta hor bizi) diren euskaldunetz osaturiko biziguneetan (herri-herrixka solteak dira horiek gehienetan, inoiz eskualdeak)¹⁷⁴. Beste horrenbeste esan liteke konpartimentazio soziofuntzionalean gertatzen ari denaz. Bilakaera jeneralaren ikuspegi sintetiko eta goiztiarra jaso nahi duenak hor du Eneko Oregiren aspaldiko azalpena: “Egia da *euskarak funtzio berriak eskuratu dituela azken urteotan;*

hobe esan, *funtzio berri zenbaitetan sarbide izan duela*, hala nola irakas-kuntzan, administrazioan, komunikabideetan, zientzia eta teknikan, e. a. Baina funtzio berri horietan euskarak komunikazio-behar arautuenak, formalenak, bete ohi ditu eta, berriz, *gaztelaniak indartu egin du bere nagusitasuna giza eta gizarte-esparru arautu gabeetan, berezkoagoetan. Jolasa, kirola, auzoko bizitza, elkarte eta elkargo-mota gehienak, lagunarteko harremanak e. a, gaztelaniaren lurralde bilakatzen ari zaizkigu*". (Eneko Oregi, in *JAKIN* 1991, 62. zkia.: 63. or.). Nor ez dago konforme, ñabardurak ñabardura, balantze horrekin? Argi dago, beraz: ez gara gero eta egoera diglosikoagoan bizi. Diglosiarik gabe gelditzen ari gara. Arnasguneetan gelditzen zaizkigu, oraindik, mendetako diglosia haren azken aztarrenak: han ere atzeraka ari dira ordea, hainbat daturen argitan, azken aztarren horiek.

4.3 Nola defini liteke euskaldunon egungo hizkuntza-egoera, bere osoan hartuta?

Argi dago gure egoera, euskara-erdarek dagokienez¹⁷⁵, ez dela diglosia betekoa¹⁷⁶. Argi dago, orobat, gero eta diglosia-egoera sendoagoan ez garela bizi. Egia da, ordea, euskalduntze-saio handia egin dela Euskal herri gehienez, eta EAEn bereziki, bertako bizilagunak (helduak eta, bereziki, eskola-umeak) euskalduntzeko eta alfabetatzeko eta, horren guztiaren ondorioz, gero eta bizilagun gehiagok aitortzen duela bere burua elebidun: nolabaiteko elebidun. Nola defini liteke hortaz gure egungo egoera, hizkuntza-soziologiaren ikuspegitik, euskal hiztun-elkarte osoa harturik gogoan?

Has gaitezen errazenetik. Hots, orain arte ikusitakoaren eta bibliografia teknikoaren arabera dudarik txikiena eskaintzen duenetik. Datu seguru horien ildotik, bistan da garai batean gure-gurea izandako diglosia tradizionala (Egurenen 1867ko azalpenekoa, kasu) gogor pitzatu dela nonahi, eta ia desagertu egin dela Euskal herriko eskualde gehienetan. Urola-Kostaz, Tolosaren gerri-bueltaz eta Goierriko albo-eremuaz, Markina-Ondarru-Lekeitio triangeluaz eta Larraun-Goizueta-Bortziri-Baztan koadrangeluaz aparte EAEko eta Nafarroako herri-herrixka jakinak ditugu, gero eta nabarmenago, joera nagusi horri erabat men egin ez dioten azken gordelekuak, azken baluarteak: arnagune horiek ditugu behinolako (partez, nola-hala, eraldatzen hasitako) diglosiaren azken egoitza. Horiek ere ez daude diglosiak hain noraezekoa duen konpartimentazio soziofuntzionalaren (edota territorialaren) aldetik gero eta indartsuago, gero eta erdarak interbenituago baizik. Hots, diglosia tradizionala bere azken hondarretara iritsi da gurean. Hori bakarrik ez da geratu, bistan

***Euskal hiztun-
elkartearen
jardunak ez
dauka
konpartimentazio
sendorik: ez
perspektiba
territorialean eta
ez, bereziki,
diglosiaren
definizio gehien-
gehienek hain
noraiezkoa duten
osaera
soziofuntzio-
nalean.

Errezilen eta
Zerainen,
Goizuetan eta
Markina aldean
dago gaur
euskara-erdaren
arteko diglosia,
inon egotekotan.
Horietan ere ez
diglosia
tradizional betea,
baina bai
menderik
mendeko
diglosiaren
eskema nagusitik
hain-hain
urrundurik ez
dagoen moldaera.***

da, baina hori hor dago. Oro har, azken bospasei hamarkadetako (azken bi belaunalditako) bilakaera nagusiak ezaugarriok izan ditu berekin:

a) Norbanakoon alorrean elebitasun partziala, gehienetan erdal-elebitasuna, zabalduz joan da EAEn azken hamarkadotan. Norbanako asko (lehen baino hagitz gehiago EAEn, lehen bezainbat edo lehen baino gehixeago Nafarroan, gutxiago Iparraldean) elebidun da. Nolaiteko elebidun: ahoz eta, bereziki, idatziz (hots: irakurtzeko eta idazteko) errazago moldatzen dira erdaraz egungo euskaldun gehienak. Halere asko dira erdal elebakarrak. Euskaldun elebakarrik ez dago lauzpabost urtetik aurrera. Baserri ezkutuetako eta mendi-zokondoetako azken herrixketako aitona-amona euskaldun elebakarren kopurua ere zeharo ahuldu da. Euskaldun elebakarrik ez da gure artean bilatzen erraza, muga-kasu horietatik kanpora. Muga-kasu horien trantsizio-izaera nabarmenegia da, bestalde, aurrera begirako (begien bistako etorkizuneko) prognosiaz duda egin ahal izateko.

b) Hiztun-elkarte gisa galdu egin dugu, ia osorik, behinolako diglosia tradizionala. Etxea eta auzoa, kalea eta merkatua, taberna eta lantoki hurbila erdaldunduz joan dira oro har. Nahas-ezkontzak ugaritu ahala, eta kale-giro euskalduna ahultzearekin bat, etxera sartu da azkenik erdara, komunikabideek (irratia eta, azken mende-erdian, telebistak) aparteko eragina izan dutelarik. Hurrengo belaunaldiarentzat erdara ez da, lehen bezala, eskolan edo handik aurrera ikasi beharreko hizkuntza, lehen aldiz sehaskatik beretik jasoko dutena baizik.

Labur bilduz, gure artean gaur egun nagusituz doan hizkuntza-egoera honela defini liteke: behinolako diglosia betearen azken arrastoak baizik gelditzen ez zaizkion elebitasun partzialeko egoera mugikorra. Fishman-en 1967ko formulazioaren lau gelaxketako batean kokatu beharko bagenu euskal hiztun-elkarte, elebitasuneko baina diglosiarik gabeko gelaxkan kokatu beharko genuke dudarik gabe. Ikusia dugu ordea punta-muturreko situazioen adierazgarri direla lau gelaxka horiek, eta errealitatea punta-mutur batetik besterako ardatz bikoitzean kokatu ohi dela sarrien, tarte-bitarteko posizioetan. Ikuspegi integratuago horren haritik, argi dago euskaldunok oro har non gauden: (oso) diglosia gutxirekin eta elebitasun ez hain gutxirekin. Badakigu, jakin, iragaitzazkoak (trantsiziozkoak) izan ohi direla diglosiarik gabeko egoera horiek. Esan gabe doa, jakina delako, urak egoera horietan zein aldetara isurtzen diren.

5. DIGLOSIAREN GARRANTZIA, EUSKARA INDARBERRITZEKO ORDUAN

Diglosiaren gorabehera nagusia eztabaida terminologikoa dela uste duenik izango da gure artean. Gauza larriagoak alde batera utzi eta, maixurkeriazko ttontakerietan katramilaturik gabiltzala uste izango du halakok: euskalgintzak hain beharrezkoa duen dedikazio sendoa, eta aplikazio-lan eragingarriak aurrera eramateko denbora, preziosismo hutsetan alferrik galtzen ari garela. Hori uste duena oker dabilela erakutsi nahi luke txostenaren azken atal honek. Terminologiazko eztabaidan eta kontzeptu-lanketan eralgi dugun denbora ez dela asmo horiekin eralgi. Bost galdera konkreturi erantzuten saiatuko gara horretarako. Honako bost hauei: Beharrezkoa al da diglosia, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko? Aski al da diglosia, horretarako? Erraza al da diglosia, XXI. mendean? Nolako diglosia behar da? Nolako diglosia da posible, hemen eta orain?

5.1 Beharrezkoa al da diglosia, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko?


Teoriara jo behar dugu, berriro ere, galdera horri ganoraz erantzuten saiatzeko. Aurreko fase historikoetan landu izan diren konstruktutheoriakoak, oinarritzko kontzeptuak eta izendapen teknikoak inola ere gutxietsi gabe, egungo egunean indarrean dagoen marko kontzeptualak (azterbide zinetiko eta dinamikoek dagokienez) Uriel Weinreich-en, Heinz Kloss-en, Charles A. Ferguson-en, Einar Haugen-en eta Joshua A. Fishman-en ekarpenetan du oinarri sendoena. Besteak beste Uriel Weinreich-en *Languages in Contact* famatuan (hizkuntza-ukipenaren dimentsio indibidualetik abiatuz dimentsio kolektiborako bidea zabaldutakoan) eta Fishman-en *Language Maintenance and Language Shift* ezagunean (hiztun-talde baten gizarte-moldaerak belaunez belauneko perspektiban dituen iraukor-aldakortasun elementuak kontestualizatuz moldaturikoan). Beste formulazio asko, zenbaitetan aski diferenteak badirudite ere izendapenez, bidegile horiek zabaldutako ildotik dabilta: baita Kataluniako (eta gero, handik hedatuz, gure arteko, Okzitaniako eta beste hainbat hiztun-herrietako) *conflicte linguistique*-ren buru biko prozesu-ardatza ere, punta batean *substitució* duelarik eta bestean *normalització*¹⁷⁷. Gatozen beraz harira, jatorrizko marko kontzeptualari eutsiz ahal den neurrian.

5.1.1 Hizkuntza-kontaktua: hiru ondorio

Hizkuntza (edo hiztun-talde) bik elkar jotzea, normalean bietako batek (kontestualki indartsuak) bestean (kontestualki ahulean) inpaktatzea,

Bistan dago ez garelako, oro har, gero eta konpartimentazio territorial eta soziokultural handiagoan bizi, justu alderantziz baizik. Konpartimentazio territoriala aspaldi hasi zen pitzatzen eta, Caro Barojak orain dela 60 urte pasa esaten zuenez (Caro Baroja: 1949), nabarmen ahuldua zen azken ehun urtean. Ordutik hona fenomeno hori, ezer egitekotan, indartu egin da.

esan nahi du hizkuntza-ukipenak edo hizkuntza-kontaktuak Uriel Weinreich-en 1953ko azalpen ezagunetik hona¹⁷⁸. Kontaktu horrek baditu bere sorburuak eta bere ondorioak. Ondorioei dagokienez ezagunak dira, oro har, hiru emaitza nagusi: batetik, kontaktu horrek hizkuntz(ar)en barne-osaeran (hots-ebakeran, hitz-altxorrean, morfosintaxian,...) eragiten dituen aldaketak; bestetik, hiztun-elkarte bateko (edo bietako) hainbat hiztunengan sortzen den elebitasun moldea; azkenik, hizkuntza bien giza arteko erabileran gertatzen diren galdu-irabaziak. Ondoko azalpen grafikoan ematen dira hiru ondorio mota horiek: ondorio linguistikoak batetik, norbanako hiztunarengan eragiten diren ondorioak bestetik eta gizartean gertatu ohi direnak azkenik.



Hiru ondorio-multzo nagusi horietatik hirugarrena interesatzen zaigu, hemen eta orain: hizkuntza-kontaktuak gizartean eragiten duen emaitza. Irtenbide posibleak (hizkuntzaren barne-osaerako atalean sartu dugun hibridazioa alde batera utzita) ondoko hauek dira:

- a) mintzaerari eustea, mintzaldatzeari aurre egitea (*language maintenance*): aurrez aurreko bi hizkuntzek bizirik irautea, era batera edo bestera, kontaktu-gune berrian;
- b) mintzaldatzea (*language shift*): aurrez aurreko bi hizkuntzetariko batek hiztun-talde horretako jardun-guneak, harreman-sareak eta, azkenik, hizkuntza horretan egiten dakiten (eta egin ohi zuten) hiztunak galtzea;
- c) hizkuntza-hedapena (*language spread*): L1 moduan ikasten ez den hizkuntza batek kontaktu-gune horretan “bere lekua” egitea baina,

etxeko hizkuntza izatera iristen ez denez, belaunez belaun berriro hutsetik hasi beharra bere hedapen-lanean. Eta

d) hizkuntza Indarberritzea edo HINBE (*Reversing Language Shift* edo *RLS*): ahulduta dagoen hiztun-elkartearen hizkuntza propioak belaunaldi berrien L1 izaten jarraitzea (sarriago, L1 izaera berreskuratzea) eta, horrezaz gainera, bere osasun-egoera hobetzeko hiztun gehiago eta jardun-gune berriak irabaztea.

Gertakari sozial desberdinak dira a), b) eta d) alde batetik, eta c) bestetik. Kontestualki ahula den hizkuntzaren ezaugarri posibleak dira a), b) eta d) kasuak; kontestualki indartsua den hizkuntzaren ezaugarri nabarmena (ez eskusiboa, baina bai ohikoena) adierazten du, aldiz, c) kasuak. Lehenengo hiruretan zentratuko gara hortaz, hori baita azterlan honi hurbilenetik heltzen diona. Esana daukagu, gainera, *language maintenance*-ren azpimultzotzat hartu ohi duela hainbatek *RLS* (tartean kontzeptu bien sortzaileak, Fishman-ek berak). Sinplifikatu egin liteke beraz orain arte esandakoa. A eta B hiztun-elkarte edo hiztun-talde bik elkar jotzen dutenean aukera bi baizik ez daude funtsean: hizkuntza bat (A hizkuntza edo B hizkuntza) nagusitzea, “tarta” demolinguistiko eta soziofuntzional osoa beretzat hartuz eta bestea ezer gabe utziz, edota bai Ak eta bai Bk elkarren ondoan irautea, “tarta” demolinguistiko eta soziofuntzional osoa bien artean banatuz. Jakina, aukera bakar moduan azaldu dugun lehenengo kasuak bi atal ditu. Zeharo diferentea da tarta osoa Ak bereganatzea, edota tarta osoa Bk bereganatzea. Berriro ere hiru ondorioetako perspektibara garamatza horrek.

Hel diezaiozun formula hirukoitz horri. Hizkuntza-kontaktuaren ondorio sozialak hiru belaunalditik gorako perspektibaz analizatzen badira¹⁷⁹, hiru emaitza hauek dira posible hizkuntza-soziologiaren azalpen klasikoan¹⁸⁰:

emaitza: $K \rightarrow B = B$

emaitza: $K \rightarrow B = K$

emaitza: $K \rightarrow B = K + B$

A eta B letren ordezkari K eta B letrak erabiltzeak badu bere motiboa: nemoteknia aldetik errazagoa da. Kanpotik etorritako hiztun-taldea da **K**, goiko notazio horretan, eta Bertako hiztun-taldea da **B**. Beste letra batzuk erabilia ere, berdin balio lukete goiko hiru formulek. Hiru emaitza dira posible, esan bezala, *language maintenance* eta *language shift*-en formulazio ezagunetan: B, K edo K+B. Ikus ditzagun hirurak, labur-labur.

**Labur bilduz,
gure artean gaur
egun nagusituz
doan hizkuntza-
egoera honela
defini liteke:
behinolako
diglosia betearen
azken arrastoak
baizik gelditzen
ez zaizkion
elebitasun
partzialeko
egoera
mugikorra.
Fishman-en
1967ko
formulazioaren
lau gelaxketako
batean kokatu
beharko bagenu
euskal hiztun-
elkartera,
elebitasunezko
baina diglosiarik
gabeko gelaxkan
kokatu beharko
genuke dudarik
gabe.**

$K \rightarrow B = B$ Lehenengo emaitza-bide honek zera esan nahi du: kanpotarrak bertara etorri direlarik beren K hizkuntza galdu egin dutela azkenean (normalean, bizpahiru belaunaldiren epe barruan). Hiru belaunalditik gorako perspektiban bertako B hizkuntzara mintzaldatu da, erabat, kanpotik etorritako hitzun-taldea. *Language shift* edo *mintzaldaketa* gertatu da beraien artean (ez bertakoen artean) eta, horren ondorioz, etorkinen *relinguification* (eta askotan horren eskuz esku, baina ez ezinbestean neurri eta abiadura berean, *transetnization*) fenomeno dugu begien aurrean¹⁸¹. Etorkin askoren kasuan gertatu izan da, lehen, erabateko mintzaldatze hori. Orain ere halaxe gertatzen da kasu askotan. Bertako B hitzun-elkarteak (demografiako nagusitasunaz gainera ordainsari- eta zigor-sistema sendoagoa duenean bere esku) B hizkuntzaren hedapena (*language spread*) eragiten du, lehen-lehenik, K hitzun-taldeko etorkinen artean. Hedapen hori mintzaldatze bizia bihurtzen da une batetik aurrera, K taldeko hitzunek beren artean B hizkuntzaz jardutea ezinbestekotzat hartzen (gogoz edo gogoz kontra onartzen eta asumitzen) dutenean. Ordura arte beren esku zituzten azken jardun-guneak (gutxienez etxea eta talde-giro hurbila) ahultzen direnean, Kdunek Kdunekin K hizkuntzan jarduteko harreman-sareak eten eta amaitu egiten dira. Hor burutzen da *language shift* edo mintzaldatzea: etxean bertan ikasten dute K taldeko seme-alabek, handik aurrera, B hizkuntzan egiten.

Emaitza-bide hori ongi ezagutua dugu euskaldunok, mende joanetan. Bi erataria ezagutu dugu, gainera: euskaldunok B izanik batetik (beraz gugana zetozen erdaldunak euskaldunduz), eta K izanik bestetik (beraz gu kanpora (kalean eta auzoan euskaraz egiten ez zen norabait bizi izatera) joan eta erdaldunduz). Ikus ditzagun kasu biak, lehenengotik hasita. Kanpotik etorritako hainbat arrotzek euskaraz ikasten zuen ezinbestean, zenbait urteren buruan, euskaldun elebkarren artean (elebitasun handirik gabeko diglosia-giro sendoan)¹⁸². Integrazio horrek erro sakonagoak zabaldu ohi zituen kanpotarrak (sarri asko bertako norbaitekin ezkondurik) familia berria eratzen zuenean. Halakoetan ez zen batere harrigarria izango¹⁸³ seme-alabek edota, errazago, ilobek erdaraz ez jakitea. Gatozen bigarren kasura.

Etxean baino sarriago ezagutu dugu euskaldunok, atzerrian, lehen emaitza-bidearen fenomeno hori. Zehazkiago esanik, fenomeno horren kontrako ordaina. Hemeretzigarren mendearen azken herenean edo hogeigarren mendearen hasieran Ameriketara joandako euskaldun (sarri elebkar¹⁸⁴) ugarien berrilobak ez dira gaur egun, normalean, euskaraz

bizi: ez etxean, ez lagunartean eta ez bestelako jardun-gune eta harreman-sareetan. Gehienek ez dakite, jakin, euskaraz: gaztelaniara (Estatu Batuetan ingelesera) mintzaldatu ziren guztiak hiru belaunaldiko epearen barruan, eta beren ondokoek ez dute normalean aurrekoek galdutako euskara (ez, behintzat, bete-betean) berreskuratu, etxekotu eta hurrengo belaunaldira L1 moduan transmititu. Kasu bata zein bestea ($K \rightarrow B = B$) modukoa dugu.

$K \rightarrow B = K$ Bigarren emaitza-bide honek zera esan nahi du: kanpotik etorritako hiztun-taldea gailendu egin dela hizkuntzaz¹⁸⁵. Bertako hiztun-taldeak atzera egin du nabarmen, hiru belaunalditik gorako perspektiban: bere B hizkuntza galdu egin du eta kanpotarren K hizkuntzara mintzaldatu da. Oso fenomeno ezaguna da bigarren hau ere: Ameriketako kolonizazioak galbidean jarri (hainbatetan zeharo desagerrarazi) ditu bertako hizkuntza zaharrak, eta kolonizatzaileek (tartean gure arbasoek) berekin ekarritako zenbait hizkuntza (batez ere espainola, ingelesa, portugesa eta frantsesa) gailendu egin dira nabarmen. Australiako eta Zeelanda Berriko historia soziolinguistikoa ere oso antzekoa da. Atzerago eramango bagenitu begiak argi ikusiko genuke emaitza-bide horretakoa izana dela Ekialde Ertain gehieneko eta Ipar Afrikako arabizazioa ere (7. mendetik aurrera). Orobat, horren aurretik, Europako (bereziki Galiako eta Hispaniako) erromanizazioa, Indiako penintsula gehieneko sanskritizazioa, Ekialde Urruneko sinoizazioa (idatzizko jardueran bereziki) eta, berrikitanago, Afrika Ekialdeko swahilizazioa eta Sobiet Batasun ohiaren errusifikazioa. Hemen ere *relinguification* (eta, *transetnization*) fenomenoak dugu begien aurrean: oraingoan bertakoak dira ordea, ez kanpotik etorritakoak, hizkuntzaz eta soziokulturaz bestelakotu izan direnak. Aurreko kasuan ez bezala, bat datoz adibide horiek guztiak puntu batean: *Intergroup social dependency* harreman moldeak bere bidea egiten du eta, ordainsari- eta zigor-debekuen sistema biak hain desorekatuak izanik indar-ahalmenez, kanpotik etorritako hiztun-taldea ateratzen da horrelakoetan garaile. Berak ezarritako ordainsari- eta zigor-sistema sozialak erasan egiten du, lehentxeago edo beranduxeago, bertako hiztun-elkartea. B elkartea horretako kide ona, azkarra, gizarte berrian gora egiteko kapaza argi dago handik aurrera zein den: K hizkuntza ondo ikasten duena eta hartaz trebe baliatzen dena. Mendekotza horrek Bdunen etxe-auzo-lagunarte esparru-multzoa erasaten du azkenik. Hor ere, azkenean, etxean ikasten dute Bdunen seme-alabek Kz hitz egiten. Hor burutzen da *language shift* edo mintzaldatze-lana.

Beharrezkoa al da diglosia, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko? Aski al da diglosia, horretarako? Erraza al da diglosia, XXI. mendean? Nolako diglosia behar da? Nolako diglosia da posible, hemen eta orain?

Aurrerago ikusiko dugunez bete-betean dagokigu euskaldunoi, azken berrehun urteko historian bereziki¹⁸⁶, bigarren emaitza-bide hori. Arturo Campion-ek, berak ohi zuen bizitasunez, Erraondoko tanbolinteroaren ipuin laburrean adierazitako gertakaria¹⁸⁷ askoz zabalagoko prozedura soziolinguistiko eta soziokulturalaren adibide grafikoa baizik ez da. Honela azaldu izan du Hiriart-Urrutik, adibidez, XIX. mendebukaeran bere (eta beste hainbaten) begien aurrean gertatzen ari zen mintzalda: “Gainez gain, oro hartuz, Eskual Herri guzia inguruan begizatzen dugularik (...) aitorturen dautazue badoala eskuara galtzera tarrapatan. Arronkal(en) eta Izaba(n) (...) nere adiskideak (...) etxe berean ikusi zitue(n) horrela mintzo, adin arau; zaharrak eskualdun, bi-tartekoak eskualdun-español, gazteak (eskuara utziz) español garbi” (“Eskuara Frantzian” in *Eskualduna* 477, 1896-8-7). Antzera mintzo zitzaigun Pierre Broussain, handik gutxira: “Eskuara aiphatzen du(d)anaz ge(r)oz enitake e(g)on erran ga(b)a galtzeko irrisküan dela, Espainiako Eskualherrietan bereziki. Nafarroan eta Bizkaian, lehen eskuaraz mintzo ziin anhitz o(r)ai españolez mintzo da. Frantziako eskualherrietan nahiz gu(r)e mintzaia zaharra o(r)ai artio aski azkar den, hale(r)e zombeit lekutan galtzen â(r)i da, hala nola Endaian, Doniane-Ziburun, Donapaleun eta Maulen. Hiri horiitan badi(r)a haur franko aitamak eskualdunak tiuztenak eta eskuara eztakitenak” (Broussain 1913 in Charriton 1985a: 219). *Language shift* edo mintzaldaketak ondorio argia du kasuotan: euskaraz egiteari utzi eta erdaraz hasi da hurrengo belaunaldia: iloben belaunaldia batean, seme-alabena bestean. Ktik Brako kasuan bezala bizpahiru belaunaldiko epean gertatu ohi da normalean, han-hemen, Btik Krako mintzaldatze hori ere.

$K \rightarrow B = K + B$ Hirugarren emaitzak, azkenik, zera esan nahi du: hiru belaunalditik gorako perspektiban bizirik jarraitzen dutela, hiztun-elkarte berreginean, bai lehengo bertako B hizkuntzak eta bai kanpotik etorritako K hizkuntzak. Elkarren artean banatu dute hiztun-elkarte berreginarean “tarta” demolinguistikoa eta soziofuntzionala, hizkuntza bien arteko konpartimentazio-molderen bat bilatuz eta adostuz. Batzuetan konpartimentazio territoriala eratu izan da horretarako: halakoak izanak dira, adibidez, Erdiarotik Inperio Otomanoaren amaiera arteko (eta are, egungo egunean, Ekialde Urruneko) hainbat hiritako auzo beregainak, ez beti *ghettoak*¹⁸⁸; halakoak (izan) dira, orobat, Estatu Batuetako erreserba indioak, Hego Afrikako *apartheid* moldeko bizitegi-moldeak edota, kontestu moderno eta demokratikoetan, hizkuntza-eskubideen lurralde-irizpidean oinarritu-

riko eskualdekatzeak, Suitzako edo Belgikako kasu. Beste kasuetan, aldiz, konpartimentazio soziofuntzionala eratu izan da, hiztun-elkarte berreginaren mintzabehar eta mintzamolde batzuk B hizkuntzan antolatuz eta besteak K-n. Azken kasu batzuetan, berriz, bietariko formula eratu da: konpartimentazio territoriala eta soziofuntzionala hartu da, aldi berean, elkarbizitzaren oinarri-arau.

Konpartimentazio-molde bat hartu oinarri ala beste, gauza bat dago argi: hirugarren emaitza-bide honetan, $K + B$ formularen pean, diglosiaz ari gara bete-bete. Diglosia hori nagusitu ondoan gizarteak ontzat ematen du, aparteko bortzarik eta berebiziko konflikturik gabe, leku batzuetan edota funtzio batzuetan B hizkuntza dela egokia (arauzkoa, naturala, normala), eta besteetan K hizkuntza. Hiru belaunalditik gorako epealdia burutu delarik K hizkuntza ez da dagoeneko, ezinbestean ez behintzat, kanpotartzat hartzen. Bata (B hizkuntza) bereagoa sentitzea aski gauza ezaguna da horrelakoetan. Baina K ere etxekotzat hartzen da hainbatean, une batetik aurrera: hizkuntza birekin funtzionatu izan da belaunez belaun, eta hizkuntza-kontaktuaren iturburuko gorabehera zaharrak (dislokazio soziokulturalak eta, ez gutxitan, dislokazio fisiko bortitz-mingarriak eragindakoak) ahaztuz joaten dira urteekin. Zer esanik ez mendeen joanean.

Ezaguna dugu oso, gure artean ere, diglosiazko $K + B$ formula. Euskal/erdal diglosiazko moldaera zaharragoak (latina, gaskoia, nafar-ara-goiera tarteko izanik) alde batera utzita ere hori izan da Euskal herriko herribildu askotako moldaera nagusia, XVI. mendetik XVIII.era arte bederen. Gero ere indarrean izan dugu diglosia, Bizkai-Gipuzkoetan eta Iparraldean bereziki, XIX. mendea aski aurrera joan arte. Ez gara beraz fenomeno arrotz batez ari, gure historia sozial ezagunean erro sakonak eta hedadura zabala izandako moldaera soziolinguistikoaz baizik. Diglosiazko eramolde horren kalteak eta hipotekak behin eta berriro azpimarratu izan ditu gure literatura soziolinguistikoak: batez ere diskurtso politiko-ideologikoan oinarritutakoak, baina ez horrek bakarrik¹⁸⁹. Askoz gutxiagotan azpimarratu izan da, aldiz, diglosiazko moldaera horren alde argia, kontestualki ahula den hizkuntzaren (orobat ustebalioz eta sinesmenez, iritziz eta jarreraz hizkuntza hori bere baitan biltzen eta babesten duen konstelazio etnokultural osoaren) mesedegarria: etxeko eta auzoko, kaleko eta lantegiko, plazako eta (latinari eta, partez, gaztelaniari gorderikako funtzioetan salbu) elizako hizkera arrunta, ahozko jarduneko mintzamolde arrunta euskara izan den artean segurtatutik, aski garantizaturik egon izan da euskararen (eta euskaltasuna-

**A eta B hiztun-
elkarte edo
hiztun-talde bik
elkar jotzen
dutenean aukera
bi baizik ez
daude funtsean:
hizkuntza bat
(A hizkuntza edo
B hizkuntza)
nagusitzea,
“tarta”
demolinguistiko
eta
soziofuntzional
osoa beretzat
hartuz eta bestea
ezer gabe utziz,
edota bai Ak eta
bai Bk elkarren
ondoan irautea,
“tarta”
demolinguistiko
eta
soziofuntzional
osoa bien artean
banatuz.**

ren) belaunez belauneko transmisioa: hurrengo belaunaldik euskara ikasi izan du ama-hizkuntza moduan, hori izan du bere L1, eta horri eskerrak beste belaunaldi bateko bizibidea eskaini izan zaio behin eta berriz, neurri ohargarrian (ez erabat), euskal hiztun-elkarteari. Gutako askok, irakurle, moldaera hartan (moldaera zaharkitu haren azken hondakinetan) ditugu iturburu familiarak. Ez guke ahaztu behar funtsezko datu hori. Lehenak ez du geroa segurtatzen, baina lehenik gabeko geroa zail da, gurea bezalako hiztun-herri txiki ahulduetan, eraikitzen.

Emaitza-bide horiek dira beraz hiru aukera teorikoak: horiek dira hizkuntza-soziologiak, hiru belaunalditik gorako perspektiban, hizkuntza-kontaktuaren *output* gisa formulatu dituen emaitza-bide posibleak. Teorian posibleak eta praktikan erraz identifika litezkeenak han-hemen. Bistan da epe laburragoko planoan (belaunaldi bakarrekoan edo bizpahirukoan) aldi bateko trantsizio-bide alternatiboak ugari izaten direla, eta atzera-aurrerak ere gertatzen direla une eta leku jakinetan. Luzera begirako perspektiban hiru irtenbide horiek dira ordea, B-ren eta K-ren arteko hibridaziozko linguogenesia alde batera uzten bada, eskueran dauden aukera teoriko ezagun bakarrak¹⁹⁰.

5.1.2 Hiru ondorioen egiantza, begien bistako etorkizunean

Prognosia egitea ez da, ahuldutako hizkuntzen bilakaera kontuan, batere lan erraza. Ikusi, bestela, zer gertatu zitzaion Wilhelm Humboldt handiari eta zer gertatu izan zaion beste hainbati¹⁹¹. Lan zaila izan arren ezinezko hutsa ere ez da ordea. Kasu batzuetan errazagoa da noski. Zenbat eta etorkizun hurbilagoa iragarri, orduan eta errazagoa da prognosiarekin asmatzea. Zenbat eta begiak urrunago jarri, aldiz, orduan eta zailago. Demagun begien bistako etorkizunera mugatu nahi dugula prognosi-lanean: gure bizira, gure seme-alabenera eta, gehien-gehienez, gure iloben belaunaldira. Atera dezagun kontu.

Demagun, irakurle lagun, 55 bat urte dituzula eta, osasunez ondo zarelarik eta istripu larririk tartean ez dela, beste 30en bat urteko bizialdia kalkulatzeko diozula zeure buruari. Demagun, orobat, zu baino 30-35 bat urte gazteagoko seme-alabak dituzula eta, egoera “normal”ean, beste 65en bat urteko bizi-itxaropena izan dezaketela horiek. Demagun, era berean, hemendik urte gutxira (bost urtera, hamar urtera) lehen ilobak izaten hastea espero duzula eta iloba horiek, gauzak “ondo” joango balira, hemendik ehun bat urtera arteko bizialdia izango dutela. Demagun, azkenik, aski probable den moduan euskaltzale fina zarela: euskarari eta euskaldungo osoari bizia eta iraupen-indar betea (ahalik eta be-teen) opa diozun euskaltzalea.

Utz iezadazu galderatxo hau egiten¹⁹²: hurrengo hamarkadotan ondo (euskaltzaleon ikuspegitik ondo) joaten badira hizkuntza kontuak gure artean, aurreko hiru emaitza-bide posibleetatik zein da, zure ustez, zure ilobek hil aurreko azken urteetan probabilitate handienaz ezagutuko dutena? Euskararen indarberritze-saioari honegatik edo hargatik fretoa jartzen ez bazaio, eta Europako zokoalde honetan erabateko transformazio demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatibo bortitzak (alde batekoak zein bestekoak) gertatzen ez badira hurrengo hamarkadotan, hiru eszenario hauetatik zeinek du egiantz handiena, eta zeinek txikiena, orain arteko eskarmentu kontrastatuaren eta hizkuntza-soziologiaren funtsezko ekarpenen argitan?:

- a) Iloba horiek (eta horiekin batera Euskal herriko biztanle guztiak edo gehien-gehienak) euskaldun elebakar edo euskal-elebidun izango dira eta euskara izango da Euskal herri osoan eguneroko hizkuntza bakarra edo erabat nagusia, eskualde, pertsona eta funtzio guztietan;
- b) Iloba horiek (eta horiekin batera Euskal herriko biztanle guztiak edo gehien-gehienak) erdaldun elebakar edo erdal-elebidun izango dira eta erdara izango dute Euskal herri osoan eguneroko hizkuntza bakarra edo erabat nagusia, eskualde, harreman-sare eta funtzio guztietan;
- c) Iloba horiek (guztiak edo gehienak) elebidun izango dira. Batzuek euskaraz moldatuko dira nagusiki, besteak erdaraz eta askotxok, honegatik edo hargatik, euskaraz egingo dute leku, jardun-gune, harreman-sare eta situazio batzuetan eta erdaraz besteetan.

Ez uste izan, irakurle lagun, ehun urteko kontu hori hain urruti dagoenik. Pentsatu, aitzitik, hemendik bost edo hamar urtera jaioko direla iloba horiek: gehienak Bilbo aldean, edota eguneroko kale-bizitzaren eta lan-esparruko funtzionamenduaren aldetik Bilboren antzik falta ez duten hiriburu eta herriburu hazietan (Gasteizen, Iruñean, Baiona-Angelu-Miarritze trianguluan, Irunen, Barakaldon, Lizarran) eta gutxien-gutxienak Errezilen, Bortzirietan edo Markina inguruan. Atera kontuak, besteak beste, belaunaldi osoa pasa dela dagoeneko normalkuntza-legea argitara eman zenetik eta ia bi belaunaldi direla gerra ondoko lehen ikastolak abian jarri zirenetik. Ez ahaztu 30 urte egingo dutela aurten ETBk eta Euskadi Irratiak, eta beste horrenbeste HABEK (AEK lehendik ari da lanean). Horrek guztiak balio izan behar dizu, denbora-unitateak hizkuntzen bilakaeran nola eragiten duen zuhurkiro neurtzeko. Gogoan

Honela azaldu izan du Hiriart-Urrutik, adibidez, XIX. mende-bukaeran bere (eta beste hainbaten) begien aurrean gertatzen ari zen mintzalda: “Gainez gain, oro hartuz, Eskual Herri guzia inguruan begizatzen dugularik (..) aitorturen dautazue badoala eskuara galtzera tarrapatan. Arronkal(en) eta Izaba(n) (..) nere adiskideak (..) etxe berean ikusi zitue(n) horrela mintzo, adin arau; zaharrak eskualdun, bitartekoak eskualdun-español, gazteak (eskuara utziz) español garbi” (“Eskuara Frantzian” in *Eskualduna* 477, 1896-8-7).

izan politikaren eragina, hain garrantzitsua izanik ere eguneroko erabaki askotan, eta garapen-aukera zabalekoa izanik ere jardun-gune batzuetan, difuminatuagoa gertatu ohi dela sarri mintzajardunaren giza arteko moldaera orokorra errotik aldatuz ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan. Difuminatuagoa izateaz gainera eragin ahulekoa da, sarri, epe-tarte laburretan. Gu, berriz, hiruzpalau belaunaldiko tartetz ari gara, ez mende askotakoaz. Zuri dagokizu erantzuna, irakurle. Zer diozu?

Nire ustea azalduko dizut, zeuk gero (hala nahi baduzu) zeure kontraste-lana egiten laguntzeko. Goiko lehen eszenarioa arras egiantz ahulekoa da. Hizkuntza-soziologiaren ekarpenek (goian azaldu ditugu zenbait) probabilitate txikia aitortzen diote eszenario horri, orain arte dakigunaren argitan: gurea bezalako konstelazio etnolinguistiko eta soziokultural txiki-ñimiñoek, *Big Brother* indartsu baten edo gehiagoren inpaktua jasaten dutenean (eta hori da gure kontestu ezaguna azken mende bi t'erdian bereziki), mintzaldatz-bidea hartzen dute sarri. Hala gertatu izan da hemen, XIX. mendetik hona bederen. Azken 30 urteko indarberritze-saioak, EAEn bereziki, ekarpen ohargarriak eskaini ditu: Europako oso hiztun-herri gutxik eskuratu dituen neurriko ekarpenak dira horiek, hurrengo bizpahiru belaunaldien bilakaera-ardatz nagusiari dagokionez gutxietsi behar ez genituzkeen garapen-potentziala berekin dutenak. Egia izanik ere hori guztia, arras agerian ditu indarberritze-saio horrek bere argi-ilunak, lorpen deigarriak eta hipoteka larriak: H alorreko funtzio-esparrura sarbidea lortu dugularik partez, hiztun-elkarteen belaunez belauneko jarraipena ziurtatzeko hori baino zentralagoa den jardun-guneak, etxe-auzo-lagunarte multzoak bildu ohi duen hizkera informal eta intimo oraturiko “eguneroko bizimodu arrunta”-k, erdaldunduz jarraitu du. Ralentizatu ordez azeleratu egin da, azken hiru hamarkadotan, ura bodegatik sartzearen fenomeno hori. Euskaltzaleok teitlatuko zuloak eta arteziak nola tapatuko afan bizian ari ginen artean zilborretik gora iritsi zaigu, dagoeneko, bodegatik sartzen ari den ura. Kostatzen ari zaigu gainera ur gehiena, hemen eta orain, nondik sartzen zaigun antzematea. Huts egin dugu diagnostiko zehatzaren identifikazio-saioan eta, horren ondorioz, lehenetsun egokien aplikazio-lanean.

Espero izatekoa zen hori, teoriaren aldetik. Hizkuntza-soziologiak ez du aukera hori ezinezkoa denik esaten: argi dio, hori bai, bestelako transformazio demografiko bortitzak gertatu ezean arras inprobablea dela horrelako eszenarioa. Transformazio bortitzak diodanean aldakuntza politikoa izango duzu, agian, batez ere gogoan. Hori ere bai, jakina, baina hori bakarrik ez. Are gehiago: ez da hori lehen eszenarioak perspektiba zientifikotik eskatuko lukeen lehenengo-lehenengo baldintza: hasteko,

askoz ume gehiago egin beharko genuke euskal bikote gazte eta ez hain gazteek. Hori ez digu Madrilek eragozten, gure gizarte-eredu modernoak baizik. Hor daukagu benetako behaztopa-harria: modernidadeari ez diogu inola ere izkintxo egin nahi. Modernidadeak, ordea, ez du euskara indarberritzeko saioekin korrelazio positibo handirik oro har. Ez du izan orain arte, eta ez dago motibo argirik aurrerantzean hala izango duela uste izateko. Hemendik hamar urtera jaioko diren haurrak (haur guztiak: bereziki hiriburu handietakoak, hor baitago biztanleon gero eta zati handiagoa) ez dira urrundik ere euskarazko familietan jaioko. Etxeko hizkuntza nagusia, are gutxiago bakarra, ez dute euskara izango. Kalera atera orduko erdal munduarekin egingo dute topo, D ereduko eskolara joaten badira ere gehienak. Are gehiago: kalera atera aurretik ere topo egingo dute etxetik euskaldun diren hurrek (erabat etxetik erdaldu direnek) erdararekin, telebista eta irratia dela medio. Edota, ziaboga bizi baten ondorioz, espero al du inork euskaldun guztiok eta erdaldu gehienak ETB 1 edo euskarazko leku-komunikabideen kontsumitzaile suhar bihurtuko garela kolpean, honegatik edo hargatik? Halakorik gertatzen ez bada, eta hori da askogatik probableena, erdara izango da hemendik 10, 15 edo 20 urteko haur gehienek etxeko eta kaleko hizkuntza nagusia: askorentzat ia bakarra. Munduko eskola eta euskaltegi guztiak nekez, oso nekez lortuko dute abiaburuko *primum mobile* hori itzulipurdikatzea eta populazio osoa mintzaldatzea. Ez lan-mundu transnazionalak, ez atzerritiko (are beste kontinenteetatiko) etorkin-fluxuek eta ez, agian, euskaldun gazteen (askotan kualifikatuenen) lan-mundu globalizaturako kanporatzeak egingo dio panorama horri euskararen aldeko ekarpen gotorrik. Hori da nire begiek ikusten dutena.

Hori guztia horrela izanik, uste al duzu benetan zure iloba horiek (eta horiekin batera Euskal herriko biztanle guztiak edo gehien-gehienak) euskaldun elebakar izango direla hemendik ehun urtera eta euskara izango dela, Euskal herri osoan, eguneroko hizkuntza bakarra edo erabat nagusia bertako eskualde, pertsona eta funtzio guztietan? Hala uste baduzu, ez irakurtzen segi: alferrikakoak dituzu hemendik aurrerako argibideak eta komentarioak. Eszenario hori oso probablea iruditzen ez bazaizu edo arras inprobablea iruditzen bazaizu, aldiz, egin dezagun aurrera.

Bi eszenario gelditzen zaizkigu: (b) erdara, azkenik, jaun eta jabe atera deneko kasua; (c) euskara eta erdara, nolabaiteko diglosia-molde berritu batean, euskaldunon mintzabide direneko kasua. Bistan da lan txikia emango digula (b) kasuak: ez dugu eszenario hori gogoko eta ez gara eszenario horretara joateko aurrelanetan ari. Ondorioz, alternatiba bakarra gelditzen zaigu azterkizun: (c) eszenarioa. Diglosiarena.

Ezaguna dugu oso, gure artean ere, diglosiazko K + B formula. Euskal/erdal diglosiazko moldaera zaharragoak (latina, gaskoia, nafar-aragoiera tarteko izanik) alde batera utzita ere hori izan da Euskal herriko herribildu askotako moldaera nagusia, XVI. mendetik XVIII.era arte bederen. Gero ere indarrean izan dugu diglosia, Bizkai-Gipuzkoetan eta Iparraldean bereziki, XIX. mendea aski aurrera joan arte.

Horra, irakurle lagun, euskara indarberritzeko orduan diglosia zergatik den hain garrantzitsu. Diglosia da, halakorik onartu nahi izaten ez badugu ere sarri, bene-benetako erronka. Euskara-erdarak seguruenik hemen izango dira etorkizunean, euskara bizirik ateratzen bada, eta beraz hizkuntza bakoitzak espazio fisiko-territorialaren, sozio-funtzionalaren edo bien zati bana bere mende izan beharko du. Horretara iristeko, berriz, hizkuntza bien (eta, beste maila batean, ingelesaren) konpartimentazio egonkor samar bat diseinatu, gizartean adostu, inplementatu eta egonkortu beharko da. Beste hitzetan esanik, diglosiazko formulazio berritu bat eratu beharko da. Hori gabe jai du euskarak, hasi berria den mende honetan. Behar-beharrezkoa dugu konpartimentazio hori, handiak txikia jango ez badu.

5.2 Aski al da diglosia, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko?

Erantzun bi ditugu gure artean, elkarren kontrakoak biak, galdera honi erantzun zehatza emateko orduan. Erantzun batek ezetz dio, bere ñabardura eta baldintza guztiekin. Besteak baietz, horrek ere bere “pero”ak galtzarbean dituela.

Has gaitezen ezetz diotenekin. Iritzi horren bozeramaile argi eta urteetako jardueraz, buru-landuenetako bat hartuko dugu gidari: Joxe Agustin Arrieta. Honela esana digu berak, berrikitan, *Berrian* (2011-I-29: 6. or.): “XXI. mende gorrian, lurralde jakin batean, komunikazio-funtzio guztietarako, ezinbestekoa ez den hizkuntza batek ez dauka bizirautek. Agonia luzaraz geniezaioke, gehienez ere”. Nekez esan litezke gauzak argiago. Bere “komunikazio-funtzio guztietarako” eta “lurralde jakin batean” direlako horiek ondo ulertzen baditut hizkuntza batek, bizirik aterako bada, beharrezkoa izan behar du, hitzez eta idatziz, hitzun-elkartearen bizimoduak berekin dakartzan jardun-gune, rol-harreman eta situazio guztietan: beharrezkoa edo ezinbestekoa. Hala ez bada (hiztun-elkarte horren espazio fisiko-territorial jakinean eta espazio soziofuntzional osoan ezinbesteko hizkuntza ez bada) ez dauka bizirik irauterik.

Ohar batzuk egitea komeni da “tarta territorial eta soziofuntzional oso”aren formulazio ezagun horri. Aho-biko ezpata izan da diglosia, mende luzez: aho biko ezpata, ez alde bakarreko gertakari sozial. Bistan da, batetik, diglosia-giroak muga-ezintasun jakinak ekarri ohi zituela eta, une batetik aurrera (diglosia galtzeaz bat, diglosiaren eragin zuzenez baino areago) luze-zabaleko mintzaldaketaren pizgarri gertatu direla muga-ezintasun haiek. Hori nekez ukatuko du inork, jakinaren gainean eta gizalegez ari bada kontuak ateratzen. Muga-ezintasunen gertakari

hori ez da, ordea, egia osoa. Ehunka urtean ez da euskara euskaldunon mintza- eta idazbehar guzti-guztien ezinbesteko agerbide izan baina, diglosia-giro haren altzoan, bizirik mantendu izan da gure inguruotan¹⁹³. Kanpoko etorkinak euskalduntzeko gai izateaz gainera belaunez belaun (XVIII. mendera arte galera territorial ezagun handirik gabe eta galera funtzional ezagunik gabe) transmititu izan du euskal hiztun-elkarteak, Euskal herri etnokultural eta etnolinguistiko nabarmen hark, bere hizkuntza propioa konpartimentazio tradizionalaren eskema barruan. “Zazpi Probintziez kanpoko” lurralde-galerak alde batera uzten badira hala izanakin dira kontuak XVIII. mendearen erdi-aldera arte, hor nonbait. Esplikatzeari falta da horregatik, Arrietaren baieztapen erabatekoan, lehen posible zena orain zergatik den erabat ezinezko. Diglosia gizarte berrian zaila edo harrigarri zaila dela badakigu: aurreraxeago saiatuko gara hori azaltzen eta zehazten. Zaila eta oso zaila izatea gauza bat da ordea, eta erabat ezinezkoa beste bat. Jauzi hori arrazoitu gabe dago.

Ez dakit Arrieta konturatzen den: praktikan, bere formulazio “ausart” horrekin, bizi-itxaropenik txikiena gabe uzten gaitu euskaldun izan eta euskarari bizia eta osasuna opa diogun gehien-gehienok. Non aplikatu liteke izan ere, gaur eta hemen, Joxe Agustin Arrietaren plana? Legez, puntatik puntara behintzat, inon ez. Legea alde balu ere bere formulazioak, errealitate demolinguistikoaren arabera arnagune bakan batzuetan bakarrik aplikatu ahal izango litzateke hori, arnagune horien barne-esparruan. Perspektiba ekonoteknikoaren eskala-dimentsioa, informazio- eta komunikazio-teknologiaren lehen-eranda eta euskaldun gazteen ohitura eta lehenetsun soziokultural berriak kontuan izanik, azkenik, horietan ere ez¹⁹⁴. Beraz, non? inon ere ez.

Gehiagok ere egin du gogoeta, gure artean, funtsezko gai honetaz. Gogoetarik argienetakoa, irakurri ditudanetan, Martin Orberena da. Mitxelenari erreferentzia eginez honela dio (Askoren artean, 2002: 195-196): “*Ghetto* edo *ghettizzazione* aipatzeak ematen du Euskal Herria euskararik gabe ere izan daitekeela edo erdal hizkuntzek Euskal Herrian duten nagusigoa Euskal Herria euskaldun izatea bezain bidezkoa dela, eta, beraz, euskaraz ari diren hiztun eta eremuak direla egoera normalizatutik at ala legitimatutako egoeraren kontra, korrontearen gora, ari direnak. Honenbestez, hizkuntza nagusiek ematen duten mailari eta erosotasunari muzin eginez hizkuntza minorizatuaren aldeko apustua gutxiengoaren jokabide setatiaren adierazpide besterik ez litzateke izango, *ghetto* besterik ez diren ekintzetan indarrak xahutuz. Irudiekin jarraituz, zergatik ez aldarrikatu euskarak bizi behar duen basamortuan euskal unibertsitatea, euskararentzat irabazitako beste eremu guztiak bezalaxe,

Prognosia egitea ez da, ahuldutako hizkuntzen bilakaera kontuan, batere lan erraza. Ikusi, bestela, zer gertatu zitzaion Wilhelm Humboldt handiari eta zer gertatu izan zaion beste hainbati. Lan zaila izan arren ezinezko hutsa ere ez da ordea.

«oasi» dugula? Oasi hauei esker iraun du euskarak bizirik eta ditugunei eustea eta berriak sortu eta hedatzea izango da biziraupenerako eta indarberritzeko bidea. Dena dela, euskal unibertsitatearen onura eta abantailen kontu hau ez dakit nik onura eta abantailetatik haratago ala honatago dagoen. Izan ere, ba al du irauterik partzialki eta eremuka soilik erabili eta baliatzen den hizkuntzak? Noraino da praktikan bideragarria elebitasun orekatuaren kontua? Infernuak zein purgatorioak ekar ditzakeen kalteak aipatu zituen aspaldi gure maisu filologoak; baina nago diglosia amaigabeko purgatorioa dela, eta hori eta infernua gauza bera dira”.

Azken ondorioa ezkorra da, dudarik gabe. Baina aski aberatsa, bere matiz eta ñabarduretan. Diglosiaren purgatorioa gaitzesten den posizio espresutik abiatuz lehenengo aldia da hori, gure artean, konpartimentazio-esparru batek, purgatorio izateaz gainera oasi-izaera ere har dezakeela esaten dena. Oso gogoan hartzeko ñabardura da hori: benetako eztabaida bati atea zabaltzen dion leihoa.

Baiezko ustea dugunok gaude, bestalde, tartean. Gure esanean, hizkuntza batek bizirik irauteko eta belaunez belaun transmititzeko ez da *ezinbestekoa* hitzun-elkarte hori jardun-gune, harreman-sare eta interakzio-gune guzti-guztietan bere hizkuntza horretaz baliatzea. Diglosia (behar adinako diglosia) aski izan liteke, alegia, hitzun-elkarteak belaunez belauneko iraupena izateko. Ez noski (exo)diglosiarik gabeko hitzun-elkarte beregainek duten osotasun betean irauteko eta haien mailako autorregulazio-ahalmenaz baliatzeko, baina bai belaunaldi batetik hurrengora bizirik ateratzeko eta, bien bitartean, osasun beteagoko formularik begiztatu, adostu eta hezurmamitzen saiatzeko.

“Ez dago gaizki esana”, pentsatuko du agian norbaitek. “Lastima, hitz ederrak besterik ez izatea. Hitzak besterik ez, errealitatean ez baitago horrelako egoerarik gure mundu moderno ezagun honetan”. Seguru al gaude, kontuak horrela direla? Esana dugu batetik (eta bibliografia ezagunak nahi adina adibide ematen du horretaz), azken bi mila urteko historia ezagunak¹⁹⁵ adibide ugari eskaintzen duela konpartimentazio soziofuntzional osagarri egonkorraz hainbat belaunaldi (zenbaitetan hainbat mende) iraun izandakoaz. Galdera bestea da ordea: lehen bai, baina orain?

Orain zailagoa da hori, lehen baino (hurrengo atalean hitz egingo dugu horretaz). Konpartimentazio territorial eta/edo soziofuntzionalari eusten zaion neurrian (edo konpartimentazio hori eskuratu eta belaunez belaun transmititzen den heinean), ordea, bada orain ere diglosia-biderik. Hitzez hitz hala izendatutakorik gutxi ezagutzen dut mundu zabalean: arabiar herrialdeetakoaz jaso litekeen testigantzaz aparte¹⁹⁶ hor

dago, kontestu modernizatu aktualetik hurbilago agian, Hong Kong eta bere bilakaera bizia, Don Snow-en arabera¹⁹⁷ diglosia-molde berritzat har litekeena¹⁹⁸.

Diglosia, gorago aipatu dugunez, ez da “zuri ala beltz” arteko kategoria zurruna. Era askotako diglosia moldeak izan litezke indarrean, eta bakoitzak bere banaketa demolinguistikoa, fisiko-territorial eta soziofuntzional berezia du. Alde horretatik posible da diglosia-kasu ahulenetatik indartsuenetara, eta are handik gorakoetara, continuum bat ezartzea. Europa moderno honetan posible genuke, alde horretatik, aleman-Suitzako (endo)diglosia paradigmaticoaz gainera Luxemburgoko situazio exo- eta endo-diglosiko bihurria aipatzea, gure egungo edo bihar-etziko irismenetik agian hurbilago legokeena. Eta hor daude noski, banaketa-espektoaren goren-mailan, herrialde nordikoak, Faroe, Islandia eta Groenlandia. Begien bistan izan dezakegun helburu gorena adierazten dute horiek seguruenik. Bistan da, gai horrekin ezin dela fribolizatu. Goian aipatu ditugun herrialde horiek ez daukate konpartimentazio soziofuntzionala bakarrik beren esku. Horrezaz gainera, eta horren aurretik, urte askotako beregaintasun politikoak zurkaizturiko konpartimentazio territoriala (eta, zenbaitetan, guri erabat falta zaigun uharteizaera errotikakoa) daukate eskueran. Konpartimentazio territorialaren muga-hesi horrek babesten ditu kanpoko hainbat harreman-sare erdarazkoetatik, eta etxe barruko hainbat uniformizazio-neurriak indartzen. Han ere gesaltzen ari dira ordea kanpo-mugak, eta mugaz haraindiko harreman-sareak indartzen eta zabaltzen. Bertako B hizkuntzaz gainera badute horregatik, gero eta nabarmenago, K bat (gero eta sarriago, ingelesa) edo bi (daniera, demagun). Beren hizkuntzak ez dira ordea, neurri bateko edo besteko diglosia horien eraginagatik, begien bistako etorkizunean arriskuan. Beren B horiek etxeko eta herriko, laneko eta bizimodu arrunteko adierazpide bakar edo nagusi diren artean, nahiz eta unibertsitatean, ikertegietan, enpresa transnazonaletan, pop-kulturaren kontsumoan, turismoan, internet-en eta beste hainbat esparrutan beste hizkuntzaren bat (maiz aski ingelesa) nagusitu, bistan da belaunetz belauneko transmisioa bermaturik dutela eta, horrenbestez, garatzen ari diren diglosia-modu hori hiztun-elkartearen babesle dela, apurtzaile baino gehiago. Hots, orain arteko datuen arabera diglosia modu hori aski gertatzen zaiela belaunetz belaun bizirik jarraitzeko.

Are gehiago: ahuldutako hizkuntzak indarberritzeaz mundu mailako ekarpen ezagunak egin dituzten adituak zerbaitetan ados baldin badaude gai horren inguruan, honetantxe da hain zuzen: beharrezkoa da pauso hori¹⁹⁹. Beharrezkoa da eta, Fishman-en 1991ko (gero, zertxo-

**Hor daukagu
benetako
behaztopa-
harria:
modernidadeari
ez diogu inola ere
izkintxo egin
nahi.
Modernidadeak,
ordea, ez du
euskara
indarberritzeko
saioekin
korrelazio
positibo handirik
oro har. Ez du
izan orain arte,
eta ez dago
motibo argirik
aurrerantzean
hala izango duela
uste izateko.**

bait findurik, 2001eko) taula famatuaren argitan bizirik ateratzeko eta ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa segurtatzeko gutxienezko elementu basikoa, zentrala, ardatza. Bere alde dago, jakina, Israelgo “revernacularization” prozesu harrigarria, hebraiera berritueguneratua etxeko herri- eta nazio-hizkuntza bihurtu duena²⁰⁰.

5.3 Erraza al da diglosia, XXI. mendean? Ezinezkoa?

Honetan, behintzat, badirudi ez dagoela desadostasunik. Batzuek motibo bategatik, eta besteok beste zerbaitengatik, bat gatoz, antza, erantzunean: ez, gizarte berri-modernizatuan ez da batere erraza lehengo diglosia zaharrari eustea edo diglosia-molde berri bat eratu eta zabaltea. Paraje inhospitua da modernitatea, gurea bezalako hiztun-herri txikiokontzat. Auzotarrek (agintari eta auzolagun) alde bagenitu ere gure indarberritze-saioan, hitzez eta egitez, eta geuk ere gogotik egingo bagenu asmo horren alde, orduan ere ez litzateke erraza euskal konstelazio etnolinguistiko txiki hau diglosia-giroan mantentzea edo hartara eramatea. Aspertzeraino errepikatu izan dugu Fishman-en esaldi famatua, horri buruzkoa. Ez da gaizki etorriko ordea, agian, berriro errepikatzea: “There is much in modern life that militates against such compartmentalization. Among the hallmarks of modernization, as expounded by the great sociologists of the past two centuries, is the increase in open networks, in fluid role relationships, in superficial “public familiarity” between strangers or semistrangers, in nonstatus-stressing interactions (even where status differences remain), and, above all, in the rationalization of the work sphere (the sphere that has presumably become the dominant arena of human affairs). All of these factors, - and the constantly increasing urbanization, massification and mobility of which they are a part, - tend to diminish compartmentalization, whether in the language repertoire or in the social behaviour repertoire surrounding language per se. However, they do not make it impossible, as the many instances of stable diglossia in the modern world reveal”. (Fishman, 1985: 41)²⁰¹.

Karl Deutsch-en lan handiak, batez ere *Nationalism and Social Communication* famatua eta “The Political Significance of Linguistic Conflicts” konkretuagoa, bat datoz hainbat puntutan, ez guztietan, Fishman-en diagnostiko kopetilun horiekin. Beste askok ere, horien aurretik eta horien ondoren, antzeko epaia eman izan dute. Modernizazioa ezin geldituzko prozesua da, eta prozesu horrek zaildu egiten du, erraztu ordez, konstelazio etnolinguistiko txikiek oro har, eta aski ahuldurik daudenek bereziki, bere buruari eusteko eta are garapen-perspektiba sendorik iza-

teko aukera. Azkenik, globalizazioak are larriago bihurtu digu egoera azken mende-laurdenean. Erakarki egiten gaitu globalizazio horren hainbat erosotasunek eta promesak. Haren bidetik goaz maiz, gogotik joan ere²⁰², era batera edo bestera. Globalizazioa ere, aurreko modernizazio industrial-urbanoa bezala, hizkuntza txikien lagun kaskarra da²⁰³.

Hizkuntza indartsuaren mintzaldaketazko eraso-eraginetik babestea eskatzen du hizkuntza ahula indarberritzeko saio orok. Konpartimentazio soziofuntzional zaharrei (edo, ondotozoz seguruago, zaharberrituei) indarrean eustea edo, halakorik ez badago, konpartimentazio molde berri bat eratzea. Ezinezkoa ez da hori, baina bai lan nekeza. Besteak beste bere prezioa eta bere hipotekak izango dituen. Horrela erantzun izan die Fishman-ek ohar-erreparoa nagusiei: "While it is true that traditional society is more compatible with diglosia (just as it is more compatible with boundary "status quos" of every kind, it is not true that diglossia arrangements are not possible under (or are in any way causally related to) political, econotechnical or ideological/religious/philosophical arrangements of whatever kind. The price that society may need to pay for diglossia arrangements (a price such as well-defined territoriality principles or intimacy/local vs. formality/supralocal distinction conventions) may be worth every penny, relative to the simplified equalization solutions that would destroy such arrangements but bring with them a host of attendant problems tantamount to cultural disruption as well". (Fishman, 1985: 52).

Labur bilduz: lan nekeza da diglosia zaharrari eustea edo diglosia molde berri bat eratu, indarrean jarri, zabaldu eta belaunez belaun mantentzea. Bateragarriago ziren gizarte molde zaharrak diglosiarekin, egungo egunekoak baino. Lan zaila da hori, baina ezinezkoa ez da: diglosia bateragarria da, berez, era bateko zein besteko gizarte moldeekin, era bateko zein besteko eramolde politiko, ekonotekniko, ideologiko, erlijioso edo filosofikorekin. Diglosia horrek, hori bai, aski eskakizun zorrotzak izan ditzake berekin: lurralde-esparru jakinen arabera konpartimentazio-arau sendoak eratu eta aplikatzea eska dezake, bertakoei era batera eta bertakoak ez direnekin beste batera egitea, edota lagunarteko hizkera arrunta mintza- edo idaz-molde jasotik bereiztea. Hots, ahuldutako hizkuntzari "bere kabia" bilatzea, egunero eta etengabe xaxatuko ez duten eta bere etxeko jaun eta jabe sentituko den espazio fisiko-territorialak edo soziofuntzionalak eskuratzea. Arrazoi zuten Azaolak, Txepetxek eta Mitxelenak euskarak "bere lekua", "jaun eta jabe" izango den bere gune fisiko-territorial edota soziofuntzionala behar duela ziotenean. Ez zebiltzan oker: ez ziren ezinezko zerbait plan-

**Euskara-erdarak
seguruenik
hemen izango
dira
etorkizunean,
euskara bizirik
ateratzen bada,
eta beraz
hizkuntza
bakoitzak espazio
fisiko-
territorialaren,
sozio-
funtzionalaren
edo bien zati
bana bere mende
izan beharko du.**

**Ehunka urtean
ez da euskara
euskaldunon
mintza- eta
idazbehar guzti-
guztien
ezinbesteko
agerbide izan
baina, diglosia-
giro haren
altzoan, bizirik
mantendu izan
da gure
inguruotan.**

teatzen ari, nahiz eta ez zuten jakin, urrundik ere, “locus” edo “nicho” hori justu nolakoa izan zitekeen, edo nola eratzea komeni zen, zehazten. Ez zebilen hain oker Mitxelena, orobat, “locus” hori purgatorio moduan definitzerakoan.

5.4 Nolako diglosia behar da?

Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena segurtatuko duen diglosia behar da. Jarraipena segurtatuko duen eta, galdurik den ingurumenetan, berreskuratzen lagunduko duen diglosia. Jarraipen horrek eman dio bizia gure hiztun-herriari, beste hainbati bezala, menderik mende. Jarraipen-kate hori ezinbesteko baldintza izango dugu gero ere: aurreko belaunaldiak egindako saioa hurrengo belaunaldira proiektatzeko gai ez garen heinean, belaunaldi berri bakoitzak hutsetik abiatu beharko du berriro euskalgintzan. Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipen hori da beraz, alde orotatik, lehentasun guztietan lehena. Horren arabera antolatu behar dira planak: euskalgintzaren esparru batean edo bestean (baita corpus-plangintzarenean ere) hartu nahi den neurri bakoitzak helburu hori segurtatzen asko ala gutxi laguntzen duen, edo batere laguntzen ez duen, ebaluatu behar da ahalik eta zorrortzen. Ebaluazio horren emaitzaren argitan asignatu behar dira lehentasunak. Euskara ama-hizkuntza gisa hurrengo belaunaldira transmititzen laguntzen ez duen euskalgintza ez da euskalgintza ona. Zenbat eta gutxiago laguntzen duen transmisio-lan horretan, orduan eta energia gutxiago xahutu behar da euskalgintzaren ekimen horretan.

Horretarako, jakina, oso kontuan hartu behar da “etxe-auzo-ingurumen hurbil”-eko katea. Esparru-multzo horretan gertatzen da izan ere, mende berri honetan ere, sozializazioaren zati on bat eta, horren barruan, ama-hizkuntzaz jabetzea. Beste esparru asko erdararen mende izango badira ere, hurbileneko esparru-multzo hori bere eskuan izan behar du hiztun-elkarte orok, era naturalean (munduko hizkuntza gehien-gehienek egin ohi duten moduan) hurrengo belaunaldira proiektatzeko aukera minimoak izan nahi baditu. Hori bere mende izango duen diglosia behar da orain ere, gurasoak euskaldun diren eta aski kontzentrazio demografiko sendoa osatzen duten ingurumenetan: bereziki arnaguneetan. Hori ez da gure kasuan aski, baina hori da gure kasuan ere lehentasunezkoa.

Behetik gorako ikuspegiak jardun liteke erosoan, euskaldungoaren babesgarri eta garapen-eragile izango den diglosia molde berri hori eraikitzeko orduan. Familia har dezakegu, esan bezala, abiaburu. Zentrala da familia, orain ere, hizkuntza ahulduaren geroa definitzeko or-

duan. Gurea bezalako hiztun-elkarteen ahultasunaren seinale eta eragile nagusietako bat, azken-azkenean, zera da: hiztun-elkarte larriki ahulduak ez direla gai, ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipen-katea indarrean mantentzeko. Izugarritzko aldaketak jasan ditu familiak Europan, azken mendean. Egia da aldaketa horiek azeleratu egin direla azken berrogei urteotan, gure artean inor gutxik aurreikusi zuen neurrian. Egia da bikote gehienek lehengoek (antisorgailuak eta bestelako kontrakontzepzio-metodoak etorri aurreko familiek) baino ondotoxoz haur gutxiago izaten dugula oro har. Familia monoparentalak ugaritu dira eta, guraso biek (ez batek, normalean aitak, bakarrik) etxetik kanpora lan egiten dugu. Euskaraz bizi diren familien eta auzoen, kale-bizitzan euskara nagusi duten herri-herrixken eta eskualdeen eta, hortik gora, gizarte-bizitzan euskarazko harreman-sareen babesle eta indargarri izango den diglosia behar dugu. Bizirik dauden euskal familiak eta familiaz gainetiko euskal harreman-sareak bizirik mantentzen lagunduko duen diglosia. Euskal familiek euskal bizia mantendu, eratu eta ondorengoetaratu behar dute. Etxean eta auzoan, aste-egunez eta asteburuz, euskal giroa sortu, garatu eta aberastuko duten hiztun-taldeak behar ditugu. Hori da lehentasuna.

Bere buruari eusteko behar adinako indarra izango duena izan behar du diglosia molde horrek. Konpartimentazio territorialez edota sozio-funtzionalaz aski den adinakoa (Fishman 1989 (1980): 187-8: “A relatively few larger groups, groups strong enough to maintain or to fashion a reward system under their own control (whether in the home, the community, the church, or elsewhere), may succeed in establishing and maintaining the compartmentalization needed for diglossia or to do so at least at the areal level (...). However, none of these can really opt for a completely territorial solution (implementing compartmentalization via secession or isolation). Without compartmentalization of one kind or another — at times attained by ideological/philosophical/ and even by a degree of physical withdrawal from establishment society — the flow process from language spread to language shift is an inexorable one. Although it may, at times, require more than three generations for its inroads to be clearly discerned, the functional unbalanced nature of the bilingualism that obtains (both in terms of who becomes bilingual and who remains monolingual, to begin with, and the power-differentials/reward- and sanction-differentials of the remaining A and monolingual B domains) always leads displacement and replacement only in one direction”.

Guk ez daukagu konpartimentazio territorial hertsirik, euskarardarak zeharo marra-lerroaren alde banatara bilduko lituzkeenik.

**Hizkuntza batek
bizirik irauteko
eta belaunez
belaun
transmititzeko ez
da ezinbestekoa
hiztun-elkarte
hori jardun-gune,
harreman-sare
eta interakzio-
gune
guzti-guztietan
bere hizkuntza
horretaz
baliatzea.
Diglosia (behar
adinako diglosia)
aski izan liteke,
alegia, hiztun-
elkarteak
belaunez
belauneko
iraupena izateko.**

Ezinbestekoa dugu, horregatik, konpartimentazio soziofuntzional hori. Hori eta, ahal den neurrian, konpartimentazio territorial tradizionalari (edo eraberrituari) eustea. Hori egiten ez bada, diglosia ez baina *language shift*, etxe-zokondorainoko mintzaldaketa, izango dugu etorkizun seguru. Christina Bratt Paulston dugu, agian, horretaz guztiaz gogoeta hurbilena egin duena. Hona bere hitzak: “It is quite clear that the notion of functional complementary distribution can include separate languages (and language families) as well as varieties of the same language. It is also quite clear that not all bi/multilingual situations necessarily involve functional distribution. Where languages are legally protected by territorial linguistic rights, as in Switzerland and Belgium, those languages coexist with no functional distribution. When languages coexist within a nation-state without the protection of language rights and without functional complementary distribution in a super-subordinate relationship, the norm is shift to the dominant language, although the rate of that shift may vary, as with Gaelic in Scotland over hundreds of years compared to Swedish in Minnesota over a three-generation shift. But shift is normal, given the absence of internally or externally imposed boundary maintenance. Shift is not typical of diglossia”. (Paulston, 2002: 130).

Kontua ez da arnaguneetarako programa berariazkoa prestatu beharra dagoen ala ez. Honez gero begien bistan egon behar luke baietz, berariazko plangintza eskatzen dutela arnaguneek²⁰⁴. Horrela da hori eta, atzera begira, azken berrogei urteotako hutsarterik handiena alor horretan egin ote delakoan nago. Bistan da, orobat, arnaguneetatik kanpora bizi garela herritar gehienak, euskal zein erdal hiztun, eta horiek guztiok ere kontuan izan behar dituela gerora begirako indarberritze-saio orok. Kasu horietan ere litekeena da diglosia molde *ad hoc* bat asmatu behar izatea. *Ad hoc* molde horrek ere, ordea, gauza bat izango du arnaguneetakoarekin amankomunean: euskararen belaunez belauneko transmisio naturala lehenbailehen (berr)eskuratzea izan behar du helburu. Hona Alan Hudson-ek horretaz guztiaz zer dioen: “under no circumstances should this be interpreted as a rejection of Fishman’s claim that reversal of language shift requires a diglossic arrangement along the way (1991: 85). Again to the contrary, reversing language shift manifestly entails reclaiming for L at least certain domains formerly surrendered to H — but not just any domains. What the study of diglossia in its narrowest of senses teaches us is that it is the uncompromising recovery of the vernacular domains of interaction, and most particularly that domain in which L is transmitted directly from generation to generation, that lies at the

heart of the process of reversing language shift, just as it lay at the heart of the revernacularization of Hebrew, almost within our own time". (Hudson et al. 1995: 179, in Hudson, 2002: 161).

Horrek guztiak, jakina, RLS edo HINBERa garamatza. Hizkuntza ahulduak indarberritzeko pauso posibleen (eta pauso horien arteko lehen-tasun-mailen, ardatz-gunearen eta etekin-neurketaren) alorrera. *Can Threatened Languages be Saved?* Liburuan, RLS argitaratu eta handik hamar urtera kaleratutakoan, honela formulatzen du Fishman-ek pauso-neurri posibleen sekuentzia:

STAGES OF REVERSING LANGUAGE SHIFT: SEVERITY OF INTERNATIONAL DISLOCATION

1. Education, work sphere, mass media and governmental operations at higher and nationwide levels.
2. Local/regional mass media and governmental services.
3. The local/regional (i.e. non-neighborhood) work sphere, both among Xmen and among Ymen.
- 4a. Public schools for Xish children, offering some instruction via Xish, but substantially under Yish curricular and staffing control.
- 4b. Schools in lieu of compulsory education and substantially under Xish curricular and staffing control.

II. RLS to transcend diglossia, subsequent to its attainment

5. Schools for literacy acquisition, for the old and for the young, and not in lieu of compulsory education.
6. The intergenerational and demographically concentrated home-neighborhood-community: the basis of mother tongue transmission.
7. Cultural interaction in Xish primarily involving the community-based older generation.
8. Reconstructing Xish and adult acquisition of XSL.

II. RLS to attain diglossia (assuming prior ideological clarification)

Bistan da 6. pausoa dela horko ardatza, oinarria eta ezinbesteko helburua, euskalgintzaren errotari behin eta berriz hutsetik eragiten hasiko ez bagara belaunez belaun. Diglosia eskuratzea da hor, argi dagoenez, lehenik eta behin lortu beharreko neurria. Euskaraz bizi diren (eta, klarifikazio ideologiko argiaz, hala bizi nahi duten) euskaldunek

Gizarte berri-modernizatuan ez da batere erraza lehengo diglosia zaharrari eustea edo diglosia-molde berri bat eratu eta zabaltzea. Paraje inhospittoa da modernitatea, gurea bezalako hiztun-herri txikiiontzat. Auzotarrek (agintari eta auzolagun) alde bagenitu ere gure indarberritze-saioan, hitzez eta egitez, eta geuk ere gogotik egingo bagenu asmo horren alde, orduan ere ez litzateke erraza euskal konstelazio etnolinguistikotxiki hau diglosia-giroan mantentzea edo hartara eramatea.

bakarrik atera dezakete aurrera euskara, eguneroko bizimodu arruntean txertaturik²⁰⁵. Zenbat eta euskara indarberritzeko saioa euskaraz bizi den hiztun-taldetik urrunago planteatu edo aplikatu, orduan eta arrakasta-aukera urriagoa izango du. Horrek guztiak, jardun-guneak eta harreman-sareak, funtzioak eta esparruak bereiztea eskatzen du: hots, beharizan horien araberako diglosia eratu eta indarrean eustea.

Badakit, ondo asko, euskaltzale askoren buruan beste paradigma batek duela erakarmen-lilura handiena: euskal eskolak gure arazo guztiak konponduko ditueneko paradigmak. Guztiok dugu paradigma horren ardatza gogoan: “Bidal ditzagun haur guztiak (eta guztiak ezin bada, ahalik eta gehienak) D ereduko eskolara, eta handik (pulumen-tuzko eskola antolatzen dugunean behingoz) behar bezala euskaldundurik aterako zaizkigu gazte-gaztetxoak oro. Hortik aurrera, gauza erraza da: gizarte-bizitzako esparru gehienak (administrazioa, komunikabideak, baita lan-esparrua ere) euskaraz dakiten eta euskaraz funtzionatuko duten hiritar euskaldun gazteez hornituko ditugu, eta kitto”. Kontua da paradigma hori martxan dugula 40 urte inguru, eta ondorioak ikusten hasteko ordua iritsia dela aspaldi. Ahuldutako hizkuntza ikasgelara mugatzen bada praktikan, gero handik kanpora berez hedatuko delakoan, ez da soziolinguistikazko ezagutza handirik erakusten. Horrela jokatzuz gero, gure artean hain maiz gertatzen den gisa, hizkuntza horrek ez die balio izango gazteei beren lagunekin eta auzoko ezagunekin jarduteko, salerosketan eta kaleko joan-etorrietan erabiltzeko, euskarazko lagunarte berriak osatzeko eta, bere garaian, gizarte horretan aurrera egiteko. Hori guztia lortuko bada, oso bestela jokatu behar du eskolak: euskaraz diharduen eguneroko bizimoduarekin konektatu behar ditu gazteok. Horretarako, berriz, euskarazko ingurumen eta bizimodu arrunt horretan txertatu behar dira haurrak eskolara joan aurretik, eskola-urteetan eta eskolatik irten ondoan. Mundu itxia bihurtzeko arrisku handia dute eskolek (beren agintariak, beren arauak, beren aurrekontuak, beren zigor-ordainak,...). Lan-mundu isolatua bihurtzeko arriskua dute. Gizartearen eguneroko bizimodu arruntetik isolatzen diren neurrian, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko duten ahalmena ere kamustu egiten zaie eskolei, gesaldu eta, azkenean, ezabatu. Euskarazko auzogintza osasuntsu eta gizarte-osaera arnas zabaleko batean txertatu behar dira eskolak, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan berariazko ekarpen sendorik egingo badute²⁰⁶. Eskolen ekarpena ohargarria izan liteke euskaraz ondo (hainbatean, ez hain gutxi) dakiten belaunaldi berriak sortzeko edo indartzeko orduan. Baita euskalgintzaren motiboak eta bideak, irismenak eta helburuak, argitzen saiatzeko

ere. Hori ez da aski, ordea: euskarazko ingurumen arruntean (eguneroko bizimoduari dagozkion gorabeheretan) txertatu behar dute gazte horiek beren jarduna eta, lehenago edo beranduago, beraiek bezala euskaraz jarduten duten eta euskarazko bikote-bizitza eraiki nahi dutenekin elkartu, euskal familia bat sortuz. Familia euskaldun berri baten ernamuin horrek bakarrik garantzia dezake, perspektiba kolektiboan, hizkuntza horren belaunez belauneko transmisioa. Euskara indarberritu nahi duten eskolek eskolaz kanpoko eta eskola ondoko euskal gizartegintzan jardun behar dute, horregatik, ikasleek ere argi ikus dezaten zergatik ari diren euskarazko ahaleginean. Horrek, berriro esan, eskolaren garrantzia (handia, dudarik gabe) gizarte-bizitzako beste jardun-guneen argitan antolatzea eskatzen du. Eta horrek, berriro ere, euskaraz ezinbestean zer eratu nahi den argitu, adostu eta inplementatzea: diglosia molde berri bat eratzea.

Hori egiten ez bada, *Intergroup social dependency* harreman moldeak bere bidea egiten du eta, ordainsari- eta zigor-debekuen sistema biak hain desorekatuak izanik indar-ahalmenez, hiztun-talde indartsuena ateratzen da horrelakoetan garaile. Berak ezarritako ordainsari- eta zigor-sistema sozialak erasan egiten du, lehentxeago edo beranduxeago, ahuldutako hiztun-elkartea. B elkarte horretako kide ona, azkarra, gizarte berrian gora egiteko kapaza argi dago handik aurrera zein den: K hizkuntza ondo ikasten duena eta hartaz trebe baliatzen dena. Mendekotza horrek Bdunen etxe-auzo-lagunarte esparru-multzoa erasaten du azkenik. Hor ere, azkenean, etxean ikasten dute Bdunen seme-alabek Kz hitz egiten. Hor burutzen da *language shift* edo mintzaldatze-lana. Hor bukatzen da diglosia. Mintzaldaketa horri freno (freno partziala, baina egingarria) jarriko dion eramoldea behar da: horrelako diglosia behar da, hemen eta orain.

5.5 Nolako diglosia da posible, hemen eta orain?

Community fostering

J.A. Fisman-en 1991ko *Reversing Language Shift* liburuaren ardatzari deitu izan diot nik, labur beharrez, *community fostering*²⁰⁷. *Community*-giroa indartu, osatu eta zabaltzeaz dihardu Fishman-ek, behin eta berriro, 1991ko bere liburuan eta 2001ean, haren osagarri-edo, argitaraturikoan²⁰⁸. Neurritz zabal doan txostenean, atal honekin eman nahi diot amaiera diglosiaren gaineko gogoeta-saio honi. Arnasguneetako diglosia-bide eskuragarrienaz jardungo dut gaurkoan.

Familian eutsi behar zaio batetik, gorago esan denez, euskarari: herriarren gogoia eta deliberamendua gabe, ez dago euskal arnasguneetan

**Arazoi zuten
Azaolak,
Txepetxek eta
Mitxelenak
euskarak “bere
lekua”, “jaun eta
jabe” izango den
bere gune fisiko-
territorial edota
soziofuntzionala
behar duela
ziotenean. Ez
zebiltzan oker: ez
ziren ezinezko
zerbait
planteatzen ari,
nahiz eta ez zuten
jakin, urrundik
ere, “locus” edo
“nicho” hori
justu nolakoa
izan zitekeen, edo
nola eratzea
komeni zen,
zehazten.**

ere aurrera egiterik. Estatistikak dio, ordea, justu arnasmune horietan egiten dela etxean gehien euskaraz. Ez da aski senar-emazteek haurrei euskaraz egitea eta beraiek, elkarren artean, etengabe erdarara jauzi egitea. Eredu eta pizgarri izan behar dute gurasoek (bai eta, hartarako interakzio-modurik dagoenean, aitona-amonek edo gainerako senitartekoek ere) euskararen erabilera arruntan, normalean, eguneroko joan-etorri xume gehienei dagozkienetan, nahiz eta gero bankuko idazkian, aseguru-etxe-koan eta beste hainbat dokumentutan erdal munduarekin topo egin. Arazo nagusia, dudarik gabe, komunikabideekin eta IKTekin dago arnasmuneetan: paperezkoekin batetik, irratsaioekin bestetik, telebistarekin hurrena eta internet zein antzeko lotura digitalekin azkenik. Hori da egungo egunean arnasmuneen indargabetzaile nagusietako bat. Ezin zaie hiritarrei beren gustu eta jakingura osoa aseko lukeen euskal telebista, euskal prentsa eta IKT multzorik eman. Posible da, ordea, herritarren interes hurbila erakartzen duten gaiak euskaraz landu eta zirkulazioan jartzeta. Hurbileko esparru hori irabazi beharra dago, euskarazko familia-bizitza gesalduko ez bada. Gauza batzuk euskaraz eta besteak erdaraz izango direla arnasmuneetako familia-giroan ere onartu beharko dugu, batez ere euskarazko jarduna lehenetsiz bizimodu arruntaren gorabeherak eta solaskide ezagunen arteko pasadizoak direnean mintzagai, eta ahozko jarduna denean mintzabide. Jarduera-espektru hori indarrean mantenduko duen diglosia behar da orain ere, lehenik eta behin, etxe-giroan.

Bestalde, kalean (tabernan, dendan, kiroldegian, elizan, soziedadean) gogor eutsi behar zaio euskarazko jardunari. Hori ere ez da zeharo ezinezkoa, kontzentrazio demografikoaren ikuspegitik. Badaude ordea motiboak (Klusteraren kale-neurketak, kasu), kale-giro horretan orain arte arnasmune sendo izandako batean baino gehiagotan atzerabide nabarmena gertatzen ari dela uste izateko. Hor dago, konkretuki, lehen-tasun-esparru argia.

Alde dute arnasmuneek oro har, dudarik gabe, eskola: euskaraz ikasten dute eskolan, arnasmuneetako neska-mutil gehienek, Haur-Hezkuntzako hasiera-hasieratik Bigarren Hezkuntzara arte. Bigarren Hezkuntza ere, partez edo osoz, euskaraz egiten dute hainbatean (unibertsitate-ikasketak ere bai, hainbatek). Eskolak hor ere dituen ahuldadeak ez gara errepikatzen hasiko: haurrek loturik ikusi eta sentitu behar dituzte eskola eta herri-bizitza.

Aparteko saioa egin behar da auzogintzan. Bertako herritarrek (edo ingurukoek) antolaturiko mila auzo-langintza daude egungo egunean, euskalgintzaren ohiko formulazioetan kontuan hartzen ez direnak baina konpartimentazio soziofuntzionalaren aldetik oso beharrezko direnak:

familiako beharrak (zaharrak, haur txikiak eta gaixoak zaintzea), bertatik bertarako garraioa eta janari-zerbitzuak, kirol-antolamenduak eta beste asko euskaraz moldatu ezinik ez dago. Horretarako ez da erdaraz jarduteko baino diru gehiago behar, alde batetik, eta bertako hainbaten diru-iturri bihur liteke zerbitzugintza hori. Horrek guztiak, jakina, ezinbestekoa bihurtzen du hizkuntza ahula zerbitzu-esparru horretan: inor behartu gabe normal-normal eraturia eta aplikaturia. Ez dago hori baino konpartimentazio molde osasuntsuagorik, gurea bezalako hiztun-elkarte ahulduen kasuan.

Oso kontuan hartzekoak dira konpartimentazioari eusteko neurriak, orobat, hirigintza alorrean. Arnasguneek segurtaturik izan behar dute, nabarmenki desitxuratu eta gesalduko ez badira, hirigintzaren alorreko autorregulazio-maila arrazoizko bat: bertako euskaldunek ezkontzera ezinbestean kanpora joan beharrik ez izatea (udal-arauek ezinezko edo prohibitibo bihurtzen dutelako bertakoen seme-alabek bertan etxeak egitea edo erostea), eta beste aldetik kanpotarren uholde masiboak kontrolatzea, arras mesedegarritzko neurriak dira, beti ere pertsonen eta gainerako instantzien erabakimen-esparruak alde batera utzi gabe. Hori guztia kontuan izanik ere orain arte baino ondotoz gehiago egin liteke arnaguneen kontzentrazio demografikoa babesteko. Ondotoz gehiago egin liteke eta egin beharko da, ohiko kontzentrazio hori belaunaldi batean edo bitan xahutu nahi ez bada.

Astia eta jolasa, denbora librea eta kirola antolatzeko eta aplikatzeko moldea ere kontuan har liteke, euskarari bere leku normala segurtatuz aparteko indar-neurri larririk gabe. Garrantzi handia du neurri horiek indarrean izatea: herritar askoren esna-denboraren zati handi bat egin-kizun horietan xahutzen da egungo egunean.

Lan-munduak osatzen du, azkenik, arnaguneetako euskarazko bizimoduaren mehatxu-gune handienetako bat: lanera kanpora joan behar izaten da maiz, euskarazko solaskideen kontzentrazio demografikoa ondotoz ahulagoa den ingurumenetara. Mintzagaiak eta idatzizko jardunak aparteko eragozpena erantsi ohi diote lan-esparru horretako euskal jardunari. Posible da hor ere, ordea, hizkuntza-baliabideak eta euskarazko harreman-sareak sendotzea. Funtsezkoa da elementu hori ere, bai talde txikitan eta bai, ahal balitz, sekzio osoetan. Behar-beharrezkoa du hiztun-talde batek, XXI. mende honetan, lan-munduan ere euskaraz bere ordainsari-tasa izatea, haur-jolas hutsean geldituko ez bada indarberritze-saio guztia.

Dagoenari eustea da, batetik, arnaguneetan lehentasun osozkoa. Euskaldunek euskaldunekin partez edo osoz euskaraz jarduten duten

Euskaraz bizi diren familien eta auzoen, kale-bizitzan euskara nagusi duten herri-herrixken eta eskualdeen eta, hortik gora, gizarte-bizitzan euskarazko harreman-sareen babesle eta indargarri izango den diglosia behar dugu. Bizirik dauden euskal familiak eta familiaz gainera euskarazko harreman-sareak bizirik mantentzen lagunduko duen diglosia. Euskal familiek euskal bizia mantendu, eratu eta ondorengoetaratu behar dute. Etxean eta auzoan, aste-egunez eta aste-buruz, euskal giroa sortu, garatu eta aberastuko duten hiztun-taldeak behar ditugu.

(eta, gauzak txukun antolatuta, jardun dezaket) espazio geografikoak eta soziofuntzionalak izan behar ditugula langintza osoaren bihotz eta hauspo: herri (eta, ahal den neurrian, eskualde) euskaldunak (gehienak euskaldun izanik euskaraz jardutea arau nagusi edo, gutxienez, ohar-garri den horietarikoak) alde batetik. Bestetik, berriz, euskarak betidanik bereak izan dituen etxea eta familiartea, auzoa eta kale-giro arrunta, ohiko kultur bizitza eta lan-mundu hurbila.

Horiek zaindu eta osatu, zabaldu eta aberastu egin behar dira. Horretarako guztirako, jakina, lekuan lekuko eta kasuan kasuko ekin-tza-moldeak antolatu, babestu eta aitzinatu behar dira. Goitik behe-rako plangintza orokor, bakar, erabatekoaren zain dagoenak jai du. Zabaltze-osatze horiek ere ikuspegi demoterritorialetik zein sozio-funtzionaletik egin behar dira, bere buruari eutsi diezaioketen eta belaunez belauneko jarraipen-bidearen indargarri izango diren neurri konkretuen ildotik. Ikasle erdaldunen euskalduntzea ere, haur eta gazte, ikuspegi demolinguitiko-territorial horretan txertatzea komeni da.

Ahozko jarduna zeharo lehenasunezkoa izanik ere, idatzizkoa ez dago XXI. mendean bazter batera uzterik. Munduko eskualde modernizatuetan hiztun-herriek (euskaldunok, adibidez) behar-beharrezkoa dugu gure hizkuntza, hitzez ezezik, idatziz ere erabiltzen jakitea. Hitzez eta lumaz jarduten jakite horrek aukera eroso ematen digu gure arteko harreman-sare “berriak”, supralokalak eta birtualak, eratzeko eta probetxuz erabiltzeko. Euskal eskola eta euskaltegiak beharrezkoak dira, hortaz, azken bi puntuon ildotik.

Hiztun-herri txikion etorkizuna, ia beti, eleanitza eta kulturantza izango da. Elebakartasun territorial erabatekorik nekez, arnagune jakinetatik kanpora bereziki oso nekez, gu bezalako hiztun-herri txiki-ahul batek inon (Europa moderno, interaktibo, supraetniko honetan inon baino gutxiago agian) eskura dezake. Geure asmoak eta atsegin-bideak beste enfoke global-gizatiarrago batean txertatzen eta aberasten ikasi behar dugu hortaz²⁰⁹. Diglosiazko hesi-mugez zurkaiztu beharko da sarri, hortik gorako konpartimentazio fisiko-territorialik eratu ezingo denez, hiztun-elkarte horien bizimodua. Ez da zerua, bistan da, baina infernutik libratzeko balio izan dezake. Horregatik da, besteak beste, purgatorioa. Errespetua eta begirunea zor diogu kontzeptuari, besterik ez balitz ere mendeetako gure ibilera historikoaren testigu isil baina eragingarria izana dugulako. Eta interes intelektual apur bat ere merezi du, nola ez, aurrerabideko gure bizibidearen oinarrietako bat izango delako seguruenik. ●

BIBLIOGRAFIA

I

- Alonso Montero, X. (1973): *Informe –dramático– sobre la lengua gallega*. Madrid: Akal.
- Ammon, U. (1989): "Toward a Descriptive Framework for the Status/Function (Social Position) of a Language within a Country". In U. Ammon ed., *Status and Function of Languages and Language Varieties*. Berlin eta New York: Walter de Gruyter.
- Aracil, Lluís V. (1965): *Conflit linguistique et normalization linguistique dans l'Europe nouvelle*. Nancy: Centre Universitaire.
- (1968): *Introducció a E. Escalante, Les xiques de l'entresuelo. Tres forasters de Madrid*. València: Garbi.
- (1979a): "Educació i sociolingüística", in *Treballs de sociolingüística catalana 2*. València.
- (1979b): "Substitució lingüística", in *Ictineu, Diccionari de les Ciències de la Societat als Països Catalans*. Erabilitako iturria 1982ko *Papers de sociolingüística*, 115-20 or.
- (1982): *Papers de sociolingüística*. Barcelona: Edicions de la Magrana.
- Azurmendi, Maria-Jose (1977) *Euskaltzaindiaren El Libro Blanco del Euskara-ko atala*.
- (2002) "Comentarios", in *IJSL 157*, 49-58 or.
- Babiniotis, G. (1979a). *Neohelliniki Koine: Pera tis katharevousis kai tis Demotikis* [Neohelliniki Koine: beyond Katharevousa and Demotiki]. Athens: Grigoris.
- (1979b): A linguistic approach to the "language question" in Greece. *Byzantine and Modern Greek Studies 5*, 1–16. Frangoudaki, 2002.
- Badia i Margarit, Antoni Maria (1964): *Llengua i cultura als Països Catalans*. Barcelona: Ed. Publicacions De L'abadia De Montserrat.
- (1967): "Some aspects of bilingualism among cultured people in Catalonia", in *Proceedings of the 9th International Congress of Linguists*, 366-73 or.
- (1976): "Ciencia i passió dins la lingüística catalana moderna. Barcelona, Universitat de Barcelona.
- (1977a): "Entorn de la sociolingüística catalana: precedents, dificultats, contingut, objectius", in *Treballs de sociolingüística catalana, 1 (1974-1976)*, Ponències al VIIIè Congrés Mundial de sociologia (Toronto). València.
- (1977b): "Lenguas en contacto: bilingüismo, diglosia. Lenguas en convivencia (con especial atención al catalán)", in R. Lapesa koord. *Comunicación y lenguaje*, 107-33 or.

- (1979): “El Grup Catalá de Sociolingüística i el Seminari Internacional de Sociolingüística de Perpinyá (Juliol 1977)”, in *Treballs de sociolingüística catalana*, 2 (Valentzia).
- Baker, Colin eta Sylvia Prys Jones (1998): *Encyclopedia of Bilingualism and Bilingual Education*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Bernardó, Domènec / Rieu, Bernat (1977): “Diglòssia a Catalunya Nord”, in *Treballs de sociolingüística catalana* 1 (1974-1976). Valencia, Eliseu Climent, 55-62 or.
- Beziers, M. eta M. van Overbeke (1958): *Le bilinguisme*. Université Catholique de Louvain.
- Boix, Emili eta F. Xavier Vila, (1998): *Sociolingüística de la llengua catalana*. Barcelona: Ariel.
- Boyer, Henry (1986): “‘Diglossie’: un concept à l’épreuve du terrain. L’élaboration d’une sociolinguistique du conflit en domaines catalan et occitan”, in *Lengas*, 20: 21-54 or.
- (2001): *Introduction à la sociolinguistique*. Paris: Dunod.
- Britto, F. (1986) *Diglossia: A Study of the Theory with Application to Tamil*. Washington, D.C.: Georgetown University Press.
- Calvet, Louis-Jean (1993). *La Sociolinguistique*. Paris: Presses Universitaires de France.
- Campion, A. (1983): *Obras completas II*. Mintzola Ed. Iruña.
- Caro Baroja, Julio, (1949): *Los Vascos*. Donostia: Biblioteca Vascongada de Amigos del País. Erabilitako argitaraldia hirugarrena.
- Caton, S. C.: “Diglossia in North Yemen: a Case of Competing Linguistic Communities”, in *Southwest Journal of Linguistics*, 10/1: 143-59”.
- Congrés de Cultura Catalana (1978): *Resolucions I*. Barcelona: Curial, Edicions Catalanes
- Conill, Josep J. (2007): *Del conflicte lingüístic a l'autogestió: materials per a una sociolingüística de la complexitat*. Barcelona: Institut d’Estudis Catalans.
- (2008): *Submarins de butxaca*. Barcelona. Pagès Ed.
- Couderc, Ives (1976): “Le francitan et la question linguistique”, in *Cahier n° 3, Groupe de Recherche sur la diglossie*, 18-24 or. Montpellier: Université Paul-Valéry.
- Deutsch, Karl W. (1953): *Nationalism and Social Communication: An Inquiry into the Foundations of Nationality*. Cambridge, MA: Technology Press; John Wiley & Sons.
- (1975): “The political significance of linguistic conflicts”, in *Les Etats multilingues: problèmes et solutions. Multilingual political systems: problems and solutions*. Québec: Presses de l’Université Laval, 7-28.

- Dodille, Norbert, (1997): *Littérature et diglossie à la Réunion des années 1970 à nos jours*. Centre de Recherches Littéraires et Historiques de L'Océan Indien.
- Euskaltzaindia-Siadeco, (1977): *El Libro Blanco del Euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fasold, Ralph W., 1984: *The sociolinguistics of society*. Oxford: Basil Blackwell Inc.
- 2002: "The importance of community", in *IJSL* 157 (2002), pp. 85–92
- Ferguson, Charles A., 1959: "Diglossia", in *Word* 15, 325-40. Erabilitako iturria: (1964) *Language in Culture and Society*, Dell Hymes (ed.), 429–439. New York: Harper and Row.
- 1973: "Language problems of variation and repertoire". *Daedalus* 102(3), 37–46.
- 1991: "Diglossia revisited". *Southwest Journal of Linguistics* 10(1), 214–234. Erabilitako iturria
- *Understanding Arabic*, Alaa Elgibali (ed.), 49– 67. Cairo: American University in Cairo Press.
- Fernández, Mauro (1978): "Bilingüismo y diglosia", in *Verba*, 5: 377-91 or.
- (1993). *Diglossia: A Comprehensive Bibliography 1960–1990, and Supplements*. Amsterdam: Benjamins.
- 1995: "Los Origenes Del Término Diglosia: Historia De Una Historia Mal Contada", in *Historiographia Linguistica*, 22 vol., 1-2 zkiak, 163-195 orr.
- 2005: "Leyenda e historia del término diglosia: su invención y primera expansión", in Luis Santos Ríó eta abar ed. *Palabras, norma, discurso: en memoria de Fernando Lázaro Carreter* 447-464 or.
- Figuerola, Antón (1988): *Diglosia e texto*. Vigo: Xerais.
- Fishman, Joshua A. (1964): "Language maintenance and language shift as a field of enquiry". OSATU
- (1965): "Who speaks what language to whom and when?", in *La Linguistique*, I, 2. zkia, 67-8.
- (1966): *Language Loyalty in the United States*. The Hague: Mouton.
- (1967): "Bilingualism with and without diglossia: diglossia with and without bilingualism", in *Journal of Social Issues* XXIII, 2. zkia, 29–38 or.
- 1972: *Sociolinguistics: A Brief Introduction*. Rowley, MA: Newbury House.
- 1980: "Bilingualism and Biculturalism as Individual and as Societal Phenomena", in *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 1. zkia., 3-15 or. Erabilitako iturria Fishman 1989: 181-201 or.
- (1985): *The Rise and Fall of the ethnic Revival*. Berlin: Mouton de gruyter.
- 1987 (erabilitako iturria 1989): "Language spread and language policy for endangered languages", in *Language and Ethnicity in Minority Sociolinguistic Perspective*, 389-402.

- (1989): *Language and ethnicity in minority sociolinguistic perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- (1991): *Reversing Language Shift*. Clevedon: Multilingual Matters.
- (2001a) "Why is it so hard to save a Threatened language?", in *Can threatened languages be saved?*, 1-22.
- (2001b): "From Theory to Practice (and Vice Versa): Review, Reconsideration and Reiteration", in Joshua A. Fishman ed., (2001), 451-83 or.
- Fishman, Joshua A., ed., (2001): *Can threatened languages be saved?* Clevedon: Multilingual Matters.
- 2002: "Diglossia and societal multilingualism: dimensions of similarity and difference", in *IJSL* 157, pp. 93-100
- Frangoudaki, A. (1978). *O ekpaideftikos demotikismos kai o glossikos simvi-vasmos tou 1911* [Education Demoticism and the Linguistic Compromise of 1911]. Joannina: University of Joannina Press.
- 1997: "The metalinguistic prophecy on the decline of the Greek language: its social function as the expression of a crisis in Greek national identity", in *International Journal of the Sociology of Language* 126, 63-82.
- 2002: "Greek societal bilingualism of more than a century", in *IJSL*, 157 (2002), 101-107 or.
- Garate, Gotzon (2000): "Euskal Herria elebidun", in *JAKiN*, 2000ko azaro-abenduak, 121. zkia, 81-101 or.
- (2007): "Diglosiaren Ondorioak" in *Argia* 2091. zkia, 2007-6-03
- Gumperz, John J. (1962): "Types of linguistic communities", in *Anthropological Linguistics*, IV, 28-40 or.
- (1964): "Linguistics and social interaction in two communities", in *American Anthropologist*, LXVI, 137-53 or.
- Haas, Walter, 2002: "Comment", in *IJSL*, 157, pp. 109-15.
- Hamel, E. eta M. T. Sierra (1983): "Diglosia y conflicto intercultural", in *Boletín de antropología americana*, 8.
- Hartular (Artukar), Anka (1987): "Bilingualism and diglossia. Terminological aspects", in *Revue Romaine de Linguistique* (Bucarest), XX-XII, 245-7 or.
- Haugen, Einar (1966): *Language Conflict and Language Planning: the Case of Modern Norwegian*. Cambridge: Harvard University Press.
- Holm, J. A.: 1988: *Pidgins and Creoles, vol. 1: Theory and Structure*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Holmes, Janet (1992, (Hirugarren edizioa 2008): *An Introduction to Sociolinguistics*. London eta New York: Longman.
- Hudson, Alan, 1992: "Diglossia: a bibliographic review", in *Language in Society*, 21: 611-674.

- 2002a: “Outline of a theory of diglossia”, in *IJSL*, 157: pp. 1–48
- 2002b: “Rebuttal essay. Diglossia, bilingualism, and history: postscript to a theoretical discussion”, in *IJSL*, 157: 151–165 or.
- Isasi, Xabier (2002). “Koldo Mitxelenaen ghettotik euskararen unibertsoa”, in *Jakin* 130-131 zkiak: 79-93 or.
- Jardel, Jean-Pierre 1981: “Le concept de diglossie de Psichari à Ferguson” in *Colloque de Montpellier sur la diglossie*. Montpellier: Université de Montpellier.
- Kaye, Alan S., 2002: “Comment” in *IJSL*, 157: 117–125 or.
- Kloss, Heinz (1966): “Types of multilingual communities”, in *Social Inquiry*, XXXVI, 135-45 or.
- (1976): “Über Diglossie”, in *Deutsche Sprache*, IV, 313-23 or.
- Kortazar, Jon (2008): “Diglosia y literatura vasca”, in *Cuadernos de Alzate*, 38. zkia, 109-39 or.
- Kremnitz, Georg (ed.) (1979): *Sprachen in Konflikt: Theorie und Praxis der katalanischen Soziolinguisten. Eine Textauswahl*. Tübingen: Günter Narr.
- (1981) “Du ‘bilinguisme’ au ‘conflit linguistique’”. Cheminement de termes et de concepts”, in *Langages*, 61. zkia, 63-74 or.
- (1987): “Diglossie: Possibilités et limites d’un terme”, in *Lengas* 22: 199-213.
- (1990): *Gesellschaftliche Mehrsprachigkeit. Institutionelle, gesellschaftliche und individuelle Aspekte. Ein einführender Überblick*. Wien: Braumüller.
- Krumbacher, Karl, 1902: *Das Problem der neugriechischen Schriftsprache*. München: Königliche Bayerische Akademie.
- Lafont, Robert (1971): “Un problème de culpabilité sociologique : la diglossie franco-occitane”, in *Langue française*, 9. zkia., 93-99 or.
- (1977): “Sobre el procés de patoisització”, in *Treballs de sociolingüística catalana* 1, 131-6. Orobat in (1976): Albert Verdoot eta Rolf Kjolseth, edk., *Language in Sociology*, 125-34 or. Louvain: Peeters.
- (1979): “La diglossie en pays occitan ou le réel occulté”, In *Bildung und Ausbildung in der Romania. Akten des Romanistentages Gießen 1977*. München, Fink, vol. II, 504-12 or.
- (1982): “Le discours ideologique dans l’enquête sur la diglossie”, in *Cahiers de Linguistique Sociale*, 4-5 zkiak, (Actes du Colloque de Montpellier: “Situations de diglossie”).
- (1984a): “Pour retrousser la diglossie” in *Lengas*, 15. zkia, 5-36 or.
- (1984b): “La neurosi diglossica”, in *Lengas*, 16, 5-21 or.
- (1986): “Quand le germanique triomphe de la diglossie: le moine Otfried (IX^e siècle)” in *Lengas*, 20, 7-16 or.
- Lapesa, R. coord. (1977): *Comunicación y lenguaje*. Madrid: Karpos.

- Lüdi, Georges (1989): «Situations diglossiques en Catalogne», in Günther Holtus, Georges Lüdi eta Michael Metzger ed. *La Corona de Aragón y las lenguas románicas. Miscelánea de homenaje para Germán Colón*. Tübingen: Narr, 237-65 or.
- Marçais, W., 1930: “La diglossie arabe”, in *L’Enseignement Public* t. 104/12: 401-98 or., t. 105: 20-39 eta 120-33 or.
- Marfany, Joan-Lluís (2008): *Llengua, nació i diglòssia*. Barcelona: L’Avenç
- (2010): “Sociolinguistics and some of its concepts: a historian’s view”, in *IJSL* 206, 1-20.
- Martinet, André (1982): “Bilinguisme et diglossie. Appel à une vision dynamique des faits”, in *La Linguistique*, XVIII, 1. zkia, 5-16 or.
- Memmi, Albert 1957: *Portrait du colonisé. Portrait du colonisateur*. Paris. Gallimard.
- Michelena, Luis, (1974): “Las lenguas y la política”, in *Doce ensayos sobre el lenguaje*, 119-37 or. Gero (1985) in *Lengua e historia*, Madrid: Paraninfo, 178-90 or.
- 1977: “El largo y difícil camino del euskara”, in *Euskaltzaindia-Siadeco El Libro Blanco del Euskara*, 14-29 or.
- Ninyoles, Rafael Lluís (1969): *Conflicte lingüístic valencià. Substitució lingüística i ideologies diglossiques*. València: Tres i Quatre. Erabilitako iturria bigarren argitaraldia, 1978koa.
- (1971): *Idioma i prejudici*. Palma de Mallorca: Ed. Moll. Erabilitako iturria hirugarren argitaraldia, 1982koa.
- (1972): *Idioma y poder social*. Madrid: Tecnos.
- (1975): *Estructura social y política lingüística*. Valencia: Fernando Torres.
- (1976): *Bases per a una política lingüística democrática a l’Estat Espanyol*. Valentzia: Tres i Quatre.
- (1977): *Cuatro idiomas para un estado*. Madrid: Editorial Cambio 16.
- Odrozola, Joxe Manuel, 1993: *Soziolinguistikaren Atarian* (Mikel Zarate Saria, 1992). Bilbo: Euskaltzaindia / Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Paulston, Christina Bratt, 2002: “Comment”, in *IJSL*, 157: 127–34 or.
- Paulston, Christina Bratt eta G. Richard Tucker, 1998: *The Early Days of Sociolinguistic: Memories and Reflections*. Dallas: Summer Institute of Linguistics.
- 2003: *Sociolinguistics. The Essential Readings*. Oxford: Blackwell publishing Ltd.
- Pauwels, Anne (1987): “The concept of Diglossia in the Study of Language Maintenance in Australia”. In Veit, Walter (ed.) *Antipodische Aufklärungen Antipodean Enlightenment*. Festschrift für Leslie Bodi. Frankfurt am Main/Bern/New York, 355-65 or.

- Pernot, H., 1897: *Grammaire grecque moderne*. Paris: Garnier Frères.
- Prudent, Lambert-Félix, (1981): "Diglossie et Interlecte", in *Langages*, 61. zkia, 13-38 or.
- Psichari, Jean (1885koa SARTU) (1928): "Un pays qui ne veut pas de sa langue", in *Mercure de France*, CCVII, 63-121 or.
- Py, Bernard (1986): «Un exemple de diglossie instable: la famille migrante», in *Lengas*, 20: 17-20.
- Rash, Felicity (1998): *The German Language in Switzerland: Multilingualism, diglossia and variations*. Bern: Peter Lang.
- Rieusset, Isabelle (1975 eta 81 artean): "Le sujet diglossique", in *Lengas*, 13. Zkia, 25-34 or.
- Rojo, Guillermo (1985): "Diglosia y tipos de diglosia", in *Philologica Hispaniensi in honorem Manuel Alvar*, II. vol., Madrid: Gredos, 603-17 or.
- Ruiz i San Pascual, Francesc, Rosa Sanz i Ribelles, Jordi Solé i Camardons, 2001: *Diccionari de Sociolingüística*. Barcelona: Enciclopèdia Catalana.
- Sánchez Carrión, José M. "Txepetx" (1974): "Bilingüismo, disglosia, contacto de lenguas. Hacia una delimitación de conceptos", in *Anuario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 3-79 or.
- Sotiropoulos, Dimitrios (1982): "The Social Roots of Modern Greek Diglossia", in *Language Problems & Language Planning*, vol 6, number 1, pp. 1-28.
- Sethe, K. (1925). "Das Verhältnis zwischen Demotisch und Koptisch und seine Lehren für die Geschichte der ägyptischen Sprache". In *Zeitschrift der Deutschen Morgenländischen Gesellschaft* 79, 290–316.
- Sgroi, S. C., 1981: "Diglosia, prestigio, italiano regionale e italiano standard: proposte per una nuova definizione". In *La Ricerca Dialettale*, 3: 203-48 orr. Orain, zabaldurik, in *Enna: Il Lunario* 1994: 19-95 orr.
- Snow, Don (2010a): "Diglossia in East Asia", in *Journal of Asian Pacific Communication* 20(1), 124-51 or.
- (2010b): "Hong Kong and modern diglossia", in *IJSL* 206, 155-79 or.
- Spolsky, B. (1991): "Diglossia in Hebrew in the Late Second Temple Period". *Southwest Journal of Linguistics* 10/1: 85-104.
- Steinmetz, Alexander, (1936): "Schrift- und Volkssprache in Griechenland", in *Deutsche Akademie, Mitteilungen*, 370-9 or.
- Stewart, W. A. (1968): "A Sociolinguistic Typology for Describing National Multilingualism", in *Readings in the Sociology of Language*, Joshua A. Fishman ed. The Hague: Mouton.
- Tabouret-Keller, Andrée (1982): "Entre bilinguisme et diglossie: du malaise des cloisonnements universitaires au malaise social", in *La Linguistique*, XVIII, 1. zkia, 17-43 or.

- Valdman, Albert (1988): "Diglossia and language conflict in Haiti", in *IJSL* 71. zkia, 67-80 or.
- Vallverdú, Fr. (1968): *L'escriptor Catalá i el problema de la llengua*. Barcelona: Edicions 62.
- (1970): *Dues llengües, dues funcions? Per una història lingüística de la Catalunya contemporànea*. Barcelona: Edicions 62. Erabilitako iturria bigarren argitaraldi (moldatu)a, 1979koa.
- (1973): *El fet lingüístic com a fet social. Assaig de lingüística institucional*. Barcelona: Edicions 62.
- (1979): *La normalització lingüística a Catalunya*. Barcelona: Laia.
- (1980): *Aproximació crítica a la sociolingüística catalana*. Barcelona: Edicions 62.
- (1981): *El conflicto lingüístico en Cataluña: Historia y presente*. Barcelona: Ediciones Península.
- (1982): "Le catalan, un cas 'typique' de diglossie?", in *Cahiers de Linguistique Sociale*, 4-5 zkiak., (Actes du colloque de Montpellier: "situations de diglossie").
- Van Overbeke, M. (1972): *Introduction au problème du bilinguisme*. Brusela: Editions Labor. Paris: Nathan.
- Wexler, P. (1971): "Diglossia, Language Standardization, and Purism: Parameters for a Typology of Literary Languages", in *Lingua* 27: 330-354.
- Williams, Glyn (1992): *Sociolinguistics. A Sociological Critique*. New York: Routledge.
- Winford, Donald (1985): "The concept of "diglossia" in Caribbean creole situations", in *Language in Society* 14. zkia, 345-56.
- Zalbide, Mikel (1998): "Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas", in *RIEV*, (Revista Internacional de los Estudios Vascos) 43, 2, 1998, 355-424.
- (2000): "Irakas-sistemaren hizkuntz normalkuntza: nondik norakoaren ebaluazio-saio bat". In *Eleria* 5, 45-61.
- (2002): "Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?", in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Donostia: EHIK*.
- (2007): "Pedagogo Batzar Nagusietan", in *Euskera*, 52: 61-157
- (2009): "Interferentzia, hiztun garbien galera eta mintzaldaketa: Hiriar-Urrutiren garaiko zenbait korrelato" in *ASJU XLIII*, 2009, 1003-1034.
- (2010): "Hizkuntza-soziologiaren ibilia gurean", in *BAT*, 77: 27-55.
- Zalbide, Mikel eta Arantzasu Muñoa (2006): "Lardizabal eta bere gramatika, perspektiba soziolinguistikoa", in Francisco Ignacio Lardizabalen 1856ko *Gramática Vascongada*-ren 2006ko edizioa, Gipuzkozko Foru Aldundiak argitaratua.

OHARRAK

1. Batzorde-atal suntsikorra zen hura, aldi baterakoa. Berrogei bat lagunek hartu genuen parte, ohargile eta kritikari moduan. Patxi Baztarrika eta Erramun Osa buru genituelarik, azpibatzerde batek oinarri-txostena prestatu eta aurkeztu zigun lehenik eta gero, hartatik abiatuz eta hura kritikatu, euskararen oraingo egoeraz, aurrera begirako perspektibez eta hartarako lehenetarako lehentasun-irizpide posiblez jardun genuen batzorde-atal hartan, urtebete inguruan.
2. Guztion edo gehienon *modus operandi* bihurturik daukagu, hizkuntza-soziologiaren alorreko argitze-lanetan ari garelarik, ondoko jokabidea: Urliak “hau” dioenean, zer esan nahi ote du “benetan”? Hitzez hitz dioenera ez, beste iturrietara baizik, jo ohi dugu sarri argitasun bila. Interes ideologikoaren faktorea arakatu ohi dugu halakoetan: zer hankatetik kojo egiten du Urliak? “Hori” esan badu Sandiak, “horregatik” ez baizik “hargatik” izango da! Bistan da horrela ezin dela, zientzia-arauz jokatu nahi badugu, ezer asko arerratu. Hor gaude ordea, hainbat kontutan.
3. Garrantzi-kontu hori ez da gurea soil-soilik, ez eta gurea bereziki: mundu zabaleko perspektiban ere lehen mailako elementua da *diglossia* hori. Funtsezko elementua da diglosiaren kontzeptua, hizkuntza-soziologiaren alorrean oro har. Abstraktua ere bai: *domain of language use* edo *jardun-gune* delakoarekin batera jakintza-alor horretako abstraktuenetakoa eta, aldi berean, mintzajardunaren giza arteko moldaerari dagozkion gorabeherak teoria-oinarriz argitzekotan ezin alboratuzkoa.
4. Besterik da ideologiazko interes-lehiaren eragina. Jakintza-alorrean ari bagara zinez, eta ez bestetan, objektibotasunak bere bidea egin beharko du: inork ezin du ikertzailea edo jakintzalaria *interesgabea* izatera behartu; ezinbestekoa du halakok, ordea, *objektiboa* izatea. Interes partisoan mendeko jakintzak, interes partikularragatik objektibotasuna alboratzen duenak, ez du gutxienezko eskakizun-maila betetzen. Guk ere badugu beraz, gainerakoek bezala, ekarpen onen eta kaskarren arteko mugarririk, interes jakinen arabera kanpo-elementuen izenean hain erraz ezabatu ezin litekeenik. Objektibotasunaren ezinbesteko baldintza horrek ez du bueltarik.
5. Badakigu *transistore* hitzaren adiera popularra (eskuko irratitoxa, kablerik gabea) zeharo diferentea dela bere jatorrizko (elektronika-munduan hain funtsezkoa den) kontzeptutik. Bi adiera esistitzeak ez du esan nahi, jakina, biak maila berean erabiltzekoak direnik ez eta, elektronikazko jakintzaren aurrerabidean, maila bereko garrantzia dutenik.
6. Lehen (1970 ingurutik 1985era-edo bereziki) orain baino errazagoa zen bereizketa hori egitea. Aurrerago esango da zergatik.
7. Aurrerago ikusiko dugunez ez da gurea bakarrik, gainera, ikuspegi hori.
8. Ikus JAKIN, 2000ko azaro-abenduak, 121. zenbakia, 81-101 or. Idazle handi izateaz gainera euskaltzaletasun ukaezineko irakasle argia izan genuen Gotzon Garate, hil arte.
9. Horrek ez du esan nahi, jakina, hiru ondorio horiek ezinbestekoak direnik beti eta nonahi: gertakari horiek posibleak direla, ez ezinbestekoak, esan gabe utzi da artikuluan. Aski ondorio aldebakarrera eraman gaitzake planteamendu horrek. Aurrerago helduko zaio puntu horri, behar den sakoneraz.
10. Atzerabide hori ondotoz lehenago hasia da, eta gorabehera jakinak izan ditu, lehen eta orain: horrek ez du, ordea, Gotzon Garateren batez besteko azalpena indargabetzen.
11. Zehatz adierazten ez badu ere, bistan da bere analisia mintzamenaren alorreko dela. Idazmen-irakurmenetan aski bestelako ondorioak azaldu beharko zituzkeen, zenbatekoari (ez ezinbestean nolakoari) dagokionez.
12. Erdal interferentziez eta, oro har, erdararen bestelako kontaktu-fenomenoez ongi hornitua: kode-alternantziaren mundua zabala da oso, eta egungo mintzajardunaren analisi zorrotzerako arraz lagungarria.
13. Bakar-bakarra denik ere ezin esan, une batean elebitasunari leporatzen baitizkio ordura artea diglosiari erantsitako kalteak.

14. Aurrerago ikusiko dugu hori halako xehetasun batez, txosten honen hirugarren atalean.
15. Horretarako, jakina, astebete aurretik ohargileen eskura jarri behar izan dut, azken ukituen faltan bada ere, gaurko txosten-papera.
16. Ez naiz bakarria hori dioena: ikus Maria Jose Azurmendik zer esan berri duen in *BAT*, 76: 41.
17. Lan-programa zabalago baten altzoan txertatu zen saio hura, oker ez banago: datu-bilketa zabalago eta, datu haien argitan, ekintza-plana ere begiz joak zituen programa hark.
18. Martin Ugaldek aparteko zeregina izan zuen liburuko atal desberdinak bateratzeko orduan. Lan osoaren jostioan, berriz, Siadecoko Iñaki Larrañaga eta Euskaltzaindiko Juan San Martin zein Jose Luis Lizundia, lankide gehiagorekin batean, lehen lerroan jardundakoak ditugu.
19. Euskal bertsioko izenburua honako hau da “Euskararen bide luze bezain malkarrak”. Ez dakit bertsioko hori ere berak idatzia den, edo bestek euskaratua.
20. Letrakera etzana gurea da hurrengo pasarteotan.
21. Kontu hau ere ez da euskaltzaleona bakarrik. Gogoan dut nire ezagun katalan batek, Galiziako kongresu soziolinguistikoa batean ginelarik biok (izango dira horrenak hamabost bat urte), zer esan zidan: “la prudencia nos hace traidores”. Esaldia ez zen berea, Bartzelonako katalanista batzuen artean zabal korritzen zuen maxima baizik. Esaldi-sortzailearen izena ere eman zidan orduan, baina ahaztua dut tamalez.
22. Inoiz edo behin saiatu izan naiz horretan, bidenabar eta hanka-punttaka bada ere: ikus Zalbide 1998 eta 2000.
23. Gure bibliografia (bai soziolinguistikoa hertsia eta bai, bereziki, iritzi-artikuletako jeneralista) gainezka dago horrelako metaforaz, sentiera-multzo partizanoz eta aurrez aurreko interes-lehiaz. Ez dugu horiek guztiak banan-banan izendatzen hasteko asmorik. Argudio-bidea esplizituagoa dutelako edo zer pentsatu gehixeago ematen dutelako, batzuk berariaz aipatuko ditugu halere, begiz jotako argitze-lanerako aipamen hori ezinbestekoa dela uste dugunean.
24. Koptoen eta abarren xehetasunak alde batera utz ditzakegu, lasai asko. Ez gara aldaera-kontu horietaz ari.
25. Ikus Ibon Sarasolaren hiztegia. Euskaraz badu sinonimorik purgatorio hitzak: garbitokia, garbiletua, garbitegia.
26. Are ikuspegi goibelagoa eman ohi du zenbaitek: “el Purgatorio es un estado de dolores fuertes y en soledad, y de tristeza inmensa por tener la vergüenza de no poder acercarnos a Dios” *Ikus Círculos Católicos; purgatorio y oración por difuntos*.
27. Zirkulu Katolikoen esanean “de las opciones que tenemos para después de la muerte (Cielo, Infierno y Purgatorio), el Purgatorio es la única que no es eterna (...): etapa de purificación”.
28. Gogoratu, etimologiazko ahaidetasun-kontuagatik bestegatik ez balitz ere, hizkera arruntean zer den *purga(n)tea*: heste-aringarria, hestea(k) arintzeko hartzen den *sendagaia*.
29. Pentsa liteke buruan izango zuela, euskaltzale gehienok bezala, gure hizkuntzaren eta berau biltzen duen etnokultura jator-biziaren osabetezko zeru-mugarik. Bestela diglosia bera planteatuko zigun zeru gisa. Hori ez zuen egin, ordea, urrundik ere.
30. Horrek ez du esan nahi, horren beldur izateko motiborik ez zuenik: izan bazuen horren beldurrik, nire ustez. Luze jardun beharko genuke hori argitzeko, errenteriarren beste zenbait dokumentutara itzuliz begiak. Gerokoak gero.
31. Mundu akademikoak *diglosia* hitzaz bi ikuspegi bereizi dituela gogorarazten zuen hor Hudson-ek: batetik “diglossia in the classical sense of Ferguson (1959)”, eta bestetik (ez du esaten baina, guztiok dakigunez, Gumperz-en eta, bereziki, Fishman-en) “diglossia in the sense of functional compartmentalization of distinct languages”. Bestetik, une hartako gabeziak aipatzerakoan “socioevolutionary interpretation of diglossia research” baten beharra aipatzen zuen. Behar-gabezia hori askotxok deitoratu du. Ez dut uste, ordea, erabat zuzen dabilzanik hori diotenak: zehaztasun gehiago nahi izanez gero ikus,

BAT aldizkariaren azken alean, (BAT, 77: 27-55) horretaz dudana iritzia.

33. Iritzia emandakoen artean honako hauek sar litezke: Nancy Dorian, Maria-Jose Azurmendi, Joshua Fishman, R. Fasold, Schiffman, Frangoudaki, Cr. Bratt Paulston, W. Haas.

34. Ikus, adibidez, Daniel Nettle-ren eta Suzanne Romaine-ren *Vanishing Voices. The Extinction of the World's Languages* alde batetik: esate baterako, katalan itzulpeneko 243-4 orr.

35. Adibideak erraz eman litezke herrialde katalanetan, Antilletan edo Indiar ozeanoko Reunion uhartean adibidez, zehaztapen handiagoetan sartu gabe.

36. Ez da lehenengo aldia pasarte hori errepikatzen dudana eta, bereziki, ez naiz lehenengo Txepetx-en argitasun horretaz jabetzen. Aspaldi jabetu zen horretaz Jose Manuel Odriozola: Ikus 1993:76).

37. In *Jakin* 1991, 62. kia, 31-2 or. "(...) zer espero daiteke, nire iharduna, legeria konparatuaren analisi hotzetatik edota soziolinguistikaren printzipio zientifikoetatik abiarazi ordez, eguneroko sentimenduetatik abiarazten badut? (...). Sasi-irtenbidea da elebitasun sozialarena, jaun andreok. Bide horretatik euskararen agonia luzatu besterik ez dugu egingo. Edozein hizkuntzak, gaur egungo gizartean, biziko bada, gutxienez hizkuntza nazionalaren statusa lortu behar du; maila horretatik behera, hiltzera kondenaturik dago". Arazoaren korapilo nagusietako bat interes (eta interes horien mendeko morrontza) ideologikoan ikusten zuen Joxe Agustin Arrietak: "sisteman integraturik zaudeten alderdi politiko eta indar soziokulturalen diskurtsu eroso, axolakabea, arrazional ustezko irrazionalkeria hutsa eta, azken batean, glotofagiaren sopikun den zuen diskurtsua, indargabetzeko, zeren hortxe jarraitzen bait duzue, behaketa arruntak eta ikertzapen zientifikoak argi baino garbiago ase arterainoko neurrian frogaturik dutena, ukatzen". (Joxe Agustin Arrieta, in *Jakin* 1991, 62. zkia, 31-2 or.).

38. "Moreover, in various phases of the conflict over language, the term diglossia has been contested, precisely because of its meaning (two languages), by the traditional supporters of *Katharevousa*, who claimed the existence of only "one" Greek language, from antiquity until today. For the same reason, the supporters of *Demotiki* systematically used the term *diglossia* (~bilingualism) in order to underline the fact that the issue is about two different languages". Frangoudaki, 2002: 105.

39. "(...) the new notion of *diglossia*, invented by Ferguson, has been translated into Greek with two words (*dimorphia* and / or *diyfia*, meaning 'two forms' and 'two styles' (Babiniotis 1979a: 171–172). This translation has been used, with reference to Ferguson, as an argument denying the existence of bilingualism, since *Katharevousa* and *Demotiki* are just two forms or styles of the same Greek language (Babiniotis 1979a: 27). Ohar biak in Frangoudaki, 2002:105.

40. Eta bere aurretik beste zenbaitek. Esate baterako, Georg Kremnitz-ek (1990:27).

41. Ikus Mauro Fernández-en 1995eko "Los Origenes Del Término Diglosia: Historia De Una Historia Mal Contada"-ren ingelesezko abstract-laburpena.

42. 1885ean hasi eta horrela jarraitu zuen, luzaz: 1928koa da diglosiari buruzko bere azken lan ezaguna.

43. Alexandros Pallis-en urte hartako itzulpenak sortutako "La querelle des Evangiles" famatuak aparteko azteraldia merezi luke. Handik aurrera, 75 urte luzez, Greziak bere hizkuntza-egoeraren ildotik bizi izandako gorabehera mingariek ere bai.

44. Bene-benetan, diglosia ez baina "ordura arte indar betean egondako diglosiaren desgertze-prozesua" zela medio. Hori horrela dela baieztatzen duen argibide sendorik ez da falta: ikus, bereziki, Frangoudaki 2002.

45. Salbuespentzat hartu behar da, alde horretatik, Heinz Kloss-en jarduera ia etenik gabea. Eta aparte tratatzekoa da, bereziki, geldialdi horren ondoko inarrosaldi alemana: inarrosaldi horretakoak ditugu, bereziki, Georg Kremnitz, Klaus J. Mattheier, Ulrich Ammon eta Els Oksaar.

46. Koptoaren eta herri-hizkeraren kontuaz ikus K. Sethe-ren 1925eko: "Das Verhältnis

zwischen Demotisch und Koptisch und seine Lehren für die Geschichte der ägyptischen Sprache". *Zeitschrift der Deutschen Morgenländischen Gesellschaft* 79, 290–316. Arabieraren egoeraz, esan bezala, Frantziako Marçais linguistaren 1930eko "La Diglossie arabe" dugu ezagunenetakoa.

47. Diogun, bide batez, Ferguson ez zela "nornahi" Amerikako Estatu Batuen esfera akademikoan, ez eta bestelakoan. Horretaz jabetzeko ikus, bereziki, Christina Bratt Paulston-en eta G. Richard Tucker-en *The Early Days of Sociolinguistics: Memories and Reflections*. Argitalpen zoragarria da hori, gure jakintza-alorraren aldi berriko (ez, han aditzera ematen-edo denez, erabateko) sorrera-guneaz, sortzaileez eta ingurumen-baldintzez funtsezko hainbat informazio eskuratu nahi duenarentzat: ingurumen-baldintza akademikoez eta bestelakoez, diogun bidenabar.

48. *Hiztun-elkarteak*: ez norbanako pertsona hau edo hori; are gutxiago komunikabide bat edo dena delako agente partikular bat.

49. Hala esaten zitzaion Ferguson-en artikuluan, eta hala jarraitzen zaio esaten atzerriko (batez ere ingelesezko) artikulua askotan, itxuraz gehienetan. Gure artean, aldiz, bada halako ohitura bat (ez dakit zenbateraino hedatua: agian nik uste baino zabalduagoa) aldaera bati A esateko, eta besteari B. Hori da gutxiena, nolana ere.

50. Gertaera demolinguistiko zabal baten erregulartasun estatistikoaz ari gara hor, ez (kasu ezagun gehienetan) %100eko ebidentzia enpirikoaren egiaztapen-indarra berekin duen gertaeraz. Fasold-en hitzetan esanik, "community" must be defined in such a way that no member of the community speaks H natively, although there may be people from other communities who do. What makes the Dutch–Frisian case not a case of diglossia has nothing to do with political subdivisions. If the general pattern is as described in Zondag (1989), then towns in Friesland become home to Dutch-speakers from other parts of the Netherlands. The newcomers do not learn Frisian, but many Frisian-speakers switch to Dutch over time". (Fasold, 2002: 86).

51. Horrexegatik dio Ferguson-ek "the primary dialects of the language", ez "a dialect", L aldaeraz ari delarik. Are gehiago, konplexutasun-aukera handiagoak ere onartzen ditu Ferguson-ek, L-ren txapelpean: "the primary dialects of the language (...) may include a standard or regional standards". Hori guztia oso kontuan hartu behar da, nozio abstraktu horren zertzeladez ondo jabetu ahal izateko.

52. Ferguson-ek berak geroago onarturiko moduan, H-ren txapelpean ere aldaera bat baino gehiago egon litezke. Gerokoak gero, ordea.

53. Uste baino delikatuagoa da ahaidetasun genetikoaren kontu hori. Ahaide izan behar dute L-k eta H-k, baina ez nolana ere ahaide: ez ahaideegi (hizkuntza bat eta bere dialektoa) eta ez, iturri beretik baletoz ere elkarrengandik "gehiegi" urrundutako ahaideak. Beraz, adibidez, Asturiasko bablea edo Andaluziako hizkera arrunta (gaztelaniaren dialekto huts liratekeen neurrian) ahaide "hurbilegiak" lirateke diglosiaz hitz egin ahal izateko, Ferguson-en definizioaren arabera. Era berean, Rousillon-eko katalana eta frantsesa ere, elkarrengandik urrunegi leudeke diglosiaz hitz egiteko Ferguson-en arabera. Non dago hortaz diglosiaren "erdibide egoki" hori, Lren eta Hren arteko ahaidetasun genetikoari dagokionez? Erantzuna badakigu zein den: Suitzako aleman-hizkera arrunta batetik, eta aleman batua bestetik, genituzke Ferguson-en arabera diglosia-eredu prototipikoa. Lekuan lekuko arabiera arrunta batetik eta arabiera koranikoa (gehi, beste maila batean, berrikitanagoko *modern standard arabic* ezaguna) bestetik. Ahaidetasun genetiko argirik gabeko hizkuntzak ez leudeke azkenik, Ferguson-en arabera, inondik inora diglosia-egoeran: formulazio horretan ez dago beraz, besteak beste, euskara-erdaren diglosiarentzat inolako lekurik. Bai aldiz, ahaidetasun-baldintzari (ez, ezinbestean, beste baldintza-sortari) dagokionez lekuan lekuko euskal hizkeren (oro har euskalkien) eta euskara supradialektalen (egungo egunean euskara batuaren) artean.

54. H-ren eta L-ren arteko distantzia linterlinguistikoaz (edo aldaera artekoaz) sakon jardun izan dutenetako bat F. Britto da (Britto, 1986). Bere *optimal*, *supraoptimal* eta *infra-*

optimal distance direlakoak soziolinguista batek baino gehiagok erabili izan ditu harrez gero. Alde askotatik da Britto-ren liburu hori gomendagarria, bestalde, diglosiaren argitze-saioari dagokionez.

55. Anai-arrebekin eta gurasoekin, aitona-amonekin zein familiarrekin urrunagoekin egiten da etxealdeko hizkuntza-eskuratze hori, lehenik. Gero etxe-ingurukoekin, auzokoekin eta, oro har, haurren eta gaztetxoek gizarteratze-eragile arruntenekin.

56. Noiztik aurrera da egoera bat “egonkorra”, eta noiz arte ez? Hor ez dago erantzun objektibo eta perfekturik. Ferguson-ek, bere txosten horretan, diglosia-kasu horiek (batzuk, bederen) mendeetako sakonera historikoa dutela aipatzen du une batean “Diglossia typically persists at least several centuries, and evidence in some cases seems to show that it can last well over a thousand years” (Ferguson 1959: 332). Fishman-ek, gero ikusiko dugunez, Heinz Kloss-en irizpidea gidari hartuz “hurrenez hurreneko hiru belaunaldi baino gehiagoz” hizkuntza-egoerak “bere horretan” irautea hartzen du bana-lerro gisa. Hiru belaunaldiz baino gehiagoz “bere horretan” dirauen hizkuntza-egoera, egoera “egonkorra” da definizio operatibo horren arabera; hori baino gutxiago irauten duena, ez. Definizio operatibo baten aurrean gaude esan bezala: era honetako aplikazio operatiboek ez ligukete burua zorarazi behar. Diglosia kontzeptua are sendoagoa (nahiago bada, unibokoagoa) litzateke, Fishman-ek (2002: 96) ongi dioenez, “hurrenez hurreneko bost belaunaldi”-ren araua hartuko balitz bana-lerro gisa: horrek ez digu eztabaida kontzeptual teorikoa nabarmen modifikatzen ordea. Utz dezagun, beraz, dagoen-dagoenean.

57. Nik hala uste dut, behintzat: Greziako eta, agian, Antilletako kriol-frantsesen egoera deskribatzerakoan bazukeen daturik aski, bertako gorabehera linguistikoen berri izateko. Ez, aldiz, aleman-hizkuntzako Suitzaz (ez baitzegoen han halako gatazkarik, antza) eta ez arabiar herrialdeez ari zelarik ere (nahiz eta kasu horretan, ikus Memmi 1957, giro berri baten printzak burua jasotzen hasiak ziren).

58. Gauzak hain zorrotz jarriz gero ba ote zen inon diglosia-kasu bakar bat, Ferguson-en garaian ere? Seguru ote gaude aleman-hizkuntzako Suitza-aldean ez zela 1959an familiarik esistitzen, etxeko hizkuntza (eta, beraz, bertako seme-alaben ama-hizkuntza) aleman batua, *Hochsprache* edo, nahiago baduzue, Alemaniako II. Mundu Gerraz geroztiko *Umgangssprache* modukoren bat zuenik? Are nabarmenago zatekeen kontua, bistan da, arabiar herrialdeetan. Horrelako lerro-banaketa sinplistik ez dute ezer askotarako balio, kontzeptuaren abstrakzio-ahalmen aberatsa hutsaltzeko ez bada.

59. Hor sartzekoa da, erabat, hain Ferguson-zale ageri den Kaye-k espresuki aitortua: “Ferguson himself regarded ‘the failure to make clear how far apart (or how close together) the high and low varieties have to be for a language to be characterized as diglossia’ as a shortcoming of his original article” (Ferguson, 1991: 223) in Kaye 2002: 121.

60. Baita hiztun horiek geografia aldetik aski barreiatuak daudenean ere?

61. Argigarria da, alde horretatik, Georges Lüdiren saioa, “L’espace variationnel de la diglossie/poliglossie” izenpean “types de communautés” direlakoan aldakortasun-ardatza zehaztekoa. Argitasun gehiagorako ikus Lüdi 1989: 244-6.

62. Ikus Arkaitz Zarragaren eta abarren *Soziolinguistika-eskuliburua*, 2010: 158 or.

63. Moztadeen artean sartzekoa da, dudarik gabe, han-hemengo hizkuntza-egoeren deskribapen konkretuak egiteko orduan ez zuela beti-beti azken orduko informazioa izan eskuera. Gatozen adibide konkretu batera: Greziako 1959ko hizkuntza-egoera, esate baterako, urrun zegoen 1800 eta 1900 artean bizi izandako diglosia-giro prototipikotik. Gal-tzen ari zen ordurako, Grezia gehienean, Ferguson-ek ereduizkotzat ematen zuen diglosia hura. Handik gutxira, 1976an, plano soziokulturalean aspalditxotik indargabetuz eta gesalduz joandako diglosia ofizialki ezabatzerira iritsi zen plano instituzional gehienetan, ez guztietan (ikus epaitegi mundua, adibidez). Are zorrotzago juzka litezke kontuak, Frangoudaki-ren hitzetan: “I would suggest that the Greek sociolinguistic phenomenon may be included in the situations considered as typically diglossic, only for a period ending at the beginning of the twentieth century. Until the 1880s, Greek society was a preindustrialized society.

In this sense, from the late eighteenth century, when the conflict over the Greek language begins, and until the 1880s, the sociolinguistic situation could be considered a typically diglossic one. (Frangoudaki, 2002: 101). “Greek linguistic situation has not, since the 1930s, fit the typology of diglossia, certain points need to be clarified. The most important among them concerns a widespread misconception about Demotiki. Although a large segment of the literature on the Greek sociolinguistic situation maintains the contrary, *Demotiki is not a vernacular*, or a dialect, or a variety. It is in fact a standard”. (Frangoudaki 2002).

64. Lehendik hasia zen Fisman, egia esateko, jauzi horretarako zenbait oinarri kontzeptual prestatzen: 1965eko “Who speaks what language to whom and when?” ezaguna, bereziki, oso kontuan hartzekoa da. Diglosiaren formulazio berritua 1967an aurkeztu zuen ordea.

65. Beste horrenbeste gertatzen da herrialde aberatsekin: bertako hiritar guztiak ez dira aberats; han ere denetik dago, pobre eta aberats.

66. Katalanek, orobat okzitaniarrek, nekez onartuko dute ahaidetasun genetikoaren kontu hori muga-eragozpen larririk gabe: beraiek garbi dute hizkuntza diferentek (beregainak, diferentek) direla katalana, gailegoa eta (beste maila batean?) okzitaniera(k), espainol-frantsesen aurrez aurre. Espainian, gainera, formalki horrela onartua dago bereizkuntza hori. Arazo delikatua sortzen du hor, halere, valentzieraren kasuak.

67. Zehaztasun gehiagorako ikus Fishman 1989 (1980): 185-6.

68. Zehaztasun gehiagorako ikus Fishman 1989 (1980): 186-7.

69. Zehaztasun gehiagorako ikus Fishman 1989 (1980): 187-8.

70. Zehaztasun gehiagorako ikus Fishman 1989 (1980): 188-9.

71. Bi kode linguistiko edo, aurrerago ikusiko denez, n.

72. Bi kode linguistiko edo, era berean, n.

73. Diglosia (edo diglosiarik eza) ez da hiztun-elkarte osoan neurri eta modu berekoa: ez konpartimentazioari dagokionez, ez egonkortasunaz denaz bezain batean, eta ez hiztunen elebitasun-mailari dagokionez ere, ez elebidunen portzentajeaz eta ez elebidunen benetako gaitasun erlatiboaz. Are gehiago: azaldu berri dugunez hizkuntza edo aldaera bi ordez (bata H eta bestea L) gehiago izan litezke aurrez aurre: H bi (edo gehiago) alde batetik, eta L bi (edo gehiago) bestetik. Horrek guztiak, jakina, aski formulazio konplexuetara eramán gaitzake praktikan, kasu (une eta aldi) konkretu bakoitzean. Ez da atal-banatze eta tarte-bitartekotze ia amaigabe hori, dena den, orain interesatzen zaiguna.

74. Ferguson-entzat diglosia diren lau kasu prototipikoak diglosia dira Fishman-entzat ere, bete-betean: batzuek (a) kasukoak eta besteak (b) kasukoak, baina guztiak diglosia. Ferguson-entzat diglosia ez diren beste hainbat kasu ere badira ordea diglosia, Fishman-entzat: aldaera/hizkuntza bereizkuntzak markatzen du bien arteko dibergentzia hori.

75. Zuzen dabil Gotzon Garate, dudarik gabe, goian esandako txostenean honako hau dioenean: “Gero eta jende gehiagok dakite euskaraz. Erdara nagusi da, ordea, Euskal Herri osoan”. (Garate, 2000: 83). Deustuko irakasle argia idazki horretan deskribatzen ari den egoera, funtsaren funtsean, (-diglosia, +elebitasun) modukoa da. Ez erabat, diglosia-printzik gelditzen baita oraindik gure artean (arnasguneetan bereziki), baina bai nagusiki. Gaur (c) egoeran dauden ikasle euskaldun (bereziki etxetik euskaldun) askoren gurasoak edo aitona-amonak (b) elebitasunezko diglosia-egoeran bizi ohi ziren maiz, eta haien gurasoak (are nabarmenago aitona-amonak) bizi osoan (a) moduko diglosia batean. Kontua da egonkorrak zirela bai (a) eta bai (b) egoerak, eta ezegonkorra (gaztelaniaren alderanzkoa, ia beti) dela (c). Hori da Gotzon Garatek nabarmen (eta aski zuzen) antzematen duen gainbehera, hoberik ezean (oker, bistan denez) *diglosia* deitzen duena.

76. Problema ez da, partez behintzat, Garatek begien aurrean duen euskara-erdaren XX. mendeko gizarte-bilakaera hori egia den ala gezur, bilakaera horren eragiletza zein kontzepturi atribuitzen dion baizik. Diglosiari leporatzen dio berak errua: “diglosia galgarria”ri. Bilakaera horren eragilea ez da ordea, ez Ferguson-en eta ez Fishman-en definizio klasikoan argitan, diglosiari dagokiona, Fishman-en arabera “gero eta diglosia

gutxiago izateari” eta, azkenean, “diglosia-apurrik ere ez izateari” dagokiona baizik. Aurrago berriro azalduko denez, osasuna galtzeari (azkenean osasunik gabe gelditzeari) “osasuna” deitu diogu soziolinguista euskaldunok. Problema bakarra ez da hori. Problema monumentalak da hori, ordea.

77. Ez dugu hemen, ez baita hartarako lekua, *Stammbaum* teoriak azken urteetan izan duen kritika-zaparradaz (hainbatean arrazoizkoaz) jardungo. Horregatik erantsi zaizkio komatxoak goiko “enbor beretik” delako horri.

78. Kasu horren azpikasu bat, konkretuago; H eta L hizkuntza beraren bi aldagai nabarmenki berezi direneko kasua.

79. Askorentzat gehiegizko saltoa, ondo justifikatu gabeko jautzia, izan zen hori.

80. Ez zebilen bakarrik Fishman, diglosia kontzeptuaren zabalkuntza hori egiterakoan. Bide-erakusle izana zuen Gumperz, berrikitan, eta bide-lagun izan zituen Dell Hymes, Pauwels eta beste hainbat: Alan Hudson-en hitzetan esanik, “John Gumperz had argued that the distinction between bilingualism and bidialectalism was not always a significant one in the social characterization of speech communities (1968 [1962]: 463), and that linguistic difference need not necessarily correspond to difference in social function (1968 [1962]: 464). Fishman himself felt that a “single theory - enabling us to understand, predict and interrelate both of these phenomena [diglossia and bilingualism] is an instance of enviable parsimony in the behavioral sciences” (1967: 32–33), and, in the same volume, Dell Hymes took the position that “cases of bilingualism *par excellence* (as for example French and English in Canada, Welsh and English in Wales, Russian and French among pre-revolutionary Russian nobility) are salient, special cases of the general phenomenon of variety in code repertoire and switching among codes”. (Hymes 1967: 9 in Hudson, 2002: 61).

81. “The notion that diglossia could also be used to characterize other multilingual situations where the H and L varieties were not genetically related, such as Sanskrit (as H) and Kannada (as L) in India, was developed by Fishman (1967) and research on diglossias since have focused to a great extent, though not entirely, on characterizing various kinds of *extended diglossias*”. Edota, Fasold-en 1984ko hitzetan esanik: “Fishman would ease this restriction. He endorses the view, which he attributes to Gumperz, that “diglossia exists not only in multilingual societies which officially recognize several “languages”, and not only in societies that utilize vernacular and classical varieties, but also in societies which employ separate dialects, registers or functionally differentiated language varieties of whatever kind”.

82. Gurean erakargarria da aukera-zabaltasun hori, egungo errealitate partzialen bat edo beste ongi zehaztu ahal izateko: segun euskal *speech community* jakinak (euskal hiztuntalde bereziak, nekez hiztun-elkartea bere osoan harturik) nola definitzen ditugun, ongi txerta litezke hor, dagokien lekuan, euskalkiak, batua eta, zein bere esparru geografikoan, euskara-erदारak (frantses-gaztelaniak).

83. Fishman ez da inoiz, dakidan neurrian, prestigio-kontzeptuaren miresle handia izan. *Language Loyalty in the United States*-en, adibidez, auzitan jarri zuen Uriel Weinreich-ek 1953an prestigioaz emandako definizio operatiboa. Horrekin batera, erabileraren eta aldeko jarreraren arteko bilakaerak ez direla gehienetan eskuz esku joaten adierazi zuen. Puntu iluna zen hori beretzat, eta ez zuen horregatik diglosiaren ezinbesteko ezaugarritzat hartzen.

84. Mitxelena soziolinguistika kurtsoa irakatsi zuen Parisko Sorbonan, 1970 inguruan; Sánchez Carrión “Txepetx”-ek, berriz, diglosiari buruzko artikulu mamitsua argitaratu zuen hemen, 1974an.

85. Ikus, bereziki, 1986ko bere “*Diglossie*”: *un concept à l'épreuve du terrain. L'élaboration d'une sociolinguistique du conflit en domaines catalan et occitan*.

86. Ikus, batez ere, bere lau iturriok: 1979ko *Sprachen in Konflikt: Theorie und Praxis der katalanischen Soziolinguisten. Eine Textauswahl*, 1981eko *Du “bilinguisme” au “conflit linguistique”*. *Cheminement de termes et de concepts*, 1987ko *Diglossie: Possibilités et limites d'un terme* eta, azkenik, 1990eko *Gesellschaftliche Mehrsprachigkeit. Institutionelle, gesellschaftliche und individuelle Aspekte. Ein einführender Überblick*.

87. Ikus, adibidez, bere artikuluoak: 1971ko *Un problème de culpabilité sociologique: la diglossie franco-occitane*, 1979ko *La diglossie en pays occitan ou le réel occulté*, 1982ko *Le discours idéologique dans l'enquête sur la diglossie*, 1984ko *Pour retrouver la diglossie* eta urte bereko *La neurosi diglossica*. Zehaztasun gehiagotarako ikus, orobat, Lafont 1977 eta 1986.

88. Gutxitan saiatu izan dira beren ikuspegi hori sistematizatzen eta, hala egin dutenean, bere arteko liskar- edo eztabaida-iturri bihurtu izan dira inoiz saio horiek.

89. Hala dio Vallverdú: “Dés 1968, lorsque Aracil et moi-même avons mis en circulation ce mot pour la première fois chez nous (...) l'intérêt pour la diglossie n'a pas cessé de croître” (Vallverdú 1982: 218, in Boyer 1986: 24).

90. “Beren” diglosia-definizio partikularren arrakastaz baino gehiago definizio klasi-koarenaz ari da hor soziolinguista frantsesa. Gogor kritikatu izan den besterik ere badio hor, izan ere, Calvet-ek: “Providing a theoretical framework for this situation, diglossia tended to present this situation as normal, stable, and to erase the linguistic conflict to which it bore witness, to justify in some way that nothing changed (which was after all the case in most of the decolonized countries)”. Kontua da bete-betean egokitzen zaiola gizarte-giroaren goiko deskribapen hori bere (eta bere parekoen) jardunari. Hain betean non Antilletako kasuan, adibidez, ezin ukatuzko loturak dauden bataren eta bestearen artean.

91. Gertatu ere hala gertatu zen, hein batean. Kremnitz-en esanak zuzenak badira (Kremnitz, 1979), eta ez zaio hartarako motiborik falta, badirudi Franco hil eta Tarradellas *président*-a etorri bitarteko garaian arnas handiko eztabaida glotopolitiko egin zutela GSCkoek. Galdera honi erantzuten saiatu ziren: berehala zetorren marko politiko berriaren bizkarrezurra zein izan behar zuen, koofizialtasuna ala katalan hutsaren ofizialtasuna? GCSk berriaz aztertu zuen gaia baina ez zuen, antza, bide bakarra hobetsi. Horrekin batera, badakigu aparteko kezka-ardura eragin zuela beraien artean etorkin-uhin berriaren (1955 ingurutik 1975era arteko immigrazio masiboaren) ondoriozko hizkuntza-politika posibleen definizioak. Gogoeta-lan hartatik jasoa dirudi Kremnitz-en ohar honek: Katalanak ez bitez/gaitezen Printzipatuan hizkuntza-politika chauvinistan erori: etorkinak gogoz kontra, presiopean katalanizatzearen kontra ez bitez/gaitezen hasi.

92. Egia da lehendik zetozela gauzak: Antoni Badia i Margarit, bereziki, lehendik ari zen hizkuntzaren gizarte-dimentsioaren gaineko gogoeta-lanean (ikus, adib., Badia i Margarit 1964).

93. Aracil-en eta Ninyoles-en arteko haserre bizia, zenbaiten esanean (Kremnitz: 1979), egile-eskubideen gaineko konturen batek sortua izan behar zuen. Baina badakigu gauza ez zela horretara mugatzen: aurrerago azalduko dugunez desadostasun teoriko sakona zegoen bien artean. Ikus Aracil 1979 (in 1982:119), eta bereziki, 1974 (in 1982).

94. Conill-en hitzetan, adibidez, “és ja un tòpic afirmar que la trajectòria biogràfica i intel·lectual d'Aracil es troba vinculada de manera molt íntima als orígens i al desenvolupament de la sociolingüística. Cal que no oblidem, però, la seva condició de sociòleg, que el porta a entendre la sociolingüística com a sociologia del llenguatge, en el sentit fort del terme. Remarqueu, d'entrada, el contrast que aquesta concepció suposa respecte als succeïdants que solen monopolitzar la disciplina en les nostres Facultats de Filologia. Per contra, els plantejaments aracilians tindran molt més a veure amb els de gent com Joshua A. Fishman, Heinz Kloss, Basil Bernstein o Pierre Bourdieu que amb la dialectologia social de caire labovianà”.

95. Okzitanoen artean izandako eraginaz argi azalduak daude kontuak, aspaldidanik. Gogoratu, adibidez, Lafont-ek 1982an idatzi eta Boyer-ek handik lau urtera jasoa: “(...) l'influence de l'école catalane de sociolinguistique, (...) des travaux du *Grup Català de Sociolingüística* sur les sociolinguistes du domaine occitan et plus particulièrement sur le *Groupe montpelliérain de Recherches sur la Diglossie* a été souvent revendiquée, tout comme a été reconnu l'intérêt porté par les sociolinguistes catalans aux propositions élaborées en domaine occitan. La sociolinguistique catalane est en cela médiatrice. La grande étude de A. Badia i Margarit *Llengua i cultura als Països Catalans* est de 1964. C'est en 1968 qu'en écho critique de la recherche américaine, Ll. Aracil ouvre une problématique nouvelle,

reprise immédiatement par R. Ninyoles et Fr. Vallvedú. En 1969 Montpellier reçoit la “‘leçon catalane’ en même temps que le concept de diglossie” (Lafont 1982: 89, in Boyer 1986: 23). Ipar-Kataluniako Domènec J. Bernardó izana dugu, zenbaiten esanean, Barzelona eta Montpellier (R. Lafont) arteko zubigile aktiboena. “Au cours des quinze dernières années, des relations régulières, au travers de séminaires et de colloques, ont contribué à une meilleure connaissance réciproque et à une interpénétration des réflexions. Et il n’est pas abusif de considérer qu’il y a aujourd’hui entre les deux recherches sinon une entière communauté de vues, du moins une solidarité scientifique (et militante)”. (Boyer, 1986: 23).

96. Horrela jardun izana ez da salbuespen bitxia historian. Ez eta hizkuntza-soziologiarenean ere. Are gehiago: badira hori baino mila bider kasu nabarmen eta diskutigarriagoak, ikuspegi etikotik bereziki, mundu akademiko-zientifikoak horregatik bakarrik ezabatu ez dituenak. Schmidt-Rohr-ek 30eko hamarkadan, eta Kloss-ek lehenxeagotik, soziolinguistikari egindako ekarpenak ekarpen dira orain ere, nahiz eta batak zein (askoz beranduago jakin dugunez) besteak Hitler-en erregimenaren barru-barruan lan egin zuten. Horrela jardun izanak pertsonak epaitu ditu, beren osaera etikoan eta beren esan-eginetan. Beraiek sorturiko edo aitzinaturiko kontzeptu teorikoak zein ezagutzazko bideberritzaiek ez ditu, aitzitik, alderik alde indargabetu. Von Braun eta bere ekipo osoa ezagunegiak ditugu, orobat, orain horretaz guztiaz ahazteko. Euskalaritzara eta hizkuntzaren historia sozialera etorritz, nork gutxiesten ditu Antonio Tovar baten ekarpenak, Francoren diktadurarekin (gerra-denboran eta gerraondo gogorrean) ezin ukatuzko inplikazio-loturak izan zituelako? Horiek guztiak onargarri badira, nola ez da onartuko demokraziarako prestaera-garaian eta lehen ibilbidean inplikazio politiko argia izana? Lotsa ere eman behar luke, honetaz hitz egin behar izatea.

97. Prudent-ek argi asko esanik zuen, orientazio horretako soziolinguistek amankomenean dutela ezaugarri zorrotza: “situations de minoration linguistique” dituzte aztergai (Prudent 1980 in Boyer 1986: 21). Hori eta, aurrerago azalduko denez, minorizazio-egoera (beraiztat mingarri) hori gaintuz lekuan lekuko hizkuntza ahulduak indarbertzeako asmo-delibero sendoa.

98. Aurrerago azalduko denez, ikus 3.3.5 atala (batez ere 170. oin-oharra), Kremnitz-en azalpen horrek aski aplikazio-muga nabarmena du. Praktikan, ez du “diglosia = konfliktibotasun” ekuazioa indartzen, ahultzen eta ezabatzen baizik.

99. Bi fasetan banatu izan du Kremnitz-ek Ninyoles-en ibilbide soziolinguistikoa; batetik 1969 eta 1971 artekoa, Valentzian hizkuntza-gatazka konkretuaren analisisan zentratua; bestetik geroztikakoa (bereziki 1975, 1976, 1977) Espainiako hiztun-herri beregainetarako eta estatu osorako zein hiztun-elkarte haietarako hizkuntza-politika egokien bilaketan oinarritua. (Kremnitz, 1979).

100. Hanka-punttaka pasatu ohi bagara ere albotik badu Aracil-ek, hizkuntzen gizartedimentsioa lantzeko orduan, ahaztu behar ez den beste uste sendo bat ere: Problemen irtenbidea bilatzeko orduan, teknokraten bidea ez da egokia. Arrazoi duela uste dut, erabat.

101. Diglosia kontuan bakarrik ez: baita diglosiarekin katalan askok hain loturik ikusten duen hizkuntza-ordezkapen edo *Language shift* kontuan ere. Aracil pro-Fishman ageri da argi, bere ekarpenetatik aurrera egin beharra ikusten badu ere, ondoko azalpenotan “La fixació i la generalització dels termes *substitution* (Antoine Meillet) i *shift* (L. Bloomfield) s’inicien c. 1930. Les aportacions no idèològiques modernes consisteixen sobretot en monografies descriptives i excursions teòrics ocasionals. La substitució va ser un tema central del llibre de Karl Deutsch *Nationalism and social communication* (1953). Després de les *Sociologic notes on obsolescent languages* de Morris Swadesh (1948), Uriel Weinreich (*Languages in Contact*, 1953) i Joshua A. Fishman (*Language maintenance and language shift as a field of inquiry*, 1964; etc) han elaborat i difós termes i conceptes analítics incomparablement preferibles a les vagues nocions d’“assimilació” i “aculturació”. Encara no hi ha, tanmateix, cap teoria global i coherent d’aplicació universal. Lluís V. Aracil ha elaborat models encara

inédits (cf. però, *Conflit linguistique et normalisation linguistique dans l'Europe nouvelle* (1965), i *Educació i sociolingüística* (1974). (Aracil, 1982: 117).

102. Calvet-ek esana da antza, Paulston-ek berak erantsia ez bada: "Most French writers have used Fishman's definition and have applied diglossia to bi/multilingualism. (Calvet 1993: 45, in Paulston, 2002: 129).

103. Ikus 1968ko bere dedikatoria: "To Joshua Fishman, whose kindness I can only acknowledge in so meager a way" (Aracil, 1968, in Boyer 1986: 24-5 eta 45 (8. oharra).

104. Aurrez aurre bi hizkuntza daudeneko kasua, ez hizkuntza bereko bi aldaera soilik, diglosiatzat hartzearen aldeko izan dira beti. Georg Kremnitz dugu, horretan ere, ikuskera katalan horren aparteko bide-erakusle: "La question de savoir si une diglossie est intra-linguistique ou interlinguistique peut être intéressante pour le linguiste pur, et tout particulièrement pour l'analyse des interférences; du point de vue sociolinguistique elle demeure (...) secondaire". (Kremnitz, 1987: 209).

105. Askok aitortu dute hori: baita katalanek ere, gero ikusiko dugunez.

106. Hori ez da egia, gero ikusiko dugunez. Berdintsu du ordea, ondorio praktikoei dagokienez: egia izan edo gezur, kontua da soziolinguistika katalanak horrela ikusi uste izan duela sarri soziolinguistika iparramerikarra.

107. "For the French Marxist scholars it was the conflict situation inherent in the bilingual-contact situations, whether of social class or between ethnic minorities and the dominant group in excolonial settings". (Paulston, 2002: 130).

108. Dans une publication plus récente.

109. "Quand (le) consensus sur les règles de l'emploi n'existe plus à l'intérieur de la société complexe".

110. "Les règles d'emploi de chaque langue sont codifiées et assez stables".

111. Zenbaiten ustez, hizkuntza-gatazkak ez dira *language shift* huts. *Language shift*-en kasuan alde batekoa da ondorioa, eta hemen bietarikoa izan liteke. Barkatuko zait baina horrek ez du, gauzak argitu nahian ari bagara, ez buru eta ez hanka: *substituzio bezain shift* da *normalizazio* delakoa, kontrako norabidean, hori bai. Egungo soziolinguistika katalanak aparteko eragozpenik gabe onartzen du begien bistako gertakari hori. Ikus Conill, 2007:40.

112. Lehenago ez zioen hori, ordea. Ninyoles-ek gogor kritikatu zuen 1970eko bere lana (Serra d'Or, 1971ko apirila). Ohar kritikoak egin zizkion Aracilek ere, eskutitzez Nueva York-etik (1971-VIII-6) (Vallverdú, 1979 (1970): 6-8).

113. Kontuan hartzekoa da hor, besteak beste, R. Lafont-en eragina.

114. Jarrera-kontuei aparteko garrantzia eman izan diogu euskaldunok ere, aspaldidanik. Gogoeta mingarria eginik du horretaz, adibidez, Hiriart-Urrutik. Hizkuntza-jarrera elementu zentrala izana da beretzat, mintzaldaketaren iturria bilatzerakoan. Zentraltasun horren adibide ugari jaso liteke bere lanetan. Demagun, esaterako, ondoko hauek: "Behar nitzuke aipatu eta nahi ere ba eskuarazko katiximak eta otoitz-liburuak, urte oroz gutitzen ari direnak, zeren egungo egunean zerbait eta norbeit direla uste duten buraso eskualdunek beren haurren eskuetan liburu frantsesak ikusi nahiago baitituzte, ezen ez eskuarazkoak" ("Eskuara elizan" in *Eskualduna* 478, 1896-8-14). Konfigurazio psikosoziala, prestigio kontuen alorrean kokatua antza, hizkuntza-erabilera baten edo besteren eragile bizkorra da bere ustez.

115. Hori baino gehiago ere egin zuen Ferguson-ek, 1959ko bere artikulua astiro irakurtzen badugu: diglosia noiz-nola desager litekeen iragartzeko hipotesi jakinak ere eskaini zituen bertan, besteak beste.

116. "Albert Memmi va suggérer un rapprochement de la notion avec la situation coloniale. Du même coup la dramatiser, et s'engager sur le terrain du conflit et des luttes: La possession de deux langues n'est pas seulement celle de deux outils, c'est la participation à deux royaumes psychiques et culturels. Or ici, les deux univers symboliques, portés par les deux langues sont en conflit: ce sont ceux du colonisateur et du colonisé [...] Dans le

conflit linguistique qui habite le colonisé, sa langue maternelle est l'humiliée, l'écrasée [...] En bref *le bilinguisme colonial n'est ni une diglossie où coexistent un idiome populaire et une langue de puriste, appartenant tous les deux au même univers affectif, ni une simple richesse polyglotte [...] c'est un drame linguistique*". (Norbert Dodille, *Littérature et diglossie à la Réunion des années 1970 à nos jours*).

117. Karl W. Deutsch-en *linguistic conflict*-erako ikus 1975eko bere "The political significance of linguistic conflicts", in *Les Etats multilingues: problèmes et solutions*.

118. Ez, halere, erabatekoa: ikus Valdman-ek (1988) Haitiko egoeraz esan izan duena eta ikus, orobat, Frangoudaki-k (2002) Greziako egoeraz esandakoa.

119. Kasu honetan, K letraz etorkinek "kanpotik" ekarritako hizkuntza adierazi nahi da. Aldiz, B letraz bertako hizkuntza. Azalpen globalagorako ikus txosten honen 3.1.4.2 atala.

120. Hondarribiko aireportura irits liteke topoa, jakina, bihar edo etzi: orduan ere Hondarribiko aireportuaren tren-geltokia izango du ordea geraleku, ez aireratzeko edo aterrizatzeko pista. Hots, Hondarribira iristen bada ere egunen batean, *topoak* trena izaten segituko du, ez abioi.

121. Autore bakarrak berak, zenbait kasutan, nabarmen aldatu du bere ikuspegia aski denbora gutxian. Hona Francesc Vallverdú-k bere 1970eko *Dues llengües: dues funcions?* liburuaren bigarren argitaraldian, 1979koan, zer zioen: "Hi havia, encara, una altra qüestió. La redacció del capítol primer no em satisfieia, perquè vaig adonar-me ben aviat que contenia algunes inexactituds i confusions, acompanyades de digressions inútils. Unes nocions teòriques mal assimilades i l'intent infructuós de resoldre les contradiccions entre certes tesis i les corresponents dades empíriques foren la causa immediata d'aquelles falles".

122. Rojo-ren esanean (...) "Ninyoles establece una oposición según la cual la diglosia supone desigualdad funcional y el bilingüismo implica su igualdad, con lo cual los dos conceptos se hacen incompatibles: existirá diglosia o bilingüismo, según los casos. A mi modo de ver, esta formulación se contradice con la caracterización de la situación valenciana actual como de diglosia y bilingüismo". Rojo (1985: 611). Hori baino gehiago ere egiten du Ninyoles-ek: Bai Ferguson-entzat eta bai (iraupen-hedaduraz suabeago) Fishman-entzat ezinbesteko ezau-garri zen (*relative stability* hura alde batera uzten du praktikan, herrialde katalanetako, batez ere XX. mendeko (eta bereziki 1969tik honako) hizkuntza-egoera deskribatzerakoan. Erabat bere onetik atera zuen aldaketa horrek, handik honako soziolinguistika katalanaren baitan, digloisa kontzeptua. Hurrengo puntuan ikusiko dugu hori, ordea.

123. Ikusi berri dugunez goiz konturatu zen Aracil *diglosia* kontzepturen Kataluniako bertsio popularizatuenaren ahuldadeaz (Aracil, 1982: 119) eta, Fr. Vallverdú-k inoiz esan izan duenez (Vallverdú, 1980:52), une batetik aurrera soziolinguista katalanak ez zen hitz horretaz kasik inoiz baliatu.

124. Laburkiro bada ere aspalditxo emana dut, horren jakin-mina lukeenarentzat, hitz (eta kontzeptu) horri buruzko iritzia (Zalbide: 1998).

125. Georg Kremnitz-ek ere matizatu eta erlatibizatu egin izan du soziolinguistika katalanaren ikuspegi punta-muturreko hori: bere esanean, formulazio katalanen arabera kontaktu-gune guztiak ez dira konfliktibo, batzuk baizik (ikus Kremnitz, 1987). Arazoa bistan da zein den: zabalkunde nabarmeneko dokumentu batek baino gehiagok ez dio hori, *kontaktu = konfliktu* ekuazio modukoa baizik. Hori diote dokumentu horiek, eta iturri horietatik eda(te)n dugu guk nagusiki, aurreraxeago ikusiko dugunez.

126. Georg Kremnitz-en, Peter Nelde-ren, Klaus Mattheier-en, Els Oksaar-en eta abarren garai bateko (ez seguruenik, egungo eguneko) ekarpen europarrak ez dira, halere, guxtiestekoak (ikus, adibidez, Goebel: 1996).

127. Laburtuz, gehiegi laburtzea ez bada, arazoaren muina honetan zegoela iruditzen zait: batzuentzat (Ninyolesentzat bereziki) bista-bistan zeuden diglosiaren hainbat ezau-garri une hartako Paisos Catalans-etan. Beste batzuek, aldiz, ez zuten uste une hartako egoera soziolinguistikoa oro har diglosikoa zenik. Ez oro har, eta ez leku jakinetan (Bartzelonan adibidez), zeuden katalanak, jadanik, egoera diglosikoan (Vallverdú, 1980: 49-

50; 1982). Diglosiarik gabeko elebitasun-egoera, Vallverdú-ren araberakoa, nabarmenki gaitzesten zuen aitzitik Ninyoles-ek.

128. Gehienetan erdiz erdi asmatzen badu ere, “sólo” horretan oker dabil Rojo: Ferguson-en arabera hala da edo hala izan liteke (ez ordea Haitin); Fishman-en arabera, aldiz, bistan da baldintza hori ez dela ezinbestekoa.

129. Egia osoa esan nahi bada, honetan ere, perspektiba jeneralean planteatu behar da kontu hori. Horretan saiatu berria da Marfany, diglosia-kontzeptuaren (ez, ordea, nolana-hiko diglosiaren) azken urteotako defendatzaile katalan suharra. 2010eko *IJSLn* argitara eman duen artikuluan, gozo-mikatzek baizik ezin irakurri izan dudanean, honako hau dio: “It must also be said that, though duly covered in all general books on sociolinguistics, the concept has never had much success as an analytical tool (beltz-kurtsibazko letrakera nirea). Understandable as this is, the concept, in my historian’s experience, is absolutely crucial an it must be released from the horrible entanglement in which Fishman’s model has landed it”. (Marfany 2010).

130. Berak idatziak batzuk (teorikoenak, hain zuzen); berak koordinaturik prestatu eta argitara emanak besteak (deskriptiboenak oro har).

131. Salakuntza hori ez da katalanena bakarrik. Colin Baker eta Sylvia Prys Jones-en esanean “the problem with diglossia and the idea of language domains is that the reasons for the distribution of two or more languages across domains are left unexplained. A full understanding of a diglossic situation requires an historical analysis of socioeconomic, sociocultural development within geographical areas. That is, by itself diglossia and the concept of the domains are in danger of providing descriptions rather than explanations; a static picture rather than an evolutionary explanation”. Hori guztia kontuan izanik ere aintzakotzat hartu beharko genuke ondoko puntu hau: mintzajardunaren nagusitasun-moldaerak lauzpabost belaualdiz espazio fisiko-territorialean, demografikoan zein soziofuntzionalen aldakatarik ez duela ageri esatea ez da balioespen estatiko-deskriptibo hutsa. Aldaketa (handi)rik eza aldaketa modu bat da, izan ere: 0 aldaketa. Alde horretatik, diglosiaren formulazioa luze-zabaleko mintzaldaketaren azpimultzotzat har liteke.

132. Itzuliz: “Ezagunak ditugun normalkuntza- eta ordezkapen-prozesu gehienek belaualdi askotako (are mendeetako) iraupena ageri ohi dute. Uste izatekoa da, horregatik, laburretsi egin dela formulazio hori (bai irakurleen eta bai, agian, egileen aldetik). Erbeseratzeak edo etnozidioak bakarrik aldatzen dute lurralde bateko hizkuntza-egoera bat-batean. Komunikazio-gizarte modernoaren eta bere baliabide teknikoen bidezko mintzaldaketa azeleratzeko ahalmena ere apenas aldian aldiko behatzaileok antzeman uste izaten dugun bezain bizkorra den”. (I

tzulpena gurea).

133. Jamaicako Kingston University of the West Indies-ko ikasle batek esplikatu zion Haas-i arazoa: “for us, she said, *diglossia stands clearly for an oppressing language situation, to be overcome* for the benefit of the masses. You seem to take the situation you call diglossia for especially egalitarian. It’s not so much the language situations we live in that differ from each other, *it’s the way we think about them*”. (Haas, 2002:109).

134. Zenbaitek, hitzaz ez baliatzeko joera nagusi horren barruan, *ideologia diglosikoaz* hitz egiten du halere diglosiaren jatorrizko azalpen-helburu eta indar nagusia galduz bidean. Zientzia “konbatiboa”, ez “guante zurikoa”, eratu nahirik galdu egin da, nabarmen, “zientziatzeko konbate” rako abstrakzio- eta esplikazio-indar handienetako kontzeptua.

135. Ikus 2008ko bere *Llengua, nació i diglòssia* eta 2010eko “Sociolinguistics and some of its concepts: a historian’s view”. Azken honetakoa da, lagur beharrez, bere ideia nagusiaren muin-azlpena: “As I see it, Ferguson’s (1959) original definition would have been perfect had he not restricted it to the use of one or the other of two distinct varieties of the same language. (...) Ferguson should have contemplated the possible application of the term to the relationship between two unrelated varieties of speech, i.e., two languages or one language and an unrelated (or not-directly related) patois. Worse still, he also went on to add

to his sufficient and succinctly precise definition a whole series of unnecessary additions which lay the concept open to objection on the grounds of its not quite fitting some specific case or another and which consequently led to a whole series of instances of the classical operation of throwing the baby out with the bath water. (This is particularly the case with sociolinguists directly concerned with Catalan, Occitanian, and Swiss German, who, almost to a man or woman, either reject the concept altogether or deny that it properly fits their particular subject (see, for a summary, Boyer 2001: 50-62)), for reasons that are entirely ideological). Then the inevitable followed: along came Fishman (1967) who, on the strength of those objections, proceeded to complicate the whole issue beyond redemption. (2010: 10-1).

136. Ikus, besteak beste, 2007ko bere *Del conflicte lingüístic a l'autogestió: materials per a una sociolingüística de la complexitat*.

137. Ez da Conill, jakina, hutsetik abiatu bere kontzeptu-berrikuste horretan. Emili Boix eta F. Xavier Vila konturaturik zeuden aspalditik (1998: 96-7), Aracil-en gatazka famatuak (eta handik abiatua dugu gure kontzeptua, gustatu zein ez) zerikusi txikia zuela ordezkapen kontuarekin: “la presència d’una segona llengua *substituent* vindria a ser pràcticament secundària per al conflicte; hi hauria conflict en la mesura que hi hagués desajust, no pas en la mesura que hi hagués competència entre llengües (Boix eta Vila, 1998: 96-7 in Conill, 2007: 37).

138. Ez zen Txepetx, diodan argi, Ninyoles-en jarraitzaile estu. Ez naiz bakarria hori dioena. Lehenengoa ere ez. Txepetxen 1974ko artikulua ari delarik, izan ere, horrela dio Rojok (1985: 612): “Este es el caso del lúcido artículo de Sánchez Carrión en el que, entre otras cosas, se muestra le inviabilidad de la concepción de Ninyoles”.

139. Horrek ez du esan nahi, konforme nagoenik bertan ateratzen dituen ondorio guztiekin: bere “diglosia indibidual”aren kontua, aurrerago aipatuko dudanez, desegokia iruditzen zait gauzak argitu nahi baditugu, eta ez lehendik dauden baino korapilatuago utzi. Horrek ez du, ordea, bere azalpen askorekiko adostasuna apurtzen.

140. Ikus Alonso Montero, 1973: 27-36.

141. Maria Jose Azurmendi zor diogu, erabat, atzerriko (Estatu Batuetako, partez Europako) eta, oso bereziki, herrialde katalanetako informazio eguneratu hura. Liburuaren erdal bertsoa, jatorrizkoa, ikus 619-59 or. Egileztaz, berriz, ikus 12. orrialdea.

142. Honela zioen Hudson-ek sarrerakoan: “fourty years after the publication of the late Charles Ferguson’s historic paper on diglossia (Ferguson 1959), a coherent and generally accepted theory of diglossia remains to be formulated” (Hudson, 2002: 48). Hots, berrogei urte horretan ez zela, teoria koherente eta luze-zabal onartu bat osatzeari zegokionez, ezer asko aurreratu. Ustezko motiboa ere ematen zuen Hudson-ek: “In his last major statement on the subject, Ferguson himself was moved to comment on how research over the course of the preceding three decades had failed to adopt a comparative or typological approach to the study of diglossia, having been preoccupied instead with individual case studies focused largely upon the issue of whether a particular language situation was or was not an instance of diglossia (1991: 219) (Hudson, 2002: 48)”.

143. Fishman berehala konturatu zen horretaz. Ez zitzaion, bistan da, proposamena gustatu. Guztiarekin ere bere aldeko puntua ikusten zion, ordea: “Hudson goes beyond Ferguson in recognizing that both genetically related and unrelated codes may stand in a diglossic relationship to one another. From my point of view, this is a considerable and a very welcome loosening of the reins and one which I and a few others have advocated during the past nearly 30 years. Nevertheless, Hudson still considers the genetically related cases as more representative of the truer etiology of diglossia (Fishman, 2002: 94)

144. Horren arabera, azken 40 urtean diglosia gora eta diglosia behera gure artean izan dugun gogoeta-lan osoa aski alferrikakoa izan da: euskara eta erdarak, bistan da, ez daude *genetically related* gaztelanaia eta katalana, edo frantsesa eta okzitania, dauden moduan.

145. Alan Hudson’s monograph is a firm attempt at working out (1) the essential defining criteria of diglossia and (2) the internal relationships between these criteria within the

scope of a coherent theory. As for Ferguson in his time, Hudson's starting point seems to be the personal experience of prototypical diglossic situations and the prescientific conviction that diglossia ought to be distinguished fundamentally from both the more usual standard-with-dialect situation and societal bilingualism. (Haas, 2002: 109).

146. Ikus, adibidez, Don Snow in (2010a) eta in (2010b: 2. oharra).

147. In cases of societal bilingualism, the general tendency appears to be for the higher-prestige language eventually to invade the domain of the home, ultimately displacing the language of lesser prestige as a first language in the community. This diachronic process has been documented in strikingly similar terms for Nahuatl–Spanish language contact by Hill (1983) and for French-Occitan (horiek ez al dira ba genetically related?) language contact by Eckert (1980), but also in innumerable other sources for many other cases throughout the sociolinguistic literatura (...) In diglossic contexts, on the other hand, it is H that tends to be displaced by L through a process of structural convergence resulting in the emergence of a new standard more closely related to certain educated varieties of the vernacular. (Hudson, 2002: 77).

148. Non eta erromantzeak latinaz aparteko hizkuntzat hartu nahi ez ditugun. Orduan, jakina, joera general hori erabat hausten dela esan beharko genuke. Zer sentidu du, funtsezko dikotomia objektiboa izan behar duena apreziazio linguistiko hutsetan oinarritzeak?

149. Ezer gutxitarako balio du asturiera, nafar-aragoiera etab. dialektoak direla, ez gaztelaniatik "behar bezainbat aldentutako" aldaera, esatearekin. Haas-en 2002ko azalpena irakurtzen duenak, Suitzako aleman-hizkera arruntaz eta Alemaniako *Schriftsprache* delakoaz, eta XVIII. mendera arteko gorabeherak xehekiro aztertzen dituenak han eta hemen, nekez ondorioztatuko du halako alde zorrotzik dagoenik kasu batzuen eta besteen artean. Gaurko egoera biak arras diferenteak izateak ez du esan nahi alde hori berezkoa denik eta beti hala izan denik.

150. Are esplikazio zabalagoa eman zuen, Fishman-en irizpidez bat egiten zuela adierazteko. Hona bere hitzak: "What the study of diglossia in its narrowest of senses teaches us is that it is the uncompromising recovery of the vernacular domains of interaction, and most particularly that domain in which L is transmitted directly from generation to generation, that lies at the heart of the process of reversing language shift, just as it lay at the heart of the revernacularization of Hebrew, almost within our own time. In different words, Romaine and Fishman have made the same point here and elsewhere in their criticisms of "top-down" versus "bottom-up" language-planning efforts, and my colleagues and I have taken this stance also with regard to the maintenance of Spanish in the southwestern United States (Hudson et al. 1995: 179 in)".

151. "Benetako diglosia"ren soziogenesia zehazteko nahiak hartaraturik gertatu da nagusiki, antza, Hudson-en Ferguson-ekiko aldentze hori. Era askotara deitu izan zaio zati-banatzeko horri.

152. Kontuan izan behar da, ordea, Fishman-en eredurarekiko desberdintasun hori txikiagoa dela: Ferguson-ek "hainbat mende; baita mila urteko epea ere" esaten zuen lekuan Fishman-ek, Kloss-en irizpide operatiboa harturik gidari, "gutxienez lau belaunaldiko epea" hartzen du patroia. Ondotxo bateragarriagoa da Hudson-en malgutasunarekin Fishman-en irizpide hori, jakina, Ferguson-ena baino.

153. Ikus Kloss 1966 eta 1976. Era askotara deitu izan zaio zati-banatzeko horri. Pawles-ek, adibidez, *interlingual diglossia* eta *intralingual diglossia* deitzen die 1987ko bere lanean. Hudson-en izendapen-bidea, aldiz, ikusi berria dugu.

154. Ikus, adibidez, Fasold.

155. Saiotxo bat egin berria naiz alor horretan, EUSKERA aldizkarian argitaratu berri den artikulu baten azken atalean.

156. Laburturik ematen da esplikazio hori. Formulazio oso-osorako, ikus Hudson in Paulston eta Tucker, 2003: 370-1.

157. Besterik da, jakina, diglosiazko hiztun-talde, hiztun-elkarte edo hiztun-herri bateko pertsonen, guztien edo besteen, diglosia sozial horren ondorioz (ez atributu individual aldaezin gisa) “diglosiko” deitzea. Paristik datozen bidaiariei “paristar” dei geniezaieke, jakina, baina “paristar” hori ez da berezko izaera, atributu individual ezabaezina: aurtengo oporretan Parisa joan direnak Portugalera joan litezke datorren urtean, eta “bidaiari portugesak” dei dakieke orduan, orain “paristar” bezala. Aldiz Paris “paristarra” da berez, ezinbestean, eta Portugal “portugesak”. Hori da aldea.

158. Christina Bratt Paulston-en hitzetan, “the characteristic of diglossia in Ferguson’s and Hudson’s analysis, the strong tendency to stability of a diglossic situation” (Paulston: 2001: 128).

159. “Diglossia typically persists at least several centuries, and evidence in some cases seems to show that it can last well over a thousand years” (Ferguson 1959: 332). Coulmas-entzat ere *stability* da “one of the most remarkable characteristics of diglossia” (117), particularly where “linguistic differences are not aggravated by political or religious differences” (1987: 118).

160. Are handiagoa, diodan bidenabar eta pena handiz, *Soziolinguistika eskuliburuak*, Ferguson-en *diglosia* azaltzerakoan, egin duena. Ingelesezko *stability* hitza itzultzeko, *ezeگونkortasuna* aukeratu du. Askok du onetik liburu horrek, nire ustez. Eredugarria eta ildo-berritzailea ere bada, hainbat aldetatik: baita hizkuntza-ukipenaz ari den kapitulu horretan ere, hasieratik beretik. Doble mingarria da, horrexegatik, hori egin izana. Liburuaren eta bertan parte hartu duten adituen kaltean dator, nire ustez, jakinaren gainean egindako “balentria” hori (ezin dut pentsatu, nahiago banu ere, konturatu gabeko hutsa izan denik: *ikus ezeگونkortasun* terminoaren ondoko azalpena, 155. orrialdean).

161. Egia da hori plano soziologikoan eta egia, orobat, plano linguistikoan. Ez gara ezinbestean mendeen joanean gertatuz doazen aldaketa fonetiko, lexiko-semantiko eta gramatikalez ari: baita gure begien aurre-aurrean gertatzen ari direnez ere baizik. Horrela, Frantzia eta frantes-hizkuntzako Belgika-Suitzetan (Erresuma Batuan bezala) gertatzen ari diren aldaketek honela diote Nigel Armstrong-ek eta Tim Pooley-k: “linguistic variation and change in the major French-speaking countries of Europe - France, Belgium and Switzerland - has in recent times reflected social convergence or ‘levelling’. Linguistic levelling, which results in fewer differences between social and regional accents and diminishes the prestige of the standard language, is seen very clearly in a country like the UK, where social differences are revealed in urban accents, or have been until recently. Levelling reflects social change, and the change of interest here is a sort of informalisation that has accelerated since the 1960s, with stress on the values of youth and the erosion of hierarchies and deference. An in-depth examination of how levelling is proceeding in the francophone area compared to other European countries has until now been lacking. This book provides a detailed account of recent social and linguistic change in European French, drawing on the latest findings”.

162. Bat baino gehiago deskuidatu da horretan. Baita Mackey handia ere, *stability* eta “betiko iraupen mugagabea” zaku berean sartu zituenean: “contrairement aux modèles de Ferguson et de Gumperz, les situations diglossiques ne sont pas stables; elles ont chacune leur dynamique” (1989: 16, in Hudson, 2002: 76). Noski gauzak aldatu egiten direla noizbait, alde batera edo bestera, gizarte-giroaren eragile demografiko, ekonotekniko, soziokultural eta politiko-operatiboen ekimenez. Baina hori beste kontu bat da. Gatozen eguneroko adibide ezagunera. Auto-istripu larria izan duen gaixoa “egoera egonkorrean” egoteak ez du esan nahi azken-azken-azkenean hilko ez denik. Ez eta, bizirik ateratzen bada, istripuaren inolako marka-seinalerik geldituko ez zaionik. Esan nahi duena da, momentuz ez doala okerrera. Hobera ere ez da egiten ari, baina momentuz bizirik da. Hori da funtsezkoa.

163. Oso argi azaldu izan du hori Christina Bratt Paulston-ek: “When languages coexist within a nation-state without the protection of language rights and without functional complementary distribution in a super-subordinate relationship, the norm is shift to the dominant language, although the rate of that shift may vary, as with Gaelic in Scotland

over hundreds of years compared to Swedish in Minnesota over a three-generation shift. But shift is normal, given the absence of internally or externally imposed boundary maintenance. *Shift is not typical of diglossia*". (Paulston, 2002: 130). Bide bertsutik dabil Pauwels: (he has questioned whether) "the stability factor is so crucial to diglossia - since societal changes such as modernisation, urbanisation, the breakdown of rigid class barriers, etc., have made diglossic situations as described by Ferguson (1959) rather rare" (Pauwels 1986: 16).

164. H-ren eta L-ren arteko egonkortasuna apurtzean, beti ez da (*power eta conflict stressing* formulazioek ezinbestekotzat ematen duten moduan) H garaile irteten. Hona zenbait adibide, lehen eta orain: a) Latina (H)/erromantzeak(L) (are latina/hizkuntza germanikoak), Europan Ertaroa amaituz joan ahala; b) (Bretainiako) frantsesa/ingelesa, XIII. eta XIV. mendeetako Ingalaterran; c) *Katarevousa/demotiki*, XX. mendeko (batez ere XX. mendearen bigarren erdialdeko) Grezian; d) aleman-hizkuntzako Suitzian ere, diglosia ahulduz doan neurrian badirudi L (*Schwyzertütsch* delakoa) ari zaiola H-ri (aleman batuari) gailentzen, ez aldrebes. Beste horrenbeste, maila apalagoan ordea, ari da itxuraz herrialde arabiarretan (batzuetan?) gertatzen: "There may have been a change in some of the domains in Arabic and especially Schwyzertütsch toward an increase of the L form" (Paulston, 2001: 128).

165. Diglosia galeraren eskutik dator language shift edo luze-zabaleko mintzaldaketa. Mintzaldaketa hori da, ez diglosia, hizkuntza ahulena galbidera eramaten duena: "When language shift occurs, "the language with stronger rewards and sanctions associated with it wins out". (Fishman 1980: 8, in Hudson-Edwards 1984: 374).

166. Bada, hala ere, ohar jeneral horri ñabardura argia eransten dionik: "For many writers, complementary functional distribution of the codes seems to be the most salient characteristic of diglossia, but clearly that is a situation that also occurs with bilingualism such as in the Maghreb, where French has taken over some of the functions of MSA (Modern Standard Arabic), or in Paraguay with the oft cited case of Spanish-Guarani. Paulston (2001: 132). Nik ez dut hor, bestelakorik zehazten ez den artean, aparteko salbuespenik ikusten, (Fishmanek osorik, Fergusonek partez) aurreikusitako diglosia-egoera bat baizik: aldi berean H eta L ugari dituen konfigurazio multidiglosikoa.

167. Oro har, ez ezinbestean erabat, hitzun guztien ama-hizkuntza.

168. Ferguson-en kasuan, ikus bere hitzok: "diglossia when it is used by a French linguist (Calvet-ez ari da, itxuraz) nowadays always implies the oppression of some lower classes by upper classes and I never even thought of that when I was writing about diglossia" (1998: 83). Oppression of an ethnic minority rather than of a social class may be more accurate because most French writers have used Fishman's definition and have applied diglossia to bi/multilingualism. (Paulston, 2001: 129). Ferguson had not thought of this application of diglossia because he was trying to describe the language situation of one ethnic group, be it Arabic, Greek, or Swiss German. (Paulston: 2002: xx (Paulston: 2002:129).

169. *Diglosia* hitzaren jatorrizko adiera, Greziakoa, konfliktiboa dela gogorarazi izan du zenbaitek: Georg Kremnitz-ek bereziki, gorago ikusi izan dugunez. Kontua ez dago ordea, horrelakoetan, osorik kontatua. Greziako *diglosia* hitzak 1885etik aurrera (ordutik hona, batez ere 1930 ingurura artean) izan du adiera konfliktibo hori. Ez lehenago, bibliografia soziolinguistikoko teknikoak dei genezakeen dokumentu-multzoan. Eta garai horixe da, hain juxtu, Greziak diglosiko izateari uzten hasitako garaia. Konfliktibotasuna, berriro ere, *diglosia galtzarekin* edo *diglosiarik gabe gelditzearekin* loturik ageri da hor, ez diglosiarekin *per se*, Kremnitz-ek dioena dioela ere. Hori da behin eta berriro ahazten zaiguna eta, zientzia-arauzko hizkuntza-soziologia eraiki nahi badugu, inola ere alboratu ezin duguna.

170. Lehenengo galderari emana diogu gorago, Fishman-en formulazioa harturik oinarri, erantzun argia. Gure artean guztiek Fishman-en formulazioa onartuko ez dutelakoan, perspektiba zabalagotik abiatuz hortaz, honela ateratzen zaizkit kontuak. Funtsean leku berera iristen naiz, halere, ezinbestean.

171. Tartean jatorrizkoek, Ferguson-en eta Fishman-en garaitik honakoek, soziolinguistika katalanek eta egungo eguneko definizio-saio berrituek (adibidez Hudson-en proposamen kontzeptualek) eta soziolinguistika-tratatu nagusiek, mundu zabalean zirkulazio eta harrera ukazina dutenek (ikus, adibidez, hirugarren argitaraldian doan Janet Holmes-en *An Introduction to Sociolinguistics* famatua).

172. Zer indar eta zer pisu du gure artean, ondoko euskaldun-talde honek? Ez dut uste %5era iristen denik. Ez behintzat, inola ere, %10era.

173. Arnasguneen kontua eta beren zentraltasuna behin baino gehiagotan azaldu dut, azken hamar bat urtean, hitzez eta idatziz. Orain ez dugu zehaztasun horietan murgil egingo, luze joko liguke-eta: goiko azalpentxo horrekin jakindakotzat emango dugu, oraingoan, arnasguneak zer diren.

174. Ez naiz horren balantze-modukoa egin zaharra. Ikus EUSKERA 2007ko nire artikulua eta ikus, bereziki, orduko lana eskura-errazago jartzeko asmoz atera berria den liburua, Euskararen Erabilera Normaltzeko Legearen 25. mendeurrenaren ildotik idatzitakoa (Zalbide, 2011).

175. Hemen ez gara, berritri esan, “euskara batu / euskalki” analiziaz ari.

176. Gotzon Garateren esaldia, “Diglosia galgarrian bizi gara” delakoa, alde bietarik da okerra: euskararen galgarria ez delako diglosia, batetik; euskaldun gehienok ez garelako diglosian bizi, bestetik.

177. *Language shift* eta *substitució* gauza bera dira funtsean: mila ñabardura erants litezke hor, egia da, baina gauza bera deskribatzen dute batak zein besteak: hizkuntza bat (kontestualki ahula) hiztun aktiborik eta hizkuntza horretan diharduen harreman-sare belaunez belautan transmitigarrik gabe gelditzea, munduko lau izkinetan ehunka eta milaka aldiz gertatu eta gertatzen ari dena. Zailagoa da, aldiz, *language maintenance*-ren eta *normalització*-ren arteko lotura (are zailagoa bien arteko baliokidetzat hertsia) defendatzea. Fenomeno zabalagoa da *maintenance*, bistan da, *normalització* baino. Edo, beste era batera esanik, zorrotz-esijentzagoa da *normalització* kontzeptua, bere jatorrizko (ez egungo egunean eskuarki darabilgun) adiera paradigmaticoan. Berreskurapen demolinguistiko, soziofuntzional (eta, bidenabar, territorial) osoa du Aracil-en, Vallverdú-ren eta Ninyoles-en jatorrizko formulazio kontzeptualak helburu. Hori baino ondotoz gutxiagorekin konformatzen da *maintenance* kontzeptua: hiztun-talde edo hiztun-elkarte batek lehiakide handia bera baino nabarmenki indartsuagoa izanik aurrez aurre, harkiko interakzio-baldintza nekagarrietan bizirik irautea du *maintenance*-k bere gutxieneko listoa. Dagoenari eustearekin konformatzen da, goragoko ametsei aterik ixten ez badie ere inoiz. Hortik gora, oso gora, jartzen du *normalització* delakoak gutxienezko listoa: “tarta” demolinguistiko eta soziofuntzional osoa ordura arte mirabe izandakoari eskaini nahi dio, ordura arte nagusi izandakoa tartarik gabe uztea hartuz azken helburu implizitu edo esplizitu. *RLS* edo *HINBE*ren erabateko goi-erpin da, alde horretatik, *normalització* delakoa. Eta *RLS* edo *HINBE* delakoa *language maintenance*-ren azpimultzotzat (azpimultzo anbiziosoentzat) hartzen bada, bata (*normalització*) bestean (*maintenance*-n) subsumiturik dagoela (bata bestearen azpimultzo dela) esan liteke. Alde horretatik *normalització* eta *maintenance* ez dira baliokide huts, urrundik ere, baina bi mundu erabat berezi ere ez.

178. Zehaztapan handiagotarako ikus Zalbide, Hiriart Urruti 2009.

179. Oso kontuan hartu behar da hori: ondoko formulek ez dute interakzioa gertatzen hasi eta handik berehalako eogera azaltzen, hiru belaunaldi baino gehiago pasa ondoko egoera baizik.

180. Ikus, bereziki, Joshua A. Fishman-en “Language Maintenance and Ethnicity” in *The Rise and Fall of the Ethnic Revival* (1985: 57-76).

181. Kontzeptu horien azalpenerako ikus, bereziki, Fishman et al. 1985.

182. Gauza jakina da hori: argi dokumentatua dago orain gutxira arte, gutxienez Lope de Isastiren testigantzatik hasita.

183. Bigarren pauso hori ez dago ordea, dakidalarik, gure bibliografia teknikoan sakon arakaturik eta argi azalduz: ez alde eta ez kontra. Inferentzia bidezko ondorioetara mugaturik gaude beraz oraingoz, bigarren puntu horretan.
184. Berrikitan azaldu da hedabideetan, XX. mendearen hasierako pasadizoa. Itsasontzi batean hainbat euskaldun joan zirelarik Ameriketara, New York-en atxiloturik egon ziren hainbat egunez beraien artean inork erdaraz ez zekiela eta, era guztietako itzultzaile posibleen bila ibili ziren arren, bertako mugazainek beraiekin zer egin ez zekitelako.
185. "Hizkuntzaz gailentze" hori inoiz gutxitan izaten da zeharo beregain eta apartekoa, plano demografikoan, ekonoteknikoan, soziokulturalean edota politiko-operatiboan gertatu ohi diren transformazioetatik zeharo apartekoa, inolako loturarik gabea. Eskuz eskuz joan ohi dira aitzitik, sarri, transformazio horiek gorpuztea eta kanpotik etortzako hizkuntza gailentzea.
186. Aurreko galera aipamenik eta inferentziazko ondorio argirik ez da, noski, falta. Ongi zehaztu gabe dauzkaun neurrian aipamen hutsean utziko ditugu ordea, gaurkoan, aurreko mendeetako mintzaldatzekasurak.
187. Ikus Arturo Campion-en *El último tamborilero de Erraondo* (1918) in 1983:79-89.
188. Halakoa izana dugu, hainbat daturen arabera, XIII. mendera arteko Iruña. Baita Nafarroako beste hainbat hiribildu ere, Tuterana barne.
189. Ez da hori, *per se*, inolako gaitzespen: arrazoi asko daude, ikuspegi zientifikoa hutsetik ere, kalte-hipoteka horiek gogoan izateko. Batak ez du bestea kentzen. Bata eta bestea ez dira, ordea, gauza bera.
190. Bistan da hibridazio horrek izaera, neurri eta zabalera diferenteak har ditzakeela une eta leku jakinetan: ondorio-emaitez ere diferenteak izan ohi dira: cf. behinolako *lingua franca*-k, H. Kloss-en *Halbsprache* eta H. Schuchhardt-en *Handelsprache* direlakoak,..). Hizkera hibrido berria egonkortzea eta etxekotzea lortu izanaren ala ez izanaren arabera ere bereizkuntza nabarmenak ditu linguogenesi horrek berarekin: cf. *pidgin* eta *creole*.
191. Gauza bat dute Humboldt-en eta gainerakoen prognosiek, oro har, amankomunean: prognosigileek uste baino iraupen-ahalmen handiagoa erakutsi du oro har, 1800etik honako galera, transformazio eta hondamendi ukazinen artean, euskal konstelazio etnolinguitikoak. Norabidean erdiz erdi asmatu izan dute prognosigile gehienek, ordea.
192. Beste atzerri-hizkuntzen presentzia une batez alde batera utziko dugu hemendik aurrerako kontu-ateratzean, lana erraztearren. Jakin badakigu, erdara bakarreko eszenario hori ez dela probablea. Oraingoz horrela jokatuko dugu, ordea, erosotasunaren mesedetan.
193. Demagun Zazpi Probintzietan: iparralde ia osoan eta hegoaldeko zonalde euskaldun tradizionalen (ez Tafallatik behera, Errioxa gehienez eta Enkarterrietan).
194. Arnasguneak ez dira *ghettoak*, urrundik ere: kaletar-jendea bezain modernizaturik dago bertako jendea, batez ere 40 bat urtetik beherakoa; are gehiago, askotan, guk baino mintzoera-sorta aberatsagoaz horniturik dago. Mintzoera-sorta hori ez daude arnagunetarrak abandonatzeko prest: *plus*-a dute hori, ez *minus*-a.
195. Bi milatik gorakoak ere bai: Kristo aurreko bostehun urteetako Israelgo egoera, hebraiera zaharra, arameoa eta grekera (gehi, gero, latina) izanik mintzalagun, diglosiaren perspektiban kokatu izan da azken urteotan, behin baino gehiagotan. Ikus, adibidez, Bernard Spolsky 1991.
196. Arabiar diglosiaren bibliografia zabalaz gainera ikus, kasu honetan, S. C. Caton-en "Diglossia in North Yemen: a Case of Competing Linguistic Communities"
197. Ikus, adibidez, Don Snow-en 2010eko "Diglossia in East Asia" eta, bereziki, urte bereko "Hong Kong and modern diglossia".
198. Ez nago ni hain-hain seguru, bere azalpenen argitan, benetako diglosia den hor azaltzen ari dena: bera da ordea, ez ni, hango gizartearen ezagutzaile.
199. Ikus txosten honetan, 3.1.5 puntuko f pasartearen, Joshua A. Fishman-en eta Alan Hudson-en eskutik egiten den gogoeta.

200. Esan dezagun, bide batez, Israelgo estatua sortu aurretik (ez ondoren) gertatu zela prozesu hori bere neurri nagusian.

201. Beste horrenbeste gertatzen da dietniarekin (gaur ez gara, halere, gai horretan sartuko): “As diglossia is the societal counterpart of individual bilingualism, diethnia is the stable, societal counterpart to individual biculturalism. Diethnia requires societal compartmentalization as well as institutionally protected functional specificity. Maintenance of this division is difficult, given modern, interactive, mobile, and individualistic urban industrial conditions. (...) “Minorities that do not control econotechnical and political boundaries of their own are particularly dependent on ethnocultural and ethnolinguistic boundary maintenance arrangements in order to secure their intergenerational continuity within a larger context of ongoing change”. (Fishman, 1985: 51-2).

202. Honela dio Fishman-ek: “not only is the “enemy” not recognised, but he/she is even *persona grata* within the very gates of the beleaguered defenders (“We have met the enemy, and he is us!”). (...) Most RLSers are not by any means aiming at a “return to the golden past”, when the interaction between peoples was minimal and, therefore, when local differences could be easily maintained. On the contrary; they generally aim at nothing more than to achieve greater self-regulation over the process of sociocultural change which globalisation fosters”. (Fishman, 2001).

203. Honela dio Fishman-ek: “globalisation is both a constructive and a destructive phenomenon, both a unifying and a divisive one, and it is definitely not a culturally neutral or impartial one. In our day and age, it is definitely the globalisation of pan-Western culture (and pop-consumer culture in particular) that is the motor of language shift”. (Fishman, 2001: 6).

204. Eskuartean dugun beste txosten batean helduko diogu, osasuna lagun, arnaguneen gai horri.

205. Euskarazko euskal nortasuna desio dutenek izan behar dute HINBE-ekimen gehienek gidaritze-ardura. Horrek berak, jakina, konpartimentatzea eskatzen du.

206. Honela dio Fishman-ek: “Primarily, school language efforts are often not linked to home-family-neighbourhood-community functions. Threatened languages cannot afford functionally diffuse or free-floating efforts”. (Fishman, 2001: 13-14).

207. Ikus Zalbide 2002, azken kapitulua. Azken kapitulu horretaz baliatuko naiz, partez, txosten honi amaiera emateko.

208. Liburu horrek aski adierazgarria du izenburua bera: *Can threatened languages be saved?* Iritsi garen debildade-puntura iritsi garelarik, *iya guriak egin duen* honetan, gure gaitzak zer sendabide duen galdetu ordez inolako erremediorik ba ote duen: hori da lehenengo-lehenengo galdera. Galdera etsia, noski, baina funtsezkoa ere bai.

209. “A continuing ethnohumanistic, ethnoreligious and ethnocultural constellation of beliefs, behaviours and attitudes. Only such a constellation will ultimately provide a rationale going beyond the economies of scale inherent in the materialist view of those who have essentially concluded that ‘if you can’t beat them, join them’. It is only the conviction that one’s own language-in-culture is crucially different and, therefore, worth sacrificing for (“vive la difference!”) that makes RLS worthwhile, though in the great majority of cases it means embarking on a carefully multilingual and multicultural existence for the foreseeable future. Although this may be considered a defeat by some RLSers, there is also good reason to consider it an honourable, enriching and constructive solution to the multiple ethnocultural identities which most modern human societies and individuals are increasingly destined to enact as an inevitable consequence of the complexity of ongoing globalisation”. (Fishman, 2001: 17).